

Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa
Busturia (1937-1945): El primer franquismo

Xabier Herrero Acosta





Busturiko Udala

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



Lankidetzan

Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa
Busturia (1937-1945): El primer franquismo

Xabier Herrero Acosta



Azaleko argakia / Procedencia de la fotografía de cubierta:

Busturiko Udala / Ayuntamiento de Busturia

Herrero Acosta, Xabier

Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa = Busturia (1937-1945): El primer franquismo / Xabier Herrero Acosta [itzulpena gazteleratik euskarara Lidia Jiménez Galván]. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2019.

385 or. : ir. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 67)

ISBN: 978-84-8419-292-3

I. Herrero Acosta, Xabier II. Bilduma III - Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Busturiko Udalak liburuaren egileari bere lana eskertzen diote, liburuan azaltzen diren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte; horrek, ez duen esan nahi bere gain hartzen dituztela.

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Busturia muestran su agradecimiento al autor de este volumen, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que las asuman.

ISBN: 978-84-8419-292-3

L. G.: SS 1020-2019

Fotocomposición, impresión y encuadernación: Michelena artes gráficas. Astigarraga (Gipuzkoa)

BUSTURIA (1937-1945): LEHEN FRANKISMOA

1. <i>HILABETE GUTXIRAKO IZANGO ZEN?:</i> ERBESTEALDIAK JARRAITZEN DU	15
2. UDAL- ETA PROBINTZIA-ADMINISTRAZIO FRANKISTA: IKERKETA, ZIGORRA ETA BERRITZEA	23
2.1. Batzorde kudeatzaitetik udalera	23
2.2. Langile administrari, teknikari eta menpekoen garbiketa	26
2.3. Udalaren berritzea	33
2.4. Probintzia-langileen garbiketa	37
3. <i>EL FLORIDO PENSIL:</i> HEZKUNTZA ETA LEHEN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN GARBIKETA	41
4. ATXILOTU, SAILKATU, GARBITU, ZIGORTU ETA KONTROLATU	52
4.1. <i>Penala</i>	52
4.1.1. Lehen atxiloketak, epaiketak, zigorrak, giltzapetzea eta heriotza	52
4.1.2. Bizkaiko Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzietatik Erantzukizun Politikoen Legera	79
4.1.3. Artxibo bat denak kontrolatzeko: Dokumentu Zerbitzuen Ordezkaritza Nazionala	86
4.1.4. Kausa orokorra	89
4.2. <i>Estrapenala</i>	90
4.2.1. Espainiako kontzentrazio-esparruak	90
4.2.2. <i>Soldadu</i> izatetik <i>esklabo</i> izatera: Langileen Batailoiak, Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoiak eta Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko Batailoiak	94
4.2.3. Ikuskatu gabeko errepresio ekonomikoa	101

5. GOSEAREN <i>ERRAZIONAMENDUA</i> , BERRIZ ERE	103
6. <i>GURUTZADATIK NAZIONAL-KATOLIZISMORA</i>	106
7. FRANKISMOAK MOBILIZATUTAKO PERTSONAK	111
7.1. Emakumearen Gizarte Zerbitzua	112
8. “GUREAK” FRONTEAN ETA OROITZAPENEAN: ERREPRESIO SINBOLIKOA, IDEOLOGIKOA ETA GERRA ZIBILAREN MEMORIAREN ERAIKUNTZA GERRA GARAIAN ETA LEHEN FRANKISMOAN	114
9. BUSTURIATIK DEUSEZTATZE-ESPARRURA: ÁNGEL LECUONA BEITIA	121
10. ONDORIOAK	125
Laburdurak eta siglak	133
Bibliografia, artxiiboak, baliabide elektronikoak	135
Oroitzapenaren izenak	139
Eranskinak	173

Busturiari buruzko ikerketa honen helburu nagusia da erregimen diktatoriala ezarri zen bitartean biztanleriaren aurka erabili zen errepresioaren azterketa, arreta berezia jarrita errepresaliatuen izen propioei. Lan honek, gainera, herrian frankismoaren lehen epealdi honi estuki lotutako beste alderdi batzuk aztertzen ditu, erbestea, nazional-katolizismoa, arrazionamendua edo biztanleriaren mobilizazioa matxinatutako ejerzitoan edo izaera totalitarioko taldeetan, besteak beste.

Giltza-Hitzak: Tokian tokiko historia. Busturia. Busturialdea. Francoren diktadura. Errepresioa.

Este estudio sobre Busturia tiene como objetivo principal el análisis de la represión ejercida contra la población durante la implantación del régimen dictatorial, prestando especial atención a los nombres propios de los represaliados. Este trabajo también analiza otros aspectos sociales estrechamente ligados a la primera etapa del primer franquismo en el municipio como el exilio, el nacional-catolicismo, el racionamiento o la movilización de la población en el ejército rebelde o en grupos de corte totalitario.

Palabras Clave: Historia local. Busturia, Busturialdea. Dictadura de Franco. Represión.

Cette étude sur Busturia a pour objectif principal d'analyser la répression exercée sur la population sous le régime dictatorial, en accordant une attention particulière aux noms propres des victimes des représailles. Ce travail analyse également d'autres aspects sociaux étroitement liés à la première étape du premier franquisme dans la commune, tels que l'exil, le national-catholicisme, le rationnement et l'enrôlement de la population dans l'armée rebelle ou dans des groupes d'idéologie totalitaire.

Mots-Clés : Histoire locale. Busturia. Busturialdea. Dictature de Franco. Répression.

Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa

Xabier Herrero Acosta



1. HILABETE GUTXIRAKO IZANGO ZEN?: ERBESTEALDIK JARRAITZEN DU

Katalunia erori zenean, 1939ko urtarrilaren 27an eraso matxinoa bukatuta, Espainia errepublikanoko erbesteratu asko Frantzia sartzen ziren Le Boulou, Bourg Madame, Le Perthus eta abarretik, bai eta Afrikako kolonia galiarretan sartu ere. Daniel Oleaga Aranguren Frantzia sartu zen 1939ko martxoaren 6an; Hermeregildo Gandarias Albizua Nouvelle-ko portura (Ekialdeko Pirinioak) heldu zen Puerto de la Selvatik (Girona) irten ondoren 1939ko urtarrilaren 25ean; Ignacio María Ugalde Ugalde Frantziara igaro zen Junqueratik 1939ko otsailaren 10ean eta Amadeo Uribe Asteinsa *Tramontana* itsasontzian iritsi zen Oráneko kolonia aljeriarrera 1939ko martxoan¹. Pertsona hauek agintari frantsesek hurrengo hilabetetan hartu beharko zituzten erbesteratu ugarien adibideak dira. Hala ere, agintari frantsesek honela egin zieten harrera:

“Se desarmó a los soldados a menudo con palabras y gestos de desprecio. Se multiplicaron las vejaciones, los controles. No se hizo nada para que las familias se reuniesen. Y se terminó por organizar verdaderos campos de prisioneros” (Villegas, 1989).

Modu honetan, gizakien askatasunen eta eskubideen lurraldeak gizonak kontzentrazio-esparruetan sartzen hasi zen, emakumeak eta haurrak Frantzia osoan zehar sakanatutako babes-etxeetara joaten ziren bitartean. Ez gintuzke harritu behar harrera horrek kontuan hartzen badugu Frantziako muga denbora batez itxita egon zela. Frantziako agintariek ezer zuten ezer jakin nahi errefuxiatuei buruz. Gainera, Frantzia 1938ko apirilaren 14koa bezalako hainbat dekretu eta zirkular aldarrikatu ziren:

“llevar una acción metódica, enérgica y rápida para librar a nuestro país de elementos extranjeros indeseables que circulan y obran despreciando las leyes y reglamentos o que intervienen de manera inadmisibile en querellas o conflictos políticos y sociales que solo nos conciernen a nosotros”.

Honen atzean 1938ko maiatzaren 14koa bezala etorriko ziren, Frantziara modu irregularran iristen ziren atzerriko pertsonentzat isunak eta espetxe-zigorak egongo zirela aldarrikatzen zuena, edo 1938ko azaroaren 12koa, zeinean egoitza esleipena barneratzeko zentroen irekierarekin osatu zen. (Chueca, 2007). Kataluniako mugan inprobisatutako barneratzeko zentroak inolako ordenarik gabe kontzentratutako erbesteratuez bete ziren: soldaduak, zibilak, adinekoak, zaurituak, elbarriak, alderdi edo sindikatuen oinarritzko militanteak... (Goigana eta Arrien, 2006).

Kontzentrazio-esparru garrantzitsuenak kostaldekoak izan ziren arren, Argeles-sur-Mer eta Saint Cyprien hareatzetara heldu ziren Euzko Jaurilaritzak muga katalanean errefuxiatuak hartzeko eta banatzeko bulegora joateko aukera izan ez zuten euskaldun guztiak. Bulego hau 1939ko urtarrilaren amaieran hasi zen lanean eta Kataluniatik heltzen

1. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2053. kutxa. 103730. txosena.; Bizkaia 128-37; 171/1940 Ontzien Txos. Ontziak 414-41; Ontziak 0-40.

ziren errefuxiatuei harrera egin. Gero kontzentrazio-esparruetan zeuden euskaldunekin lan egiten jarraitu zuen, Perpignan-etik, eta aurerago Oloron-etik, Gursen barneratutako euskaldunetz arduratzeko (Goigana eta Arrien, 2002). Hala ere, euskaldunak ia esparru guztietan egon ziren, eta 15 baino gehiago izan ziren Frantziako hegoaldeetik eta Afrikako iparraldetik sakabanatuta. Euskaldunak izan zituzten barneratzeko zentroen adibide bezala hurrengoak ditugu: Saint Cyprien, Les Harras, Argeles-sur-Mer, Prat de Mollo, Champs de Mars, Saint Laurent de Cerdans, Ales-Sur-Tech, Bram, Caserne de Beziers, Montolieu, Le Tour de Carol, Le Boulou, Port Vendres, Barcares, Bourg Madame edo Gurs².

Giltzapetzeko esparru hauetan errefuxiatuak sartzen ziren mugatik zuzenean eramaten zituztelako edo Frantziako hegoaldean poliziak egiten zituen etengabeko sarekaden bidez. Kontzentrazio-esparruen baldintzak lehen egunetan eta asteetan negargarriak izan ziren. Pilaketak, hotza, gabeziak eta guardia zorrotzak esparru guztien elementu komunak ziren. Barrakoieta babesten ziren, eta kontzentrazio-esparru askok ez zuten txorrotako urik, laguntza medikorik, janaririk edo higiene-baliabiderik. Zerua sabai bezala izanik, alanbre-hesi batek banatzen zituen barneratutakoak eta kanpoaldea (Goigana eta Arrien, 2006). 1939ko martxoaren erdialdean, Robert Capa argazkilaria Argeles sur Mer bisitatu zuen eta honela deskribatu zuen:

“un infierno sobre la arena: los hombres allí sobreviven bajo tiendas de fortuna y chozas de paja que ofrecen una miserable protección contra la arena y el viento. Para coronar todo ello, no hay agua potable, sino el agua salobre extraída de agujeros cavados en la arena” (Hainbat egile, 2013).

Kontzentrazio-esparru hauetan egon ziren busturiarrei dagokienez, Hermeregildo Gandarias Albizua (34 urte), Silvestre Izaguirre Arróspide (29 urte) eta Isidro Retolaza Uriarte (31 urte) ditugu, adibidez³. Denak Montolieu Aude-ko kontzentrazio-esparruan barneratuta egon ziren. Esparru honetan euskal kostaldeko herrietako eta Bizkaiko hiriburuko euskaldun ugari egon ziren. Antonio Uriaguereka Araluzearen kasua topatu dugu ere, ELAko afiliatua eta Udaleko kidea, eta dagoeneko aipatu duguna Busturiaren ebakuazioari buruz hitz egin dugunean. Le Boulou esparruan barneratuta egon zen⁴. Barneratutakoen beste adibide batzuk, baina kasu honetan Saint Cyprien-eko esparruan, Isidro Retolaza Uriarte (31 urte) eta Silvestre Izaguirre Arróspide izan ziren, biak errefuxiatu bezala aipatuak Montolieu-ko kontzentrazio-esparruan, eta EAJ-ELAko afiliatuak⁵.

Dena den, euskal agintariek ahalegin guztiak egin zituzten barneratutako guztiak esparru bakarrean egon zitezen. Modu honetan Leonardo Salazarrek euskal errefuxiatuen errolda eta estatistika lanak egin zituen ordezkarien bidez. 1939ko otsailaren 13an, Telésforo

2. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Idazkaritza Orokorra. Zerrendak. 432. karpeta. 03; 04. txostena.

3. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Idazkaritza Orokorra. 432. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

4. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Idazkaritza Orokorra. 432. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

5. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Idazkaritza Orokorra. 432. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

Monzónek⁶ Argeles sur Mer-eko komandantearekin negoziatzea lortu zuen euskal herri-tarrentzat mugatutako eremu bat, "Gernika Berri" izenekoa. Euskal agintariak euskal eremua egokitzeaz arduratu ziren Gurs-eko esparrua eraiki bitartean. Hierarkia militarrekin antolatutako gizonak polizia, suhiltzaileak, saneamendu atala eta ile-apaindegia izatera heldu ziren. Abantaila hauek izan arren (barrakoiak, erizaindegia, intendentzia, sukaldeak, ofizialentzako jantokiak, bainugelak, dutexak eta komunak), zelaian bizitza estua zen (Goigana eta Arrien, 2002; Chueca, 2007). Kontzentrazio-esparru ospe-tsu honetan egon ziren busturiarren artean hurrengoak zeuden: Román Orbe Calzada (25 urte), Antonio Uriaguereca Aralucea, Tomás Uriarte Bilbao, Francisco Zabala Madariaga, Isidro Retolaza Uriarte, Ángel Lecuona Beitia, Marcos Retana Aurrecochea, Daniel Oleaga Aranguren, Hermeregildo Gandarias Albizua, Victoriano Llona Elguezábal, José Iturbe Elorrio edo *Batallón Alpino* unitateko Ramón Aizpurua Corta soldadua (48 urte), azken hau Ezker Errepublikanoko afiliatua zena⁷.

Aipatutako Gurs-eko esparrua 1939ko martxoaren erdialdera eraikitzen hasi zen izen bereko herri bearnotarrean. Frantziako hainbat esparrutan sakabanatuta zeuden eus-kaldun guztiak hartuko zituen esparru bat eraikitzearen ideia Euzko Jaurilaritzako Herrizaintza kontseilaria zen Telésforo Monzónen eta 16. Eskualde militar frantsesaren buruzagia zen Fagalde jeneralaren arteko elkarriketatik sortu zen. Egurrezko etxolak eta txarrantxa kontzentrazio-esparruaren paisaiaren parte ziren, Leonardo Salazarrek espa-rruari buruzko txosten batean adierazten zuen bezala: "*La impresión que produce la vista general del campamento es de un gran pueblo de casas de madera*" (Goigana eta Arrien, 2006). Kontzentrazio-esparrua hainbat uhartetxotan banatu zen, eta hauetan etxolak, komunak, bainu-gelak, arroparako latsarriak, iturri publikoak eta dutexak zeuden. Osasun zerbitzua ere bazuten. Euzko Jaurilaritzak erbestealdian ahaleginak egin arren, kontzentrazio-esparruak uhartetxoaren arteko mugimendua mugatu zuen denbora batez; elikadura eskasa izan zen kantitateari dagokionez; erizaindegiek ez zuten materialik eta higiena urria zen (Chueca, 2007; Goigana eta Arrien, 2006). Tomás Uriarte Bilbao, Ramón Aizpurua Corta (PCE), Román Orbe Calzada, José Iturbe Elorrio eta Francisco Zabala Madariaga busturiarrak, aurretik Argeles sur Mer-eko esparruan kontzentratuta zeudenak, Gurs-eko barneratzeko esparrura iritsi ziren.

Bigarren Mundu Gerra heldu zenean Frantzian kontzentratuta zeuden espainiarrak lan-gile merke bihurtu ziren. Victoriano Llona Elguezabalek horrela gogoratzen du:

"posteriormente al entrar en guerra Francia les sacaron del campo de concentración y les tuvieron trabajando en la tala de pinos no dándoles más jornal que la comida y como un soldado, hasta que en el mes de Marzo de mil novecientos cuarenta y dos y por los medios que les facilitó el Cónsul de España en Marsella pudo regresar a la España Nacional"⁸.

6. Telesforo Monzón Ortiz de Urruela (Bergara, 1904ko abenduak 1 - Baiona, 1981eko martxoak 9) EAJko agintari historiko bat izan zen II. Errepublikan eta Gerra Zibilean. Euzko Jaurilaritza eratu zenean Herrizaintza Saileko kontseilari izendatu zuten. Gerra ostean berrogei urte baino gehiago erbesteratua egotera behartuta egon zen. Euskal Herrira itzuli zenean euskal nazionalismoaren pertsona errefe-rente bihurtu zen eta Herri Batasuneko fundatzaileetako bat izan zen.

7. EAH-AHE. Euzko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Idazkaritza Oro-korra. 432. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

8. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3365/45 kausa.

Pedro Arronategui Izaguirreren alabak, Lourdes Arronategui Uriartek, hurrengoa kontatzen du bere aitak Frantzian pasatu zuen erbestealdiari buruz:

“Nuestro padre cuando los nacionales tomaron Euskadi pasó la frontera, debió de estar como en batallones de trabajo, a los refugiados a veces parece que les llevaban a empresas, a obras, a granjas, mi padre debió estar en una granja francesa de allí cuando estalló la Guerra Mundial y los nazis tomaron Francia” (Egizábal eta Serrano, 2017: 355).

Frantziako kontzentrazio-esparruetan erbestealdian aurkitutako busturriarren zerrenda

Abizenak, Izena	Kontzentrazio-esparrua
Aizpurua Corta, Ramón	Argeles sur Mer, Gurs
Gandarias Albizua, Hermeregildo	Montolieu Aude, Saint Cyprien, Gurs
Iturbe Elorrio, José	Argeles sur Mer, Gurs
Izaguirre Arróspide, Silvestre	Montolieu Aude, Saint Cyprien
Lecuona Beitia, Ángel	Gurs
Llona Elguezábal, Victoriano	Gurs
Oleaga Aranguren, Daniel	Gurs
Orbe Calzada, Román	Argeles sur Mer, Gurs
Retana Aurrecoechea, Marcos	Gurs
Retolaza Uriarte, Isidro	Montolieu Aude, Saint Cyprien, Gurs
Ugalde Ugalde, Ignacio María	Arles sur Tech, Gurs
Uriarte Bilbao, Tomás	Argeles sur Mer, Gurs
Uriaguereca Araluzea, Antonio	Le Boulou, Argeles sur Mer
Uribe Asteinza, Amadeo	
Uribe Asteinza, Francisco	Argeles sur Mer
Zabala Madariaga, Francisco	Argeles sur Mer, Gurs

(Iturria: AIMN; AHE-EAH; AGMG; EAA).

40ko hamarkadaren lehen urteetan, Bigarren Mundu Gerra hasita eta Frantzia naziek okupatuta, erbesteratu politiko errepublikano asko Espainia frankistara itzultzen hasi ziren. Adibidez, Ana Cearreta auzotarrak honakoa kontatzen du:

“Cuando estábamos en Francia, allí también nos mandaron evacuar, que teníamos que irnos; pero los que nos acogieron nos decían: —“Vosotros prepararéis las maletas, pero no os vayáis. En España no tenéis nada, ni para comer”. Así hasta dos veces no hicimos caso al aviso del Gobierno; pero la tercera vez ya nos dijeron. —“Aquí también llega la guerra” estábamos cerca de Normandía “y es mejor que abandonéis Francia”. Y así, en tren, llegamos a Irun, a la frontera” (Egizábal eta Serrano, 2017: 184).

Beste kasu ezagunak hauek dira: Enrique Ugalde Ormaechea, 1939ko irailean Irundik itzuli zena; Ignacio María Ugalde Ugalde, Irungo mugatik ere iritsi zena 1939ko

urriaren 4an; Daniel Oleaga Aranguren, Figuerasetik itzuli zena 1940ko uztailearen 15ean; Victoriano Llona Elguezábal, 1942ko martxoan itzuli zena eta, bi hilabete geroago, Tomás Uriarte Bilbao, 1942ko maiatzaren 13an itzuli zena, Iparralden erbeste-teratu eta Ziburun behin-behineko moduz bizi izan ondoren⁹. Erbestealditik herrira itzul-teea ez zen gauza erraza izan: erbeste-teratuek hizkuntza aldatetara, elikagaien eskasiara eta euren jabetzen lapurreta edo narriadurara ohitu behar izan zuten. Adibidez, Ana Cearreta auzotarrak adierazten du:

“Cuando llegamos de Francia ya tenía (su padre) un arcón de madera preparado con harina de maíz y de trigo... pero a mí el talo no me gustó, acostumbrada a aquellos panes blancos de Francia. Yo cuando llegué no sabía ya euskara, castellano no sabía y aprendí francés. Al principio no me entendía nuestro padre” (Egizábal eta Serrano, 2017: 185).

Herrira itzultzeari dagokionez, Jesús Larrabáster auzotarrak hurrengo dio:

“La vuelta fue dura, habíamos perdido todo; el caserío en ruinas, todo nuestro ganado, ovejas, vacas, etc. desapareció. Los soldados nos las quitaron (...). Yo ya no volvería a la escuela, trabajar y trabajar levantando el caserío...” (Egizábal eta Serrano, 2017: 185).

Hala ere, 40ko hamarkadan ongi saturta, ikus daiteke nola Busturiko hainbat erbeste-ratuk Frantzia segitzen zuen Gerra Zibila bukatu ostean. Pedro Arronategui Izaguirrerren kasua izan zen. Ezkondua, bankuko langilea, Muruetan jaioa eta Busturian ohiko egoitza zuena gerra baino lehen, gaixotasun batek hil zuen Frantzia Maurrin bizi zenean zuenean. Maurri Frantziako herri eta komuna bat da, Akitaniako eskualdeko Landetako departamenduan kokatuta dagoena. Bere alabak, Lourdes Arronategui Uriartek, hurrengo azaltzen du bere aitaren heriotzari buruz:

“Le arrestarían y le internaron en un centro para personas con tuberculosis, y debido a estar enfermo logró salir de allí. La familia con la que estuvo debió cogerle cariño y le escondió, pero moriría enfermo. Allí está enterrado en el Bearn francés... Nos quedamos únicamente mi madre, mi abuela y yo” (Egizábal eta Serrano, 2017: 355).

Ez zen erbestealdian hil zen busturiar bakarra, Sabino Arana Fundazioko Eduardo Jáureguik emandako zerrenda baten arabera beste busturiar bat hil zelako erbestealdian, Lemona abizenekoa. 40ko hamarkadaren azken urteetan Abilio Ereñozaga Lapsa zurgina aurkitzen dugu, CNTko afiliatua, Busturian jaioa, ezkongabea, gerra baino lehen ohiko egoitza Santurtzin zuena, eta bere erbestealdian Akitanian bizi izan zena ere, Saint Geours de Maremne herrian, Landetako departamenduan. Diodoro Gorriño Echevarría lehen irakaskuntzako irakaslea, ezkongabea, ohiko egoitza Busturian zuena gerra baino lehen, EAJko afiliatua, Frantzia erbeste-teratua egon zen bitartean ohiko egoitza Bordelen izan zuela dirudi. Beragandik hurbil bere anaia zegoen, José Benjamín Gorriño Echevarría mekanografoa, ezkongabea, Cissac Médoc komunan bizitzen egon zena, Chateau Larrivau-en hain zuzen ere¹⁰.

9. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2053. kutxa. 103827. txostena. BDSTP. 1. taldea. 2942. kutxa. 8110. txostena; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 171/40; 365/45; 634/43; 790/41 kausak.

10. EAH-AHE. Eusko Jauriaritzako Artxibo Historikoa. Herrizaintza Saileko Funtza. José María Lasarte. Erroldak.

Euskaldunak Ameriketako herrialdeetara erbesteratzea ukatu ezineko errealitate bat da, eta busturiarrek ere errealitate horretan parte hartu zuten. 1939ko uztailaren 25ean, Román Orbe Calzada busturiarrak hurrengo gutuna idatzi zion Gurs-etik (A uhartetxoa, 18. barraka) Julio Jáuregui, Espainiari Laguntzeko Batzorde Nazionalen (CNAE) eta Errepublikano Espainiarren Emigrazio Zerbitzuan (SERE) EAJko ordezkaria zenari:

“Distinguido compatriota: encontrándome en este campo de Gurs y habiendo poco movimiento para la salida a México, me comunica la hermana (*Rufina Orbe Calzada*) residente en San Francisco de California que les comunique a Uds. Para que me faciliten hacer pasaportes a México y mandarme ella el pasaje y luego trasladarme a México”¹¹.

Ez dakit Román Orbe Calzadak emigratzea lortu zuen ala ez. Egun Frantzian hil zen edo hil zuten desagertutakotzat jotzen da. Bere ilobetako batek, Natalia Salazar Orbe, hurrengo adierazten du bere desagerpenari buruz:

“He oído a su madre decir cómo la tía Romana, melliza de Román, se lamentaba sobre qué habría sido de su hermano; nos comenta que debieron llegar noticias confusas, que le habían visto en algún puerto en un estado lamentable, que incluso esa persona quedó al día siguiente con él, pero que no acudió a la cita. También tras la guerra alguien de nuestra familia se debió de poner en contacto con la embajada pero que las únicas noticias que recibieron que se encontraba bien y que no quería ponerse en contacto con su familia” (Egizábal eta Serrano, 2017: 354 eta 361).

Amadeo Uribe Asteinzak ere, Román Orbe Calzadak eta beste hainbat busturiarrek bezala, herrialde hegoamerikarretara emigratzeko dagoeneko aipatu ditugun erakundeek ematen zituzten laguntzei eta subsidioei buruz galdetu zuen. Adibidez, 1939ko maiatzaren 14an, Amadeo Uribek Julio Jáuregui idatzi zion Capbreton-etik (Landak, Frantzia), Mexikora joan nahi zuela eta antolatzen ziren doako bidaietan sar zezatela esanez¹².

Atlantikoaren beste aldean, XX. mendearen hasieran AEBra emigratu zuten elizateko auzotar ohiak ere finkatu ez ezik dirutza handia ere egin zutenak, Valentín Aguirre kasu, euskal ezbeharrarekiko sentikor zeuden eta erbesteratuen zain zeuden beso-zabalik hartzeko. Valentín Aguirrek, New Yorkeko *Jai Alai* jatetxearen jabeak, Euzkadiren Aldeko Batzordean aktiboki parte hartu zuen eta Elkarrekin Hispano Konfederatuen Euskal Taldearekin elkarlanean aritu zen. Bere jatetxean beti zegoen mahai bat edozein errefuxiatu hartzeko. 1938an Euzko Jaurilaritza ordezkari zena New Yorkera heldu zenean, Valentín Aguirre laguntzaile garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Honela, bere suhia, John Zabal, Antón Irala eta Manu de la Sotarekin joan zen biek Mendebaldeko estatuetatik egin zuten bidaiari. New Yorken finkatutako busturiarrak adiskidetasun berezia egin zuen Manu de la Sotarekin. Dirudienek, Manu de la Sota ordezkari zena bakarrik geratu zenean, beti jaten zuen *Jai Alai* jatetxean. Sotaren bitartez, Valentín Aguirrek Indalecio Prieto sozialista ezagutu zuen, orduan Espainiako Errepublikanoak Laguntzeko

11. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Lehendakari zena Saileko Funtseko Emigrazioa. Sorospen eta Laguntzetako Atal Iragankorra. 125. paper-sorta. 02 paper-sorta zenbakia.

12. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Lehendakari zena Saileko Funtseko Emigrazioa. Sorospen eta Laguntzetako Atal Iragankorra. 127. paper-sorta. 02 paper-sorta zenbakia.

Batzarra (JARE) sortu berri zuena¹³, eta honek busturiarri eskatu zion Europa utzi nahi zuten errefuxiatuen bidaien kudeaketaz ardura zedin. Operazio hauen arduraduna azkenean John Zabal izan zen arren, Valentín Aguirreraren agentziak kudeaketak egin zituen JARErako. Kudeaketa garrantzitsuenetako bat *Vita* Kuban saltzea izan zen, Errepublikako dirua Mexikora eraman zuen yate ospetsua eta erbesteratuen banaketa politikoa eta sorospen-banaketa eragin zuena. Erbesteratutako *Lendakaria* New Yorkera heldu zenean 1941ean, ezagutu zuen lehenengo pertsonetako bat Valentín Aguirre busturiarra izan zen¹⁴.

Ez dakit Román Orbe Calzada lurralde hegoamerikarrera iritsi zen ala ez, baina beste busturiar batzuk bai lortu zutela. Amadeo Uribe Asteinza, Umbelino Garmendia Arambarri eta Silvestre Izaguirre Arróspide itsasgizonen kasua izan zen. Denak 1939ko uztaillean 28an irten ziren Le Havre portutik *Flandre* pakebotean, *Compagnie Générale Transatlantique* konpainiakoa, Hego Amerikako herrialdetara zihoazen beste 139 errefuxiatuekin batera. *Gipuzkoa* bouaren ofizial ohia familiarekin Venezuelaraino heldu zen, bere familia bere eske egon ondoren, eta 1956an han zegoen oraindik eraikuntzan lanean¹⁵. Ez dakit zein herrialdetan finkatu ziren berarekin Ameriketara iritsi ziren beste bi busturiarrak. Mexikoraino Félix Bilbao Jayo eta Serapio Zabala Arrien itsasgizonak iritsi ziren; 1939ko martxoaren 24an Veracruzetik herrialdean sartu ziren, eta 1939ko azaroaren 16tik aurrera etorkin bezala onartuak izan ziren erbesteratu politikoen izaerarekin urte batez, beste bost urterako berrets zitekeena. Biak Tampico-n (Tamaulipas, Mexiko) bizitzen egon ziren¹⁶. 1943an Serapio Zabala Arriek muga mexikarra zeharkatu zuen El Pasotik, eta AEBan artzain eta sukaldari bezala egin zuen lan. Senatuak betirako egoitza eman zion 1950ean, eta urteak eman zituen Nevadan lanean (San Sebastián, 2015). Mexikora ere, baina Lisboatik abiatuta, heldu zen hegazkinez 1947ko maiatzaren 2an María Práxedes Santos Pozo, Haron (Errioxa) jaioa, etorkin bezala urte baterako onartua izan zena, bere senarra zen Lorenzo Gogearcoeachea Uriarterekin elkartzeko helburu bakarrarekin, azken 1947ko urtarrilaren 17an Mexikon onartu baitzuten etorkin bezala urte baterako¹⁷. Bere baldintzei buruz ezer ez dakidan arren, baliteke Juan José Elorriaga Orube, *Aralar* batailoi nazionalistaren borrokalari ohia, Rosarioraino (Argentina) iristea ere erbesteratu gisa¹⁸. Francisco Uribe Asteinza New Yorkera iritsi zen *Campillo* baporearen tripulatzaileren artean 1951ko uztailaren 18an. Desertatu ondoren Idahora joan zen. Morrison-Knusen kontratistentzat lan egin zuen Mountain Home-tik gertu zegoen presa bat eraikitzen. Hiri berean lan egiten egon zen artzain bezala

13. 1939an Frantzia Gorte Errepublikanoen Diputazio Iraunkorrak, erbestealdian jada, sortu zuen erakundea, eta eginkizun nagusi gisa instituzio demokratikoak defendatzeagatik Espainiatik emigratu nahi zuten pertsonen baliabideak eta ondasunak administratzea zuena.

14. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] <http://amerikanuak.blogspot.com.es/>

15. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

16. Mexikoko Nazioko Artxibo Orokorra (AGNM). Mexikoko Herrizaintza Idazkaritzako funtsa. Mexikoko Atzeritarren Erregistro Nazionalaren segida. AGA, RIEM, 033, 069; AGA, RIEM, 279, 012.

17. AGNM (Mexikoko Nazioko Artxibo Orokorra). Mexikoko Herrizaintza Idazkaritzako funtsa. Mexikoko Atzeritarren Erregistro Nazionalaren segida. AGA, RIEM, 246, 105.

18. “Parque de España” Ikasketa Historikoen eta Informazioaren Zentroa. “Parque de España” Kultura Guneko fundazioa (Rosario, Argentina). Espainiako Kontsulatu Orokorren funtsa Rosarion (Argentina). Espainiako Kontsulatuaren Nazionalitate Inskripzioaren Erregistroa Rosarion. 140-146, 3564, 208.

lanean hasi zen arte, eta 1954an bere egoera legeztatzeko izapideak egiten hasi zen (San Sebastián, 2015). Azkenik, aipatuko dugu polizia zerbitzuen informazioen arabera Casimiro Guerricaechevarría Calzada Frantziara erbesteratu bezala joan zela hasieran eta gero Kubara, 1941ean gutxi gora behera. 1952An agintari frankistek Kuban bizi zela baieztatu zuten, garrantziko ondasunik gabe¹⁹.

Félix Bilbao auzotarrak hurrengo adierazten du:

“Muchos de los que se fueron no volvieron más a Busturia. Yo cuando estuve de marino me encontré en México con gente del pueblo; con Lorenzo Gojeaskoetxea, Juan Bautista, Atxirika,...” (Egizábal eta Serrano, 2017: 369).

Espainia berriko udaletan “erbestealdi” hitza ez zen esaten. 1935eko herritarren errol-daren zuzenketan, 1939ko martxoan amaitu zena, “*Bajas en presentes*” (“Bertakoen bajak”) izenburuaren azpian, erabat ezabatzeko saiakera bezala, 1937ko ebakuazioan inoiz ez itzultzeko elizatea utzi zuen Busturiko herritarren zati handi bat zerrendatuta dago²⁰. Dena den, egia da zuzenketan erbestealdi politikoarekin zerikusirik ez duten pertsonak ere agertzen direla. Adibidez, Delfin Bilbao Altonagak, Sukarrietan jaioa, AEBko herritar bihurtzeko asmo aitorten bat aurkeztu zuen 1933ko azaroaren 8an. Une horretan ezkongabea zen eta Ipar Amerikako jatetxe batea lan egiten zuen. Huelvatik emigratu zuen AEBera SS *Cabo Espartel* itsasontzian, eta 1920ko abenduaren 19an heldu zen New Yorkera. Erbestealdi politikoarekin jarraituz, lehenago aipatutako zerrendaren arabera, Busturiko elizateko 148 auzotar ez zeuden 1939ko martxoaren 10ean, hiruk auzotasuna galdu zuten eta beste bat “*Baja en presentes y transeúntes*” (“Bertakoen eta iragaitzazko bidarien baja”) izan zen.

1938 eta 1939 urteetan erbestealdian zeuden 152 pertsonetatik 45 bakarrik ziren emakumeak (%29,41). Emakume hauetatik %68,88 Busturian jaioak ziren, %10 Bizkaiko beste herrietakoak ziren eta gainerakoak atzerriko herrialdeetakoak. Emakumen hauen %68,88 19 eta 50 urte bitartean zegoen, biak barne, %17,77 emakumezko 18 urtetik beherakoak ziren eta %13,33 50 urtetik gorakoak. Egoera zibilari dagokionez, berriz, %68,88 ezkondu gabe zeuden; aldiz, %24,44 ezkonduak ziren eta %6,66 alargunak ziren. Lanbideari dagokionez, %42,22 etxeko andreak ziren, %31,11k etxerzerbitzuetan ziharduten eta %15,55 ikasleak ziren; gainerakoak bestelako lanbideetan sakabanatuta zeuden: maistrak, nekazariak eta bat ere ez. Dirudienez, Busturiko erbesteratuen %70,59 gizonak ziren. Gizon hauetatik %71,02 Busturian jaioak ziren, %24,29 Bizkaiko beste herrietakoak ziren eta gainerakoak Espainiako beste probintziak ziren edo atzerriko herrialdeetakoak ziren. %76,63 19 eta 50 urte bitartean zeuden, biak barne, %12,15 gizonezko 18 urtetik beherakoak ziren eta oso ehuneko antzekoa 50 urtetik gorakoak ziren. Egoera zibilari dagokionez, %71,96 ezkondu gabe zeuden; aldiz, %26,16 ezkonduak ziren eta %1,86 alargunak ziren. Erbesteratuen erdiek baino gehiago, %61,68, nabigazio lanetan ziharduten. Erbesteratuen artean kontuan hartzeko beste lanbide batzuk ikasle (%8,41) edo saltzaile (%6,54) lanbideak ziren. Gainerako lanbideetan ehunekoak gutxi gora behera zuzen banatzen dira abokatu, nekazari, artista,

19. Salamancako Artxibo Historiko Probintziala (AHPS). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.02766.

20. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0011/005.

sendagile edo merkataritza-perituen artean. Laburbilduz, Busturiko erbesterratu politikoaren profil soziologikoa 18 eta 50 urte bitarteko gizonezkoa, ezkongabea eta itsasgizon batena da. Emakumeen profil soziologikoari dagokionez, 18 eta 50 urte bitartekoak ziren, ezkongabeak eta etxeko andre bezala edo etxe-zerbitzuetan ziharduten.

2. UDAL- ETA PROBINTZIA-ADMINISTRAZIO FRANKISTA: IKERKETA, ZIGORRA ETA BERRITZEA

2.1. Batzorde Kudeatzaitetik udalera

Tropa italiarrak Busturian sartu baino hamabi egun lehenago, 1937ko apirilaren 18an, Busturiko udal errepublikanoak bere azken biltzarra egiten zuen udaletxean, eta bertan egon ziren alkate-presidentea, Juan Antonio Arguinzóniz Porturas, eta Carmelo Llantada, Andrés Cearreta, Fernando Bilbao, Doroteo Calzada, Feliciano Cenarruzabeitia eta Rufino Arróspide zinegotziak. Udal-idazkariak, Vicente Gorriño, idatziz jaso zuen biltzarra²¹.

Tropa matxinoak udalerrian sartu zirenean, udal-idazkaria, Vicente Gorriño, udalerriko administrazioaren burua izango zen, eta bere ordezkari bakarra, okupazioaren lehen egunetan. Bere hitzen arabera:

“el día 30 de abril de 1937, fecha de la liberación de este pueblo, en el que realizaron su entrada triunfal las gloriosas tropas nacionales, hasta el 20 de mayo siguiente, en que se constituyó la actual Comisión Gestora Municipal, sólo y exclusivamente se hallaba el suscrito secretario al frente de la Administración municipal”²².

Hori praktikan izan behar izan zuen, teorikoki Ricardo Damborena Castroviejo izan baitzen Busturiko eta Sukarrietako udal-gobernuaren arduraduna, honi zuzendutako jakinarazpen batek aipatzen zuelako Sukarrietan eta Busturian Komandante Militarren (Bermeokoa, ulertzen dugu) ordezkari gisa²³.

1937ko maiatzaren 20an, 16:00etan, bilera bat egin zen Busturiko kapitulu-gelan Ricardo Damborena Castroviejo gobernu-ordezkariaren presidentetzapean, eta aipatutako idazkaria, Vicente Gorriño, eta Darío Gómez Apraiz, José Irujo Beunza, Luis Santamaría Menchaca, Rufino Fradua Arandia, Antonio Santamaría Amunátegui eta Justo Oreja Lecumberri jaunak bertaratu ziren. Presidenteak aparteko bilerari hasiera eman zionean, honek idazkariari agindu zion Bermeoko Komandante Militarra zen Eusebio García del Villaren jakinarazpen bat osotasunean irakur zezan, aurreko eguneko data zuena. Busturiko udal bizitza ahalik eta lasterren normalizatzeko asmoz, Ricardo Damborena Castroviejo gobernuko ordezkariari agintzen zitzaion Udal Batzorde Kudeatzaile bat era zezan premiazko eta behin-behineko izaerarekin, Gipuzkoa eta Bizkaiko gobernadoreak jadanik onartu izan baitzuen batzorde hori.

21. BUA. Akta-liburua. 1937/04/18.

22. BUA. Akta-liburua. 1937/09/09.

23. BUA. Akta-liburua. 1937/05/20.

Busturiko Batzorde Kudeatzailea (1937ko maiatzetik 1937ko urrira)

Alkate-presidentea	Darío Gómez Apraiz
Lehen alkateordea	José Irujo Beunza
Bigarren alkateordea	Luis Santamaría Menchaca
Kide kudeatzailea	Rufino Fradua Arandia
Kide kudeatzailea	Antonio Santamaría Arronátegui
Kide kudeatzailea	Justo Oreja Lecumberri

(Iturria: Busturiko Udala).

Jakinarazpenaren irakurketa egiaztatu ondoren, eta Ricardo Damborena Castroviejori zegozkion eskumenen arabera,

“declaró posesionados en sus respectivos cargos a los señores cuyos nombres se mencionan en la transcripta comunicación del Ilmo. Sr. Comandante Militar, quedando constituida en la forma expresada la Comisión Gestora Municipal de esta anteiglesia”²⁴.

Dirudienez, Gabriel Learreta Acillonak, Palmira Arrótegui Marcaidaren bigarren senarra, Alkate-presidentearen karguari uko egin zion, eta postua Darío Gómez Apraizek onartu zuen. José Irujo Beunza Palmira Arróteguiaren gidari pertsonala zen eta Justo Oreja Lecumberri herriko karlista/tradizionalista bat zen (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 334).

Batzorde Kudeatzaile honen lehen ohiko biltzarrean, 1937ko ekainaren 3an egina, agerian geratu zen agintariek mantenduko zuten beligerantzia aurreko udalarekin zerikusia zuen guztiarekin. Hala ere, bi udalen arteko lotura bat zegoen, Vicente Gorriño idazkaria, aurreko udala gaitzesten zuela argi utzi zuena, udal-aktetan honela adieraziz: “no estaba conforme en los acuerdos adoptados por dicho Ayuntamiento a la sesión a fin se refiere el acta leída y por tanto la desaprobaba”²⁵. Biltzar honetan Udal Batzorde Kudeatzaileak erabaki zuen udala hiru batzordetan banatzea: Ogasuna, Herrizaintza eta Sustapena. Udaleko batzorde bakoitza hiru pertsonen osatzen zuten eta guztietan Busturiko alkate berriak parte hartzen zuen²⁶.

1937ko abuztuaren 26ko biltzarrera arte ez zuen Batzorde Kudeatzaileak eraginik gabe utzi aurreko udaleko konpromisoak:

“todos los compromisos contraídos por los Ayuntamientos anteriores con las personas, entidades y demás individuos, sean o no vecinos del pueblo, señalando el término de quince días, a partir de la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial, para renovar los compromisos o revalidar los contratos existentes con anterioridad, mediante solicitud al Ayuntamiento”²⁷.

24. BUA. Akta-liburua. 1937/05/20.

25. BUA. Akta-liburua. 1937/06/03.

26. Ogasun Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Darío Gómez Apráiz, Luis Santamaría Menchaca eta Justo Oreja Lecumberri. Herrizaintza Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Darío Gómez Apráiz, Antonio Santamaría Arronátegui eta José Irujo Beunza. Sustapen Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Darío Gómez Apráiz, Justo Oreja Lecumberri eta Rufino Fradua Arandia.

27. BUA. Akta-liburua. 1937/08/26.

Dena den, erabaki hau ez zen modu zorrotzean aplikatu, “*Eléctrica Irurak-Bat*” enpresarekin hartutako konpromisoak frogatzen duen bezala, udalak enpresarekin hartutako akordioak deuseztatzea pentsatu baitzuen enpresak jakinarazi zionean fakturen igoera bat Estatuko zergak eta tinbrea zirela eta²⁸. Beste alde batetik, beste hitzarmen batzuk, Sukarrietarekin adostutakoa adibidez ur-hornidurari buruz, Txatxarramendiko errefuxiatuak zirela-eta, 1938an deuseztatu zen, akordio hori betez, eta gauza bera gertatu zen beste alokairu-kontratu batzuekin, Izpilluetako zelairena adibidez, erromeriak egiteko zena, nahiz eta azken hau 1940an berriztatu zen²⁹.

1937ko urriaren 2ra arte ez ziren Busturiko udaletxean bildu, Darío Gómez Apráiz alkatearen presidentetzapean, Luis Santamaría Menchaca, José Irujo Beunza, Rufino Fradua Arandia, Fermín Landa Lezámiz, Andrés Totoricaguena Insundegui eta Pedro Olano Amparan, idazkariaren laguntzarekin, Vicente Goriño Tribis-Arrospe. Azken honek Miguel Gamuza Bizkaiko Gobernadore Zibilaren jakinarazpen bat irakurtzeari ekin zion, 1937ko irailaren 23ko data zuena, non adierazten zuen eman zizkieten atribuzioak erabiliz Busturiko Udal izendatzen zuela, eta honela eratuko zela:

Busturiko Udal (1937ko urria - 1944ko ekaina)

Alkate-presidentea	Luis Santamaría Menchaca
Lehen alkateordea	José Irujo Beunza
Bigarren alkateordea	Rufino Fradua Arandia
Zinegotzia	Fermín Landa Lezámiz
Zinegotzia	Antonio Santamaría Arronátegui
Zinegotzia	Andrés Totoricaguena Insundegui
Zinegotzia	Pedro Olano Amparan

(Iturria: Busturiko Udal).

Taulan aipatutako guztien aurrean, Antonio Santamaríaren aurrean izan ezik, ez bertaratzeko kargua utziko zuen Darío Gómez Apráiz alkate-presidenteak arrazoa eman zuena, “*después de darles la más cordial bienvenida, declaró posesionados a referidos señores, en sus respectivos cargos*”³⁰. Harritzeko da Darío Gómez Apráizek, Udaleko Batzorde Kudeatzailearen alkate-presidente ohiak, kargurik ez izatea udal berrian. Horren arrazoiak ez dakizkidan arren, ziur aski kargua utzi zuen “*por la imperiosa necesidad de ausentarse de la localidad para dedicarse en sus actividades profesionales*”³¹. Udal honek aldaketarik gabe iraun zuen 1944ko ekainaren 15eko

28. BUA. Akta-liburua. 1937/10/30.

29. BUA. Akta-liburua. 1938/07/14; 1940/06/13.

30. BUA. Akta-liburua. 1937/10/02.

31. BUA. Akta-liburua. 1937/10/14.

batzarraldira arte, honetan José Irujo Beunza kargua utzi baitzuen lehen alkateorde gisa Rufino Fradua Arandia eta bigarren alkateorde gisa Bonifacio Solay Monasterio izendatu ondoren³².

1937ko urriaren 14an Busturiko udal berriak bere lehen ohiko batzarraldia egin zuen, eta honetan udala hiru batzordetan banatuko zela erabaki zen: Ogasuna, Herrizaintza eta Sustapena³³. Berriro ere, alkateak batzorde guztietan parte hartzen zuen³⁴. Batzarraldi honetan ere Fermín Landa Lezámiz zinegotzia udal-funtsen gordailuzain izendatu zuten. Antonio Santamaría Arronátegui zinegotziari dagokionez, ezin izan zuen bere kargua onartu 1938ko otsailaren 24ra arte probintziazatik kanpo egoteagatik³⁵.

2.2. Langile administrari, teknikari eta menpekoen garbiketara

Busturiko lehen ohiko batzarraldian, 1937ko urriaren 14an, Batzorde Kudeatzaileko alkatea izan zen Darío Gómez Apráizi eskaintza bat eginez hasi zen, oso denbora gutxian egindako guztiagatik:

“supo desplegar el mayor celo en el desempeño de su cargo, realizando en lo que cabe una fructífera y honrada administración en el Municipio y una patriótica depuración gubernativa que justifican su condición de españolismo y de compenetración con la gran Causa Nacional”³⁶.

Busturiko Udalaren funtzionario administratiboak 1936ko uztailaren 18a baino lehen

Abizenak, Izena	Kargua	
Gorriño Tribis-Arrospe, Vicente	Idazkaria	Jabetzakoa
	Kontu-hartzailea	Jabetzakoa
Cearreta Urrutia, Andrés	Gordailuzaina	Bitartekoa
Uriaguereca Aralucea, Antonio	Ariel-biltzailea	Bitartekoa

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

32. BUA. Akta-liburua. 1944/06/15.

33. BUA. Akta-liburua. 1937/10/14.

34. Ogasun Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Luis Santamaría Menchaca, Rufino Fradua Arandia eta Andrés Totoricaguena Insundegui. Herrizaintza Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Luis Santamaría Menchaca, José Irujo Beunza eta Rufino Fradua Arandia. Sustapen Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Luis Santamaría Menchaca, Fermín Landa Lezámiz eta Pedro Olano Amparan.

35. BUA. Akta-liburua. 1938/02/24.

36. BUA. Akta-liburua. 1937/10/14.

Busturiko Udalaren funtzionario teknikariak edo medikuak 1936ko uztailaren 18a baino lehen

Abizenak, Izena	Kargua	
Arguinzóniz Urquiza, Anastasio	Arkitektoa	Bitartekoa
Mendieta Lezámiz, Julio	Sendagile titularra	Jabetzakoa
	Osasun-ikuskatzailea	Jabetzakoa
Hutsik	Botikari titularra	
	Praktikantea	
	Emagina	
Uribarrena Erezuma, Pedro	Albaitaria	Bitartekoa

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Busturiko Udalaren menpeko funtzionarioak 1936ko uztailaren 18a baino lehen

Abizenak, Izena	Kargua	
Uriaguereca Aralucea, Antonio	Udaltzaina	Bitartekoa
	Ehorzlea	Bitartekoa
	Iturgina	Bitartekoa
	Lorezaina	Bitartekoa
Borda Lejarza, Julián	Danbolindaria	Jabetzakoa
	Aldarrikaria	Bitartekoa
Iráculis Gorriño, Isidoro	Erloju publikoaren arduraduna	Jabetzakoa
Echevarría, Teresa	Kale-garbitzailea	Bitartekoa

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Hain zuzen ere, Busturiko Batzorde Kudeatzaileak bere lehen batzarralditik, 1937ko ekainaren 3an, zegokien eskakizunak egin zizkien azken udal errepublikanoak bi langileei, Andrés Cearreta Urrutiari eta Antonio Uriaguereca Araluceari, karguak utzi zituztenak “haien eginkizunak uzteagatik” (*“por abandono de sus funciones”*). Antonio Uriaguereca Aralucea, *“bere eginkizunak uzteagatik”*, ordura arte zituen udal-lanpostu guztiak utzi behar izan zituen: udaltzaina, udal-ehorzlea, iturgina, lorezaina eta udaleko ariel-biltzailea. Batzorde Kudeatzaileak biltzar horretan bertan izendatu zuen bere ordezkaria, armada matxinoko borrokalari ohia, Ramiro Echevarría Gorriño, udal-lanpostu guztiak bete zituena behin-behineko izaerarekin. Gainera, udal-gordailuzainaren postua, ordura arte Andrés Cearreta Urrutiak betetzen zuena, Justo Oreja Lecumberriri esleitu zitzaion, Busturiko Batzorde Kudeatzailearen kide kudeatzailea. Aipatu behar dugu ere batzarraldi berean Juana Lachiondo Tellería izendatu zutela Udaleko bitarteko kale-garbitzailea izateko, Teresa Echevarría, udaleko kale-garbitzaile ohia, udalerria ebakuatu ondoren³⁷. Teresa Echevarría, Julián Borda Lejarza (danbolindaria eta udal-pregoiaria), eta Isidoro Iráculis

37. BUA. Akta-liburua. 1937/06/03.

Gorriñori (erloju publikoaren arduraduna), dagokienez, ez ziren funtzionario publikoak, udaleko soldatapeko langileak baizik. Azkenik, aipatu behar dugu ere data honetan Anastasio Arguinzóniz Urquiza udal-arkitektoari kargua kendu ziotela, eta postu hori 1938ko martxoaren 2an oraindik hutsik zegoen bitarteko bezala lan egiten zuen funtzionarioari kargua kendu ziotelako postua amortizatu arte 1939ko abenduaren 15ean³⁸. Batzorde Kudeatzaileak ez zituen udaleko funtzionario asko garbitu behar izan, askok *“lanaren egin-kizunak utzi baitzituzten”* (*“abandonado sus funciones”*), udalerria ebakuatu ondoren.

Dagoeneko aipatu dut Batzorde Kudeatzaileak bere lehen biltzarrean erabaki zuela kargugabetutako bi udal kideei zegokien eskakizunak egitea. Andrés Cearreta, azken udal errepublikanoaren zinegotzia izateaz gain, udaleko gordailuzaina zen eta berak zituen herriko kutxa-liburua eta egiaztagiriak Udal Kudeatzailearen esku berehala jar zitzan eskatu zitzaion. Bigarrenari dagokionez, Antonio Uriaguerecari, udaleko ariel-biltzailea zena beste lanpostuen artean, taloitegiak eta kobratu gabeko ordainagiriak Udal Kudeatzailearen esku berehala jar zitzan eskatu zitzaion. Halaber, lehenengoari gordailuan egondako dirua eman zezan eskatu zitzaion, eta Antonio Uriaguerecak udal-diruzaintzan sartu ez ziren bildutako zenbatekoak eman behar zituen, kasu bietan eskatzen zitzaiena 1937ko apirilaren 30era arte egindakoa zen, *“fecha de la liberación de este pueblo”*³⁹. Bilera izan eta sei egun beranduago, udal-idazkaria Andrés Cearretaren etxean bertaratu zen. Bera egon ez arren, bere emaztea, Irene Alegría Ispízu, bai zegoela. Orduan emazteak Busturiko kutxa-liburua eta eskatutako beste dokumentuak eman zizkion, heritik alde egitea erabaki zuenean beste hainbat dokumentuekin batera emazteari ematea erabaki baitzuen. Modu berean, idazkaria Antonio Uriaguerecaren etxera joan zen, eta berriz ere bera ez zegoen, baina bai bere emaztea, Eugenia Lamíquiz Landa. Honek ere idazkariari eman zizkion hainbat kuaderno-erregistro ur-kontagailuak irakurtzeko, bere senarrak eman izan zizkionak heritik alde egitean, ahal bezain laster itzultzeko asmoa bazuen ere (*“propósito de volver a la misma tan pronto tuviera una ocasión propicia”*)⁴⁰.

1937ko ekainaren 16an Miguel Mendieta sendagileak jakinarazpen bat bidali zion Batzorde Kudeatzailearen presidenteari, esanez elizateko sendagile titularra eta udaleko osasun-ikuskatzailea zen Julio Mendieta Lezamizen derrigorrezko absentiagatik, atxilotuta eta espetxeratuta baitzegoen, ekainaren 3tik geroztik kargu horietan ordezkatzen ibili zela. Udal Batzordeak aho batez erabaki zuen Miguel Mendieta izendapena eta jardutea. Miguel Mendieta herrian ezusteko egoitza zuen sendagile zen eta jadanik sendagile gisa jardun izan zuen elizatean, sendagile titular eta udaleko osasun-ikuskatzaile karguetan Julio Mendieta ordezkatuz. Halaber, ondorioz erabaki zuen kargu horietan aritzea titullarraren absentiaren derrigorrezko kausak araututako denboran irauten zuen bitartean⁴¹. Udalak ez zion inoiz modu ofizialean elizateko sendagileari kargua kendu, baina Auzitegi Militar batek 5.000 pezeta ordaintzera eta sei hilabeteko desterrua igarotzera zigortu zuen, kasu honetan Logroñon igaroz⁴². Dena den, Bizkaiko

38. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/012; Busturia 056/023; Busturia 056/038.

39. BUA. Akta-liburua. 1937/06/03.

40. BUA. Akta-liburua. 1937/06/19; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/046; 0056/047.

41. BUA. Akta-liburua. 1937/06/19.

42. AAHP. Nanclares funtsa. 30. kutxa. 37/02/400 txostena.

Ikuskaritza Probintzialeko 1937ko abuztuaren 4ko zirkular baten arabera, udal honi zerbitzuak ematen zioten osasun funtzionario guztiei jakinarazten zitzairen aipatutako zirkularren dataren ondoren kargurik gabe geratzen zirela, izendapena mota edo data edozein izanda ere, paper politiko eta profesionala garbitzeko asmoz bakoitzaren txosten pertsonala bukatu arte. Gainera, premia handienarekin Osasun Udal Batzarra eratu behar zen, 1937ko irailaren 3rako eratuta zegoena⁴³.

Patricio Escobalek gogoratzen zuen nola Sukarrietak sendagilerik ez zuen:

“Pedernales no tenía médico. Los enfermos eran atendidos por el titular del cercano pueblo de Busturia, Miguel Mendieta, vasco grande y fuerte, cuya rectitud y competencia le habían creado una sólida reputación por el contorno. Su primera visita profesional fue al día siguiente y en ella quedó convencido de tratar con un hombre no contaminado de la cobardía cívica tan general por entonces” (Escobal, 2005: 284).

Hala ere, Escobal Julio Mendieta buruz ari da, ez bere anaia Miguel Mendieta Lezamizi buruz, hau jadanik elizateko sendagilea eta gerraostean sendagile gisa jarduten egon zena bere anaiaren falta zela eta. Nahasketa hau argituta geratzen da Patricio Escobalek adierazi zuenean sendagileak kontatu ziola matxinoek Busturian sartzean atxilotu zutela eta Gazteizko espetxera bidali zutela. Gertaera horiek Julio Mendieta biziarekin bat datoz (Escobal, 2005: 287).

Batzorde Kudeatzaileak, 1937ko uztailaren 8ko ohiko biltzarrean, aho batez erabaki zuen danbolindari eta udal-pregoilari postuak amortizatzea “*con efecto retroactivo de 1º de abril de 1937, y que se comuniqué este acuerdo al interesado*”, hau da, Julián Borda Lejarzari. Biltzar berean Udaleko Idazkaritzako laguntzaile gisa izendatu ziren aparteko lanen bulegorako Félix Chertudi Zabala eta José Agustín Iráculis; hainbat urte geroago María Teresa Filibi Valencia izango zen Udal Idazkaritzaren laguntzailea⁴⁴. Aritz Ipiñak adierazten du postuaren amortizazioak hiru arrazoi izan litzakeela: langilearen adin altua, Busturiko egoera ekonomiko estua edo langilearen ideologiagatik kargu-gabetze ezkutua (Ipiña, 2014: 178). Ziur aski lanpostuaren amortizazioa Busturiaren egoera ekonomiko estuagatik izan zen, Julián Borda Lejarzak danbolindari zerbitzuak ematen jarraitu baitzuen, Udalak onartutako ordainagiriaren arabera. Adierazi behar dugu ere nola 1939ko abenduaren 15ean udalak udal-arkitektuaren lanpostua amortizatzeraren ekin zion, bitarteko gisa lanpostuan ari zenari kargutik kendu ondoren, ageriko moduan eta ez ezkutuan: Anastasio Arguinzóniz Urquiza. Gogoratu behar dugu Gerra Zibila baino lehenago ere Busturiko Udalak udal altxor eskasa zuela.

1936ko irailaren 13ko dekretuak, Espainiako Defentsa Nazionaleko Batzarren Aldizkari Ofizialean argitaratuta, horrela jo zituen:

“fuera de la Ley a los partidos o agrupaciones políticas que, desde la convocatoria de las elecciones celebradas el 16 del corriente año han integrado el llamado Frente Popular, así como cuantas organizaciones han tomado parte en la oposición hecha a las fuerzas que cooperan al movimiento nacional”.

43. BUA. Akta-liburua. 1937/08/26; 1937/09/09; BFAAH. Udal Atala. Busturia 00559/017.

44. BUA. Akta-liburua. 1937/07/08; 1944/09/25; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/012; Busturia 0056/023.

Eta dekretuak hurrengo ezartzen zuen:

“funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado, la provincia o el municipio o concesionarias de servicios públicos, podrán ser corregidos, suspendidos y destituidos de los cargos que desempeñen cuando aconsejen tales medidas sus actuaciones antipatrióticas o contrarias al movimiento nacional”.

Gainera, zuzenketa edo gabetze hauek izaten ziren:

“acordadas por los jefes del centro en que preste sus servicios el funcionario y en su defecto, por el superior jerárquico del corregido, y aquéllos, en su caso, previa la formación del oportuno expediente, propondrán la destitución a la autoridad, empresa o Corporación a quien correspondiera hacer el nombramiento” (BOJDNE - Espainiako Defentsa Nazionaleko Batzarraren Aldizkari Ofiziala, 1936/09/16).

Dekretu hau eta beste xedapen osagarriak betetzeko, 1937ko abuztuaren 26an Batzorde Kudeatzaileak erabaki zuen udalari zerbitzua ematen zioten langile guztiak kargu gabe geratzen zirela eta *“los interesados obligados a continuar interinamente en el desempeño de la labor que a cada uno tiene encomendada en la actualidad”*. Gainera,

“los funcionarios y empleados que deseen continuar al servicio de la Corporación, deberán solicitar individualmente su reingreso en el cargo que ocupan dentro de un plazo inferior a diez días a partir de la adopción del acuerdo, pasado el cual, los que no hubieran formulado tal solicitud, quedarán destituidos definitivamente de sus cargos”⁴⁵.

Udalean berriz lan egiteko eskatu zutenen artean sendagile titularra eta udaleko osasun-ikuskatzailea zen Julio Mendieta Lezámiz, eta udaleko bitarteko albaitari-ikuskatzailea zen Pedro Uribarrena Erezuma zeuden, bai eta udaleko idazkaria, Vicente Gorriño Tribis-Arrospe. Azken honen eskarian, gainera, udalean izan zuen lan bikainari buruzko zinpeko deklarazioa atxikita zegoen, aipatuz nola gerra garaian *“alejado de toda actividad política se dedicó a las profesionales de la Secretaría e Intervención de fondos(...)”* y a la *“(...) liberación de este pueblo”*, eta nola agintariei lagundu zien. Aho batez, Batzorde Kudeatzaileak idazkari kargua itzultzea erabaki zuen: *“como un voto de gracias por su comportamiento patriótico”* y *“quedando para dicho funcionario anulados todos los efectos de la destitución general decretada por esta Comisión Gestora”*. Baina Anastasio Arguinzóniz Urquiza edo Antonio Uriaguereca Aralucea ez zuten haien lanpostua itzultzeko eskatu herria okupatzearen jakinarazpen ofiziala eta hurrengo egunetik hasita hamar eguneko epean Horregatik, 1936ko urriaren 26ko Aginduaren 2. Atalaren eta bat zetozen beste xedapenen arabera, Udal Batzorde Kudeatzaileak aho batez erabaki zuen:

“acordó considerar incursos en abandono inmotivado de destino y, en virtud, destituirles definitivamente de los empleos que ocupaban, con efectos retroactivos de treinta de abril último, fecha de la liberación de este pueblo por las gloriosas tropas nacionales, dándoles de baja en los mismos, con pérdida de todos los derechos”⁴⁶.

45. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/044; BUA. Akta-liburua. 1937/08/26.

46. BUA. Akta-liburua. 1937/10/30; 1937/09/09; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/012; 056/023; 0056/029.

Andrés Cearretari buruz, 1937ko abuztuaren 5ean fusilatua, Teresa Echevarriari buruz, garbiketaren arduraduna, edo Isidoro Iráculis Gorriñori buruz, erloju publikoaren arduraduna, Batzordeak ez zuen erabakirik hartu. Aritz Ipiñaren arabera, lehenengo kasuan uste du tokiko agintariak ez zutela Cearreta kargugabetu exekutatua izan zelako, bere lanpostua hutsik utziz. Dena den, beste herrietan fusilatutako langileak kargugabetu zituzten bere familiarak zigortzeko, kargugabetzeak hartzeko pasiboen galera zekarrelako. Hala ere, Cearretak ez zuen ordainsaririk jasotzen gordailuzain bezala lan egiteagatik, beraz, ezin ziren hartzeko pasiboak egon. Teresa Echevarría ez zen funtzionarioa, beraz erabakiak ez zuen berarengan eraginik eta gainera oso ordainsari gutxiko menpeko kargu bat zuen (Ipiña, 2014: 180). Egoera berdinean zegoen Isidoro Iráculis tradizionalista, erloju publikoaren arduraduna. 1939ko abenduan idatzi zen udaleko langileen zerrenda batean, Isidoro Iráculisek udal erlojuaren arduradun bezala jarraitzen zuen⁴⁷. Hala ere, 1943an aktetan adierazten zen nola Madariagako erloju publikoak narriadurak zituen, eta aditu bat proposatzen zen beharrezko konponketak egin zitzaizkion: jaulkitako fakturen arabera konpoketa horiek Francisco Ibarlucea eta Miguel Arechavala egin zituzten⁴⁸.

Frankismoaren lehen udala eratu zenean 1937ko urriaren 2an, Luis Santamaría Menchacak zuzenduta, Udalak Bizkaiko Osasun Ikuskaritza Probintzialaren zirkular bat jaso zuen, 1937ko urriaren 22ko datarekin, zeinean udaleko osasun-langileen garbiketaren prozesua azaltzen zen:

“Con el fin de seguir un criterio de uniformidad y de actuar estrictamente dentro de las causas legales, y respondiendo al mismo tiempo a diversas consultas que sobre el procedimiento a seguir en la depuración del personal sanitario municipal se han formulado, tengo el honor de dirigirme a V.S. y de exponer a continuación, las normas a que ese Ayuntamiento de su digna presidencia deberá ajustarse en cuanto al régimen de depuración de su personal sanitario (médicos, farmacéuticos, odontólogos veterinarios, practicantes, matronas) se refiere: 1ª.- Corresponde a los Ayuntamientos instruir expediente para corregir, suspender o destituir de sus cargos, a aquellos funcionarios que por sus actuaciones antipatrióticas, o contrarias al Glorioso Movimiento Nacional, se considere deben ser sancionados. 2ª.- En dichos expedientes, que instruirán cuantos organismos, entidades o particulares se considere conveniente, deberá ser oídos los encartados, que responderán a los cargos que se les formulen. Una vez conclusos los expedientes los Ayuntamientos adoptarán en definitiva la resolución que a su juicio proceda (absoluciones, corrección, suspensión o destitución), terminando de este modo su actuación, dando cuenta del acuerdo adoptado para cada funcionario sancionado a esta Inspección provincial de Sanidad. 3ª.- El Gobernador General del Estado Español intervendrá únicamente en las apelaciones, recursos o quejas que contra las resoluciones dichos expedientes interpongan los interesados. 4ª.- Considero que no es preciso indicar a V.S. la necesidad de que en la gestión de depuración resplandezca en espíritu de imparcialidad, veracidad y justicia tal como corresponde a todas las actividades de nuestra España Nacional. 5ª.- Se interesa la mayor actividad y diligencia en la tramitación de los expedientes de depuración a que se refieren la presente circular, de la que ruego a V.S. se sirva acusar recibo”⁴⁹.

47. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/038.

48. BUA. Akta-liburua. 1943/07/29; 1943/08/12.

49. BUA. Akta-liburua. 1937/10/30.

Udalak goian kopiatutako zirkularra jaso zuenean, bi erabaki hartu zituen. Lehenengoa garbiketa txostena bideratzea zen, goian aipatutako araei jarraituz, sendagile titularra eta udaleko osasun-ikuskartzailea zen Julio Mendieta Lezámizena kontra eta udaleko bitarteko albaitari-ikuskartzailea zen Pedro Uribarrena Erezumaren kontra. Bi txostenei interesatuek Batzorde Kudeatzaileari lanpostuetara itzultzea eskatzen zuten instantziak erantsi zitzaizkien, egoki ziruditen erakundeen edo partikularren bestelako datu, froga edo txostenekin batera, eta auzipetuei entzun egin zitzaien egotzitako karguei erantzuteko⁵⁰. Kontsultatutako dokumentazioan Julio Mendieta Lezamizena kontra bideratutako garbiketa txostena bakarrik aurkitu dut. Dena den, dirudienez bitarteko albaitaria ez zuten kargugabetu eta postuan jarraitu zuen.

Aparteko biltzarrean, 1938ko ekainaren 23an, Udal honek Julio Mendieta Lezamizena kontra bideratutako garbiketa txostenari buruzko erabakia hartu zen, Sendagile titularra eta elizateko udal osasun ikuskartzailea zena, Bizkaiko Osasun Ikuskaritza Probintzialak adierazitako arauen arabera. Irakurketa egin ondoren eta Udalak irakurketaren emaitza-
ren kargua egin ondoren, alkateak bertaratutako zinegotzi bakoitzari hitza eman zion, eta ados egon ziren honetan:

“apreciación de que el médico Sr. Mendieta permaneció constantemente en el pueblo durante el período rojo, aún después de ordenada la evacuación por las autoridades del Frente Popular, sin que se hubiera conocido del mismo otra actuación que la presentación de sus servicios profesionales al Ayuntamiento y vecindario, apartado de toda actividad político-social a favor del anterior régimen, no obstante sus antecedentes republicanos, sin que conste ha pertenecido o motivado sus simpatías a partido político alguno de los representados en el Frente Popular, ni que haya procedido en forma contraria al Movimiento Nacional, desde el movimiento que este fue iniciado, y, entendiendo los presentes que sólo esos actos dispone el Decreto nº 108 del 13 de septiembre de 1936, sean sancionados, según aconseje el grado de responsabilidad apreciada por la Corporación, con la imparcialidad, veracidad y justicia recomendados en la Circular de la Inspección Provincial de Sanidad, el Ayuntamiento, por unanimidad, acuerda imponer al Inspector municipal de Sanidad Don Julio Mendieta Lezámiz la suspensión de empleo y sueldo durante dos meses, como sanción por sus ideas republicanas exteriorizadas con anterioridad al Glorioso Movimiento Nacional”⁵¹.

Hala ere, probintziako udalei zuzendutako zirkularra osasun langileen garbiketari buruz Estatuko Abokatutzak gai horri buruz emandako txosten batean oinarritzen zen, baina gero Estatuko Gobernu Orokorrak esandakoaren ondoren zirkularraren edukia baliorik gabekotzat jo behar izan zuen eta Udal Legean eta Osasun Koordinazioaren Legean ezarritakoari jarraitu behar izan zion garbiketari zegokionez. Laburbilduz, udalaren zerbitzura zeuden osasun langileengan fidagarritasun politikoa eta “Kausa Loria-suarekiko” atxikimendua (*adhesión a la “Gloriosa Causa”*) biltzen ez baziren, Defentsa Batzar Nazionalako 108. Dekretuak ezartzen zuen bezala, Ikuskaritzari jakinarazi behar zioten kasu bakoitzean zegokion txostena bideratzeari ekin ziezaion⁵². Busturiko Udalak Bizkaiko Osasun Ikuskaritza Probintzialari hurrengoa adierazi zion bakarrik:

50. BUA. Akta-liburua. 1937/10/30.

51. BUA. Akta-liburua. 1938/06/23.

52. BUA. Akta-liburua. 1938/07/28.

“que en la tramitación del expediente de depuración, seguido al Médico titular Don Julio Mendieta Lezámiz, y sanción acordada, el Ayuntamiento ha tenido en cuenta la norma 2ª de las comunicadas por referida Inspección en su Circular de 22 de octubre de 1937, la cual expresamente somete a la competencia del Ayuntamiento la resolución definitiva que como resultado del expediente estime procedente; el Ayuntamiento ha procurado atenerse a las instrucciones recibidas, más si en ello hubiera error, desea siempre de acomodar su conducta a lo previsto en las leyes y demás disposiciones relacionadas con la depuración del personal técnico municipal”⁵³.

Alabaina, Busturiko sendagile titularra eta udaleko osasun-ikuskatzailea zen Julio Mendieta Lezámiz kontrako garbiketa txosten berria ez zen inoiz gauzatu, Bilbon hil egin baitzen 1938ko uztailaren 24an. Une horretan bi karguez arduratu zen ordura arte Mundakan jarduten zuen Ángel Beascoa, eta bi postuetan jardungo zuen ezbeharreko izaerarekin bitarteko lanpostu-hornikuntza burutu arte⁵⁴.

2.3. Udalaren berritzea

Dagoeneko adierazi dugu Antonio Uriaguereca Araluceak, “*bere eginkizunak uzteagatik*”, ordura arte zituen udal-lanpostu guztiak utzi behar izan zituela: udaltzaina, udal-ehorzlea, iturgina, lorezaina eta udaleko ariel-biltzailea. Baina bere ordezkari Batzorde Kudeatzaileak izendatu zuenak, Echevarría Gorriñok, oso denbora gutxi jardun zuen kargu horietan. Ramiro Echevarría Gorriño, une horretan bitarteko langilea, gerrarako mobilizatu egin zuten. Mobilizazioa ikusita, Udalak aho batez erabaki zuen 1938ko irailaren 15ean hainbat izendapen egitea. Modu honetan, ariel-biltzaile eta iturgin izateko Julián Ateca Uriarte izendatu zuten bitarteko ordezkari izaerarekin. Bitarteko ordezkari izaerarekin ere Santiago Guezuraga Echevarría izendatu zuten udaltzain, ehorzle eta lorezain izateko⁵⁵. Lizentziatu ondoren, Ramiro Echevarría borrokariak mobilizatu izan baino lehenago Udalean zituen kargu guztiak berreskuratu zituen 1939ko apirilaren 1ean bitarteko izaerarekin. Horretarako, Julián Ateca Uriartek eta Santiago Guezuraga Echevarriak 1938tik egiten ari ziren lana utzi zuten⁵⁶.

Sendagile titularra eta Busturiko osasun-ikuskatzailea zen Julio Mendieta Lezámiz heriotzaren ondoren, 1938ko uztailaren 24tik aurrera postuaz arduratu zen orduan Mundakako sendagilea zen Ángel Beascoa, bitarteko lanpostu-hornikuntza burutu arte. Izendapenak berehalakoak izan ziren eta 1938ko abuztuan probintziako osasun-ikuskatzaileak Enrique Beitia García izendatu zuen etxeko laguntza publikoaren sendagile eta udaleko osasun-ikuskatzaile karguetarako, bitarteko izaerarekin, Busturia eta Muruetako udaletan, eta bi karguez jabetu zen 1938ko abuztuaren 6an⁵⁷. Bi udalek, Busturia eta Murueta, 3. mailako lanpostu bat ezarri zuten eta elkarren artean mantendu behar

53. BUA. Akta-liburua. 1938/07/14.

54. BUA. Akta-liburua. 1938/07/28.

55. BUA. Akta-liburua. 1938/09/15.

56. BUA. Akta-liburua. 1939/04/11.

57. BUA. Akta-liburua. 1938/08/11.

zuten, eta dena Bizkaiko sendagile titular/udaleko osasun-ikuskatzaileen postuen behin betiko sailkapenaren arabera, 1932an egindakoa⁵⁸.

Albaitari titular, botikari titular, praktikante eta emagin postuei dagokienez, nabarmendu behar dugu Busturia, Sukarrieta eta Mundakako udalek eratutako mankomunitatea, Mankomunitateko Estatutuetan gauzatua 1938ko maiatzaren 30ean. Estatutu hauek ezarri zen hiru udalei komuna izango zen albaitari titularren postua Mundakako Udalak hornituko eta lehiaketara aterako zuela, beste bi udalek baimenduta. Hala ere, 1939ko apirilaren 13an mankomunitateak oraindik ez zuen albaitari titular komunen postua hornitu, ezta lehiaketara atera ere, 1938ko maiatzaren 30eko estatutuek ezartzen zuten bezala. Gauza bera gertatzen zen praktikante eta emagin postuekin, albaitariaren baldintza berdinak biltzen zituztenak. Aldiz, botikari titularren postua hornitu zen eta Luis Gondrak bete zuen. Arrazoi honengatik, estatutuaren oinarriak bete ez ziren arte, badirudi elizateak aurreko bitarteko izaerako albaitariarekin jarraitu zuela: Pedro Uribarrena Erezuma⁵⁹. Nahiz eta Udalak 1939ko abenduaren 15ean onartutako zerrenda batean albaitari postua hutsik agertzen zen⁶⁰. Hala ere, Bizkaiko Abeltzaintza Zerbitzu Probintzialeko albaitari-ikuskatzaile nagusiaren ofizio batean, 1941eko irailaren 10ekoa, 1942. urterako udaleko albaitari-ikuskatzaileen esleipenen urteko aurrekontuaren prestaketa zela eta, hurrengoa jakinarazten zuen:

“Nombre del Inspector Municipal Veterinario que desempeña interinamente esta titular: Don Pedro de Uribarrena y Erezuma, vecino de la Villa de Guernica y Lumo. No existe nombramiento interino de este funcionario, en razón a que habiendo sido nombrado en propiedad en fecha 30 de Diciembre de 1917 y ejerciéndolo más tarde también en propiedad en la Villa de Guernica y Lumo, optó por esta última. Y desde aquel momento ipso facto, viene desempeñando la de Busturia”⁶¹.

Hau da, Pedro Uribarrenak udaleko albaitariko karguan jarraitu zuen 1941era arte, ustez garbiketa prozesua gaindituta, prozesu hori existitu baldin bazen, garbiketa txostena kontserbatu ez delako eta udaleko aktek ezer esaten ez dutelako horri buruz. Dena den, 1942ko apirilean albaitari postua iragarri zen Mundakako albaitari-barrutirako, eta hainbat borrokalaria ohi aurkeztu ziren lanerako, beraz, auresuposa dezakegu hemendik aurrera postua hutsik egon zela edo beste pertsona batez hornitua, urte berean Pedro Uribarrena Muruetako udal-albaitari bezala agertzen baitzen.

Herrizaintza Ministerioaren aginduz, 1939ko urriaren 30ean, udaletan eta toki-erakundeetan hutsik zeuden postuak behin betiko izaerarekin hornitzeko arauak eman ziren, eta hauen arabera Udalak erabaki zuen, Agindu horretako lehen eta bigarren artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuz, Udal honen funtzionario administratiboak, menpekoak, teknikariak edo medikuak prestatzea eta onartzea eta bitarteko kargu guztiak lehiaketa bidez hornitzea⁶². Agindu honekin Herrizaintza Ministerioak hurrengoarekin bukatu nahi zuen:

58. BUA. Akta-liburua. 1938/04/14.

59. BUA. Akta-liburua. 1939/04/13.

60. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/038.

61. BUA. Akta-liburua. 1941/09/11.

62. BUA. Akta-liburua. 1939/12/14.

“interinidad que, a partir del Movimiento Salvador, ha caracterizado la provisión de vacantes en las plantillas de funcionarios, empleados y dependientes de los Organismos de la Administración Local, unido a la necesidad de dar cumplimiento a los preceptos de la Ley de 25 de agosto de 1939, reguladores de los derechos que asisten a los mutilados, excombatientes, excautivos y personas de las familias de las víctimas de la guerra” (BOE, 1939/11/09).

Udalak berak 1939ko abenduaren 14an onartutako pertsonala hurrengo funtzionario administratibo, menpeko, teknikari edo medikuk osatzen zuten:

Busturiko Udalaren funtzionario administratiboak 1939ko abenduaren 15ean

Abizenak, Izena	Kargua	
Gorriño Tribis-Arrospe, Vicente	Idazkaria	Jabetzakoa
	Kontu-hartzailea	Jabetzakoa
Landa Lezámiz, Fermín	Gordailuzaina	Bitartekoa
Echevarría Gorriño, Ramiro	Ariel-biltzailea	Bitartekoa

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Busturiko Udalaren funtzionario teknikariak edo medikuak 1939ko abenduaren 15ean

Abizenak, Izena	Kargua	
Beitia García, Enrique	Etxeko laguntzarako sendagilea	Bitartekoa
	Osasun-ikuskatzailea	Bitartekoa
Luis Gondra	Botikari titularra	Efektiboa
Hutsik	Praktikantea	
	Emagina	
	Albaitaria	

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Busturiko Udalaren menpeko funtzionarioak 1939ko abenduaren 15ean.

Abizenak, Izena	Kargua	
Echevarría Gorriño, Ramiro	Udaltzaina	Bitartekoa
	Ehorzlea	Bitartekoa
	Iturgina	Bitartekoa
	Lorezaina	Bitartekoa
Iráculis Gorriño, Isidoro	Erloju publikoaren arduraduna	Jabetzakoa
Lachiondo Tellería, Juana	Kale-garbitzailea	Bitartekoa

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

1940ko apirilaren 25eko ohiko biltzarrean Udalak erabaki zuen, 1939ko abuztuaren 25eko Legeari eta 1939ko urriaren 30eko Aginduari jarraituz, lehiakide berak eska eta egin zitzakeen udaleko postu huts guztiak iragartzea: udaleko ariel-biltzailea, udaltzaina, iturgina, lorezaina eta ehorzlea⁶³. 1939ko urrian 30eko Aginduak adierazten zuen bezala:

“El nombramiento de los empleados subalternos, guardias y agentes armados, y obreros municipales y provinciales, se causará por concurso, previo examen de actitud, relativo a las funciones o trabajos que han de desempeñar” (BOE, 1939/11/09).

Lehiaketan parte hartzeko lehiakideak JONSetako FETaren afiliatua edo militantea izan behar zuen, 23 eta 35 urte bitartekoa, aurrekari penalik gabea, 1936ko uztailaren 18an bizi zen herriaren alkateak frogatutako jokaera eta moraltasun ona izatea, beteko zuen kargurako gaitasun fisikoaren ziurtagiri medikoa edukitzea eta lehen hezkuntzako oinarritzko ikasketak egiaztatzea. Gainera, kontuan hartuko ziren ere

“como meritorios los servicios prestados a la Causa Nacional, a las órdenes de la Intendencia Militar de esta plaza, a raíz de la liberación de este pueblo por las Gloriosas tropas del Ejército Español, cuyos servicios deberán acreditarse documentalmente, al efecto”⁶⁴.

León Echevarría Galdospin eta Ramiro Echevarría Gorriño auzotarrak izan ziren eska-riak behar bezala dokumentatuak aurkeztu zituzten pertsona bakarrak, beraz, postuen esleipena jabetzan eskatzen zuten lehiakide bakarrak izan ziren. Bizkaiko Gobernu Zibilaren bulegoburuak, Busturiko alkateak eta bigarren alkateordeak osatutako epaitegi batek ebaluatu zituen ariketa aritmetikoak, salaketa parte baten idazketa eta bete nahi zituzten karguei buruzko orokortasunei buruzko galderen erantzunak, azkenik Ramiro Echevarría Gorriñoren alde eginez. Gainera, Fermín Landa Lezámiz zinegotziak adierazi zuen Echevarriak besteak baino meritu eta zerbitzu gehiago zituela, beraz, zinegotziek aho batez postuak betetzeko izendatu zuten⁶⁵.

1939ko urriaren 30eko legeak era azpimarratzen zuen: “*los funcionarios de profesiones sanitarias serán designados de acuerdo con las disposiciones a dichos efectos dictadas*” (BOE, 1939/11/09). Honela Osasun Zuzendaritza Orokorrak, 1940ko urtarilaren 10ean, “*concurso de traslado*” bat (“lekualdatze lehiaketa”) iragarri zuen sendagile titu- lar edo etxeko laguntza publikoaren sendagilearen jabetzako postuez hornitzeko (BOE, 02/10/1940). Lehiaketaren ebazpenean José Mouzo Vázquez sendagilea Busturira bidali zuten “*eskatutako postu desberdineko lehiakide soberakinen*” artetik (“*exceden- tes de plaza distinta a la que han solicitado*”). 1940ko urriaren 31ean, Busturia eta Murueta Udalen taldeko etxeko laguntza publikoaren sendagile eta udaleko osasun ikuskatzaile karguaz jabetu zen, jabetzako izaerarekin⁶⁶.

Gobernu Zibilak ahaleginak egin zituen arren Busturiak derrigorrez Sukarrietarekin talde bat egin zezan idazkari komuna izan zezaten, Udalak proposamenari uko egin zion Udala

63. BUA. Akta-liburua. 1940/04/25.

64. BUA. Akta-liburua. 1940/04/25.

65. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0049/001; BUA. Akta-liburua. 1940/06/15.

66. BUA. Akta-liburua. 1940/10/10; 1940/11/14.

Funtzionarioen Erregelamenduari men eginez⁶⁷. Busturiko Udalaren idazkaria, 1902ko urriaren 7an Bizkaiko Probintziaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako lehiaketa baten bidez izendatua izan zena, karguan zegoen oraindik gerra eta udal garbiketa gainditu ondoren. Dena den, 1942ko urtarrilaren 15ean, elizateko sendagileak, José Mouzo Vázquezek, Vicente Gorriño gaixorik zegoela egiaztatu zuen eta tratamendu mediko bat denbora batez jarraitu beharko zuela adierazi zuen. Arrazoi honengatik, Udalak José Gandarias Albizua izendatzea erabaki zuen bitarteko ordezkari bezala⁶⁸.

2.4. Probintzia-langileen garbiketa

Orain dela gutxi, Aritz Ipiña Bidaurreazaga historiagileak doktorego-tesi oso bat aurkeztu du: *La depuración de funcionarios y empleados públicos provinciales y municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista: (1936-1976)*. (*Probintziako eta udaleko funtzionarioen eta langile publikoen garbiketa Gerra Zibilean eta diktadura frankistan: 1936-1976*). Aztertutako herrien artean Busturia dago. Dena den, orain Bizkaiko Aldundi Probintzialaren langile gisa aritzen ziren bidezain, miñoi edo auzo-eskolen maistra bezalako jardura profesionalak zituzten busturiar garbituei buruz hitz egingo dugu.

Bizkaiko Aldundiak bere gain hartu zituen eskumenen artean bideen kudeaketa zegoen. Aritz Ipiñak azpimarratzen ditu sustapen ataleko langileen hiru taldeen lan-ezaugarriak, gerran izan zuten papera eta garbiketa prozesua ezberdinak izan zirela, horregatik langile tekniko eta ez teknikoren azterketa banandua egiten du (Ipiña, 2014: 634). Lan honetan zati edo tartetan banatuta zeuden langile ez teknikoak, edo menpeko langileak, hartuko ditugu kontutan. Izan ere Ignacio Lequerica Elesgaray aztertuko dugu, Busturiko auzotarra, bidezaina 1923tik, Gernikatik Busturirako errepideko 43. tokia zuena⁶⁹.

Bide eta Portuen menpeko langileen artean 204 bidezain daude; teknikoak ez ziren langile guztien %67,55 ziren. Bidezainek esleitutako tarteetan zehar ibiltzen ziren eta harria berriz jartzen zuten edo hobeto banatzen zuten errepidearen azaletik, etengabeko mantentze-lanak behar zituen eta (Ipiña, 2014: 635). 1936ko uztailaren 18ak eragin ezberdina izan zuen Bide eta Portuen menpeko langileengan, Bizkaia eta Burgosetik sakabanatuta egoteagatik, eta batzuk matxinoek kontrolatutako eremuetan geratzea-gatik. Zenbait borroka fronteetara boluntario bezala joan ziren bitartean, beste batzuk Euzko Jaurilaritzak mobilizatu zituen eta desertatzeko une egokiaren zain zeuden. Batzuk espetxeak zaintzen zituzten eta Tokiko Defentsa Batzordeen edo Udal Batzar Ikertzaileen parte ziren bitartean, beste batzuk erailak izaten ziren espetxe-itsasontzietan edo hegazkin matxinoek jaurtitako bonben azpian (Ipiña, 2014: 637-641).

Tropa matxinoak Bilbon sartu zirenean, 1937ko ekainaren 21ean, Bide eta Portuetako langile ez tekniko guztiak posturik gabe geratu ziren dekretuz, baina bere lanpostuetan geratu behar zuten eta berriz sartzeko eskatu behar zuten lau eguneko epean. Ezagutzen diren langileen %36,49k bakarrik eskatu zuten berriz lanpostua emandako

67. BUA. Akta-liburua. 1940/11/07.

68. BUA. Akta-liburua. 1942/01/15.

69. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02616/008.

epearen barruan, 108 langile 296 langileetatik. Askok ezin izan zuten postua berriz eskatu emandako epearen barruan. Aldundia honetaz jabetu zen eta berriz sartzeko eskariak 1937ko azarora arte onartu zituen, baldin eta langilea postua uzteaz akusatua izan ez bazen. Prozesu garbitzailea hasi zenean agintari errepublikanoek kargurik gabe utzi zuten langile guztiak berriz onartuak izan ziren garbiketa txostenik gabe, baina egun batzuk geroago iritziz aldatu eta hauen kontra ere garbiketa-txostena irekiko zen. (Ipiña, 2014: 641-644).

Ignacio Lequerica Elesgaray, bidezaina 1923tik, Gernika-Busturia errepideko 43. tartea betetzen zuena, Busturiko auzotarra, langile probintzial guztiei postua kentzen zien 1937ko ekainaren 21eko hitzarmenaren berri izanda, 1937ko abuztuaren 28an une horretara arte jarduten egon zen lanera berrir itzultzea eskatu zuen, *“no pudiendo efectuarlo hasta la fecha por estar ausente en Carranza por evacuación forzosa de mi destino”*. 1937ko abuztuaren 17an Busturiko Udalak Aldundiak bidalitako galdeketa bateko lau galdera erantzun zituen. Galdeketa honek bidezainari buruzko izaera soziopolitikoko eta lan-izaerako galderak zituen, eta udalak hurrengoa adierazten zuen:

“No ha desempeñado cargo alguno ni colaborado de forma alguna con la llamada Junta de Defensa de Vizcaya, Gobierno de Euzkadi ni con el de Valencia”; “No se le ha conocido al individuo de que se trata ninguna actuación antipatriótica o contraria al Movimiento Nacional”; “No ha pertenecido a partido alguno político ni sindical con anterioridad ni con posterioridad al 19 de julio de 1936, ni como afiliado ni como protector ni en forma alguna”; “El individuo de referencia le merece al informante (Darío Gómez Apraiz) el mejor concepto en los diversos aspectos”.

Antzeko hitzak erabili zituen JONSetako FETaren tokiko buruzagi eta eskuineko auzotarra zen Antonio Zuazúak. Hala ere, JONSetako FETaren txostenak esaten zuen:

“si bien evacuó de la localidad las vísperas de la liberación de este pueblo por el Ejército Nacional, lo que hace juzgar que no sea todo lo adicto que debiera al actual Régimen salvador de España”⁷⁰.

Errepideetako langile ez teknikoen garbiketa prozesua nahiko berandu hasi zen, Aritz Ipiñaren iritziz ez zutelako hil ala biziko garrantziarik Aldundia funtzionatzeko (Ipiña, 2014: 645). Garbiketa honen ondorioz langile ez teknikoen %42,72ri lana kendu zitzaion eta eskubide guztiak galdu zituzten, 129 funtzionario guztira. Langileen %17,88ri (54 langile) kargu itzuli zitzaion baina zigor bat edo gehiagorekin. Zigor ohikoena langilea errepidearen beste tarte batera bidaltzea izan zen, gerra aurretik esleitura zuen beste tarte batera, hain zuzen, lana eta familia bateragarri egiteko arazoak, zigortua izatearen estigma eramatea eta tokiko agintariak gaineen izatea eraginez. Gainera, beste zigor bat mailaz igotzearen ezintasuna zen (Ipiña, 2014: 649).

Ignacio Lequerica Elesgarayri dagokionez, Bizkaiko Aldundiak hurrengoa erabakitzen zuen 1938ko urtarrilaren 24an: *“había pasado con gran exceso el plazo de presentación y el concedido para solicitar la readmisión”*. Eta jarraitzen zuen:

70. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02616/008.

“a juzgar por lo que se dice en el informe de F.E.T. y de las J.O.N.S., de Busturia, fue voluntaria, hacía incurrir al interesado en la consiguiente responsabilidad que tenía como prevista sanción la destitución del cargo”.

Are gehiago:

“el interesado reconoce en su declaración haber dado el voto en las últimas elecciones a los republicanos, si bien trata de justificar el hecho con la invocación al miedo de perder el puesto”.

Une horretan behin betiko kendu zitzaion kargua bidezainari: “*con pérdida de todos sus derechos por no haberse presentado al servicio a su debido tiempo y por su significación y actuación política*”. Hala ere, hurrengo egunean egindako batzaraldian, 1938ko urtarrilak 25, Bizkaiko Aldundiak erabaki zuen:

“reponer en su cargo de peón caminero a Don Ignacio Lequerica Elexgaray con imposición de una amonestación, traslado e inhabilitación para todo ascenso durante diez años, con todas las consecuencias económicas y de otro orden que puedan derivarse de esta sanción”.

Erabaki honen arabera, Ignacio Lequerica Elexgaray Urduña-Pancorbo errepidera bidali zuten 1938ko otsailean, errepide hau estatuen eskuetan geratzen baitzen 1938ko otsailaren 1ean Ekonomia Ituna indargabetu ondoren, eta bertan lan egin zuen 1946ra arte gutxienez⁷¹.

Bizkaiko Miñoia zen lurraldeko polizia probintziala, Emilio Mola Vidal jeneralaren heriotzaren ondoren Iparraldeko Armadaren komandante nagusi zen Fidel Dávila Arrondok 1937an desegin zuen arte. Miñoiak Bizkaiko Aldundiak mantentzen zituen ekonomikoki, eta besteak beste, hurrengo ardurak eta eginkizunak zituzten: Gernikako Batzar Etxea eta Aurrezki Kutxa zaintzea, ordena publikoa mantentzea, zoroak eramatea, eskaleak biltzea, lehergaiak zeramatzen trenen eskolta egitea edo hazitarako zezenen geldialdiak ikuskatzea. 1904ko Errege Dekretuaren bidez miñoiak militarki antolatu ziren, eta bere kideak Justizia Militarreko Kodearen eta Armadako ordenantzen menpean geratu ziren (Ipiña, 2014: 770).

1936ko uztailaren 18an miñoiak 131 gizon ziren, Bizkaiko hainbat postuetan sakanatuta, eta kuartela Bilbon zegoen, udal alondegiaren aurrean. Miñoiak, beste segurtasun taldeak ez bezala, ideologia kontserbadoreko kideak izateagatik bereizten ziren. Hala ere, matxinada militarren ondoren haien eginkizunak ordena mantentzea, susmagarriak atxilotzea eta Tokiko Defentsa Batzordeen eraketan parte hartzea izan ziren. Gainera, batzuk borroka fronteetara joan ziren behin-behineko agintari, miliziano edo polizia militar bezala jarduteko eta, ondoren, preso eskuindarrak zaindu zituzten (Ipiña, 2014: 773-780). Domingo Izaguirre Iturbe, 2. mailako miñoia, Busturian jaioa, Zornotzako postuan zegoen kolpe militarra gertatu zenean. Hurrengo egunean Bilboko kuartelera joan zen eta han Orozkoko frontera bidali zuten 1937ko abuztuaren 6ra arte, ziur aski Gabriel Aizpururen Amurrioko Zutabea sartuta. 1937ko urriaren 30ean, 2. mailako miñoiak, José Eguía Marcaida, Domingo Izaguirre Iturbe eta Santiago Minteguia Eizaguirre, Domingo Ibarra Enciondo Bilboko udaltzainarekin batera, Aguirre

71. BFAAH. Gobernu eta Eliza-kontuak. AJ02616/008.

lehendakariaren eskolta izendatu zituzten. Denak EAJkoak ziren eta armak maneiatzen zekiten (Ipiña, 2014: 780). Matxinoak Bilbon sartu zirenean, Domingo Izaguirre atxilotu zuten udal alondegian zaintza zerbitzua ematen zegoenean⁷².

1937ko ekainaren 19an tropa matxinoak Bilbon sartu zirenean, Ignacio Anitua kapitaina eta 91 miñoi Bilbon kuarteleratuta geratu ziren. Denak atxilotu eta Arriaga Antzokira bidali zituzten, behin-behineko espetxe bilakatua. Hauei hiriburuko eta probintziako beste hainbat tokitan atxilotutako miñoiak gehitu zitzairen. 1937ko ekainaren 21ean, Bizkaiko Aldundi Probintzialeko presidente berriak, Luis Llaguno, kargugabetze orokorra agindu zuen. Hala ere, hauen kontrako garbiketa prozesua bi egun geroago geldiarazi zen agintari militarrek atxilotuta zituztelako. Probintziako agintariek erabaki zuten miñoiak indar militarrek aurretik iker zitatzela eta hauek askatu edo zigor zitatzela epaiketa sumarioetan, eta gero aplikatuko zitzaizela garbiketa prozesua. Luis Montaner y Canet miñoien buruzagiak lehen informazioak eman zituen atxilotutako hogeiki ingururen eta beste miñoi batzuen kontra, Domingo Izaguirre barne, eta geroago beste zerrenda batzuk miñoiei buruzko informazioa osatuz joango ziren garbiketa hasteko (Ipiña, 2014: 782-783)⁷³. Domingo Izaguirre Iturbe auzotarra epai irmo batek zigortu zuen 1937ko uztailaren 14an *“biziarteko espetxealdira”* altxamendu militarreko delitu batengatik, hurrengo zigor osagarriekin: desgaitasun absolutua, miñoien kidegotik kanporatzea eskuratutako eskubide guztiekin eta epaia eduki arte behin-behineko espetxealdian igarotako denbora kentzea. Aginteko agenteek zigortu bezala espetxean sartu zuten agintari militarren aginduz 1937ko irailaren 13an⁷⁴.

Aritz Ipiñaren arabera, 1937tik 1938ra epaituak izan zirenen kopuru osoa 74 izan ziren, miñoien buruzagia, bi kapitain eta tropako 71 kide. Gainera, azaltzen du miñoiak errepresio fisiko frankistaren mailarik altuena jasan zuten funtzionarioak izan zirela. Epaitutako 74 kideetatik, %12,16 fusilatuak izan ziren eta %5,41i heriotza zigorra biziarteko espetxealdiarekin konmutatu zitzaion (Ipiña, 2014: 784-785). Garbiketa prozesua auzitegi militarrek zigorrak ezarri ondoren etorri zen, eta auzitegi militarretatik libre zeuden Aldundirako lanean ari ziren langile guztien kontra Pertsonala Garbitzeko Bulegoak banakako txostenak bideratu zituen (Ipiña, 2014: 790-799).

Probintziako langileen garbiketari auzoko eskolen maisu eta maistrak ditugu. Aipatu dugu 1937ko ekainaren 21ean Bizkaiko Aldundiko langile publiko guztien kargugabetze orokorra dekretatu zela, eta postua banaka berriz eskatzeko lau egun eman zirela. Kopuru osoaren %34,04, hau da, 188 langiletik 64, kargurik gabe geratu ziren funtzionario bezala eskuratutako eskubide guztiak galduz. 188 horien %27,66k postua berreskuratu zuen baina zigor ezberdinekin, garbiketak iraun zuen denborako hartzeak galtzea, lerrun-zerrendan jaistea edo bosturtekoak galtzea, adibidez. %36,70ak bakarrik berreskuratu zuen postua zigorrak gabe. Ekonomia Ituna indargabetzean auzoko eskolak eta hauen langileak Estatuaren menpe geratu ziren. Une horretan “D)” Batzorde Garbitzaileak Bizkaiko Aldundia 1939tik 1945era bideratutako garbiketa txostenak berrikusteaz arduratu zen. Aldundiak egin zuen auzoko eskolen langileen garbiketari Ministerioak

72. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 176/37 kausa. Bizkaia.

73. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 176/37 kausa. Bizkaia.

74. BAH. Espetxeak. 45. kutxa. 66. txostena; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 176/37 kausa. Bizkaia.

egindakoa baino kargugabetze eta zigor gehiago izan zituen. Honen arrazoiak izan ziren erbesteratu ziren irakasleen kopurua, irakasleriaren ideologia nazionalista eta Aldundiko izapidegileen eta arduradunen jokaera mendekaria (Ipiña, 2014: 768-769).

3. EL FLORIDO PENSIL: HEZKUNTZA ETA LEHEN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN GARBIKETA

Udaleko zenbait ikastetxek atzealdeko zerbitzuaren tropak eta bulegoak hartu zituzten matxinoentzat⁷⁵. Borroken hurbiltasunak eta tropen gordetegiak kalteak eragin zizkieten udalerriko hainbat eskola-erakineei, adibidez, Parezikiko auzoko eskola mistoak kalteak izan zituen teilatuan, leihoetako beiretan eta altzarietan; hori bai, eraikinaren egoera ona zen⁷⁶. Eraikinak oso txarto egon ez arren, ez zegoen irakasteko materialik eta altzariak narriatuta zeuden, udalak gerra eremu batean egoteagatik igarotzen zituen aparteko baldintzak zirela eta⁷⁷. 1937ko apirilaren 9an eskolan bertan behera utzi ziren, hilabete horretako 29an tropa matxinoak herrian sartu baino lehen, eta badirudi ez zirela irakaskuntza lanak berriz hasi hurrengo ikasturtera arte. Ziur aski, adierazitako zailtasunak izan ziren eskolak bertan behera uzteko arrazoia.

Estatu berriak, Errepublikak bezala, erregimen politikoaren jarraitzaileak hezteko tresna egoki bezala erabili zuen eskola. Horretarako, eskola errepublikanoaren ezaugarri nabarmenak ezabatzen hasi ziren: hezkidetza, laikotasuna, elebitasuna eta hezkuntza-berrikuntza. Ikasturte berria hasi baino lehen, 1937ko uztailaren 5ean, Bizkaiko Kultura eta Irakaskuntza Batzordeko Ordezkaritzak eskola nazionalak, auzokoak, udalekoak edo euskaldunak konfiskatu zituen, material guztiarekin batera, eta konfiskatu zenetik udaleko alkateak erantzule egiten zituen ikastetxeetako materiala narriatzen edo desagertzen bazen. Udalaren erantzukizuna zen ere eskoletan eragindako kalteen konponketa eta beharrezko eskola-materialaren erosketa, eremuko ikuskatzailearen aholkularitzarekin, irakaskuntza hasteko asmoz⁷⁸. Orduan Udala Altamirako nesken eta mutilen eskolak garbitzeaz eta Axpeko mutilen eskolan beirak aldatzeko igeltserotza lanak egiteaz arduratu zen, faktura guztiak ordainduz. Azkenik, aipatuko dugu irakasleen garbiketa prozesua denak kargugabetzen hasten zela, berriz postua eskatzeko beharrarekin, eta horrela egin zuen, gutxienez, Altamirako mutilen eskolako maisua izan zen Sebastián Santos Blancok, oinarrian jarduera politiko-ideologikoari buruzko galdeketa bat bete ondoren, lanbideko merituak edo demerituak kontuan hartu gabe⁷⁹.

Estatuko Batzar Teknikoko Kultura eta Irakaskuntza Batzordeko Bizkaiko Ordezkaritzak xedatutakoaz aparte, aipatutako erakineei buruz Udalak hartutako erabakiez gain,

75. Altamirako nesken eskola nazionala, Altamirako mutilen eskola nazionala, Parezikiko auzoko eskola mistoa eta Axpeko nesken patronatu-eskola.

76. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/020.

77. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/005.

78. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/020.

79. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 430. kutxa. 21. txostena.

nabarmendu behar dugu Busturiko ikastetxeen irakasleei egindako ikerketak 1937-1938 ikasturtea baino lehen. Hasitako ikerketa hauek 1936ko abuztuaren 19ko aginduan dute abiapuntua (BOJDNE, 1936/08/21; 1936/08/29), udalei udalerriko irakasleen jokaerari buruzko txostenak eskatzen baitzizkien (aurrekariak, jokaera politikoa, morala eta pertsonala), ikastetxeen buru izateko egokitasuna edo karguaren berritzea ezartzeko asmoz. 1936ko azaroaren 8ko dekretuarekin hurrengoa aldarrikatu zen: *“una revisión total y profunda en el personal de Instrucción Pública”* para la

“reorganización radical y definitiva de la enseñanza, extirpando así de raíz esas falsas doctrinas que con sus apóstoles han sido los principales factores de la trágica situación a que fue llevada nuestra Patria” (BOE, 1936/11/11).

Busturiko Udalak egindako ikerketa hauen legezko oinarria aldi baterako izaera zuten batzordeen (A, B, C eta D) sorreran zetzan, eta hauen helburua zen unibertsitateko irakasleria, ingeniari eta arkitektoen eskolak, Arte eta Lanbide eta merkataritzako eskolaka, eta lehen eta bigarren irakaskuntzak garbitzea. Busturiko herrian “D” batzordea bakarrik interesatzen zaigu, herri honetako irakaskuntza mota delako. Batzordea honela osatzen zen:

“por un Director de Instituto de 2ª Enseñanza, un Inspector de 1ª Enseñanza, el Presidente de la Asociación de padres de familia y dos personas de máximo arraigo y solvencia moral y técnica. Esta Comisión se constituirá también en cada provincia, teniendo como misión principal la de formular propuestas razonadas de suspensión o separación del personal de magisterio con destino en el territorio de su jurisdicción” (BOE, 1936/11/11).

1937ko ekainaren 12an, jadanik aipatu dugun Bizkaiko irakaskuntza berrantolatzeko ordezkaritza irakaskuntza maila guztietako irakasleriaren ikuspegi erlijioso, moral, politiko eta profesionalen interesatu zen, existitzen ziren edo azken bost urteetan existitu izan ziren mota guztietako zentro ofizialetan, pribatuetan, erlijiosoetan eta ongizazkoetan. Baita ikertu zituzten ere irakaskuntzan jardun ez arren jarduteko tituluak zituztenak eta udalerrian bizitzen edo bizi izan zirenak. Modu honetan jakinarazi zitzaion Ordezkaritza Luis Bonifacio Cano Esteban maisuaren leialtasuna, Armada Nazionalako borondatezko borrokalaririk ohia zena, edo Sebastián Santos Blanco irakaslea bezala, Ezker Errepublikanoaren aldekoa zena eta tropa matxinoak sartu baino egun bat lehenago udalerritik irten zena. Gainera Sofía Bizcaíno Sagasetaren izaera erlijiosoa eta morala azpimarratzen zen, Santa Anaren Kongregazioaren moja zenez, eta baita herrian irakaskuntzan aritzeko titulu profesionala zutenen irakasleen kidetasun politikoa: Soledad eta Diodoro Gorriño Echevarría neba-arrebak (biak Ezker Errepublikanoak jarduleak), Ricardo Chertudi Zabala (eskuindarra), María Borda Anguisola (Ezker Errepublikanoak zalea) eta Cristina Arróspide Achicallende (EAJko jardulea)⁸⁰.

Udalak irakaslegoari buruz egin zituen ikerketek abuztuaren erdialdean jarraitzen zuten. Hori baieztatzen dute 1936ko uztailaren 18a baino lehenago udalerriko ikastetxeren baten ardura zuten irakasle guztiei buruzko txostenek, bakoitzaren betebeharrak erlijioso, jokaera pribatu, jardura politiko, jardura profesional, jardura mugimenduan zehar eta iriziti pertsonalari buruz. Irakasle guztiek betebeharrak erlijiosoak betetzen zituzten, jainkozaletasun ereduaren ematen zieten zietelarik auzokideei. Jokaera eta ohiturak ere moralki akatsik gabekoak ziren, eta ez zegoen haien artean politikoki zalea edo jardulea zenik. Hala

80. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/005.

ere, txosten hauek azpimarratzen jarraitzen zuten Sebastián Santos Blanco irakaslea, politikoki afiliatua edo jardulea izan ez arren eta 1936ko hauteskundeetan parte hartu ez arren, erreferentzien arabera Ezker Errepublikanoa begiko zitzaion eta ideia errepublikanokotzat jotzen zitzaion. Irakasleen ideologia politikoa txostenetan ongi zehaztuta geratu ez arren, irakurtzen zuten egunkarietatik suma zitekeen irakasle gehienek kidea politiko eskuindarra. Bonifacio Cano Estebanek eta Obdulia Rementería Ispizuak *“El Noticiero Bilbaino”* irakurtzen zuten (egunkari foruzalea), Sebastián Santos Blancok egiten zuen bezala *“El Liberal”* egunkariarekin batera (egunkari sozialista), eta Pascuala Arriaga Bengoechea, María Igarzábal Aguirre eta Sofía Vizcaino Sagaseta maistrek *“La Gaceta del Norte”* nahiago zuten (egunkari katolikoa, kontserbadorea eta monarkikoa). Azkenik, txostenek zehazten zuten denek liburu eta metodo egokiak erabiltzen zituztela (*“(buena)orientación patriótica, religiosa y moral”*)⁸¹.

Baina udaleko aginpidea ez zen irakasleen ikerketan paper garrantzitsua zuen bakarra. 1936ko azaroaren 10eko Aginduaren arabera, Batzordeak eskumena zuten:

“reclamar a cuantas Autoridades, Centros y personas lo estimen conveniente, cuantos informes crean necesarios sobre la conducta profesional, social y particular, así como actuaciones políticas del personal cuyos antecedentes y actuación les corresponda investigar, con objeto de poder formar un concepto acabado y total de cada uno de los interesados” (BOE, 1936/11/11).

“D” Batzordearen txostenak betetzeko, hurrengo informazioak beharrezkoak ziren: *“obligatorios los del Alcalde, Cura Párroco, comandante del puesto de la Guardia Civil y de un padre de familia bien reputado, del lugar en que radique la Escuela”* (BOE, 1936/11/11). Gainera, Batzordeek hurrengo eskumena zuten:

“delegar en uno de sus miembros u otra persona para que se traslade al lugar o lugares en que haya desempeñado cargos el funcionario objeto del expediente y aporte a éste cuantos testimonios estime precisos al mejor esclarecimiento de los hechos” (BOE, 1936/11/11).

Honela, alkateari, erretoreari, Guardia Zibilari eta familiako aita bati, JONSetako FETaren tokiko buruzagiak, borrokalari ohiak, borrokalariak eta *“moralitate”* ezaguneko herriko auzotarrak gehitzen zitzaizkien informatzaile bezala. Augusto Peñín Balbas maisuaren kontra irekitako garbiketa txostena, Axpeko mutilen eskola nazionalaren ordezkoi maisu izendatu zutena Euzko Jaurlaritzaren garaian, eta Sebastián Santos Blancorena, Altamirako mutilen eskola nazionalaren maisua izan zena, 1936ko azaroaren 10eko Aginduaren arabera agintari horiek egin zituzten ikerketen bidalketaren adibide argiak dira.

Arrasateko Udaleko alkateak adierazi zuen Augustoren jokaera profesionala ona zela (*“buena”*), oso pertsona zintzoa zela (*“persona seria y formal”*), baina oso ezkertiarra izateagatik (*“muy de izquierda”*) ez zuela kolpe militarren alde jardun. Bere aldetik, JONSetako Falange Espainiarrak adierazi zuen: *“(en) sus conversaciones no se caracterizó ni derecha ni izquierda”*. Arrasateko erreketaren tokiko buruzagiak esan zuen bere jokaera partikularra, profesionala eta soziala onak zirela: *“buenas (... y) muy de izquierda aunque parece que no ha actuado en el actual movimiento”*. Guardia Zibilak adierazi zuen:

81. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/014.

“era de filiación Socialista de acción, y de ideas extremistas, sindicalmente perteneció a la UGT como elemento significado, su conducta moral y religiosa, muy detestable, y su actuación profesional muy deprecable”.

David Esnal Garmendia presbiteroak, Arrasateko parrokia-elizako apaiz artzipresteak, honakoa jakinarazi zuen:

“además de no pisar nada la iglesia (...) era en política un adicto fervoroso a los gobiernos revolucionarios de Azaña, Prieto, Largo Caballero, etc. apartándose de sus colegas derechistas hasta en el trato social”.

Baina txosten hauek guztiak eta emandako beste batzuk oso bestelakoak ziren. José Luis Deus Gómezena, adibidez, 20. Langileen Batailoiko 4. Konpainiako alferez-komandantea zena, bere jokaera ona egiaztatzen zuena eta hurrengo gehitzen zuena: *“distinguiéndose por su entusiasmo hacia el Glorioso Movimiento Nacional”*. Ezequiel Carbajo Ferreroren txostenak ere, Segurtasun Zuzendaritza Orokorren Brigada Mugikorrean destinatuta zegoen eta ikerketa eta zaintzako gorputzeko 1. mailako agentea zena, egiaztatzen zuen Augusto 1924tik ezagutzen zuela eta ziur zekiela alderdi politikoetan eta sindikatuetan egon ez zela eta armada gorrian (*“derrotado ejército rojo-separatista”*) parte hartu zuela mobilizatu zutelako. Antzeko hitzak erabiltzen zituzten Mariano Macías Bona infanteriako alferez, Ferrero Huerga Segurtasun Gorputzeko guardia, Saturnino Quintana Eguidazu Arabako erreketeko tertzioaren teniente edo Gipuzkoako FETeko eta JONSetako Informazio eta Ikerketako ordezkari probintzialaren “aldeko” txostenek⁸².

Kolpe militarra gertatu baino lehen Altamirako mutilen eskola nazionalaren irakasle zen maisuari dagokionez, Sebastián Santos Blanco hain zuten ere, Elorrioko Udaleko alkateak eta idazkariak eta Elorrioko Lehen Irakaskuntzako Batzarrak adierazi zuten maisuak herrian irakatsi zuen bitartean, 1938ko irailetik 1942ko irailaren 14ra arte, betekizuna zintzo bete izan zuela (*“cumplido fielmente su cometido”*), eta auzotarrentzat eredu izan zela gazteei irakasterakoan, *“tanto en el terreno moral, como el religioso y patriótico”*. Busturiko Udalak ere, Guardia Zibilak, Busturiko erretoreak, familiako aita on batek eta herriko zenbait auzotarrek maisuaren papera positiboki baloratu zuten esanez *“un elemento curable, carente de mala intención, de poca consistencia acaso por falta de base formativa”*, baina Ezker Errepublikanoa begiko zuela agerian utzi zuten⁸³.

Irakasleei buruzko ikerketak oso garrantzitsuak ziren espedientatuaren kontrako kargu-orriaren idazketan eragina baitzuten. Horregatik, tokiko txosten batzuk adierazten zuten, adibidez, Ricardo Chertudi Zabala busturiarraren jokabidea, esanez:

“una buena conducta moral y es de destacada significación derechista, demostrando en todo el tiempo su acendrado españolismo antes y después de producirse el Movimiento Nacional, como persona afecta al mismo”⁸⁴.

82. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 191. kutxa. 12. txostena.

83. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 430. kutxa. 21. txostena.

84. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/006.

Edo Luis Bonifacio Cano Estebanen alde aurkeztu zena, adierazten zuelako matxinoen alde militarki lagundu zuela eta Busturiko jabetzako maisuaren jokabidea egokia zela: “*presentó muy buena conducta moral, social y política, sustentó ideales patrióticos y según firedignas informaciones está encuadrado como camisa vieja*”⁸⁵.

Txosten guztiak bilduta eta Batzordeak beharrezkotzat jotzen zituen izapideak egin ondoren kargu-orria idazten zen, interesatuak, luzatu ezineko hamar eguneko epean, idatziz deskarguak adieraz zitzen eta bere defentsarako dokumentazioa eman zezan. Adibidez, Augusto Peñín kontrako kargu-orrian destinoa utzi zuela, ideologia iraultzailea zuela eta UGTko afiliatua zela, Azañaren politikaren zale amorratua zela, erlijiogabea eta Arrasate “*askapen garaian*” utzi zuela adierazten zen⁸⁶. Bere aldetik, Sebastián Santos Blanco maisuaren kontrako kargu-orrian, Bizkaiko Irakasleria Garbitzeko Batzordeak adierazi zuen Ezker Errepublikano alderdia begiko zitzaiola, *El Liberal* irakurtzen zuela eta Busturiko herria “*askatua izan*” baino lehen utzi zuela⁸⁷.

Espedienteak osatuta egon ondoren, Bizkaiko Irakasleria Garbitzeko Batzordeak Kultura eta Irakaskuntza Batzordera bidaltzen zizkion zegokion proposamenarekin. Proposamenak izan litezke: “*A) Confirmar en su cargo al funcionario. B) Traslado del mismo. C) Separación definitiva del servicio*” (BOE, 1936/11/11). Eta Garbiketa Batzordeak uste bazuen kausa larriak zeudela, Kultura eta Irakaskuntza Batzordeari proposatu ahal zion lana eta soldata kentzea, Augusto Peñín Balbas maisuaren kasuan gertatu zena. Prozesua zentralizatzeko eta bizkortzeko helburuarekin, 1938ko martxoaren 11ko Aginduak Bulego Tekniko-administratiboa sortu zuen, eta hona batzorde probintziales egindako txostenen proposamenak bidali ziren (BOE, 1938/03/19). 1939ko martxoaren 18tik aurrera, gerra bukatzeaz zegoela, arautegi garbitzailea bateratu zen eta batzorde probintziales irekitako espedienteak Garbiketa Txostenei Buruzko Irizpena Emateko Batzorde Nagusira igo ziren (BOE, 1939/03/23). Irizpena Emateko Batzorde Nagusiak 1942ko urtarrilaren 30era arte jardun zuen, garbiketa txosten guztiak ebazpena zutela uste izan zenean (BOE, 1942/02/10). 1942tik aurrera eginkizun hori Berrikusketarako Epaitegi Nagusiak egin zuen, lan horretarako bereziki sortua, eta 1961era arte jardun zuen, berrikusketak 1969ra arte egin arren.

Ikus daiteke nola bete zituen Garbiketa Txostenei Buruzko Irizpena Emateko Batzorde Nagusiak txostenak ebazteko orduan, eta hori baino lehen Kultura eta Irakaskuntza Batzordeak edo Bulego Tekniko-administratiboak, hein handi batean, batzorde garbitzaile probintziales emandako proposamenak. Adibidez, Sebastián Santos Blancoren kasu zehatzean, Bizkaiko Garbiketa Batzordeak emandako proposamena betirako gaitasungabetzearekin (“*inhabilitación perpetua*”) handitu egin zen⁸⁸.

85. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/010.

86. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 191. kutxa. 12. txostena.

87. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 430. kutxa. 21. txostena.

88. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 430. kutxa. 21. txostena.

1938ko martxoaren 11ko Agindua ere txostenen berrikuspena mahaigaineratzea utzi zuen. Prozesua oso geldoa izan arren, lehen berrikuspenak 1939ko amaieran izan ziren. Augusto Peñín Balbasek garbiketa txostenaren berrikuspena lortu zuen. Horretarako, Hezkuntza Nazionalako Ministerioari idatzi ondoren, kargu eta akusazio guztiak berriz irakurtzeari ekin zioten, eta zera ondorioztatu zen: “no parece proporcionada la sanción de máxima gravedad, impuesta al interesado con el total de las pruebas practicadas”. Behinbetiko ebazpena 1941ean eman zen, eta berrikustatuari hurrengo zigorra jarri zioten:

“(suspender) de empleo y sueldo por dos años, con abono del tiempo que haya estado suspendido, traslado forzoso fuera de la provincia e inhabilitación para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones culturales y de enseñanza”⁸⁹.

Administrazioaren Artxibo Orokorrean aurkitutako Busturiarekin zerikusia zuten irakasleek garbiketa txostenei dagokienez, hiru espedientatuk bakarrik jaso zuten zigor motaren bat: Augusto Peñín Balbas, Sebastián Santos Blanco eta Carmen Gogeoascoechea Uriarte⁹⁰. Beste alde batetik, azaldutako izapideak egin eta gero kargua baieztatua izan zutenak egon ziren: María Igarzábal Aguirre, Pascuala Arriaga Bengoechea, Obdulia Rementería Ispizua, Jone Olarra Zubiaga, Antonio Pinedo Murga, Diodoro Gorriño Echevarría eta Luis Bonifacio Cano Esteban⁹¹.

1937ko irailean, agintari probintzial matxino berriek, Bizkaiko Kultura eta Irakaskuntza Batzordearen Ordezkaritzaren bidez, Busturiko eskola nazional bakoitzean matrikulatutako hurrei buruz jakin nahi izan zuten, eta informazioa Darío Gómez Apráizek zuzendutako Busturiko Batzorde Kudeatzaileak eman zion.

Zentro Pedagogikoa	Bertaratutako enbatazbestekoa
Altamirako nesken eskola	49
Altamirako mutilen eskola	56
Axpeko mutilen eskola	71

(Iturria: Busturiko Udala).

Batzorde Kudeatzaileak emandako informazioan eskolen irakasle arduradunei buruz ezer esaten ez zen arren, badirudi Luis Bonifacio Cano Estebanek Axpeko mutilen eskola nazionalaren buru bezala jarraitzen zuela jabetzako maisua zelako 1935eko urtarilaren 7tik, matxinoen aldeko zerbitzuak ematen egon arren⁹². Altamirako mutilen eskola

89. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionalako Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 191. kutxa. 12. txostena.

90. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionalako Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 191. kutxa. 12. txostena; 430. kutxa. 21. txostena; 432. kutxa. 50. txostena.

91. AGA (Administrazioko Artxibo Orokorra) Hezkuntza Nazionalako Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 432. kutxa. 56. txostena; 433. kutxa. 26. txostena; 434. kutxa. 34. txostena; 520. kutxa. 82. txostena; 563. kutxa. 52. txostena; 533. kutxa. 25. txostena; 568. kutxa. 24. txostena; 352. kutxa. 65. txostena.

92. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011.

nazionalari dagokionez, baliteke Sebastián Santos Blancok eskolak ematen jarraitzea 1937-1938 ikasturtean, ideia errepublikanoak begiko zitzaizkion arren eta nahiz eta Busturitik alde egin zuen tropa matxinoak sartu baino egun bat lehenago, 1937ko ekainaren 21ean itzuli zelarik⁹³. Azkenik, badirudi Pascuala Arriaga Bengoechea maistrak ere irakasten jarraitzen zuela Altamirako nesken eskola nazionallean, 1938-1939 ikasturtera arte gutxienez⁹⁴. Gauza bera gertatzen zen udalerriko beste ikastetxeetan, 1937ko uztaileko kolpe militarra baino lehenagoko irakasle berdinak zuzentzen baitzituzten: María Igarzábal Aguirre (Parezi), Obdulia Rementería Ispizua (San Bartolome) eta Sofía Bizcaíno Sagaseta (Axpeko patronatua)⁹⁵. Ez dakidana da irakaskuntza jarduerak normaltasun osoz jarraitu zuen ala ez, kontuan hartzen baditugu garbiketa prozesuak eta Luis Santamaría Menchacak, lehen udaleko alkatea, Lehen Hezkuntzako ikuskatzai-learekin 1938an izan zuen elkarrizketa, zeinean Axpe, San Bartolome, Altamira eta San Kristobal auzoetako haurrei irakasteko bitarteko irakaslea eskatzen zion⁹⁶.



Arrotegui ikastetxeko ikasleak. Axpeko nesken eskolako zenbait ikasleen taldeko argazkia zelai batean. Ezkerretik eskuinera, beheko ilaran lurrean eserita: Alicia Ormaechea Ibarlucea, Conchi Madariaga Foruria, Aure Zobarán Elguezábal, Ana Jesús Serrano Echevarría, Carmele Bastarache Ancín eta Isabel Loizate. Bigarren ilaran María Luz Iturbe eta Mari Pili Ormaechea Guerecaechearría. Hirugarren ilaran: Lourdes Gogeaescoechea Atela, María Ángeles Arechabala Ormaechea, María Ángeles Ugalde Ormaechea, Josefina Ormaechea Guerecaechearría, María Trinidad Zabala Arteche, Lourdes Cearreta Calzada eta Elvira Badiola. Goiko ilaran: Dolores Guereca, María Luz Urquiza Iraculis, Teresa Pedemales Orbe eta M.^a Carmen Uriaguereca Uriona (Iturria: Busturiko Udala).

93. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/014; 0030/005; 0030/020.

94. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015; 0030/020.

95. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/020.

96. BUA. Akta-liburua. 1938/09/15.

1938-1939 ikasturtearen hasieran funtsezko aldaketak egon ziren auzoko eskolen titulartasunetan eta zuzenduko zituzten irakasleengan. 1938ko maiatzaren 31ko ofizio batean, Bizkaiko Aldundi Probintzialaren presidentek adierazten zuen 1938ko apirilaren 18ko Aginduari 2. artikulua arabera, auzoko eskolak Estatuari eskualdatzeari buruzkoa, udalak zirela, eta modu subsidiarioan aldundiak, lokalak egoera egokietan eman behar zituztenak eta kontserbatze-lanak egin behar zituztenak. Aipatutako eskualdatzea egiaztatzeko orduan modu frogagarrian ager zedin, aipatutako xedapenak zioen bezala, Udalak eskatzen zuen Larrazabale eta Pareziko auzoko eskolen eskualdatzea frogatzen zuen dokumentua bidal ziezaioten, eskola hauek udal-jabetzakoak ez baziren ere⁹⁷.

Gainera, Luis Santamaría Menchaca alkateak Lehen Irakaskuntzako ikuskatzailearekin hitz egiten zuen 1938ko irailaren 15ean. Bilera honetan alkateak ikuskatzaileari eskatu zion Axpe, San Bartolome, Altamira eta San Kristobal auzoetako haurrei irakasteko bitarteko irakasle bat bidal zezan, irakaskuntza honela eginez: bi auzo goizez eta beste bi auzo arratsalde⁹⁸. 1938ko irailaren 17an bere karguaz jabetu zen bitarteko maistra bezala Simona Egurrola Egurrola, eta Axpeko mutilen eskola nazionala aukeratu zuen lehen irakaskuntza emateko Axpe-San Bartolomeko eskola-taldee goizez (08:30-12:00), eta Altamira-San Kristobaleko haurrei arratsalde (13:30-17:00)⁹⁹. Izendapen hau egin zen Luis Bonifacio Cano Esteban maisuak Mugimendu Nazionalaren defentsaren alde borrokatzen jarraitzen zuelako, eta 1938ko irailaren 1ean Sebastián Santos Blanco maisu jabeak Altamirako mutilen eskola nazionalan lagapena egin zuelako¹⁰⁰. Sebastián Santos Blanco maisu postuaren jabe bezala lanik gabeko egotan zegoen, eta Elorrión destinatuta zegoen herriko maisua izatea lagatu zuenetik¹⁰¹. Simona Egurrola Egurrola izendatu baino lehen, 1938ko ekainaren 1ean, bere karguaz jabetu ziren ere, bitarteko maistra gisa, María del Carmen Ugalde Learreta eta Pilar Gastañazatorre Echano nazionalizatu berriko San Bartolome eta Pareziko auzoko eskoletan, hurrenez hurren¹⁰².

1938an administrazio frankistak, irakaslegoa garbitzeko lan horretan, oraindik eskatzen zuen jakitea nor zegoen Busturia udalerriko eskola bakoitzaren buru. 1938-1939 ikasturtean ordezkatu ziren irakasle guztiak Busturiko ikastetxeetan, ongintzako fundazioen menpe ez zeudenetan behintzat, tokiz aldatzeagatik edo 1936ko uztailaren 18a baino lehenago zeudenak ez egoteagatik. Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako Ikuskaritzak, probintziako 222. Aldizkari Ofizialean urriaren 3an argitaratutakoaren arabera, Udaletik jasotzen zituen 1938ko azaroaren erdialdean herrian irakasten zeuden maistren izenak:

97. BUA. Akta-liburua. 1938/06/09; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/012.

98. BUA. Akta-liburua. 1938/09/15.

99. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/009; BUA. Akta-liburua. 1938/09/29.

100. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015.

101. BUA. Akta-liburua. 1938/09/29; AGA (Administrazioako Artxibo Orokorra). Hezkuntza Nazionalen Ministerioa. Irakasle Nazionalen Garbiketa Txostenak. 32/13066.

102. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/006.

Zentro Pedagogikoa	Maistra
Altamirako nesken eskola nazionala	Simona Egurrola Egurrola
Altamirako mutilen eskola nazionala	Simona Egurrola Egurrola
Pareziko auzoko eskola nazionala	Pilar Gastañazatorre Echano
Axpeko mutilen eskola nazionala	Simona Egurrola Egurrola
San Bartolomeko auzoko eskola nazionala	María del Carmen Ugalde Learreta

(BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015).

Hurrengo urteetan irakasleen koadroa erabat aldatu zen udalerrian. 1938-1939 ikasturtearen ondoren, eta hurrengo ikasturtea prestatu bitartean, Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako Administrazio Ataleko buruzagiak Ricardo Chertudi Zabala busturiarra izendatu zuen Simona Egurrola Egurrolaren ordezkotzat Altamirako mutilen eskola nazionala, baina bitarteko maisu honek kargua utzi zuen ikasturtean 1940ko urtarilean. Altamirako mutilen eskolari dagokionez, Ricardo Chertudi Zabala maisuaren lagapenetik ez dut zentroaren inongo arduradunik aurkitu 1943ko urtarrilera arte. Urte horretako urtarilean Pedro Fernández Arrien behin-behineko jabetzako maisu izendatu zuten eta, urte amaieran, eskola horretako bitarteko maisuaren karguaz jabetu zen Luis Rotaache Sierra¹⁰³.

Axpeko mutilen eskola nazionalaren kasuak, gatazkatsuen maisu nazionalaren karguaren jabetza Armada Nazionaleko borrokalari batek izateagatik, erakusten du gerraosteko lehen urteetan irakasleek zuten ezegonkortasuna tokiko ikastetxeetan jarduten zutenean. Ezegonkortasun orokorraren arrazoiak frontera joateako irakasleria mobilizatzean eta jadanik ikusi ditugun irakasleriaren kontrako garbiketa prozesuetan zeutzan. Luis Bonifacio Cano Esteban Axpeko mutilen eskolaren maisu nazional bezala eskubideak galdu ez zituela dirudien arren¹⁰⁴, borroka fronteetatik itzultzean 1939-1940 ikasturtean eskolak ematen zituela suposatuz, 1940ko urrian Lehen Irakaskuntzako ikuskatzaile probintzialari jakinarazi zitzaion maisua, gaixorik egoteagatik, agintarien baimena lortu izan zuela maisu bezala izandako jarduera profesionaletatik urruntzea. Irakaskuntzako Ikuskaritzak Primitivo Jiménez Torrez izendatu zuen bitarteko maisu bezala urte horretako urrian, jabetzako maisuaren postua bete zezan, baina ez zen aurkeztu. Orduan azaroan Francisco Javier Iribarren Izurzun izendatu zen eskolako bitarteko maisu bezala, baina ikasturtean zehar lana utzi zuen. Honen ordezkari Juan Ramón Egaña Zulueta ordezkotzat maisu izendatu zuten, baina kargua utzi zuen 1941eko urrian, eta ez dakigu zer gertatu zen hurrengo ikasturteetan. Egindako kudeaketa guztien ondoren, ikasleak ia bi hilabete egon ziren eskolarik gabe¹⁰⁵.

103. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/006; 0027/050; 0030/011.

104. Udalak Busturiko Udaletxeko behe solairuan zuen etxe-gelaren gaineko eskubideak aintzatetsi zituzkion, Axpeko mutilen eskola nazionalaren maisuak zuen eskubide bat. Lanpostu hau Luis Bonifacio Cano Estebanek betetzen zuen maisu jabe bezala 1935etik. Maisu borrokalaria izateagatik Axpeko eskolaren gaineko eskubideak ukitu gabe zituen, armadan egoteagatik zegozkion legezko ordainsari guztiekin batera.

105. BUA. Akta-liburua. 1940/11/29; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015; 0027/050; 0030/011.

Dena den, ikastetxe batzuk erakusten duten ezegonkortasun egoera irakasleen izendapen eta lagapenen bidez, nazionalizatu berriko Pareziko auzoko eskolaren eta Altamirako nesken eskola nazionalaren egoeraren bestelakoa da. Pilar Gastañazatorre Echano maistra 1938an izendatu ondoren, honek karguan iraun zuen 1945era arte; María del Carmen Ugalde Learreta ez bezala, lehenengoarekin batera izendatu zutena San Bartolomeko auzoko eskola nazionalan maistra izateko izendatu zutena baina 1942an lagatu zuena, bere ordezkioa María Jesus Borne de la Cruz izanik¹⁰⁶. Altamirako nesken eskola nazionalari dagokionez, Pascuala Arriaga Bengoechea maistra 1939-1940 ikas-turtean itzuli zen, eta maistra karguan egon zen 1944an erretiroa hartu zuen arte¹⁰⁷.

Eskola-ogiaren anoa osagarria jasotzen duten 7 eta 14 urte bitarteko ikasleak
Eskola Nazionalen eta Arrotegui Fundazioaren adierazpenaren arabera 1940ko abenduan

Zentro Pedagogikoa	Ikasleak
Altamirako nesken eskola nazionala	31
Altamirako mutilen eskola nazionala	38
Pareziko auzoko eskola nazionala	13
Axpeko mutilen eskola nazionala	45
San Bartolomeko auzoko eskola nazionala	26
Arrotegui Fundazioaren neskentzako eskola	65

(BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/011).

Estatu berria irakaskuntza “ofiziala” zuzentzera prest zegoen, eta estatuko titulartasuneko zentro guztiek irakaskuntza hori argi adierazi zuten. Hala ere irakasle partikularrek emandakoa ere kontrolatu nahi izan zuen. 1940ko otsailean Udalak Cristina Arróspide Achicallende maistrari jakinarazi zion (euskal afiliazio nazionalistakoa) bazekiela berak eta beste emakume batek eskola partikularrak ematen zituztela, eta Udalak jakin nahi zuen zein agintarik eman zien hori egiteko baimena. Hau da Carmele Llantada auzotarrak bere izeko Cristina Arróspideri buruz gogoratzen duena:

“Nuestra tiatxu, la de Txukene, Cristina, la mujer de Tomás Uriarte fue maestra, pero no la dejaron ejercer. Cristina Arróspide, y luego gracias a que yo tuve guardado,... y cuando volvió de Venezuela quería demostrar que fue maestra, para la jubilación. Con notarios,... y en nuestro camarote apareció un recibo del Ayuntamiento de cómo había sido maestra. Igual cobró tres millones de pesetas y el retiro; pero ya Franco muerto” (Egizábal eta Serrano, 2017: 384).

Data horretan hainbat pertsonak ematen zituzten eskola partikularrak, baina eremuko irakaskuntza ikuskatzaileen baimena behar zuten eskola horiek emateko. Baina udalerriko zenbait irakaslek ez zuten aipatutako baimen hori eta Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako Ikuskaritzaren idazki batek, 1940ko maiatzaren 10ekoa, Udal berriari eskatzen zion zegokion baimena aurkezten ez zuten pertsonen eskolak eten zitzan. Honela

106. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/006; 0027/015; 0030/010.

107. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015; BUA. Akta-liburua. 1939/08/31.

Eugenia Cearra Landa, María Borda Angui-sola, Alejandra Borda Abiña eta Eusebio Mendoza Foruria irakasleen klase partikularrei amaiera eman zitzaien¹⁰⁸. Eusebio Mendoza Foruriak eta bere alaba Leonor Mendoza Basteguietak 1943an eskolak partikularrak ematen jarraitzen zutela froga daiteke, nahiz eta baimenik gabeko eskola partikular klandestinoei amaiera ematea eskatu zitzaien¹⁰⁹.

Gurutzearen ikurraren, bandera nazional berriaren eta mugimendu nazionalaren himnoaren azpian haurrek orduan hezkuntza zuzena zena jasotzen zuten eskoletan. “*Gorri-separatisten*” (“*rojo-separatistas*”) seme-alaben estigmatizazio soziala eta ikasketari aplikatutako zigor fisikoa normalizatuta zeuden eskola eremuan. Busturiko zenbait emakumek gogoratzen dute:

“Errekreure urteko cada al sol abesten gendun eta nik pozik kantaten nabem ze jakin eitten nabem gero errekreua zetorrela atzetik, ta pozik”; “Lehengo bandera nazionalan aurrien eta eskua altxatuta, danak filen planta, de a tres edo, mutilek alde batin eta neskak bes-tien. Ta han kantau, cara al sol, eskola aurrien”; “En la escuela recuerdo a dos monjas una más joven no era mala, pero otra de Zaragoza, familiar de militares, era malísima me traumatizó para toda la vida. Teníamos que cantar todos los días el Cara al sol con la mano levantada, un día la bajé por cansancio y me pegó con la regla con tanta fuerza que me dejó sangrando. Era una niña pequeña, mi madre le maldijo mil veces en casa cuando me vio llegar así”; “La posguerra fue durísima además de lo que nos habían hecho, la gente del barrio nos despreciaba. Incluso algunas familias no querían que sus niñas anduviesen conmigo. Los criminales nostratabn a nosotros como si nosotros fuésemos criminales”; “La maestra me decía: —“Lurdes Arronategi, venga usted aquí” Subía las dos escaleritas: —“Porqué tu madre es una sacrílega, porque va a misa todos los días pero es una roja total, y está en pecado mortal. Tu padre que no fue a Francia a misiones como San Francisco Javier, sino porque era un rojo separatista”. Me leía la cartilla todos los días, me daba un plastazo todos los días y me mandaba al pupitre: —¿Cómo va a salir así?”; “A nosotras en la escuela, las monjas nos tenían de menos. A las hijas de las falangistas las trataban muy bien, les enseñaban, les deban clases de solfeo,... A nosotras sólo nos tenían para trabajar. Todas las mañanas la hermana Sofía nos reunía a todas y teníamos que cantar el “Cara al Sol” y el canto de la falange a la Virgen”; “A nosotras las monjas nos llamaban “manzanas podridas”. La hermana Sofía, las de la esquina. Si hablábamos algo en euskara, un mensaje en un papel a una compañera, y nos marcaban con una banda negra, y nosotras como llorábamos. Y a las “hijas de papá” las trataban muy bien. Nos obligaban a trabajar las monjas, coger manzanas,



Cristina Arrospideren erretratua 1934. urtearen inguruan, San Kristobal auzoan bere amaren etxea zenaren aurrean, Zapateixene baserria (Iturria: Busturiko Udala).

108. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/015.

109. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0027/017.

limpiar, enseñarnos muy poco" (Busturiko Udala, 2005: 29; Egizábal eta Serrano, 2017: 214, 376 eta 392).

Neskak eta mutilak eskola bananduetara joaten ziren, edo gela bananduetan zeuden, horrela hezkuntza bereizia bermatzen zen. Sexugatiko bereizketa ez zen toki-bereizketa bat bakarrik, hezkuntza-bereizketa zen ere. Nesken hezkuntzak bermatu nahi zuen etxean geldituko zirela, emazteak eta amak izateko, lan-heziketa izateko itxaropenetik urrunduz eta birjintasunean mantenduz kontrako sexuarekiko kontaktu fisikotik urruntzean (Egizábal eta Serrano, 2017: 391). Zenbait emakume auzotarrek honi buruzko lekukotza ematen dute:

"Yo fui a Axpe, a la escuela pública. Las chicas íbamos solas. Era sólo un local pero en medio un pasillo y a la derecha las chicas a la izquierda los chicos. Pero las pequeñas y las mayores íbamos todas juntas con una maestra"; "Sí me quedé con ganas de estudiar. Pero tenía que trabajar en casa. En aquellos tiempos, había otra cosa, en casa no había dinero para dar estudios a nadie, pero habiendo también, siempre al chico, a la chica no"; "A la mujer tampoco se le valoraba para estudiar, sino para coser, bordar,..."; "Mi padre tuvo dos hermanos, uno maquinista y otro capitán, y las chicas a trabajar para poder darles carrera a los chicos"; "Con 6 años fui la escuela hasta los 14 que lo tuvimos que dejar para trabajar en casa"; "Yo empecé con 14 años a trabajar, pero si iba a aprender corte y confección y a bordar, porque en esa época la mujer tenía que saber bordar. Y como no me gustaba empecé a trabajar. Luego te vuelves cómoda y además había otras necesidades. Y también otros valores, la mujer era para estar en casa. Mi hermano fue a estudiar" (Busturiko Udala, 2005: 29-32).

4. ATXILOTU, SAILKATU, GARBITU, ZIGORTU ETA KONTROLATU

4.1. *Penala*

4.1.1. Lehen atxiloketak, epaiketak, zigorrak, giltzapetzea eta heriotza

Auzitegi frankistak errepresioa *juridifikatzeaz* arduratu ziren, tresna honen bidez jazarpen politiko eta soziala egiteko helburuarekin bereziki sortu baitziren. Justizia frankistak eskaintzen zituen bermeei dagokienez, Auzitegi Militarren arbitrariorotasuna agerian geratu zen epai kondenatzaileetan ematen ziren "*matxinada*", "*matxinadari laguntzea*", "*matxinada asaldatzea*" eta antzeko delituetan. Estatu berri honen justizia paradoxikoki legezkotasun errepublikanoan zetzan, baina suntsitu edo deformatu zuen, eta matxinoek legezko gobernu bat defendatu zutenak matxinada militarreko ekintzak burutzeaz akusatu zituzten (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 82).

1936ko abuztuan, matxinoek jurisdikzio militarra ezarri zuten ohiko jurisdikzioaren gainean: epaileek, fiskalek, defendatzaileek eta idazkariek armadako kideak izan behar zuten. Une hartan premiazko prozedura sumarisimoa ohiko prozedurari gailentzen zitzaion, justizia militarreko kodearen aplikazioa kode penalarenari gailentzen zitzaion bezala (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 82). "Justizia" modu bizkortuan aplikatu zen: akusatu asko taldeka epaitu zituzten, sumarioa ez zekien defendatzaile komun bat zegoen guztientzat, prozesatuekin inoiz hitz egin ez zuena eta bakoitzaren kasu partikularra ere ez zekiena, eta epaiketan hitz gutxi batzuk esaten zituen edo bat ere ez. Erik Zubiagak adierazten du nola instrukzio-epaileek egunero batez beste

74 espediente bideratu zituzten Bizkaian estatu berria ezarri eta hurrengo 6 hilabeteetan (Zubiaga, 2017: 65). Ezin ziren ofizialak eta tropa motak desbideratu justizia militarra aplikatzerakoan, eta lehentasuna ematen zitzaion bizkortasunari legezkotasunaren kalterako. Gerrako presoak eta delitugile arruntak batera epaitu ziren ere. Gainera, ohikoa zen presoak gerrako borrokalari bezala epaitzea, baina ez gerran izandako jardueragatik, baizik eta afiliazio politikoagatik, ahaidetasunagatik edo beste edozein baldintzagatik.

1936ko azaroan, bando matxinoan zegoen justiziako kolapsoak agintari militarrek behartu zituen ohiko jurisdikzioako funtzionarioak eta karrera judizial eta fiskalera sartzeko eskubidea zutenak epaile, ikuskatzaile eta fiskal lanetarako hartzera, gorputz juridiko militarreko ohorezko kapitain osagarriak izendatuz.

“El juicio representaba un simulacro judicial falto de las debidas garantías procesales. La vista, que solía celebrarse por la mañana, tenía un carácter público y recibía gran tratamiento en la prensa de la época. A ella acudían los procesados atados y custodiados para ser juzgados en grupos y a destajo La intervención del fiscal era breve y directa; (...) la intervención de los procesados resultaba aún si cabe más corta e irrelevante” (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 82-83).

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga historiagileak azaltzen digu udalerrian errepresioa nola hasi zen tropa matxinoak sartu eta hurrengo egunetan zehar:

“Eskualde mailan, gartzela bi inprobisatu ziren: Gernikako Agustinoen ikastetxean eta Bermeoko batzokian.

Busturia eta Sukarrietaren mugan dagoen harrizko etxe galantaren beheko gelan berehala hasi ziren eskumako buruzagiak batzarrak egiten, errepresioa eta zerrendak antolatzen. Besteak beste, Madriliko militar bat zegoen fiskal lana burutzeko, bere senide batzuk hil egin zituzten eta dirudienez odol egarria zekarren; Rikardo Danborena Castroviejo, Bermeon zegoen komandante militarren Eusebio García de Villarreke, «Delegado de mi autoridad en Pedernales y Busturia» izendatu zuen; batzarkidetariko bat zen. Busturiko Idazkaria eta Arrotegiren ondatsunen administradorea zen Vicente Gorriño; Gabriel Learreta eta Sukarrietako alkatea izango zena J.C. Bilbao sarri askotan agertzen ziren aipaturiko batzartokian.

Bar Pacon, (gaur eguneko itxasbegi tarbernaren tokian aurkitzen zen), handik lasterrera militarrek behin behineko tribunal bat osotu zuten, mahai luze bat, Jesukristoren gurutze haundi bat zutela eta bandera bat.

Bar Pacoren aurrez aurre, Palas izeneko tarbernari Karlota Urrutxua, Busturiko emakumeen idazkaria eta bere ahizpa Jesusa, PNVkoa ere, bizi ziren eta tribunalaren aurrera joan behar zutela agindu zieten. Interrogatorio bat jasan zuten eta aurrerantzean udaletxera egunean birritan, goizeko 11.etan eta arratsaldeko 6.etan joan beharra ezarri zieten, behin behineko presondegiaren zeudela.

Horrez gainera, ahizpa bakoitzari 20.000 pezetako multa ordaindu beharra; Jesusa Urrutxua, sartu hala, Julio Mendieta mendikua ateratzen zen, buru makur diru zigor gogorra jarri zioten, 25.000 pezeta inguru.

Jendea arrapatzen eta detenitzen ibiltzen zirenak, ordurarte mutiko koskorrak praka laburdunak ziren, herritarrek edo eta kanpokoak. Baina korreadua uniformeak jantzirik, pistola aldean dariela, herriko jaun eta jabeak ziren.

Pipas boteroa, Motriku, Julio Mendieta, Bermeon deteniturik egon ondoren, batzuk azken biak behintzat Gasteizera eraman zituzten. Gasteizeko epaileak lehen momentuetako gorrotoak eta odol egarriak haseturik, piska bat bareturik zeuden. Julio Mendieta eta «motriku», errepublikanoa lehena eta PNVkoa bigarren 6 hilabeterako Errioxara desterratu zituzten. Julio Mendieta, adiskide baten bidez epailea erosi egin zuen bost mila pesetaren trukez. Herrira itzuli zenean berriz ere mediku plaza kendu zioten eta libreki artitzen zen. Hala ere herria bere alde jarri zen, berari deitzen ziotela. Aspaldidanik, 1925.tik, tirabira gogorrean ari zen. Palmira Arroategiren bigarren senarrarekin; G. Learreta medikua zen eta Busturiko plaza bereganatu nahi zuen. Baina alperrik. Herriko sinadurak Julio Mendieta alde izaten ziren. Horregatik bere denuntziaren iturria seguru asko Palmira Arroategi eta G. Learreta izango bide ziren” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 332-333).

1937ko ekainaren 10ean Arabako Gobernu Militarrek (Estatu Nagusia) atxilotutako zenbait auzotar bidali zituen Gasteizko Espetxe Probintzialera, eta 5. Epaitegi (Santa Teresa Kuartela, Gasteiz) instrukzio-epaile militarren esku geratu ziren, José María Sarachaga alfereza. Alferez honek hurrengoak kontatu zuen:

“al comienzo de las operaciones de Vizcaya, sin perjuicio del Juzgado Militar nº 5 que desempeñaba, se me ordenó funcionara como Juzgado Especial de la 61 División, para todos provenientes de a parte de Vizcaya y Guipúzcoa que se iba ocupando al comienzo de la ofensiva del Norte. En el desempeño de esa función se autorizó al que suscribe, la proposición de sanciones gubernativas que habría de someter al Excmo. Sr. Jefe Gobernador Militar de Álava, por Delegación del Excmo. Sr. Jefe de la 61 División. Con estas instrucciones se comenzó a actuar interviniéndose en todos los pueblos de alguna importancia, a donde se trasladaba el Juzgado: Marquina, Guernica, Lequeitio, Ondárroa, Bermeo y todos los demás, fueron jurisdicción de ese Juzgado”¹¹⁰.

Bermeon atxilotutako busturiarrak hurrengoak ziren: Félix Uriona Atela (34 urte, nekazaria), Francisco Gorriño Guarrochena (65 urte, itsasgizona), Sinforiano Iparaguirre Garcíarena (59 urte, nekazaria), Ciriaco Echevarría Uribe (57 urte, itsasgizona), Venancio Loiti Albizua (48 urte, itsasgizona), Julio Mendieta Lezáiz (44 urte, sendagilea), Tomás Beitia Urriola (47 urte, igeltseroa), Florencio Lachiondo Mendialdua (58 urte, txaluparia) eta José María Zabala Echevarría (48 urte, itsasgizona); zerrenda honetan Máximo Besanguiz Echevarría ere badago, Sukarrietan jaio eta bizi zena, Busturiko auzotarra zen Estefanía Besanguiz Echevarriaren neba zena. Egun berean ere Cecilia Llantada Uriaguereka auzotarra espetxeratu zuten, 27 urtekoa, Gernikan jaioa, ezkondua eta bi seme-alabekin, eta hurrengo egunean aurrekoak epaitzean zituen epaitegi eta instruktore militar berdinen esku geratu zen. Honen aurkako kausa Demetrio Maraño salaketatik hasi zen, honek esan baitzuen Cecilia Llantadak bera salatu zuela. Cecilia Llantada Uriaguereka atxilotua izan zen, isun ekonomiko batera zigortua eta bi hilabetez desterratu egotera Aguirre Mendi ontzian, bere senarra Carmelo Llantadarekin batera, indar matxinoak garraiatzen zituen ontzia zena¹¹¹. Honen atxiloteta gerra garaian Demetrio Marañoen kontrako salaketan oinarritu zen, baina ziur aski EABrekin zuen loturak ere eragin nahiko izan zuen. Cecilia Llantadak oso txarto pasatu zuen, hainbat aldiz atxilotua izan zelako beste hainbat auzotarren salaketen ondorioz. Azkenean, auzokoek egindako presioak Plentziako udalerrira eraman zuten eta, ondoren, Argentinara. Argentinan aurkitu zuen ehortzokia (Egizábal

110. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 912/38 kausa. Bizkaia.

111. AAHP. Nanclares funtsa. 13. kutxa. 37/m/02/103; 38/01/110 txostenak; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 449/38 kausa. Bizkaia.

eta Serrano, 2017: 260 eta 295). Julio Mendieta Lezámizi dagokionez, badirudi Apolinar izeneko batek, matxinoak sartu zirenean Sukarrietako alkatea zena eta herrian salaketa ugari egiteaz akusatzaren zutena, paper garrantzitsua izan zuelako Busturiko sendagilearen atxiloketan, honek egiten zituen Sukarrietako alkateari buruzko hitz solte eta esamesen arabera. Esaten zuten oturuntza batean alkateak berak harro esan zuela berak salaketak ez, argibideak eman zituela (Escobal, 2005: 288).

Kausak bideratzen ziren bitartean, Francisco Guarrochena, Venancio Loiti eta Tomás Beitia atxilotuak aita Paulen komentura eraman zituzten. Dokumentu batzuetan komentu hau prestatutako espetxe bezala agertzen den arren, beste batzuetan kontzentrazio-esparru bezala agertzen da, honela ulertzen badugu Mungiako aita Paulen komentua (Badiola, 2015: 114). Komentu hau indar militarren atsedenerako kuartela izan zen lehenago eta une horretan espetxe bezala erabiltzen zen, Urduñako Jesuitenarekin batera, gatibuak aztertzeko beharrari erantzuteko (Badiola, 2015: 157). Félix Uriona, Sinforiano Iparaguirre, Ciriaco Echevarría, Julio Mendieta, Mariano Zabala, Florencio Lachiondo eta José María Zabala aita Karmeliten komentuan prestatu zen espetxean sartu zituzten, baina gartzela honetan ez zuten denbora gehiegirik eman denak lekualdatu zituztelako askatu baino lehen. Gasteizko Karmeliten komentuko espetxean ia 800 preso egon ziren, berrogeita hamar zeldatan banatuta, bi komun eta pixaleku batekin denentzat (Badiola, 2015: 106). Bere aldetik, Cecilia Llantada Uriaguereca Gasteizko Emakumeen Espetxean (moja Karmeliten komentua) giltzapetuta egon zen.

Espetxe-sistema frankistaren ezaugarri bat presoen mobilizazioa izan zen. Esaterako, Julio Mendieta, José María Zabala eta Florencio Lachiondo gatibuak Murgiako aita Paulen komentura eraman zituzten, non dagoeneko zenbait auzotar zeuden atxilotu zituztenetik. Komentu honetan ia 300 preso politiko eta zigortu egon ziren, bertan sartzen ziren 900 gizonetatik, Gasteizko aretoak nahiko ez zirelako presoak hartzeko (Badiola, 2015: 173). Sinforiano Iparaguirre eta Ciriaco Echevarriari dagokionez, biak Bilboko Espetxe Probintzialera iritsi ziren 1937ko uztailaren 17an Okupazioko Armadaren Auditorearen esku geratzeko.

Sinforiano Iparaguirre eta Ciriaco Echevarría gatibuentzat espetxe-bizitza hasi zen; gainerako presoak ez ziren 27 egun baino gehiago egon espetxean. Isunik gabe askatasuna lortu zuen bakarra Félix Uriona Atela izan zen, eta auzotar hauen guztien artean aita Karmeliten komentuko espetxean egun gutxien igaro zituen bakarra izan zen. Auzokide hauetatik ez zen inor espetxean egon lehenago, ez zuten aurrekaririk ere. Hala ere, administrazio frankistak Francisco Guarrochena epaitu zuen *“por sus actividades nacionalistas”*; Tomás Beitia Urriola, *“por sus actividades contrarias al Glorioso Movimiento Nacional”* edo José María Zabala Echevarría *“por sus actividades izquierdistas”*. Sinforiano Iparaguirre eta Ciriaco Echevarría izan ezik, hauei 75.000 pezetako isuna ezarri baitzitzairen eta euskal probintzietatik desterratu baitzituzten separatistak izateagatik, denek erantzukizunak *ordaindu* behar izan zituzten isun merkeekin, 1.000 eta 5.000 pezeta artekoak. Dena den, errepresioak gora egin zuen herrian. Sarachaga alferezak adierazi zuen isunak egokiak zirela (*“eran las más apropiadas para esta gente”*), eta horregatik, isunekin edo desterruarekin zigortzen zituela, kasu bakoitzari egokiena ezarri (*“naturalmente tenían que ser las propias a cada caso”*)¹¹².

112. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 912/38 kausa. Bizkaia.

Orain Busturiko auzotarra den Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga historiagilearen lana kopiautuko dut, oso ondo azaltzen baitu nola herriko errepresioak aurrera egin zuen eta nortzuk izan ziren errepresio horren erantzuleak:

“Andrés Zearreta, Doroteo Kaltzada eta Roman Zearreta, zinegotzi ohiak eta Batzokiko burua azkena, ihesean, Derioko ahaide batzuen baserrian ezkutatu ziren, baina 1937.eko ekainaren 21.an etxera bihurtzea erabaki zuten, inori ezelango kalterik ez ziotenela egin eta, inolako beldurrik gabe. Beste batzuk aldiz, herrian ezkutaturik edo Gipuzkoara, Frantziara edo errepublikaren aldeko lurraldeetara ihes eginda zeuden. Herrira heldu bezain pronto, udaletxe berrian aurkezpena egin zuten eta zortzigarren egunean, San Pedro egunez, meza ostean detenituak izan ziren. Ekainaren 30.an Demetrio Lekunberri, tabernaria, Hipolito Alvarez, pintorea, Barbara Busturiko emakumeen lehendakaria, Karlota Urrutxua idazkaria, Jesusa Urrutxua, detenituak izan ziren. Hauek frankistak sartzerakoan herrian gelditu ziren. Gero aipatuko ditugunak ere egun hauetan izan ziren detenituak Bermeora eramanak eta batzokian denak elkarren gainena, eduki zituzten. Gero, kamioi batetan, Bilbaora, Larinagako gartzelan sartu zituzten. Bidean zihoazenela, Gernikan gelditu ziren eta goardiak edo soldaduak esan zien: Hara zer egin duzuen Gernikan, dena apurtu eta erre. Zornotzara heldu eta beste horrenbeste: Begira nola utzi duzuen herria deseginik.

Ondoren aipatuko ditugun pertsonak, lege hauste edo delito batez salatuak izan ziren «de rebelión».

Bilbon, 1937.eko uztailaren 18.an, Consejo de guerra permanente delakoak, «procedimiento sumarísimo de urgencia» 81 zenbakia, 27 Juzgaduan, María Díaz de Haron epaituak izan ziren.

Benetan harrigarria da, berez legalki finkaturik zegoen gobernu demokratikoaren aurka erbelatu zirenak, legalitate demokratikoan zinogotziak izan zirenak, «de rebelión» salakuntzaz epaitzea, zinismoaren azken mugan zeuden. Bestalde sententziak ere zera adierazten zuen: «al iniciarse la subversión roja-separatista» hau da ikuspegi honen arauera, lehenago subersioa zegoen eta guda gero hasi zen. Jakina da honezkero, 1936.an nola eta nortzuek planifikatu zuten golpe militarra. (...)

Busturiko 12 biztanle izan ziren epaituak eta epaiketara iritsi ziren salakuntzak edo denuntziak, herriko personal sinatuak zeuden, bereziki udaletxe berrian aurkitzen zirenak izango dira denuntzianterik haundienak. Salakuntzak gutxi gora behera denak dira antzekoak, 1937.eko uztailaren 2.an sinatuak. Fiskal lanetan ari zirenak militar kanpotarrak ziren: José García eta Tomás Casanueva.

Hara ondoren zehatz mehatz akusatu bakoitzaren gaineko salakuntzak: Andrés Cearreta Urrutia: 36 urte, arotza, ezkondua, 1931.an jadanik zinegotzia. Herriko salatzaileak: Darío Gómez Apraiz eta Santiago Guezuraga (88 urte baserritarra).

Salakuntzak: «Tomando parte en requisas, organización de milicias, abastecimiento y persecución de las personas de orden». Salakuntza hau zinegotzi guztiei leporatzen zioten.

«Propagandista del separatismo». Horrez gainera alde egin zuen frankistak sartzerakoan eta gero itzuli.

Doroteo Kalzada Ispizua: 39 urte, baserritarra, errentadorea, hiru semealaba eta zinegotzia 1931.tik PNV.ren izenean.

Salatzaileak: Darío Gómez Apraiz, Andrés Irakulis Basterretxea, 56 urte, Zaratamokoa, itsasuntzietako makinista.

Salakuntzak: Aurrekoaren antzekoak eta horrez gainera «uno de los elementos separatistas más exaltados del lugar... decía que a todos los fascistas había que cortarles el cuello».

Feliziano Zenarruzabeitia Bilbao: 47 urte, baserritarra, ezkondua. Zinegotzia (PNV) Rufino Arróspide Omagogeaskoa: 36 urte, baserritarra, etxejabea, PNV.ko zinegotzia. Manuel Legarreta Urkiaga: 45 urte, baserritarra, errepublikanoen izenean zinegotzia.

Roman Zearreta Urrutia: 45 urte, arotza, lau semealaba, PNV.ko batzokiko presidentea.

Salatzaileak: Santiago Guezuraga Etxebarria eta Luís Santamaría Mentxaka (50 urte, Mundakarra, itsas gizona).

Salakuntzak: PNV.ko uribatzarreko presidentea zela. Errepublikaren aldeko batzordearen pantaidea. «Dicho comité imponía sanciones pecuniarias a las personas desafectas al gobierno de Bilbao... recluta de jóvenes para engrosar el ejército separatista». Ez da salatzen inor detentua izan zenik.

Karlota eta Jesusa Urrutxua Urizar ahispak: 32 eta 38 urte, ezkongabeak.

Salatzaileak: Bar Pacoko burua eta Jose Irujo, Palmira Arrotegiren txoferra.

Salakuntzak: Separatismoaren aldekoak zirela. «Rumoreándose en el miemo (tabernan) de haber formulado denuncias contra personas afectas a nuestra causa como el médico D. Elías Mota, al que los rojos separatistas tuvieron detenido y preparado para fusilarle».

Demetrio Lekunberri Intxaurraga: 50 urte, hiru semealaba, tabernaria.

Salatzaileak: María Dolores Fernández Scala, Consuelo Santurtun Martínez de Goya eta Darío Gómez Apraiz.

Salakuntzak: «Exaltado del separatismo local y cree que afiliado al PNV» Ez zegoen afiliaturik. Se le oyó decir que a todas las derechas había que matarlas... se reunían los elementos dirigentes de Bilbao y que del mismo lugar salió la lista de las personas que posteriormente fueron detenidas en Pedernales aunque no puede afirmar si intervino en su confección., «negándose a darles de comer porque la que subscribe era "un fascista" y por lo tanto no había comido».

Horrez gainera, espia bat eduki omen zuen etxean, eskumatarrak kontrolatzeko.

Florencio Bilbao Agirre: 43 urte, Bermeotik Busturiko Goiherria ezkondua, Salatzailetariko bat Pedro Olano auzukidea.

Palmira Arrotegiren errentadorea, usabandarearen basoen zaintzailea, artzaia eta baserritarra. Errepublikanoa.

Salakuntza: «organizador de mítines en los caseríos inmediatos, cuya propaganda la ejercía en los términos más exaltados, incitando a los campesinos a la apropiación ilícita de propiedades ajenas... revolución de octubre 1934 se distinguió como agente de enlace entre asturianos y los gudarís instalados en el Monte Sollube intentaron unirse a los revolucionarios de entonces».

Hipolito Alvarez Urrutia: 45 urte, hiru semealaba, pintorea, errepublikanoa. Salatzaileak: A. Irakulis eta seguru asko P. Olano. Hara zer idatzi zuen gutun batetan: «Yrakulis y Santamaria y Santi landa y pedro Olano los que mas an fastidiau a todos son esos cuatros que nunca an echo cosa buenas, esos parecen a los de forua» (31-7-37).

Salakuntzak: «Izquierda errepublikanan afiliatu egotea, «de los más rojos comunistoides del pueblo».

Fermín Apraiz Goirizelaia: Baserritarra, usaba, 61 urte.

Badirudi salakuntza guztiak esku berak idatzi dituela, topikoz beterik daudela, agiri agirian nabari bait da. Irakurri ditugun guztietan ez da agiri inork kalte personalik jasan ote zuenik. Errekisak edo multak, guda garain, gutxienezko zerbaitzaz hartu behar dira. Sukarrietako mediku batek badirudi preso harturik edo egon zela, baina azken batean ez zitzaion ezer gertatu. Bestalde aipagarria da, Txatxarramendiko hoteletik udatiarrak bildaldututuztenean, Donostiatik, Txintxerpetetik eta abar ebakuazioan heldu zirentzat egokiturik, asko Demetrio Lekunberriren ostaturantz joan ziren. Udatiarren artean gehienak eskuma eskumakoak ziren, faxismoaren zaleak.

Judizioaren hasierarte inork ez zekien zergaitik hartu zituzten preso. Bertan konturatu ziren salakuntzen garrantziaz eta arriskuaz. Fiskalak bere lana burutu zuenean, akusatuei eskatu zien ea norbait duten beraien alde deklaratzeko. Roman Zearretak Mallorat jauna, Irura bat elektra indarraren injinadorea aipatu zuen, baina honek bakarrik informatu zuen esanez «que era un obrero honrado». Andrez Zearretaren alde Caballerok adierazpen ona egin zuen. Arazo hauetaz eta azken egunetako larritasunen agiri legeaz Andres Zearretaren gutun esanguratsu bat dugu eta oharrean bere osatasunean ematen dugu Jesusa Urrutxuak eta bere ahizpa Karlotak, salakuntzak ukatu egin zituzten eta ondo hau erantzun «Nosotras no tenemos más pecado que decir que somos nacionalistas». La verdad nada más. No hay nadie que pueda hablar nada más.» Horrez gainera, J.L. Olalde ezkutaturik eduki zutela ere jakin arazi zuten. Zearretatarrek ere alegatu zuten beraiek berez, herria zaintzeko zeudela inori ezelango txarrik egin gabe.

Demetrio Lekunberri: Bera ez zela ezer ere ez, neutrala baino ez.

Florenzio Bilbaok, «Kaiser» bere alegazioan esan omen zuen: «He de decir que no soy nacionalista, no soy nada cómo voy a ser? Yo he sido siempre guarda de montes de Arrotegi cómo voy a ser yo comunista? Yo tengo mi caserío, tengo mis terrenos, como voy a desir que soy comunista?»

Akusatu guztientzat sinesgaitza zitzaien han bertan entzun zituzten salakuntzak. Azken batean, guda garaian ezer txarrik egin bakoak zirenez, ezin zuten sinestu kondenadurik izango zirela. Beste kodigo eta pentsakizun arras diferentea zabaldurik zegoen akusatuen artean. Ez ziren konturatzen guda garaian eta bereziki faxisten jokabidea, beldurrean oinarritzen zela eta beraz, errepresio gogorra, bere teknika politikoaren ekintza besterik, ez zela, bizitzaren balorea ezik, heriotz beltzaren arabera gizarte antolatuz. (...)

Militar falanjista kanpotarrak alde batera utzita, herriko persona baten sinadura behintzat beharrezkoa zen salakuntza aurrera ateratzeko. Baina gauza bat da sinatu eta beste bat salakuntzaren burutazioa eta prestakuntza. Akusatuetariko batzuk, frankisten sarreraren ondoren, ez ziren Busturiatik mogidu eta bi hilabetegarrenean detenuak izan ziren.

Herriko batzuen ustez, salakuntza eta ondorengo errepresioaren oinarri oinarrian Palmira Arrotegiren burua agiri da, bera zuzen zuzenean ez aritu arren, horretarako bait zituen bere peoiak, bere senarra Gabirel Learreta bere administradorea eta herriko idazkari Vicente Gorriño eta bere txoferra alkate-ordea José Irujo.

Bere senarra, egunero joaten zen udaletxera, Jesusa Urrutxuak hala-beharrez joaten zen garaian. Herri guztiaren ahoan zegoen, Palmiraren esanetara makurturik zegoela.

Vicente Gorriño izango zen seguru asko, salakuntza guztien eragile zuzena, nahiz eta berak ea salakuntzarik ez sinatu. Beharbada Fermin Apraizena. Bestalde alkatea, Darío Gomezen ekin-tza esplik gaitza dugu. Beharbada guda hasieran hartu zuen jarreraren aurka, orain meritoak egitera beharturik zegoen, eskumatarren parabineak eta ongi ikusiak irabazteko. Beldurrak eraginik bere burua salbatzearen, ondokoenak ondatu behar.

Baina azken batean azpimarratu nahi duguna zera da, zergatietan arakatzuz; Ohizko gizarteko haundikien boterea eta hegemonia, berriz ere bere lekuan jarri behar zen. Oraingoan armen bidez. Egoera aprobetxatuz ez ziren falta mendeku pertsonalak, burutzeko unea aurkitu zutenak. Adibidez Andres Irakulis bere errentadore zena, Hipolito Alvarezen aurka denuntzia sinatu zuen. Aspaldidanik bidaldu nahi izan zuen bere baserritik. Hipolito fusilatu ondoren ere bere familia jaleratzen ahalegindu zen.

Demetio Lekunberrik, salakuntzarik gogorrenak bere etxe berean bizi zirenen aldetik jaso zituen. F. Bilbaok bere auzoko eta kontrario monarkiko zen Pedro Olanona.

Dena dela salatariak haundienak udaletxe berrikoak izan ziren eta errepresioaren eragile zuzenak, asmatzaile ere bai? Ricardo Danborenea, Busturia eta Pedernalesetako delegadu bereziak agindurik? Beste batzuen nahia eta mendekua hasetzeko?

Egia esan Palmira Arroategik gura ezean, inor ez zuten hilko eta errepresioa bigunagoa izan zitekeen. Ondorio honetara, gu, bai iritsi gara.

Baina Arroategitarak, D. Manueletik hasita, Busturiko herriarekin, mindurik bizi ziren, esker txarreko herritzat zuten Busturiko herria, nolabait bere persona nahiko arbuiaurik aurkitzen zutelako. Bere nahia, herriko notable guztiena bezalaxe arartekoarena egitea zen hau da populua eta Estaduko administrazioaren arten bitarteko mediazioaren giltzarri izatea, izango bide zuen, baina frakasatu egin zuen, ez zelako onartu izan. Porrot hori bere alabeen grina txarra bihurtuko zen agian; bere eguneroko bizimodua, herriarengandik urruti egiten saiatzen zen, etxetik gutxi irtenez, beharbada herriaren beldur edo ote zelako? Galduriko agintea eta boterea, errepresioa burutu ondoren, ongi finkaturik utzi behar zen.

Liberalak ziren bai hezkuntzaz eta izatez ere; ez zuten ulertzen itxitasuna, baina liberalitate hori ez zen inondik igerrri eta atera, momento kritiko honetan. Beldurrak eta askatasun gabeko faxismoak, portaera berrietara bideratu zituzten. Herriko etxejoaun arrunten gorakada eta beraien hegemoniaren aurka jartzea, nola edo hala gartzigatu behar zen. PNVkoek ohizko jauntxokeriarean aurrean zerbait desberdina eta alternatiboa suposatsen zuten herrian. Zer esanik ere ez errepublikano zaleen aldetik.

Demetrio Lekumberriren emasteari esan zioten, Gabriel Learretarekin ondo egon ezkeror salbatuko zela. Joan zen bai jauregira eta hurbildu arren hartu ere ez zuten egin. Andres Zearretak bere azken aurreko gutunean, uste berean zegoen G. Learretarekin onean egon behar zela. (...)

Gogorra izan zen sententzia: Zortzi heriotz zigor, Fermin Apraiz eta F. Zenarruzabeitiarentzat betirako gartzela, 20 urte R. Arrosideri, eta 12 urte egun bat Manuel Legarretari. (...)

Judizioa bukatu ondoren eta Larrinagako gartzelarantz zihoazela, Jesusa Urrutuak galdetu zion Roman Zearretari, harriturik eta ikaraturik: Heriotz zigorra daukagu, zer izango da? Zearretaren erantzuna:

—«Orrek esan bai asko».

—Pena de muerte setako emon doskue guri ba?

—Ez ein kasurik, esan bai orrek baie... «guk estogu ein eser ta ser eingoskue guri ba»... erantzun zion R. Zearretak.

Hau da, erabat sinesturik zeuden persona on bezala, azkenean justizia azalduko zela. Ez zegoen heriotz zigorraren kontzientziarik.

Hala ere, lagunak bilatzen hasi behar ziren zeren persona bi erantzule edo erresponsable egiten baziren, sententziaren ejekuzioa atzeratu egiten zen eta Jesusa eta Karlota Urrutxuak bakarrik lortu zuten heriotz zigorraren konmutazioa. Zergaitik? Alde batetik Jose Luis Olalde, Bilbotar udatiarra berau, ihes egiten Palasera iritsi zen, eta ezaguna zenez gero lagundu egin zioten ezkutatu eta Lagako ondartzara eraman. Bestalde, Donostiatik ebakuazioan, Patxiko Artexe, aipaturiko ahizpa bien adiskidea, Santander aldeko eskumatar eta faxista zale bat, Iruren lagun egin zuena, berarekin ekarri eta bere etxean eduki zuen, ezkutuan jakina. Kafea hartzen Palasera joaten ziren eta nahiko adiskidetu ere bai. Behin Bilbaotik milizianoak etorri ziren Santanderreko horren bila eta subterteaz edo, ezkutatu eta salbatu egin zuten. Azkenean faxistak sartu zirenean, eskerrak emonaz, herriko lagun guztiei. Valladolidera joan zen, bere ardurak hartzen. Gizon honen bidez lortu zuten azken momentuan Jesusak eta Karlotak heriotz zigorraren konmutazioa.

Hipolito Alvarrezek ere, bere etxean Durango abogadu eskumatar bi ezkutaturik eduki zituen, Orue anaiak. Baina dirudienez, beraie testigantza txikitzat hartu zuten zeren Hipolito afusilatu egin bait zuten.

Demetrio Lekunberrik, besteak beste Vicente Gorriñoren suhiari idatzi zion esanez, zerbait egin dezan idazkariaren aurrean («le dices a Vicente que aga (sic) algo para que prebalesca (sic) la justicia en nuestro asunto, ya que estará enterado por la prensa») Alejandro Alegriak ostera, ez zuen ezer ere ez lortu. Vicente bihotz gogoaz mantendu zen. Goian aipatu dugun Andres Zearretarren gutunean ikusi dugunez gero Zearretarren alde Caballero jaunak begi onez informatu zuen, baina dirudienez ez zen izan nahikoa. Berriz kasu honetan, D. Lekunberrinean bezala, G. Learretaren izena aipatzen da. Baina argi dago ez zuela inolako ahaleginik egin, herrikide batzuen bizitzaren alde. Hipolito Alvarrezek gutun batetan idatzi arren «oy emos resibido una carta de Dn Gabriel Legarreta de Busturia la contestación de una carta mandando buenas notisias que le escribimos nosotros» (31-7-37).

Beste herritar batzuek, aldiz, ondo informatu zuten, adibidez Antolin eta Pablo Elesgaray Fermin Apraizaren alde.

Azken aukera bat gelditzen zen heriotz zigorretik kondenatuak salbatzeko. Herriko alkatea eta parrukua heriotz zigorraren enea baina 12 ordu lehenago azaltzen baziren, judizioaren berrikusketa eskatuz, atzeratu egiten ei zen.

Demetrio Lekunberrien emaztea Petra Fernandez eta bere alaba Karmele alkatearen atzetik, baina D. Gomez ezkutaturik zegoen. Orduan alkatearen-ordearengana, J. Irujo, baina honek erantzun: Alkatea herrian dago eta berak joan behar luke. Parrukua, Angel Arrien, hasieran herriko agintaririk gabe ez zuen nahi joan, baina azkenean prest zegoen Bilbora joateko eta joan egin zen, baina alperrik. Herriko agintari berriak, heurak zirela salatari eta denunzianterik haundienak, eskutan zuten herritar batzuen bizitzaren giltza, baina koldarturik edo, ez ziren ausartu judizioaren berrikusketa baten oportunitatea eskaintzeko.

1937.eko Abuztuaren 5.an, goizaldeko ordutan, sasoi saioko gizon ederrak inori ezer txarrik egin gabekoak, ideal batzuen jabe eta ekintzaile zirelako, edo ezelango ideal bakoak, pertsona arruntak edozein herritar legeaz, bizimodua aurrera ateratzen ahalegintzen zirenetarikoak, beste herritar batzuen borondate txarra bitarteko zela, orma kontran afusilatuak izan ziren. Beharbarda baten batzuek pentsatuko zuten, demokraziaren aldeko jarrerak eta

Euskadiko abertzaletasuna betirako lurperatzen zutela. Urteek erakutsi duten bezala uste makala” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 334-343).

Joseba Agirreazkuenagak bere lanean aipatzen dituen auzotar prozesatuak hurrengoak izan ziren: Rufino Arróspide Omagogeascoa, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Doroteo Calzada Ispizua, Demetrio Lecumberri Inchaurrea, Fermín Apraiz Goiricelaya, Florencio Bilbao Aguirre, Román Cearreta Urrutia, Andrés Cearreta Urrutia, Carlota Urruchua Urizar, Jesusa Urruchua Urizar, Manuel Lejarreta Urtiaga eta Hipólito Álvarez Urrutia. 1937ko 81. kausan prozesatuak izan zirenak jaso zituzten, dudarik gabe, herriko zigor gogorrenak, horietako sei fusilatuak izan baitziren 1937ko abuztuaren 5ean Derioko hilerrian: Demetrio Lecumberri, Hipólito Álvarez, Florencio Bilbao, Doroteo Calzada, Andrés Cearreta eta Román Cearreta. Bilboko 2. epaitegiko forentseak, Clemente Serna Serna, egjatzatzen zuen gorpuen heriotza: *“han fallecido en la mañana de hoy a consecuencia de heridas por proyectiles de arma de fuego de pequeño calibre”*¹¹³.

Jesusa eta Carlota Urruchua ahizpei dagokienez, epaian hurrengoa zehazten zen:

“estas dos procesadas reconocen probado que son personas destacadas del Nacionalismo Vasco cuya propaganda la ejercían en la taberna de su propiedad del pueblo de Busturia pero que así mismo no pasan de ser simples emakumes afectas al Nacionalismo traidor pero no dirigentes y que aun cuando han hecho propaganda se ha limitado a las conversaciones verbales (sic) propias del establecimiento industrial que poseen”¹¹⁴.

“Simples” adjektiboan Maribel Egizábal Suárez antropologoak desberdintasun bat nabaritzen du ahizpei emandako tratua eta beste auzipetuei emandakoaren artean, eta argudiatzen du emakumeak izateagatik agian beste prozesatuen bestelako kategoria bat eskuratu zutela eta, horregatik, heriotza zigorra biziarteko espetxealdiagatik konmutatu zietela¹¹⁵. Baina litekeena da heriotza zigorraren konmutazioa Joseba Agirreazkuenaga Zigorragak bere lanean azaldu zuen bezala lortzea (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 342-343).

Heriotza zigorra jasotzeagatik exekutatu zituzten elizateko auzotarren artean Florencio Iturri eta Julio Mendieta Lezámiz aurkitzen ditugu. Lehenengoa Eusko Jaurlaritzako zerrenda batean agertzen da Busturiko auzotar bezala eta San Kristobaleko gotorlekuan fusilatua, eta ez dago datu gehiagorik berari buruz edo gertaerari buruz. Bigarrena, orain arte elizateko sendagile titularra izan zen Julio Mendieta Lezámiz, fusilatua izan zela agertzen da aipatutako zerrendan eta beste hainbat lanetan, 1938ko uztailaren 24an Bilbon (Badiola, 2015: 284). Dena den, bere espetxe-txostenean ez da agertzen heriotza zigorrak jaso zuenik eta piketearengana eraman zutenik, 1937ko abuztuaren 5ean fusilatu zituzten herriko sei auzotarren txostenek adierazten zuten bezala¹¹⁶. Garaiko egunkarietan ere ez dago bere exekuzioari buruzko aipamenik. Gainera, Patricio Escobalek gogoratzen zuen:

113. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

114. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

115. Egizábal Suárez, M. (2017, martxo). *Busturiko emakumeak frankismoaren aurrean. Ezkutuko erresistentziak*. Altamirako Kultur Etxean aurkeztutako txostena, Busturian.

116. AAHP. Nanclares funtsa. 30. kutxa. 37/02/400 txostena.



Demetrio Lekunberri Intxaurraga.
50 urte.



Andrés Zearreta Urrutia.
35 urte. Zinegotzia.




Hipolito Albarez Urrutia.
45 urte.




Florencio Bilbao Agirre.
45 urte.



Feliciano Zenarruzabeitia Bilbao.
47 urte. Zinegotzia.



Román Zearreta Urrutia.
45 urte.



Doroteo Kaltzada Ispizua.
39 urte. Zinegotzia.

(Iturria: Ahaztuak).

“Una tarde entró Amelia en la terraza y llorando me dio la inesperada noticia. El médico Mendieta acababa de morir hacía media hora. El pequeño automóvil utilizado por el médico para sus visitas, antes de su arresto y traslado a Vitoria, quedó incautado por las autoridades falangistas. Al salir de la cárcel y reanudar sus actividades profesionales, siguió usando el caballo para visitar los enfermos en los caseríos y una bicicleta en sustitución del coche para las visitas, a lo largo de la carretera. Algunas veces en estos menesteres solía ir acompañado de su hijo mayor, muchacho fuerte y hermoso de unos doce años de edad. Aquella tarde cuando padre e hijo bajaban en sus bicicletas una empinada cuesta entre Guernica y Pedernales, se produjo el fatal accidente. Carreteras, ferrocarriles y demás medios de transporte estaban en deplorable estado de conservación por la guerra. En muchos sitios las, hasta la guerra civil bien cuidadas, carreteras de Vizcaya, estaban descarnadas y con profundos baches. En uno de estos hoyos perdió Mendieta el dominio de su bicicleta y al caer su cabeza chocó contra una gruesa piedra. La fractura de la base del cráneo le produjo la muerte instantánea” (Escobal, 2005: 318-319).

Heriotzara kondenatuei dagokienez, idazten zekitenek familiarrei, lagunei eta alderdikideei agur esaten zieten ohar edo gutun laburrekin, heriotza-epaia eman bezain laster preso inkomunikazio erregimena zuen areto batean sartzen baitzuten (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 83). Zigorra exekutatu baino lehen, Demetrio Lecumberrik idatzi zuen: “*Perdono a todos como pido perdón a todos los que aya (sic) faltado. Yo soy uno estubo neutral en esta guerra*”. Bere anaiarengatik, Andrés Cearretak hurrengo adierazi zuen: “*Recuerdos a todos los padres, a todos los parientes, a las (hermanas religiosas) a Darío le perdono quien es el que me ha denunciado y Santiago Guezuraga*” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 343). Azkenik, Román Cearreta Urrutiak 1937ko abuztuaren 5ean idatzi zuen gutuna aipatuko dugu, exekutatu baino pixkat bat lehenago:

“Bilbao 5 agosto 1937

Mi querida esposa Eusebia. Mis últimas palabras para ti todos los bienes que tenga seran para ti y luego distribuiras a los hijos Adios asta la eternidad

Dios les Perdonara a todos y ami tambien boi con conciencia tranquila porque aqui no e echonada malo

a Mis hijitos les das un besito cada uno y a los padres lomismo y se abraza su esposo

a Doroteo le debo 5 ptas y Andres 10 ptas

Román Cearreta”¹¹⁷

Patricio Escobalek ere bere liburuan gogoratzen zuen gerraostean Sukarrietara heldu zenean nola gerrak eta gerraosteak aztarna utzi izan zuten Busturian. Azpimarratzen zuen: “*el fusilamiento que más impresión había producido en el pueblo era el marido de Ramona, dueña de una taberna cercana*” (Escobal, 2005: 284). Demetrio Lecumberri Inchaurren auzotarrari buruz ari zen, Busturiko tabernaria. Gainera, Escobalek kontatzen du ere Julio Mendieta Lezámizek hurrengo kontatu ziola:

“Usted sabe que Demetrio, el marido de Ramona, la dueña de la taberna, fue detenido y trasladado a Bilbao. Pasados nueve días dejó la pobre mujer de tener noticias del marido y su zozobra aumentó de tal manera que todos en el pueblo quedaban con el corazón encogido

117. EAA. AP-1090-01.

al verla. Demetrio había sido fusilado y la noticia era conocida por todos los franquistas en el pueblo. En un rasgo de generosidad decidió aquella gente acabar con la angustia de Ramona. Formaron una comisión para darle la noticia y fue su tía de usted (*de Patricio Escobal*) como directora del comité que solucionó el problema: “Ya sabes, Ramona, que en algunos sitios no ha sido posible evitar que pagaran justos por pecadores”” (Escobal, 2005: 287).

Patricio Escobalek kontatzen jarraitzen du:

“en su camino hacia la taberna de Ramona, situada al otro lado de la carretera y a unos cuarenta metros de la casa donde yo vivía, acostumbraba Pedro Plasta a detenerse unos minutos conmigo. Aún estaba mi tocayo reacio a expresarse con claridad, temeroso, quizás, de que una palabra de más le pusiera a la sombra. Cuando me gané su confianza supe que tenía dos sobrinas presas en la cárcel de Saturdarán (*sic*), no muy distante de Pedernales. Según narración del viejo lobo de mar, el primer camión de presos después de entrar las tropas fascistas en el pueblo se llevó, además de sus sobrinas, Jesusa y Carlota Urruchua, al alguacil Asensio, Susana Abeldaño, Román y Andrés Azcarreta (*sic*), carpinteros de Busturia, y a otros veinte más procedentes de Guernica. La mitad de aquel “carga”, según su expresión marinera, estaban difuntos hacía bastante tiempo” (Escobal, 2005: 288).

Busturiko emakume batek gertaera hau gogoratzen du:

“Guardia Zibilak etorri ziren Busturiko mutil bigaz esaten nortzuk ziren. Bermioko batzokitik Aitta hartun, handik kamioi baten eroan Larrinagara, eta 29an detenu eta 5ean fusila. Izan ziran 12 pertsona pena de mueriez eon ziranak baina neskak biek nonor lortu zuten eta libra ein ziran, Saturraraneke kartzelara eroan eben. Beste bat salva zan minusbalidu izan zan eta kartzelara bidali eben, Nafarroara. Ta bestiek fusila. Bertokuek denuntzi eban. Izan ere, salakuntza aurrera eramateko, herriko persona baten sinadura behintzaz beharrezkoa zen. Zapalkuntza gogorraren teknika martxan jarri zen, militarren eraginez baina baita herritar batzuen ekimenez, heriotz zigorraren alde sinatu baitzuten” (Busturiko Udala, 2005: 67-68).

Heriotzara kondenatuen sei exekuzioek erabateko tristura eragin zieten fusilatutako familiei:

“4 urte baino ez doten euki baina akordutzen naz ama kuarto barrun sartun ta ni atzien, ama negarrez eta ni salan negarrez. Amorrut total. Ta aittak (*Hipólito Álvarez Urrutia*) kartan eskribidu eingo dau: Ruego a mi hijo Jose Mari (*Álvarez Laucirica*) y a mi hija María Luisa (*Álvarez Laucirica*) que no abandonen a su hermano inválido. Ez abandonateko Bixente (*Álvarez Laucirica*). Ama hil zanien Bixente Amerikako puntera erun doten, ez dot abandona” (Busturiko Udala, 2005: 68).

Gerran izan zuten jardueran nolabaiteko erantzukizuna zutela uste zutenen artean beldurra ezarri zen eta agintari berriengandik ezkatutzea erabaki zuten denbora lasaiagoak iritsi arte:

“Besteak veste Tomás Uriarte eta Fede Urrutiaren atzetik ibili ziren, Txukeneke zuloan ezkutatuturik zeudela inora joan gabe. Poli Astoreka, errepublikanoen zalea, San Kristobaleko ermitaren orma tarte batetan, urte bi inguru ezkutarik egon zen” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 343).

Fernando Bilbo Torrontegui Bidanian (Gipuzkoa) ihesean ibili zen lau urtez. Denbora horren ondoren bere etxeko ganbaran ezkatututa egon zen. Bere alaba Maite Rodríguez Romerok hurrengo kontakutza du horri buruz:

“Luego el padre vino a casa, yo no lo sabía... una mañana. El padre vino a casa una mañana. Se lo tengo oído al padre, que le trajo de Bidania un camión de ganado de Bermeo, a casa... Que el padre estaba en Bidania yo lo supe en la calle. (...) Pero la gente del pueblo se enteró, porque cuando la madre y yo detrás... y salía humo de la chimenea, el padre haciendo la comida, cocinando: -¡coño! La gente en la calle y en la huerta, y saliendo humo de la chimenea... (...) Y luego pasó otro año en el camarote, y yo sin saber nada. Otro año pasó en el camarote él y yo no sabía nada. En el hotel de arriba, del hotel de Bidania al hotel de arriba. (...) Y en una mañana de estas me dice la madre. “-Maite” “-¿Qué?” “-El padre ha venido” “-¿Dónde ha estado hasta ahora?” “-Ha estado donde tenía que estar”. Pero yo ya sospechaba algo... me encontraba una habitación pintada, blanqueada. Mientras yo estaba en la calle el pintaba, blanqueaba la habitación. Y yo (le decía a la madre) —“¿De dónde es el albañil que viene?” Y la madre (contestaba) —“A jugar o a donde quieras... A la calle”. Me daba cuenta, pero qué se va hacer... a callar y yo contenta a la calle” (Egizábal eta Serrano, 2017: 365).

Adolfo Borda Anguisola ere, Gizarte Laguntzako bulegoetan eskribatu bezala lan egin zuena, ia hiru urte ezkutututa egon zen *Carolina Etxean*, Axpeko enparantzatik hurbil (Egizábal eta Serrano, 2017: 362). Baina adibide adierazgarriena Policarpo Astoreca Bericuarena izan zen. 1937ko irailaren 2an Policarpo Astoreca Bericua Busturira itzuli zen Santanderretik eta 1940an hurrengo kontakatu zien agintari matxinoei:

“a su regreso de Busturia no hizo presentación ante las autoridades (*por temor a la represión*), únicamente fue donde su cuñada Sergia Cearra Urrutia, la cual se negó a acogerle y se ausentó del pueblo por enterarse que varios vecinos habían sido fusilados y por el temor a ser aprehendido por las autoridades, se refugió en los maizales, permaneciendo en esta situación dos días, facilitándole la comida Eugenia, esposa del que entonces había sido alguacil de Busturia, ausentándose hacia Arrieta por el camino de Paresi y próximo a Arrieta, pasó allí su primer día a la salida de Busturia y al día siguiente en vista del hambre que padecía se acercó a varios caseríos, pidiendo comida, socorrido con lo que pondían, trasladándose después por necesidad a Fruniz y en esta situación estuvo por los pueblos de Fica, Baquio, Larrabezua, Morga, Rigoitia Mujica, sin encontrarse con persona conocida durmiendo previo consentimiento de los propietarios, en las tejavanas próximas al caserío. Se dedicó a implorar caridad pública”.

Miren Uriaguerecak Policarpo Astoreca bizirik irauteko egin behar izan zuena kontatzen du:

“También recuerdo que en nuestra casa estuvo escondido Policarpo Astoreca. Nuestra Eufemia, mi hermana mayor, estaba de criada en “Gure Etxea”, era muy jovencita. Y Leocadia, la de “Gure Etxea” le decía: —“Si a mí me pasa algo, que yo lo tengo en Gure Etxea (*a Policarpo Astoreca*)”. Luego estuvo una temporada en “Mosuene”, dormía en el pajar y de día igual estaba entre el maíz de la huerta. Luego se extendió que Eugenia, nuestra ama, tenía escondido a Poli. Mi madre asustada, con hijos pequeños, y se lo contó a Barbarita (*Bárbara Aranguren*). Barbarita le dijo que estuyese tranquila, que ella le solucionaba. Una noche le visitó de mujer a Poli y le llevó hacia San Cristóbal, a Zubiaurre, donde tenía familia. Pero cuando pasaban por Axpe, en una de las casas que estaban al lado de la carretera, una de las que vivía allí parece que le reconoció, y empezó a decir: —“Es Poli”. Le conoció por la forma de andar. Le siguieron hasta Lekoeiz, y Poli se escapó entre huertas y logró huir; luego le escondieron en San Cristóbal” (Egizábal eta Serrano, 2017: 363).

Luis Mari eta Juan Mari Astoreca Cearrak, Policarporen semeek, bere aitaren itxialdia eta desagertpena San Kristobalen kontatzen jarraitzen dute:

“El padre desapareció a principios de 1937. Yo tenía dos años y medio. Nadie sabía dónde estaba. Luego estuvo en el edificio anexo a la ermita, el de la iglesia (*San Kristobalekoa*). Nuestro tío Pedro, casado con Sergia Cearra, tenían allí conejos, gallinas, y la tía disimulando que llevaba la comida a los animales le llevaba comida a él. Tres años, incluso pasó inundaciones,... Todos los años el día de San Cristóbal, mi madre me ponía delante de la puerta de la ermita. La puerta tenía una cerradura antigua, muy grande, y mi padre miraba por ahí y me veía, era era la única referencia mía que tenía, una vez al año, y así tres años. Pero parece ser, que de vez en cuando, de noche, venía a casa, y la Guardia Civil andaba muy encima. Entraban en casa, registraban los armarios,... Salió al de tres años y se presentó en el ayuntamiento, y el alcalde de entonces le dijo que se presentara en el cuartel de Bermeo. Le llevaron a Larrinaga, donde estuvo entre año y medio y dos años” (Egizábal eta Serrano, 2017: 364).

1940ko urriaren 17an egoera penagarri honi bukaera ematea erabaki zuen eta agintarien aurrean aurkeztu zen. Bermeoko Guardia Zibilaren postuak, honek ondoko herrietan kuxkuxean zebilela zekienez, beti egiten zituzten beharrezko azterketak topatzeko, eta gainera, hurrengoa adierazten zuten: *“sin que haya lugar a dudas le han favorecido y protegido durante el paso de tiempo que ha permanecido por pueblos y caseríos huido”*¹¹⁸.

Matxinoen aurkako erresistentzian parte hartu zuten busturiarrak, armekin zein armarik gabe, edo gobernuarentzat zerbitzuren bat eman edo bere alde jarri zirenak, adibidez, afiliazio politikorik gabeko pertsonak zerbitzu administratibo, mediko edo erlijiosoa egiteko beharra zutenean, ustekabez zein espresuki eskatua... horiek ziren prozesatzen eta giltzapetzen ziren pertsonak. Bere herritik irtetea tropa matxinoak sartu baino lehen, alde egiteko zergatia bere bizibidea galtzea zein gerrako eremutik ihes egitea izan, pertsona bat auzipetzeko eta giltzapetzeko arrazoi nahikoa zen. Arrazoi horiei gehitu behar zaie alderdi politiko baten edo langileen erakunde baten afiliatua izatea, eta kontuan hartzen zen noiztik zen kide eta zuzendaritza-kargua edo afiliatu soila zen. Kontuan harturik sindikatzea derrigorrezkoa zela lan-arloko legeriaren arabera, langile asko afiliatzen ziren ez ideologiagatik, baizik eta bere lanbideko edo herriko erakunde indartsuena zelako, baina hau beste arrazoi bat zen matxinoen aldekoak ez zirenak auzipetzeko. Pertsona bat armadan errepublikanoekin borrokatu bazen kondenatua izateko arrazoi nahikoa zen ere. Baina gogoratu behar dugu armada horren zati handi bat mobilizatu zutela, Euskadiren kasuan Euzko Jauriaritzak hain zuzen, eta ez zela norberaren aukera izan armak hartzea. Salaketaren bat egin, pertsonaren bat atxilotu edo konfiskazioetan parte hartu bazuten, auzipetuak eta kondenatuak izan ziren. Atxiloketa arrazoi hauei gehitu behar zaizkie edozein salaketa, faltsua izan arren, eta edozein leporatze, egin duenaren mendeku espiritua begi-bistan egon arren. Arrazoi nahiko ziren pertsona errugabe bat atxilotua izateko eta espetxealdi zehaztugabeen egoteko epaiketarik gabe edo, kasu txarrean, heriotza zigorra bezalako zigor zorrotzetara kondenatua izateko. Zentzu honetan garrantzitsua da gogoratzea pertsona kondenatuak herrian zituen aurrekariak jotzen zela, eta pertsona horrek informatzaileen grina partikularren menpe zegoela: alkateta, JONSetako FETaren tokiko buruzagiak, erretorea, Guardia Zibila edo leialtasun frogatuko pertsonak.

118. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570-41 kausa. Bizkaia.

Ohikoa da kontraesanak aurkitzea agintari ezberdinek emandako informazioen artean. Busturiko erretoreak adierazten zuen Policarpo Astoreca, Ezker Errepublikanoko afiliatua, eskuindarren kontra joan zela: “*persecución contra las derechas con esperanzas de algún cargo remunerado*”. Aldiz, alkateak eta JONSetako FETako afiliatutako elizateko hainbat auzotarrek kontrakoa esan zuten:

“(no realizó) abuso alguno en sentido persecutorio para, con los vecinos o refugiados de ideología contraria o distinta, siendo así que ningún vecino derechista y españolista fue denunciado, detenido ni vejado en forma alguna”¹¹⁹.

Informatzaileen arteko kontraesanengatik, Busturiko Rufino Iturbe Zorrozueta eta Lucio Izaguirre Bengoechea auzotarren kontrako kausa batean, Gerra Kontseilu batek errieta egin behar izan zuen:

“(llamar) respetuosamente la atención de la Autoridad Judicial a fin de que por el debido conducto se haga saber a quién proceda lo anómalo que resulta la certificación expedida por el Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Busturia, D. Luis Santamaría Menchaca, con relación al penado RUFINO ITURBE ZORROZA, afirmando dicha autoridad que el penado de referencia no ha pertenecido a ningún partido político y ha mantenido durante el dominio-rojo-separatista una actitud completamente pasiva: Aseveraciones incompatibles y en contradicción con las propias del procesado y los resultantes del proceso”¹²⁰.

Hala ere, auzokide askok salaketan azpimarratu zituzten salatuen “gaiztakeria” eta “*Mugimendu Nazionalarekiko*” etsaitasun argia, bere ideologia “gorria” edo “separatista” ahaztu gabe. Elizateko auzotar askok salaketak egiteko izan zituzten arrazoiak artean hurrengoak aurki ditzakegu: irain pertsonalak edo familiarrak, estatu berriarekin konpromiso hauskaitza frogatzearen beharra, indarkeria fisikoa eta psikologikoa, mota pertsonaleko norgehiagokak, bizirik irauteko sena, atxikimendu sutsua, beldurra edo koldarkeria morala. Motibazio hauek komunak izan ziren Bizkaia osoan, Erik Zubiagak dagoeneko aztertu duen bezala (Zubiaga, 2017: 67-68). Dena den, badirudi nazionalista eta eskuindarren arteko harreman familiarrek, lagunartekoek eta erlijiosoek, erkidego katoliko baten parte izateagatik, askotan lagundu zutela alkateak, erretoreak, leialtasun frogatuko pertsonak eta JONSetako FETaren buruzagiak aldeko txostenak idatz zituzten. Aipatu behar da Bermeoko postuko Guardia Zibilak ez zituela lotura familiar eta adiskidetsu hauek, beraz, ez zuen inolako arazorik txostenetan auzipetuen aurrekariak eta jokaera politikoa, morala eta pertsonala adierazteko.

Zigorrei dagokienez, Domingo Izaguirre Iturbe auzotarra, miñoia bera, epai irmo batek zigortu zuen 1937ko uztailaren 14an “*biziarteko espetxealdira*” altxamendu militarreko delitu batengatik, hurrengo zigor osagarriekin: desgaitasun absolutua, miñoien kidegok kanporatzea eskuratutako eskubide guztiekin eta epaia eduki arte behin-behineko espetxealdian igarotako denbora kentzea. Aginteko agenteek zigortu bezala espetxean sartu zuten agintari militarren aginduz 1937ko irailaren 13an¹²¹. Pedro Bilbao Zabala busturiarra, 50 urtekoa, merkataria, 1937ko abuztuaren 2ko epai irmoan matxinada-

119. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570/41 kausa. Bizkaia.

120. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 2352/37 kausa. Bizkaia.

121. BAHF. Espetxeak. 45. kutxa. 66. txostena; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 176/37 kausa. Bilbo.

gatik kondenatu zuten¹²². 1937ko azaroaren 2an armada errepublikanoan jarduteagatik kondenatu zuten Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte auzotarra, peritu/merkataritzako irakaslea, 24 urtekoa: “doce años y un día de reclusión temporal” por un delito de “auxilio a la rebelión”¹²³. Bárbara Aranguren Bilbao auzotarra ere, 48 urtekoa, jomalaria, 1937ko abenduaren 3an kondenatu zuten, 1937ko 541. kausan, elizateko EABko presidentea izateagatik: “pena de seis años y un día de prisión mayor con la accesoria de suspensión, como reos de un delito de excitación a la rebelión militar sin circunstancias modificativas”¹²⁴. Ciriaco Echevarría Uribe, 57 urte, itsasgizona, eta Sinforiano Iparaguirre Garciarena, 59 urte, ortuzaina, lehen aipatu ditugunak Gasteizen giltzapetuta egoteagatik, Bilboko Larrínaga Espetxe Probintzialera bidali zituzten agintari militarren esanetara geratzeko. 1937ko irailaren 14ko epaiak biak kondenatu zituen 12 urte eta egun bateko aldi bateko espetxealdira, matxinadari laguntzeagatik (“auxilio a la rebelión”). Gainera, Sinforiano Iparaguirrek 1938ko martxoaren 17an urte bateko espetxealdi txikiko zigorra jaso zuen, baina epaia ez zen irmoa izan aurreko epaia kon-tuan hartu zelako¹²⁵. Azkenik, urtea bukatu baino lehen Udaleko zinegotzia zen Carmelo Llantada Uriaguereka espetxealdi txikiko sei hilabete eta egun bateko zigorrera eta osa-garrietara kondenatu zuten matxinadari laguntzeagatik (“auxilio a la rebelión”).

Prozedura judizialetan zeudenen aitorten gehienak leporatzeak ezeztatza edo gutxi-tza murriztu ziren; beste batzuk kartzela edo heriotza saihesten saiatu ziren hiruga-rren bati edo garaiko testuinguru politikoari errua botaz. Hala ere, egon zen matxinoen eta bere ideologia politikoaren aurka izan zuen papera berretsi zuenik. Lorenzo Gogeoascoechea Uriarteren kasuan bezala, matxinoek Rufino Iturbe Zorrozueta, 22 urte-koa, nekazaria, eta Lucio Izaguirre Bengoechea, 22 urtekoa, jomalaria, atxilotu zituz-ten 1937ko abuztuaren 26an Santoñan (Kantabria), biak EAJko *Padura* batailoien borrokalaria zirela. Bere epaiketan Lucio Izaguirre Bengoecheak adierazi zuen azaroa-ren 16an boluntario bezala izena eman zuela “para defender su patria que afirmó ser Euzkadi y no España ya que el no se considera español”. Rufino Iturbe Zorrozuak ere antzeko hitzak erabili zituen epaiketan, bera bere aberria defendatzen ari zela, eta aberri hori Euzkadi zela. Epaia argia izan zen, 1938ko apirilaren 27an heriotza zigorrera kon-denatu zituzten, hurrengo delituagatik: “adhesión a la rebelión, y con las circunstancias agravantes de una mayor perversidad y trascendencia, (...) a la pena de MUERTE”. Dena den, kasu honetan JONSetako FETaren tokiko buruzagia, Félix Chertudi Zabala, hiltza zigortuak izan zirenen alde mintzatu zen. Tokiko buruzagiak hurrengo argudiatu zuen Rufino Iturberi buruz: “era persona que por vivir en el monte, alejado del casco urbano de la población, no domina el idioma castellano”. Eta gauza bera argudiatu zuen elizateko alkateak, Luis Santamaría Menchacak, esanez: “(concurría) en él la cir-cunstancia de no poseer el idioma castellano por haber vivido en un caserío lejano al caso de la población en un caserío del monte, considerándole por tanto incons-ciente”. Lucio Izaguirre Bengoechea buruz JONSetako FETaren buruzagiak ere esa-ten zuen: “no domina el idioma castellano por vivir bastante alejado de la población

122. BAH. Espetxeak. 12. kutxa. 28. txostena.

123. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 97/37 kausa. Santander.

124. BAH. Espetxeak. 12. kutxa. 12. txostena; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 541/37 kausa. Bilbo.

125. BAH. Espetxeak. 87. kutxa. 34. txostena. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bilbo; 2633/37. Bilbo.

dedicando sus actividades a las labores agrícolas”. Baina gertatu zen kausan zehar Dey Eguileor Arostegui adierazten hasi zela bera ez zela espainiarra, euskalduna baizik, eta adierazpen horri eutsi zion Gerra Kontseiluan zehar. Lucio eta Rufino ziren *“labradores ignorantes, que apenas conocen el castellano, susceptibles por ello de ser fácilmente embaucados por cualquier desamprensivo”*, eta dirudienez Dey Eguileorrek hasitako jokoari jarraitu zioten *“como así lo apreciaron los componentes del Tribunal”*. Honela, Dey Eguileor exekutatu zuten eredugarritasuna emateko, eta 1938ko abuztuaren 8an bi busturiarren indultua proposatu zen eta hurrengo hilabetetan maila baxuagoko zigorragatik konmutatzea lortu zen¹²⁶.

Busturiarrei egindako Gerra Kontseiluak Busturia erori eta 1937ko urtearen amaieran kontzentratu arren, elizatean jaio edo bizi ziren batzuk auzipetuak izango ziren hurrengo urteetan 40ko hamarkadara heldu arte, azken hauek batez ere desertzio delituengatik erbestealditik itzuli eta gero. *Donostia* bouko ofizial ohia zen Amadeo Uribe Asteinza, merkataritza ontzidiko ofiziala, *“delito de adhesión a la rebelión”* delituagatik kondenatu zuten 1938ko irailaren 15ean. Baina Amadeo Uribe erbestealditik zegoen, *“desagertuta”* agintari frankistentzat, eta urte batzuk igaro ondoren kasua artxibatu zen¹²⁷. 1944ko azaroaren 3an Enrique Ugalde Ormaechea, 18 urtekoa, arotza, kondenatu zuten eta *“pena de un año de prisión militar menor”* zigorra ezarri zioten desertzio delitu batengatik, baldintza aldatzailerik gabe, erbestealditik itzuli eta gero¹²⁸. Delitu berberagatik kondenatu zuten, 1941eko apirilaren 4an, Daniel Oleaga Aranguren busturiarra, eta hurrengo esaten zuten: *“autor de un delito de desertión (...) sin circunstancias modificativas (...) a la pena de un año de prisión militar menor”*¹²⁹. Azken hau bezala, Tomás Zuazúa Porturas auzotarra 1941eko azaroaren 7an *“un año de prisión militar”* zigorra ezarri zioten desertzio delitu batengatik. Alabaina, biak indultatu zituzten 1939ko urriaren 1eko Legearen arabera¹³⁰. Desertzio delitu batengatik auzipetutako beste auzokide batzuk hurrengoak izan ziren: José Alberto Garmendia, Antonio Alegría Laucirica, Adolfo Elesgaray Asteinza, Juan Elesgaray Asteinza, Gregorio Esquíbel Retolaza, José Fradua Basteguieta, Hermeregildo Gandarias Albizua, Santiago Larreta Iturbe, Victoriano Llona Elguezábal, Francisco Llona Elguezábal, Guillermo Llona Elguezábal, Francisco Javier Oleaga Aranguren, Benito Zaldúa Retolaza eta Esteban Zaldúa Retolaza. Auzotarren zerrenda honetan argi geratzen da auzipetu askoren familiako harremana, eta horrek kalte psikologiko eta ekonomiko larriak zekarzkien familiei etxeko bururik gabe geratzen zirelako eta, gainera, kredituak hartu behar zituztelako egoera ekonomiko familiar berriari aurre egiteko, Erantzukizun Politikoen Auzitegiak egindako errepresioa azaltzerakoan ikusiko dugun bezala. Eleuterio Basterrechea Lamíquiz auzotarrak, Eskolapioen espetxean atxilotuta zegoena, azaltzen zuen:

“Que teniendo a mi esposa y cuatro hijos el mayor de ellos de seis años, además de mi madre a quienes ayudar para el sostenimiento de la vida y siendo yo tan necesario a este fin, puesto que soy el único varón existente en la familia capaz de hacerlo ya que sobre todo nos

126. BAHF. Espetxeak. 97. kutxa. 41. txostena. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 2353/37 kausa. Bilbo.

127. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bilbao.

128. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 634/43 kausa.

129. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 790/41 kausa.

130. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41 kausa.

dedicamos a las rudas faenas agrícolas y estimando que no encontrará V.S. causa alguna o delito justificado que se pueda imputar a mi persona ya que no lo he cometido; a V.S. SUPLICO se digne concederme la prisión atenuada en mi domicilio, en tanto se pueda llegar al total esclarecimiento de mi actuación”¹³¹.

Zentzu horretan, emakumeek familia mantentzeko lanean beste paper bat hartu zuten, orain zaintzeaz gain ekonomikoki ere mantendu behar zutelako.

Busturiko emakume batek honakoa gogoratzen zuen:

“madre tuvo que arrear con todo porque el padre le fusilaron en tiempo de la guerra. Entonces la madre tuvo que arrear con los tres hijos. Y así poco a poco, pues teníamos una huerta y mi madre sacaba mucho con la huerta y con la cuadra, vendía y nosotros desde chiquitos ayudando en la huerta y así... Cuando íbamos a la escuela, empezamos con 6 años, pero cuando mas gusto cogíamos a la escuela teníamos que dejar porque teníamos que trabajar, ayudar a la madre” (Busturiko Udala, 2005: 25).

Bideratutako kausa guztiek ez zuten zigor penalik ekarri; adibidez, Juan Bautista Apraiz Arróspideren 1937ko irailaren 23ko epaiak adierazi zuen: “*terminación y archivo sin declaración de responsabilidades para el individuo que se cita, quién deberá ser puesto en libertad*”¹³². Hori baino lehen, Sebastián Santos Blanco maisu nazionalaren kontra bideratutako kausaren epaiak 1937ko abuztuaren 18an esaten zuen “*sobreseimiento provisional de la presente causa en favor de todos los procesados*”, horien artean, maisua, matxinadarekin zerikusia zuten delituez akusatuta zeuden arren (“*hechos delictivos relacionados con la pasada rebelión*”).¹³³ José Antonio Aramburu Arrótegui 1938ko urtarrilaren 6ko epaiak aske utzi zuen (“*absuelve libremente*”), eta Policarpo Astoreca Bericuaren kontra bideratutako kausa 1941eko ekainaren 10ean amaitu zen behin-behineko artxibatze deflazioarekin eta behin betiko askatasunarekin¹³⁴. 1940ean ere Francisco Javier Borda Abiñaren kontrako kausa artxibatu egin zen, garrantzi penalarik ez edukitzeagatik, eta urte berean Martín Cigorraga Ugalde eta Ignacio María Ugalde Ugalde auzotarren aurkakoa ere bukatutzat jo zen¹³⁵. Dena den, kausen artxibatzeak edo absoluzioak ez zuen esan nahi auzipetuak prestatutako espetxeren batean modu prebentiboa sartuko ez zituztenik, zaintzapeko askatasuneko erregimenaren menpe egongo ez zirenik edo sailkatuak izateko kontzentrazio-esparruren batean sartuko ez zituztenik. Adibideak emateko lehen aipatutako auzotarrei buruz hitz egingo dut. Juan Bautista Apraiz Arróspide askatua izan zen espetxean 20 egun igaro ondoren; Sebastián Santos Blanco maisua behin-behineko espetxealditik zaintzapeko askatasunera igaro zen; Policarpo Astoreca Bericua zaintzapeko askatasunean egon zen; Francisco Javier Borda Abiña kontzentrazio-esparruetatik igaro zen eta zaintzapeko askatasuneko erregimenaren menpean egon zen; Martín Cigorraga Ugalde Modelo espetxean (Bartzelona) giltzapetuta egon zen 24 egunez eta Ignacio María Ugalde Ugalde 1939an gerrako

131. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

132. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). Aurretiazko eginbideak 113. Bilbo.

133. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 755/37 kausa. Bilbo.

134. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 102/37 kausa. Santander; 12570/41 Bilbo.

135. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 10812/39 kausa. Bilbo; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 2560/40; 171/40 kausa.

preso eta aurkeztuentzako hainbat kontzentrazio-esparruetan egon zen sailkatua izateko eta 1940ko urtarrilean Grañako Itsasontzi Baseko espetxe militarrean sartu zuten.

1936ko uztailaren 18tik aurrera agintari frankistek kartzelen sare bat antolatu zuten ordura arte euskal lurraldeetatik aurre egitean eta ondorengo kanpaina militarretan egindako preso guztiak hartzeko. Orain espetxeratutako busturiarrei buruz hitz egingo dugu, Busturiko lurraldean 1937ko maiatzean ekintza militarrek bukatu ondoren, herri honetako pertsona guztiek izan zuten jazarpen gogorraren adierazle. Preso gehienak gerrakoak ziren, borroken ondoren edo Santoñako kapitulazioaren ondoren atxilotuak. Baina parte garrantzitsu bat espetxeratutako zibilak izan ziren, Euskal Herriko herriak okupatzen joaten zen neurrian armada matxinoak preso hartzen zituenak.

Matxinada militarra gertatu baino lehen, Euskadin Espetxe Probintzialak zeuden, bana eskualdeko, barruti judizialeko buruko espetxeetatik aparte. Matxinada militarra hasi zenean agintari matxinoek atxiloteta zentro ugari ezarri zituzten gotorlekuetan, lantegietan, zezen-plazetan, itsasontzietan eta izera erlijioso edo pedagogikoko eraikinetan. Espetxe guztiek ez zuten behin betiko izaera izan, batzuk aldi baterakoak izan ziren eta frontearen beharretara lotuta zeuden, besteak beste, Bermeoko batzokikoa edo Gernikako Agustinoen ikastetxekoa. Baina hemen aipatuko ditudanetatik askok hamarkadak iraun zituzten euskal lurraldean gerra bukatu bazen ere. Desagertutako kartzelen artean ditugu: Erreterriko juteko lantegia, *Upo-Mendi* baporean zegoena, Gasteizko zezen-plazakoa eta euskal hiriburuko kuarteletan zeudenak. Bizkaiko kasu zehatzean, beste espetxeen artean, Karmeloko espetxea, Eskolapioena, Deustuko Unibertsitatea eta Urduñako ikastetxea nabarmendu ziren. Giipuzkoan Saturraraneko seminarioko emakumeen kartzela dugu, agian guztietatik ospetsuena, baita emakumezkoa zen San José babes-etxekoarekin batera. Azkenik, aipatuko dut Nafarroan, Kantabrian edo Burgosen ere Euskal Herriko preso kopuru handia zuten kartzelak zeudela, baita urruneko El Puerto de Santa Maríako espetxean ere (Cádiz). San Cristobaleko Gotorlekua, El Dueso Espetxea edo Iruñako Espetxe Probintziala bezalako izenak zoritzarrez ezagunak dira Euskal Herriko gatibu asko han hil zirelako edo zigorraldia bete zutelako.

Francoren karteletako bizitza estatuko agintari berrien politikak arautu zuen. Espetxeak Estatuko Batzar Teknikoaren Espetxeen Ikuskaritza Ordezkarien menpean egon ziren lehenengo, 1936ko azaroan 1930eko espetxeen erregelamendua berriz ezarri zuena. Gero Espetxeen Zuzendaritza Orokorra arduratu zen arlo honetaz, 1937ko uztailan Errepublikaren legeria espezifiko guztia indargabetu zuena. Hala ere, legeen aplikazioa espetxeen langileen eskuetan egon zen neurri handi batean (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 90).

Larrínaga Espetxe Probintziala Bizkaiko giltzapetze zentro nagusi bilakatu zen eta hainbat zentrok osatzen zuten. Espetxearen eraikin nagusia gizonentzako Larrínagako kartzelaketa emakumeentzako Orueko txaletak osatzen bazuten ere, 1937ko irailean zentro berriak prestatu behar izan ziren preso guztiak sartzeko: Cervantes eskola publikoak, Eskolapioen eraikina, Iturribideko patronatua, Tabakalera, Galera Etxea eta Karmelo espetxe ospitalea (Badiola, 2015: 75). Larrínaga Espetxe Probintzialetik igaro ziren auzotarren artea, Busturiko auzotar gehien izan zituena, hurrengoak zeuden: Hipólito Álvarez Urrutia, Bárbara Aranguren Bilbao, Rufino Arróspide Omagogeascoa, Eleuterio Basterrechea Lamíquiz, Florencio Bilbao Aguirre, Doroteo Calzada Ispizua, Andrés

Cearreta Urrutia, Román Cearreta Urrutia, Rufino Iturbe Zorrozuá, Ciriaco Echevarría Uribe, Lucio Izaguirre Bengoechea, Demetrio Lecumberri Inchaurre, Carmelo Llantada Uriaguereca, Carlota Urruchua Urizar, Jesusa Urruchua Urizar, Cristina Beatriz Uribarri Larrucea eta Francisca Elguezabal Asla.

1939ko martxoaren 7an Larrínaga eta Eskolapioen kartzeletan kanpotik janaria sar-
tzea baimendu zen. Baina ezarritako baldintzak betetzea oso zaila zen. Espetxeen
Zuzendaritzaren baimenaz gain, hornidurak egunerokoa izan behar zuen, hau da, hor-
nidurak kartzela ordezkatu behar zuen presoak mantentzeko beharrean, eta erregimen
honen menpean zeuden presoak baja izango ziren arrantxoan. Familia askok ezin zuten
janariaren eguneroko gastua mantendu, elikagaiak oso garestiak zirelako errazionamen-
dua ezarrita zuen herrialde batean janaria eskasa zelako (Badiola, 2015: 78). Bilboko
Espetxe Probintzialari dagokionez, zaindutako espetxe bat izan zen, ez delako idatziz
jaso ihesaldi askorik. Pilaketa egoera hemen eta Tabakaleran jasanezina izan zen.
Osasunaren ikuspuntutik, kasu oso larriak bakarrik artatu zituzten Karmelo ospitale mili-
tarrean eta bertan abzesuak, hemorroideak edo koliko hepatikoak bezalako kasuak tra-
tatzzen ziren. (Badiola, 2015: 85-86) Ospitale militar honetan egon zen denbora batez
Martín Bilbao Bilbao, Eskolapioetan giltzapetua, gero Larrínaga Espetxe Probintzialera
bidali zutena, gaixotu zenean, eta espetxe ospitale berean egon zen ere Lucio Izaguirre
Bengoechea auzotarra. Ikus daiteke nola Karmeloko komentuak, Euzko Jaurlaritzaren
garaian ere espetxe bihurtu zutena, eginkizun bera izan zuen gerraostean, presoentzako
ospitalea izateaz gain eta gaitubutza egoeran zeuden 45 apaiz izateaz gain (Badiola,
2015: 76). Toki faltaren aurrean eta osasun-egoera gero eta txarragoa zela ikusita,
Santutxuko Tabakaleran espetxe berri bat prestatu zen, Karmeloren ondoan, euskal
espetxe probintzietako pilaketa egoera arintzeko asmoz (Badiola, 2015: 75). Bere
horma hotzen barruan Julián Arrandiaga Longa y Policarpo Astoreca Bericua auzotarrak
egon ziren.

Larrínaga Espetxe Probintzialeko beste preso batzuk, besteak beste, Manuel Lejarreta
Urtiaga, Fermín Apraiz Goiricelaya, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Sinforiano
Iparaguirre Garciarena eta Pedro Bilbao Zabala, *Upo Mendi* kartzela flotagarriara
bidali zituzten. Espetxe honetara ere iritsi zen Domingo Izaguirre Iturbe busturiarra,
baina tropa matxinoak Bilbon sartu ondoren Arriaga Antzokian ezarri zen behin-behi-
neko espetxetik. *Upo Mendi* espetxeak ez zituen beharrezko zerbitzuak: ez zegoen
argindarrik, sukaldarik, koltxonetarik edo platerarik. Ura eskasa eta txarra zen.
Presoek sotoan lo egiten zuten txapa hotzetik banatzen zituzten zutoinen gainean.
Erizaindegia, itsasontziaren erdian zegoena, ez zuen oinarrizko tresna edo sendagai-
rik. Kanpotik sartutako janariak debekatuta zeuden, bisita-araubidea urria zen eta
presoak ekonomatoan kontsumitzera behartuta zeuden, prezio altuak ordainduz
(Badiola, 2015: 86).

Dena den, dokumentatu ahal izan ditudan busturiarren egonaldiak izan zituzten espetxe
guztiak ez zeuden derrigorrez Bizkaian. Urduñako kontzentrazio-esparru ohia Urduñako
Espetxe Zentral bihurtu zen eta bertatik Anastasio Aberasturi Garmendia edo Rufino
Arróspide Omagogeascoa igaro ziren. Gipuzkoako Espetxe Probintzian Victoriano
Izaguirre Zuazo egon zen; Oviedo Espetxe Probintzian, Manuel Lejarreta Urtiaga;
Logroñoako Espetxe Zentralean, Lucio Izaguirre Bengoechea eta Carmelo Llantada
Uriaguereca; Bartzelonako Modelo espetxean, Martín Cigorraga Ugalde; Madrilgo
Modelo espetxean, Alejandro Cearra Apraiz; Segoviako Espetxe Ospitale Babes-etxean,

Fermín Apraiz Goiricelaya; eta Burgoseko Espetxe Zentralean Manuel Lejarreta Urtiaga, Antonio Aizpuru Ugalde, Pedro Bilbao Zabala eta Rufino Iturbe Zorrozuía egon ziren. Beste batzuk, Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte eta Ciriaco Echevarría Uribe adibidez, Puerto de Santa Maríako Espetxe Zentralean egon ziren (Cádiz). Cádizen ere, Luciano Esquíbel Retolazak espetxe militarrean egon zen San Fernandon. Elizateko hainbat gatibu Pontevedran prestatutako espetxeetara joan ziren: Figueiridoko Espetxe Centralean Lucio Izaguirre Bengoechea egon zen; Pontevedrako Espetxe Probintzialean, Fermín Apraiz Goiricelaya; eta San Simón espetxe-kolonian Benito Rentería San Nicolás edo Fermín Apraiz Goiricelaya presoak egon ziren. Galizian ere, baina Ferrolen, gatibu egon ziren espetxe militarrean Ignacio María Ugalde Ugalde, Luciano Esquíbel Retolaza eta Hermeregildo Gandarias Albizua.

Alfonso XII gotorlekua, San Kristobal Gotorlekua izenarekin ezagunagoa dena, Iruñeatik (Nafarroa) hurbil dagoen Ezkaba mendian zegoen gotorleku militar bat zen. Espetxe bihurtu zen 1934ko iraultzaren ondoren, eta ez zuen paper hori galdu 1945era arte, espetxea itxi zen urtean. Lehenago aipatu ditugun baldintzak hemen ere ematen ziren: pilaketa, tuberkulosia, exekuzioak... eta dagoeneko bi lan monografikoetan aztertuak izan dira (Etxeberria eta Pla (zuz.), 2014; Alforja eta Sierra, 2006). Espetxe honetan Busturian bizi edo jaio ziren pertsona ugari aurkitzen ditugu: Rufino Arróspide Omagogeascoa, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Nicolás Foruria Aguirre, Florencio Iturri, Domingo Izaguirre Iturbe eta Benito Rentería San Nicolás. Kantabrian ere euskaldun ugari preso egon ziren, El Dueso espetxean zehazki (Landa Montenegro eta Guezala, 1998). Espetxe honetan tropa matxinoek Santoñan preso egin zituzten euskaldun asko giltzapetu zituzten, haien artean Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte auzotarra eta Sebastián Larrínaga Ariño, Busturian jaioa.

Gizonentzat eta emakumeentzat araudia eta diziiplina berdinak izan arren, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, emakumezkoen erregimenak ezaugarri bereziak izan zituen. Emakumezkoen kasuan espetxe probintzialak eta zigorra betetzeko espetxeak desberdintzen ziren. Emakumeen kartzela-aldiak espetxe probintzialetan iragaitzazko izaera zuen, iragaitzazko kartzelak ziren behin betiko destinoa jakin arte, edo hartzen zituzten emakumeak epaitu gabe zeuden oraindik gerra-kontseilu baten zain (Badiola, 2015: 22-23). Elizateko emakume presoan artean zazpi euskal espetxe ezberdinetatik igaro ziren: Bárbara Aranguren Bilbao, Cecilia Llantada Uriaguereca, Cristina Beatriz Uribarri Larrucea, Carlota Urruchua Urizar, Jesusa Urruchua Urizar, María Cortázar Marcaida eta Francisca Elgezabal Asla.

Saturraranen (Mutriku, Gipuzkoa) “oso arriskutsuak” ziren emakumeentzat zigorrak betetzeko gune bat ezarri zen mojek kudeatutako bainu-etxe ohi batean. Ez zegoen preso prebentiborik edo bidegabeko eran atxilotutakorik, epaituak eta kondenatuak ziren gatibuak baizik. Espetxe honek 1937tik 1944ra arte funtzionatu zuen eta bere zeldetatik ia 4.000 preso igaro ziren. Mojek eragindako tratu txarrak, gosea, tifusa, tuberkulosia, eta euren seme-alabak erregimenaren aldeko familiei adopzioan ematen zietela ikustearen ankerkeria pairatu behar izan zituzten. Espetxe honek oroitzen historikoko benetako ariketak diren bi ikerketa eta dokumental bat ditu, beraz, ez naiz gehiago luzatuko espetxe honi buruz (González Gorosarri, 2010; de la Cuesta, Etxeberria Gabilondo eta Pérez Machío (zuz.), 2010; Badiola, 2015: 26-44). Busturiko hiru emakume gutxienez igaro ziren espetxe honetatik Bárbara Aranguren Bilbao eta Carlota eta Jesusa Urruchua Urizar ahizpak. Zehazki, Urruchua Urizar ahizpak oso txarto pasatu behar izan

zuten euren egonaldia buruz ezer kontatu ez zutelako¹³⁶. P. Escobalek gogoratzen zuen nola Pedro Plasta eta bere arreba María Jesusa, Carlota eta Jesusa Urruchua Urizarren osaba eta ama, kartzelara joaten ziren:

“cada dos semanas cargaban con paquetes de ropa limpia y hacían en el autobús de línea el viaje a la cárcel de Saturdarán (*sic*). De allí regresaban tristes y llorosos con la ropa sucia de las sobrinas y a veces con el mismo paquete de alimentos” (Escobal, 2005: 288).

Urruchua ahizpei dagokienez ere, Zornotzako espetxera lekualdatu zituzten. Kartzela honi buruz dakigu herriaren erdigunean egon zela, gaur egungo Karmeloko ikastetxean, eta espetxea izan zela 1939tik 1947ra arte. Gutxi dakigu kartzela honetako eguneroko bizitzari buruz, baina 1940tik josteta tailerrak zituen eta hauetan armadaren intentsiozarako jantziak josi ziren. Nieves Torresen lekukotza nahiko adierazgarria da:

“Desde el primer día, en Amorebieta, recuento y formación para ir a recoger el desayuno, si a aquello se le podía llamar desayuno, porque era agua caliente, así se explicaba cómo estaban las mujeres. Por la mañana, en ayunas, un cazo de agua caliente, decían que le ponían Maggi, pero no sabía a nada. Después subía una orden, a formar con cuchara y plato al patio, y todas al patio. Según nos explicaron, habían la vida allí, en el patio concretamente, apiñadas. Para la cantidad de mujeres, posiblemente unas dos mil, no era un patio muy grande. Era también un colegio de frailes y en el patio exterior había una huerta grandísima, donde se podía haber salido a tomar el aire y el sol, pero en aquella huerta sólo acampaban los animales; había cerdos, gallinas, conejos, pero nosotras no teníamos derecho a eso. El rancho era bueno. La comida tenía buen gusto y estaba bien hecha, pero el cazo no era de reglamento; la comida que nos daban nos cabía en el cuenco de la mano. Esto todavía sentaba peor. Con dos cucharadas te quedabas con más hambre que cuando habías empezado”.

Kartzela hau itxi egin zen gose eta miseria egoera penagarriengatik salatua izan eta gero. (Badiola, 2015: 23-26).

Orueko txaletan prestatutako espetxeari dagokionez, bertan María Cortázar Marcaida auzotarra egon zen. Espetxearen sorrera eta itxiera datak mugatzeko arazoak dau-den arren, badirudi baieztatu daitezkeela eraikina espetxe bezala erabili zela 1937tik 40ko hamarkadara arte. Baldintzak ez ziren orain arte ikusitakoak baino hobeak: pilaketa, elikadura txarra, gaixotasunak... Osasun arazo handienetako bat elikadura txarragatik edo osasun-laguntza faltagatik eratorritako abitaminosia zen (Calvo Ortiz eta Fernández Rincón, 2016). Dietaren oinarria arrosa zen: “*casi siempre era arroz pasado, muy pasado porque se hincha mucho, da de sí, y era agua y arroz blanco*” (Cuevas, 2004: 178). Azkenik, ezin dugu ahaztu herriko emakumeen aurkako beste indarkeria sozialen motak, haien iragan *gorri-separatistarekin* zerikusia zutenak eta indarkeria estrapenala izan zena, ikuskatu gabekoa. Cruz Arronategui auzotarra kas-kamotz utzi zuten eta “*mairuen*” komunak garbitzera joan behar izan zuen Gernikara, edo María Luisa Álvarez Lauciricak gerraostean pairatu zuen gutxiespen soziala kon-tatzen zuen, bere seme-alabek eskolan jasan zuten gutxiespen sozial bera (Egizábal

136. Egizábal Suárez, M. (2017, martxo). *Busturiko emakumeak frankismoaren aurrean. Ezkutuko erresistentziak*. Altamirako Kultur Etxean aurkeztutako txostena, Busturian.

eta Serrano, 2017: 190)¹³⁷. Matxinoek Busturiko emakumeei egindako bortxaketarik egon ez arren, bakarrik zeuden emakumeei egindako jazarpenaren lekukotasun bat dago. Busturian tropa italiarrak sartu zireneko denborari buruz, Miren Uriaguereca auzotarrak hurrengo kontatzen zuen:

“Y los soldados preguntaban por Barbarita; haber quién es esa mujer que vive sola. Un día Barbarita, que tenía un perro bravo que le avisaba quien llegaba, estando en casa oyó a los italianos: —“Creo que esta es la casa de la que vive sola”. Ella se escapó por el otro lado y entre huertas vino a “Mosuene”. Dormía con nosotros” (Egizábal eta Serrano, 2017: 189).

Orokorrean, ikus dezakegu Bilboko eta Gasteizko espetxe probintzialak Busturiko presoekin hartzaile bihurtu zirela, iragaitzazko tokiak ziren estatuko beste espetxeetarako bidean, gatibu guztiak mugikortasun handiaren menpe egotearen ondorioz. Espetxeek presoaren bakartasuna, umilazioa, zigorra eta luditzea adierazten zuten, baita presoak gatibuaren zirkulu sozialen menpe geratzea (Gómez Bravo eta Marco, 2011: 230-245). Presoei ezartzen zitzaizen bakartasunaren lekukotza Busturiko Carmele Llantada auzotarrak ematen digu. Carmele Llantadak bere aita Carmelo Llantada Uriaguerecari kartzelan egiten zizkion bisitak gogoratzen ditu:

“Cuando hice la primera Comunión mi padre estaba en los Agustinos en Gernika, el actual instituto. Hacer la Primera Comunión por la mañana y a la tarde a visitar al padre preso; una tableta de chocolate, el traje,... En San Pedro de Cardeña también alguna vez dejaban pasar a los niños, pero éramos cuatro en los tiempos de la cárcel. Y luego nacerían los otros tres. Yo sólo fui de visita a mi padre el día de la Primera Comunión, si no, no nos dejaban verle (...) Preso en San Pedro de Cardeña, Burgos; pero no sé, en Bilbao, en Begoña..., en Larrínaga. Nosotros deseando ir a ver al padre de niños, si iba un hermano no podía ir el otro” (Egizábal eta Serrano, 2017: 194).

Lekukotza honetan ikus dezakegu ere oso arraroa izan zela Busturian jaio edo bizi zen preso bat kartzela bakar batean egotea; espetxe bakar batean giltzapetzea sei busturiar fusilatuen kasuan eta desertzioagatik zigortuen kasuan ia bakarrik gertatu zen. Gainera, gehitu behar dugu gatibuak kokatzeko erabili zen hedapen geografikoa: Cádiz, Segovia, Pontevedra, Ferrol... Sakabanatze politika honek ez zien mesede egiten Busturiko familei elizateetik 900 kilometro baino gehiagora zeuden espetxeetan senideak bisitatu nahi zituztenean. Exekuzioek, torturek, pilaketak, goseak, osasun-laguntzarik gabeko gaixotasunek, ebasketek, inkomunikazioak eta ohikeriak presoekin sendotasun psikologikoa hondatzen zuten egunero.

Oso zaila da zenbatzea aldi baterako askatasuna galdu zuten busturiarrak, tropek edozein hiritar susmagarri atxilotzen zutelako aldi baterako komisariari ziegatan edo horretarako prestatutako aretoetan bere historia politikoa eta “*delituzkoa*” egiaztatu arte. Erik Zubiagak adierazten du auzipetuaren giltzapetzeak ez zekarrela, ezta pentsatu ere, sumario-prozesuaren hasiera automatikoa (Zubiaga, 2017: 63-64). Guztiek ezin izan zuten jasan eta, gutxienez busturiar batek bizitza galdu zuen San Kristobal Gotorlekuan. Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Busturiko azken udal errepublikanoaren zinegotzia, pneumonia/biriketako edemagatik hil zen 1938ko otsailaren 13an, eta Larrageta hobiratua izan zen. Rufino Iturbe Zorrozuía ere ez zen bizirik atera espetxe-erregimen

137. Egizábal Suárez, M. (2017, martxoa). *Busturiko emakumeak frankismoaren aurrean. Ezkutuko erresistentziak*. Altamirako Kultur Etxean aurkeztutako txostena, Busturian.

gogorretik, eta 1942ko azaroaren 13an hil zen Burgosko Espetxe Zentralean bere espetxealdian¹³⁸. Espetxean hiltzea hilerrietako hormetan hiltzea bezain egunerokoa izan zen bi kausen ondorioz: torturak eta gaixotasunak. Bihotz-gelditzeak eta garuneko odoljarioak adierazten zituzten ziurtagiri medikoekin ezkutatu ziren tratu txarrek heriotzaren benetako kausak ezkutatu zituzten: urkatze bidezko suizidioak, garezurreko haustura eta bestelako traumatismoak (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 85). Laburbilduz, espetxe guztietako baldintza gogorrek garaituei gizatasuna kendu eta hondamena morala ekarri zieten (Zubiaga, 2017: 62).

1938tik aurrera, auzitegi militarrek hasitako prozeduren kopurua modu nabarmenean jaisten hasi zen, eta 1939ko otsailerako instantzia militarrek irekitako txosten judizial berriak oso gutxi ziren, erbestealditik itzuli ondoren desertzio militarreko delituengatik irekitako auziak izan ezik. 1940an erregimenak giltzapetutako presoek kopuru handia pixkanaka kartzelatik ateratzera jotzen zuen. Errepresiozko politika frankistaren benetako aldaketa eta kartzelatik ateratzeko politikaren aldeko joera ez ziren hasi 1940ko urtarri-laren 25era arte, zigorrak aztertzeko batzordeak eratu zirenean 1936ko uztailaren 18tik 1940ko martxoaren 1era arte auzitegi militar frankistek ezarritako zigor guztiak ofizioz berrikustea helburuarekin, gauzatutako heriotza zigorrak, betetako espetxealdi zigorrak eta 30 urtez konmutatutako heriotza zigorrak izan ezik. Erakunde hauek ezarritako zigorrak bakarrik berrikusi zituzten eta irizpide zigortzaile berriak aplikatu zituzten (Zubiaga, 2017: 141-144). Berrikuspen hauei etekina atera zioten elizateko auzotarren artean hauek zeuden: Martín Bilbao Bilbao, Domingo Izaguirre Iturbe, Fermín Apraiz Goiricelaya, Bárbara Aranguren Bilbao, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Ciriaco Echevarría Uribe, Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte, Lucio Izaguirre Bengoechea edo Carlota eta Jesusa Urruchua Urizar ahizpak, besteak beste¹³⁹.

Gerraostean eman ziren baldintzapeko askatasuna emateko legegintzako ekintzekin lotu behar dira erabaki hauek, 1940 eta 1945 urteen artean egon ziren kartzelatik ateratzeko egintzak ulertzeko (Zubiaga, 2017: 144-145). Rufino Arróspide Bengoechea baldintzapeko askatasuna izateko proposatua izan zen 1940ko ekainaren 24an, abuztuan eman zitzaion eta Busturian ezarri zen¹⁴⁰. Urte hauetan baldintzapeko askatasuna lortu zuten beste auzotar batzuk izan ziren Luciano Esquíbel Retolaza, 1941eko uztailaren 31n; Antonio Aizpuru Ugalde, 1940ko uztailaren 14an; Fermín Apraiz Goiricelaya, 1940ko uztailaren 2an eta Lucio Izaguirre Bengoechea, 1943ko martxoaren 5ean¹⁴¹. 1939ko irailetik 1943ko abendura baldintzapeko askatasunari buruzko zortzi lege aldarrikatu ziren. Espetxeen sailaren barruko txostenen arabera, gerrarekin zerikusia zuten kausak zituzten preso espainiarrak 1940an 250.000 izatetik 4.052 izatera igaro ziren 1947ko irailean (Zubiaga, 2017: 145, 147). Dena den, askatasuna mantendu zuten baldin eta tokiko agintariek preso ohiaren neutralizazio politikoa eta soziala egiaztatzen

138. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 2353/37 kausa. Bizkaia.

139. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). CCEP. 610. kutxa. 38133. txostena; 957. kutxa. 72178. txostena; 212. kutxa. 826. txostena; 213. kutxa. 945. txostena; 271. kutxa. 6363. txostena; 702. kutxa. 47375. txostena; 2. kutxa. 153. txostena; 1. kutxa. 11. txostena; 1. kutxa. 12. txostena.

140. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Espetxeak. 04. karpeta. 23. txostena.

141. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 1112. kutxa. 46844. txostena; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 2353/37 kausa. Bizkaia; 81/37. Bizkaia.

bazuten. “Askatasuna” ezeztagarria zen une orotan. Gainera, baldintzapeko askatasun frankistak erruduntzat joko zituen beti graziazko neurrien onuradunak.

1943tik aurrera baldintzapeko askatuen irteera eta kokalekua kontrolatzea beharrezkoa gertatu zen, eta kontrol hori Zaintzapeko Askatasuneko Zerbitzuari egokitu zitzaion eskusiboki (Zubiaga, 2017: 147-148). Esaterako, zerbitzu horri atxikituta geratu ziren Francisco Javier Borda Abiña edo Policarpo Astoreca Bericua auzotarrak¹⁴². Zaintzapeko Askatasuneko Zerbitzua sortu baino lehen, estatu berriak Liberto eta Askatuen Elkarrekin eta Patronatuak eta Zigorak Luditzeko Patronatua erabili zituen presoen irteera eta kontrola kudeatzeko. Dena den, legegintza frankistaren pixkanakako malguketak presoek poliki-poliki 40ko hamarkadan aldarrikatzen joan ziren graziazko neurrietatik etekina aterazaten eragin zuen. 1941eko abenduaren 3an Tomás Zuazúa Porturasek hartu zuen *“indulto que S.E. el Jefe del Estado se ha dignado conceder con fecha 1ª de Octubre del año 1939 a los sentenciados a penas de privación de libertad inferiores a seis años y un día”*, grazia hau 1941eko abenduaren 6an hartuz¹⁴³.

1945eko urriaren 9an estatu berriak indultu orokor bat aldarrikatu zuen gerra garaian gertatutako gertaerak leporatuta zituzten presoentzat. Erik Zubiaga historiagileak kontatzen du indultuak *“auzi-ihesean”* zeuden pertsonentzako grazia eskubidea hedatzen zuela, Amadeo Uribe Asteinza auzotarrari gertatu zitzaion bezala, edo Espainiatik ihes egin zuten milaka pertsoneri bezala, haien artean, elizateko auzotarrak.

“Según los legisladores franquistas, el indulto cerraba el capítulo correspondiente a los presos de la guerra, permitiendo “reintegrarse a la convivencia con el resto de los españoles a quienes delinquieron inducidos por el error, las propagandas criminales y el imperio de gravísimas y excepcionales circunstancias””.

Dena den, indultu hau ez zen zigor osagarrietan aplikatu eta gerra edo gerraosteko arazoengatik zigortuak ez ziren kartzelatik atera, ez zen inoiz izan amnistia bezalako kontzeptu juridikoa. Gainera, odol-delituengatik zigortutako presoak grazia eskubidetik kanpo geratu ziren, eta kategoria honetan sartzen ziren erailak izan ziren pertsonak salatu zituztenak, erailketak txaloka adoretu zituztenak edo pasiboki ikusi zituztenak (Zubiaga, 2017: 145-146). Praktikan, espetxe frankistetan egon ziren auzotar guztiek ez zituzten zigorak osorik bete, gerraosteko lehen urteetatik aldarrikatutako neurri ugariaren grazia edo onurak hartu baitzituzten.

4.1.1.1. Arbeit macht frei: Lan egínez penak luditzea

Dagoeneko giltzapetuta eta kondenatuta zeuden herritarrak bortxazko lanen sistema baten menpe geratu ziren: Lan Egínez Penak Luditzeko Sistema. 1938an lan egínez penak luditzeko Patronatu Zentrala sortu zen, Justizia Ministerioko Espetxeen Zerbitzu Nazionalako Bulego Nagusiaren menpe zegoena. Patronatu honek egin beharreko lanak koordinatu eta zuzendu zituen eta gobernuari zigor-egunak lan-egunengatik barkatzea

142. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570/41 kausa. Bilbo; 10812/39. Bizkaia.

143. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41 kausa.

proposatu zion. Penak luditzearen oinarri juridikoak eta teologikoak, estatuaren doktrina penitentiaren oinarri, sistemaren izaera adierazten zuten:

“mantenía el carácter afflictivo de la pena frente a las falsas y sensibleras teorías de quienes sólo vieron en el delincuente a un enfermo o una víctima de la sociedad desordenada. *Horrela, hurrengo esaten zen*: a la autoridad le incumbe inexcusablemente el deber de vindicar la justicia ultrajada; el dolor era inherente esencialmente a la naturaleza moral del castigo; y sólo un castigo de esta clase engendra escarmiento y ejemplaridad. *Zigortuak erreskate bikoitza bete behar zuen askatasuna eskubide guztiekin eskuratzeko: fisikoa, lanaren bidez, eta espirituala, zuzenketarako ekintza positiboekin. Horrela*, en nuestra revolución penitenciaria la función justiciera o ejecutora de la pena y la función redentora o misional se juntan, guardando su mutua autonomía. *Sistema honek nahi zuen presoak bere buruarentzat eta gizartearentzat lan egitea, grinaarrakutsuetatik eta sexu-aberrazioetatik urruntzea eta familia-ren unitate morala indartzea*” (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 99).

1937ko maiatzaren dekretuaren arabera, dagoeneko azaldu dudana, eta 1938ko urriaren 7ko Justizia Ministerioaren Aginduaren arabera, penak luditzearen praktika arautu zen. Gerrako presoan eta ez ohikoak ziren delituengatik bi sexuko presoan eskubide eskusibo bat zen, bi lan-egunengatik egun bat luditzen zen eta 2 pezetako soldata kobratzen zen, baina presoak 50 zentimo bakarrik jasotzen zituen gainontzekoarekin bere mantenua ordaintzen zuelako. 1939an eskubide hau zigor arinak zituzten presoentzat bakarrik izan zen, langile espezializatuak behar ezean. Pertsonal militarizatu bezala, peoi lanak eta euren trebakuntzarekin zerikusia zuten jarduerak burutu zituzten (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 99).

Sistema honek presoan bortxazko lana antolatzeke hainbat modu ekarri zituen. Carmelo Landa Montenegro eta Luis de Guezala historiagileek hurrengo lanak azaltzen dituzte:

“destinos o trabajos en el interior de la prisión (cocina, panadería, economato, barbería, lectura en común, enseñanza, enfermería, administración y limpieza), trabajos eventuales (reforma y rehabilitación de la propia cárcel con obras de fontanería, albañilería...) y trabajos auxiliares (auxiliares de capellán, maestro y enfermería)” (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 99-100).

“También ambos señalan cómo en los destinos trabajaban los condenados con penas inferiores a 12 años y un día. Los condenados a reclusión temporal podían trabajar fuera del recinto penitenciario, en empresas tanto públicas como privadas” (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 99-100).

Sinforiano Iparaguirre Garciarena busturiarra espetxeko ekonomatoan lanean zebilen bitartean, beste busturiar batek, Rufino Arróspide Omagogeascoak, Urduñako espetxetik kanpo eman zituen zerbitzuak egurgile bezala. 1940ko ekainean espetxean zuen jarrera ona aditzera ematen zen, eta hilabete berean baldintzapeko askatasunerako proposamena egin zen, onartua izan zena. 1941eko urtarrilerako, askatua izan zenean, nekazaritzan aritu zen. Hori bai, estatuak alkatea, tokiko erretorea, Guardia Zibila eta JONSetako FETaren tokiko buruzagia erabiltzen jarraitu zituen pertsonaren neutralizazio politikoa kontrolatzeko¹⁴⁴.

144. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Espetxeak. 04. kutxa. 23. txostena; 17. kutxa. 55. txostena.

Egile berdinen arabera, penak luditzeko sistema 1939ko apirilaren 1ean aplikatzen hasi zen. Urte horren amaieran, sistema horren menpe zeuden presoak 9.129 ziren. Espainian presoen zati handi batek plan horretatik etekina ateratzen zuela aditzera ematen saiatu ziren, baina, egia esan, 1939an presoek ehunekoa %4,5 izan zen, eta 1940an, %6,6. Tailer-eskoletan, destakamentuetan eta kolonia militarizatueta presoek zigorrak luditzen zituzten. Emakumeak administrazio, sukaldaritza eta janaritegi zerbitzuetan ari ziren emakumeen karteletan; gizonak, aldiz, erizaindegia, ikuztegia eta jantzien edo tresnen biltegiak kudeatzen aritu ziren (Landa Montenegro eta Guezala, 1998: 100).

4.1.2. Bizkaiko Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzietik Erantzukizun Politikoen Legera

Ikusi dugu nola 1936ko irailaren 13an Defentsa Batzar Nazionalak aurkakoen eta matxinoen kontrako alderdi edo erakundeek ondasunak konfiskatzea dekretatu zuen, alderdi politiko eta sindikatuenak barne, hauen artean eusko nazionalistak zeudela. Honela *“cuantos bienes muebles, inmuebles, efectos y documentos pertenecieren a los referidos partidos o agrupaciones”* estatuarenak izatera pasatzen ziren (BOJDNE, 1936/09/16). 1937ko urtarrilaren 10eko lege-dekretuaren bidez konfiskazioak egiteko egiturak eta prozedura ezarri ziren, Estatuak Konfiskatutako Ondasunak Administrazio Batzorde Zentral baten zuzendaritzapean, Estatuak Batzar Teknikoak izendatua (BOE, 1937/01/11). Honela, konfiskazioei buruzko jarduera homogeneizatzen zen lurralde matxino osoan. Probintzia bakoitzean Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzial bat ezarri zen, eta bere helburua une horretan lege kanpo zeuden pertsonak, erakundeak, elkarteak edo alderdi politikoak auzipetzea zen. Batzorde Probintzialaren burua Gobernadore Zibila zen eta berarekin batera auzitegi-magistratu bat eta estatuko abokatu bat idazkari bezala zeuden, bi hauek Estatuak Batzar Teknikoak izendatuta. Batzorde Probintzialak izendatutako karrerako epaile bat edo epaile militar bat espediente bideratzeko ardura zuen. Gainera, agintari militarrek zuzentzeko neurri mota guztiak hartzeko eskumena zuten (*“toda clase de medidas precautorias”*). Zehatzeko ahala agintari militar eskudunak gorde zuen, dibisioko jeneralak edo plazako komandante nagusiak, eta zehapena ezartzen zuen Batzorde Probintzialak bidalitako txostena aztertu eta gero; ebazpen horrek ez zuen helegitea aurkezteko aukerarik (Álvaro Dueñas, 1999).

Ondasunen konfiskazioa errepresio-mekanismo bat zen, zeinean berehalako eragile ekonomikoa eta etsai politikoa zigortzearen borondate politikoa batzen ziren, baina bi interes horiek bateratzea zaila izan zen eta Bizkaian kontraesan zuzenean sartzea heldu ziren:

“El problema es grave, difícil y delicado, pues hay que desmontar la prepotencia económica del nacionalismo sin que se hunda la riqueza de Vizcaya pero hay que dar la batalla al capitalismo nacionalista, favoreciendo al capital blanco afecto a España o de lo contrario no se debe hablar ni de incautación de bienes” (Álvaro Dueñas, 1999).

Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala 1939ko maiatzaren desegin zenean, Erantzukizun Politikoen Legearen arabera, bere eskumenak hartu zituen Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiari bukatu gabeko 5.570 espediente eman zizkion,

dagoeneko Eskualde Militarreko Komandantzian ebazpenaren zain zeudenak zenbatu gabe. Manuel Álvaro Dueñas historiagilearen arabera, 1941eko irailean Bizkaian erantzukizun politikoen 5.307 espediente bideratzen ari ziren; une horretara arte 2.676 ebatzi ziren, eta bideratuak izateko txandaren zain 7.645 espediente zeuden oraindik, hau da, Erantzukizun Politikoen Legeak Bizkaiko erroldan zeuden biztanleen %30,80an eragina zuen, Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak dagoeneko ebatzi zituen espedienteak kontuan hartu gabe (Álvaro Dueñas, 1999).

1939ko otsailaren 9an Erantzukizun Politikoen Legea sinatu zen:

“los españoles que en haz apretado han salvado nuestro país y nuestra civilización y aquellos otros que borren sus yerros pasados mediante el cumplimiento de sanciones justas y la firme voluntad de no volver a extraviarse, puedan convivir dentro de una España grande y rindan a su servicio todos los esfuerzos y todos los sacrificios” (BOE, 1939/02/13).

Lege honek Erantzukizun Politikoen jurisdikzioa militarrekin lotzen zuen, militarrek ezarritako zigorra osatzen zuen zehapen ekonomiko bat ezartzen zuelako. Legearen ezau-garri nabarmenenen artean bere atzeraeraginezko izaera zegoen (1934ko urriak 1), gertatzeko unean moralki edo politikoki legezkoak eta zilegiak ziren gertaerak epaitzen zirelako, batzuk oinarrizko eskubideak izateagatik babes juridiko berezia izan arren, adibidez, 1931ko konstituzioak babestutako bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea edo ideia politikoak adierazteko eskubidea. Gainera, errugabetasun printzipioak ematen dituen berme juridikoak eta norberaren burua defendatzeko froga baliabideak erabilitzeko edo erabaki judizialei helegitea jartzeko akusatuak duen eskubidea hautsi ziren. Eta garrantzitsuena, zehapenak bere izaera pertsonala galtzen zuen eta erantzule hilak auzipetu, epaitu eta kondenatu zitezkeen, gertaeren kalifikazioa eta zigorren zehazta-pena epaileen erabakiaren menpe utziz (Álvaro Dueñas, 1997).

Legeak aurreikusten zituen zehapenak hiru taldetan banatzen ziren: jarduera mugatzen zutenak (I. Taldea), desgaiakuntza absolutu edo bereziarekin; egoitzaren askatasuna mugatzen zutenak (II. Taldea), atzerriratzea, Afrikako jabetzetara erbesteratzea, konfinamendua edo desterrua zekartenak; eta, azkenik, ekonomikoak zirenak (III. Taldea), zenbateko finko bat ordaintzea edo ondasunak guztiz edo parte baten galtzea zekartenak. Aparteko kasuetan auzitegiek gobernuari Espainiako nazionalitatearen galera proposatu ahal zioten. Lege honek argi uzten duena da kondena bakoitzak zehapen ekonomiko bat zekarrela, eta auzitegiak erabakitzen zuela, gainera, lehen bi taldeko zein zigor jar-tzen zuen. Erantzulea lehenago auzitegi militar batek kondenatu bazuen, zehapen ekon-omikoa ezartzen zitzaion bakarrik. Epaietan auzitegiek frogatutako gertaerak *astunak*, *astuntasun gutxiagokoak* edo *arinak* bezala kalifikatzen zituzten, eta kalifikazio horrek jarduera edo egoitza askatasuneko zigorren iraupena erabakiko zuen. Zehapen ekon-omikoak honela ezarri ziren:

“teniendo en cuenta no solo la gravedad de los hechos apreciados, sino, principalmente, la posición económica y social del responsable y las cargas familiares que legalmente esté obli-gado a sostener” (BOE, 1939/02/13).

Manuel Álvaro Dueñas historiagileak azaldu zuen falangisten eta militarren arteko borroka Erantzukizun Politikoen Legea aplikatzeko jurisdikzio berezia kontrolatzeko. Horrek auzitegi mistoak sortzea ekarri zuen, hau da, ez zituzten ez alderdiak ez milita-rrek kontrolatzen, nahiz eta azken hauek toki nabarmena zuten Eskualdeko Auzitegien

presidentetza eta Instrukzio Epaitegien titulartasuna lortu ondoren. Erantzukizun Politikoen Instrukzio Epaitegiak espedienteak bideratzeaz arduratzen ziren eta instrukzio epaileak Gobernuako Presidenteordetzak izendatzen zituen, Defentsa Ministerioak proposatu ondoren, eta Gorputz Juridiko Militarreko edo Itsas-armadako ofizial osagariak edo ohorezkoak edo abokatu titulua zuten militar profesionalak izan behar ziren. Epaitegi hauetako idazkariak modu berean izendatzen ziren, baina ofizialordeak edo zuzenbidean lizentziatuak ziren edo, gutxienez, epaitegi zibil edo militar batean idazkari edo idazkaritza-ofizial bezala urte bateko esperientzia zuten soldaduak izan behar ziren. Probintzia hiriburu bakoitzean epaitegi bat ezarri zen. Bere aldetik, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiek arrazoitutako epaia ematen zuten eta bere jurisdikzioko espedienteen epaiak gauzatzeaz arduratu ziren. Auzitegi hauek osatzen zituzten armadako buruzagi batek, presidente bezala, eta bi kidek, bata karrera judizialeko funtzionarioa eta beste JONSetako FETaren abokatu bat. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalak goi mailako instantzia bezala jardun zuen, hau da: *“Departamento de enlace entre los distintos Ministerios”* (Álvaro Dueñas, 1997).

Espedienteari hasiera emateko hainbat modu zeuden: jurisdikzio militarretik zetorrelako; Komunismoa eta Masoneria Erreprimitzeko Auzitegitik zetorrelako; edozein pertsona fisiko edo juridikoak idatzizko salaketa egiten zuelako, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak hasiera ematen ziolako; edo agintari zibilek, militarrek, poliziak edo Guardia Zibilak proposatzen zuelako. Busturiko kasu zehatzean jurisdikzio militarretik zetorren espediente kolektibo baten irekiera topatzen dugu, Bilboko 1. Gerra Kontseilu Iraunkorrek emandako epaiaren ondoren 1937ko uztailaren 19an, hurrengo auzotarren aurka: Hipólito Álvarez Urrutia, Fermín Apraiz Goiricelaya, Manuel Lejarreta Urquiaga, Doroteo Calzada Ispizua, Florencio Bilbao Aguirre, Jesusa Urruchua Urizar, Carlota Urruchua Urizar, Andrés Cearreta Urrutia, Román Cearreta Urrutia eta Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao¹⁴⁵. Baina irekita zeuden erantzukizun politikoen beste espediente batzuk, Benito Guerequeta Landa edo Casimiro Guerricaechevarría Calzadarena adibidez, Industria eta Merkataritzako Ministerioak sinatu zituen, horiek Merkataritza Ontzidiko funtzionario ohiak izateagatik¹⁴⁶. Ustezko erantzulearen, edo erantzuleen kasu honetan, auzotartasuneko Eskualdeko Auzitegiak Auzitegi Nazionalari jakinarazten zion espedientearen hasiera eta Probintziako Instrukzio Epaitegiari instrukzioaren hasiera agintzen zion. Salatutako gertaerak erantzukizun politikoen arlokoak ez baziren, Eskualdeko Auzitegiak salaketa artxibatzen zuen eta arrazoitutako ebazpena Auzitegi Nazionalari bidaltze zion, azken honek ebazpena ukatu eta espedientearen irekiera agindu baitzezakeen. Esaterako, Pedro Bilbao Ciarreta busturiarraren kasuan, Legutioko frontean hila, ez zen inongo motako jarduera politikorik eskaini:

“pues aunque de tendencia Nacionalista Vasco, no consta estuviese afiliado al partido en 18 de Julio de 1936, ya que está acreditado que se dio de la baja en el mismo en el año 1934 y a partir de esta fecha no ha tenido actividades políticas de ninguna clase que puedan presentarse como contrarias a la Causa Nacional”¹⁴⁷.

145. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00160.

146. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.2635. 42.02766.

147. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00160.

Erantzukizun aztarnak topatzen zirenean, instrukzio epaileak BOEn eta probintziako aldizkari ofizialean espedientearen hasiera iragartzea agintzen zuen, eta jakitera ematen zuen akusatua hiltzeak, ez egoteak edo ez agertzeak ez zuela espedientearen izaipidea eta ebazpena geldiaraziko. Hemen aipatu behar ditugu Florencio Bilbao, Andrés Cearreta, Ramón Cearreta, Hipólito Álvarez eta Doroteo Calzadaren heriotzak, jurisdikzio militarrek heriotza zigorrera epai irmoan kondenatu eta exekutatu ondoren, eta Feliciano Cenarruzabeitiaren heriotza ere, espetxean zegoen bitartean. Aipatu dugunez zehapena ez zuen izaera pertsonalik, dagoeneko hilda zeuden erantzuleak ere auzipetuz, epaituz eta kondenatuz, eta epaileek erabakitzen zuten gertaeren kalifikazioa eta zigorren zehaztapena, oinordekoek ezarritako zehapena jarauntsiko ondasunekin ordaintzen zuten bitartean.

Akusatuak helbide ezaguna bazuen baina epaitegian bertaratzen ez bazen, espedientearen izapidearekin jarraitzen zen akusatua zitatu eta entzun gabe. Izapide mota honen adibide argi bat Casimiro Guerricaechevarría Calzada itsasgizon busturiarrarena da; Frantziara eta gero Kubara joan zenez azkenean 1952an espedientea artxibatzea agindu zen garrantziko ondasunik ez zuelako¹⁴⁸. Ezarritako epean edo behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuagatik hurrengo hamar egunetan bertaratzen bazen, epaileak bere aurkako karguak irakurtzen zizkion eta beste bost egun ematen zizkion deskargu frogak aurkez zitzen. Esaterako, Agustina Torrontegui Oleaga maistra epaitegian bertaratu zen bere absoluzio askea eskatzeko. Beste batzuek, Anastasio Arguinzóniz Urquiza auzokideak bezala, prokuradore bat bidali zuten haien ordezkari gisa deskargu alegazioak egin zitzen eta absoluzio epaia eska zezan¹⁴⁹.

Instrukzio epaileak auzipetuaren aurrekari politiko eta sozialei, espedienteari hasiera ematea eragin zituzten gertaerei eta bere ondasunen balio eta izaerari buruzko txostenak biltzen zituen. Alkate, JONSetako FETaren tokiko buruzagi, erretore edo Guardia Zibileko postuari Poliziako Bulego Nagusia, Informazio eta Polizia Militarreko Zerbitzua eta Falangeko Informazio eta Ikerketa Ordezkaritza Nazionala gehitu zitzairen. Adibidez, Ikerketa Kriminalerako Brigadak, Itsas Ministerioaren Informazio Pertsonaleko Zerbitzuak, Axpeko Santa Mariako erretoreak edo JONSetako FETaren tokiko buruzagiak txostenak eman zituzten Casimiro Guerricaechevarría Calzadaren espedientea ebazteko¹⁵⁰. Gauza bera egin zuen Merkaritzako Ontzidiak Benito Guerequeta Landa itsasgizonaren kasuan¹⁵¹.

Epaileak auzipetuei jakinarazten zien ezin zutela egoitza utzi baimenik gabe eta bere ondasunen eta bere ezkontidearen ondasunen zinpeko zerrenda bat aurkeztu behar zutela epaitegian, haien kargu zeuden seme-alabak edo pertsonak adieraziz ere. Adibidez, Busturiko auzotarra zen Leona Ugalde Garayk, auzipetua eta fusilatua izan

148. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.02766.

149. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00268; 75/00281.

150. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.02766.

151. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.02635.

zen Doroteo Calzada Ispizua busturiarraren emaztea, bere ezkontidearen aktiboa, pasiboa eta ondasunak aitortu zituen. Adierazi zuen ere bere kargu zeudela bere amona Romualda Ispizua (82 urte), bere alaba Elisa Calzada Ugalde (11 urte), bere alaba Laura Calzada Ugalde (9 urte) eta, azkenik, bere semea Julián Calzada Ugalde (5 urte)¹⁵². Auzipetuek ezin zituzten ondasunak erabili epailearen baimenik gabe, eta instrukzio-epaileak edo epaile zibilak erabakitzen zuen behar familiarak asetzeko behar zuten zenbatekoa. Beste alde batetik, ondasunen kautelazko bahitura agin zitekeen ezkutaketa susmatzen bazen edo beste motako zuhurtziak neurriak har zitezkeen. Leona Ugalde Garayren kasuan, honek aurrezki-libreta bat zuen Bilboko Bankuan 2.562,64 pezetarekin eta hauetatik 1.036,76 blokeatuta zeuden.

Instrukzioa amaitu eta gero txostena eta espedientea Eskualdeko Auzitegira bidaltzen ziren. Eskualdeko Auzitegiko kide txostegileak espedientea aztertzen zuen eta Auzitegiak erabaki behar zuen jardutakoa ezeztatzea, froga hedatzea, espedientearen izapidea bertan behera uztea epaiketa egiteko froga nahikorik egon ezean edo autoa idazkaritzan jartzea auzipetuek, oinordekoek edo ordezkariak defentsa idazketa aurkezatzen. Gero Auzitegiak epai arrazoitua ematen zuen. Epai aho batez erabakitzen ez bazen Auzitegi Nazionalera bidaltzen zen absoluzio epai izatekotan. Kondena-epai bazen, Auzitegi Nazionalera bidaltzen zen auzipetuaren edo bere oinordekoen entzunaldirik edo defentsarik gabe eman bazen. Epai Auzitegi Nazionalera igotzen zen ere gora jotzeko errekurtsua egiten bazen, prozeduraren baliogabetasunean edo defentsagabezia edo epaian injustizia nabarmena eragiten zuten eginbideak ukatzean bakarrik oinarritu zitekeena. Baina Auzitegi Nazionalak epai berresten bazuen zehapen ekonomikoa %10raino handi zitekeen. Hau disuasio-neurria izan zen akusatuek apelazioa ez aurkezteko, errekurtsu bat akusatuaren alde ebazteko aukera ia ezinezkoa baitzen. Epai irmoa zenean auzipetuari pertsonalki jakinarazten zitzaion. Kondenatua izaten bazen 20 egun zituen zehapena ordaintzeko edo berme egokiek ordaintzeko zatikatua eskatzeko. Zehapena betetzen zenean, edo auzipetua absolbitzen zenean, espedientatuak edo ezkontide oinordekoak ondasun guztiak askatasunez erabiltzen hasten ziren, eta baliorik gabe geratzen ziren hartutako zuhurtziak neurriak. Zehapena betetzen ez bazen, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak epai zibil bereziari agintzen zion bahiturak egin edo zuhurtziak neurriak har zitzaizkien zehapenaren ordaintzeko bermatzeko (Álvaro Dueñas, 1997).

Epaitegi eta auzitegien gaineko presioa arintzeko, 1939ko Erantzukizun Politikoen Legea eraldatzen zuen 1942ko otsailaren 19ko Legea onartu zen (BOE, 1942/03/07). Aldaketa garrantzitsuen artean Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, Probintziako Instrukzio Epaitegiak eta Epaitegi Zibil Bereziak desagertzea nabarmentzen da, hauen eskumenak Entzutegi Probintzietara, Instrukzio Epaitegiak eta 1. Instantziako Epaitegiak igaroz, hurrenez hurren. Erantzukizunen garbiketa oraindik legedi bereziak arautzen zuen arren, orain bere aplikazioa ez zegoen jurisdikzio arruntari, osotasunean ez behintzat. Gainera erantzukizun suposizio mota batzuk asko murriztu ziren: *“que por su naturaleza evocan diferencias lamentables cuyo recuerdo agravia el supremo sentido de unidad que preside el espíritu del nuevo Régimen”*. Suposizio hauek oraindik epaitu gabe zeuden espedienteak aplikatu zitzaizkien bakarrik, eta arrazoi honegatik ezin

152. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00160.

izan ziren epaitutako kasuak berrikusi. Erantzukizunetik salbuetsita geratu ziren sei urte eta egun batetik beherako zigor militar guztiak, bai eta hamabi urtetik gorakoak ez zirenak ere, beraz, salbuespena “*maxinadari laguntzeagatik*” eman ziren epaien zati handi batera iritsi zen. Gainera, salbuespena legez kanpoko erakundeetan garrantzi gutxiko karguak izan zituztenei, jarduera politikoagatik nabarmendu ez zirenei eta Komunismo eta Masoneria Erreprimitzeko Auzitegiak aurretiaz kondenatu ez zituen masonei ere iritsi zitzaizen. Salbuesle bezala adingabetasunaren aringarria eta Legeak aurreikusitako beste guztiak hartu ziren, eta kasu horietan espediente behin-behineko moduan artxibatu zen. Hala ere, Manuel Álvaro Dueñasek adierazten du erantzukizunaren ezabapen hau geratzen ziren instrukzioak murrizteko beharrean zetzala, akusatu asko kaudimengabeak zirelako, beraz, hauen kontra espediente bat hastea arazo politiko eta administratiboa izateaz gain, ez zion estatuari inolako onura ekonomikorik ematen (Álvaro Dueñas, 1997). Auzipetuen ondasunak ikertu ondoren kaudimengabeak zirela, bere herriko jernalari baten soldataren bikoitza baino handiagoak ez ziren sarrerak zituela edo bere ondasunek 25.000 pezeta baino gehiago balio ez zituztela ondorioztatzen bazen, epaitegiak espediente artxibatzea agin zezakeen.

Madriren, 1943ko azaroaren 9an, Busturiko auzokideak ziren Lucio Izaguirre Bengoechea eta Anunciación Eguileor Aróstegui (hilda) kontrako espedientean, egindako ikerketetan agertzen zen haien ondasunen zenbatekoa ez zela 25.000 pezeta baino handiagoa. Arrazoi honengatik espediente itxi eta artxibatu zen erantzukizun politikoa aitortu gabe¹⁵³. Benito Guerequeta Landaren kasuan, ez zitzaion bankuetan ondasunik ezagutzen aurretik erakunde nazional eta atzerritar ugariei txostenak eskatu ondoren, beraz, espediente artxibatu zen 1942ko Erantzukizun Politikoen Legearen aldaketaren arabera, hala ere, auzitegi beraren kudeaketa txarrak 1957ra arte luzatu zuen prozesua¹⁵⁴. Arrazoi beragatik, garrantziko ondasunei buruz ezer ez jakiteagatik, 1952ko martxoaren 20an Casimiro Guerricaechevarría Calzadaren kontrako espediente artxibatu zen. Gizon hau 1944ko urriaren 26an hiru urteko desgaitasun absolutura eta 5.000 pezetako isuna ordaintzera kondenatu zuten, baina erbestealdiaren ondoren herrira inoiz itzuli ez zen auzotar busturiarretako bat izan zen¹⁵⁵.

Busturian jaio edo bizi ziren beste auzotar batzuk ere Erantzukizun Politikoen Legearen arabera espedientatuak izan ziren, hala nola Carmelo Llantada Uriaguereca, Antonio Izaguirre Arteché, Martín Bilbao Bilbao, Mariano Bilbao Expósito, Ciriaco Echevarría Uribe edo Doroteo Uriarte Ugalde. Ezin dugu alde batera utzi Busturian jaioak ez ziren auzotar asko, 1935eko erroldari jarraitzen badiogu behintzat, Lege horrek bere familiarak nola auzipetu zituen ikusi zutela. Adibide batzuk izango lirateke: Luisa Zubillaga Bico (Bilbon jaioa), Francisco Puente Rodríguez (Leónen jaioa), Leandro Filibi Muruaga (Bermeon jaioa), Josefa Pérez Echevarría (Sukarrietan jaioa), Miguel Uriarte Campos (Basaurin jaioa), Graciela Prida Rodríguez (Kuban jaioa), Asunción Muela Martínez (Logroñon jaioa) edo Rafaela Goitia Marcaida (Gernikan jaioa), Sabina Goitia Marcaida

153. AHPS (Salamanca Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00856.

154. AHPS (Salamanca Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00934.

155. AHPS (Salamanca Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 42.02766.

(Busturian jaioa) edo Donato Goitia Marcaida (Busturian jaioa). Hauek guztiek Erantzukizun Politikoen Legeak bakoitzaren anai-arreba nola espedientatzen zuen ikusi zuten: Francisco Zubillaga Bico, Ricardo Puente Rodríguez, Casimiro Filibi Muruaga, José Pérez Echevarría, Felipe Uriarte Campos, José Prida Rodríguez, Salvador Muela Martínez eta Dionisio Goitia Marcaida¹⁵⁶.

Erantzukizun Politikoen Legea aldatu baino lehen erantzule ospetsuenen kontrako espedienteak instruitu eta epaitu izan ziren. 1941etik aurrera gobernuaren lehentasuna eredu zigorretik geratzen ziren kontuak arin ebaztera igarotzea izan zen. Epaitzeke geratzen ziren auzipetuen garrantzi politiko, sozial eta ekonomiko txikiak ez zion estatuari onurarik ekarriko, dagoeneko prezio ekonomiko eta politiko altu bat ordaintzen baitzuen Erantzukizun Politikoen Legearen ondorioz. Dena den, aldaketa guztiak egin arren, espero zena baino lan gutxiago egiten ari zen (Álvaro Dueñas, 1997). 1945eko apirilaren 13an aldarrikatu zen: “*cumplida en su esencia la finalidad atribuida a la Jurisdicción especial sobre responsabilidades políticas derivadas de la subversión marxista*” (BOE, 1945/04/25). Dekretu bidez jurisdikzio berezia deuseztatu arren, aurretik geratzen zen oraindik “*consagrar la definitiva liquidación de este problema*”. Espediente berriak hastea eta salaketak bideratzea eten egin ziren, eta jadanik irekita zeuden espedienteak ebatzi eta geratzen ziren epaiak betearazi behar ziren. 1945ean Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala ezabatu zen, Batzorde Kitatzaile bat sortuz, gero Instantzia atal batek ordezkatzuko zuena. Baina 1966ra arte itxaron behako zen geratzen ziren zehapenek indultu orokorra jaso zezaten:

“Liquidadas en esencia las consecuencias que trajo consigo la legislación de responsabilidades políticas, se hace preciso, no obstante, otorgar, en vía de gracia la oportuna medida que permita definitivamente extinguir las responsabilidades de dicha índole que todavía pueden encontrarse pendientes” (BOE, 1966/11/12).

Erantzukizun Politikoen Legearen arabera ezarritako zehapen ekonomikoak egonda ere, adierazle ekonomikoek frogatzen dute Bizkaian egin zen errepresio ekonomiko handiak ez ziola jabetzaren egiturari, ezta industria- edo finantza-jardueraren susperraldiari modu nabarmenean eragin (Álvaro Dueñas, 1999). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalaren presidenteak Eskualdeko Auzitegi ohartarazi zien bilatzen zela “*armonizar los sagrados intereses de la Patria con el deseo de no quebrar la vida económica de los particulares*” (Álvaro Dueñas, 1997). Alabaina, errealitate partikularra Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalak uste zuena baino gogorragoa zela dirudi.

Familia buruak exekututzea edo giltzapetzea zekarren zorigaitz familiarraz gain, ikuspegi ekonomikotik familiei etxean sartzen zen diruaren zati handi bat kendu zitzaizen, zehapen ekonomikoak ordaintzera kondenatuak izateaz gain. Irene Alegría Ispizuak, exekutua izan zen Andrés Cearreta Urrutiaren emaztea, aitortu zuen 3.000 pezetako zorra egin zuela Micaela Ispizua Lecumberriekin, hurrengo arrazoiengatik: “*estado de miseria en que me encontré con motivo de la defunción de mi esposo y expedientado*”. Modu honetan bere kargu geratzen zen bere 12 urteko alaba, Pastora Cearreta Alegría. Ez zen kasu bakarra izan Busturiko espediente kolektiboan, Leona Ugalde Garay, Doroteo

156. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00009; 75/00568; 75/00323; 75/00013; 75/00193; 75/00226; 75/00450; 75/00268; 75/00281; 75/00668; 75/00802; 75/00857; 75/01142; 42.02655.

Calzada Ispizua zinegotzi exekutatuaren alarguna zena, 8.000 pezeta zor zielako bere ama politikoari eta Lorenzo Ugalde Apraizi bere burua eta bere hiru seme-alaba adingabeak mantentzeko eskatu zuen aurrerapen bezala. Herriko beste alargun batzuk, Eusebia Calzada Ispizua y Juana Apraiz Monasterio bezala, zorpetzeari jo zuten familiako egoera berriari aurre egiteko. Familia burua espetxean sartzeak bakarrik familiaren zorpetzea ekarri zuen ere, Manuel Lejarreta Urquiagaren kasuan adibidez, eta seme-alabarik edo karga familiarrak ez izateak ez zen oztopoa izan Jesusa eta Carlota Urruchua Urizarrek kredituaren baliabidea erabiltzeko, biak ezkongabeak izanda eta 8.000 pezetako zorrekin (*“contraídas durante nuestra estancia en la Prisión”*)¹⁵⁷. Azaldu dugu nola zehapenek gertaerak eta egoera ekonomikoa kontuan hartzen zituzten *“teniendo en cuenta no solo la gravedad de los hechos apreciados, sino, principalmente, la posición económica y social del responsable y las cargas familiares que legalmente esté obligado a sostener”* (BOE, 1939/02/13). Dena den, ekonomia familiarren egoera berria ez zen inola ere hobetu Erantzukizun Politikoen Legeak zehapen ekonomikoak ezartzean.

4.1.3. Artxibo bat denak kontrolatzeko: Dokumentu Zerbitzuen Ordezkaritza Nazionala

Ikusi dugu 1936ko irailaren 13an Defentsa Batzar Nazionalak aurkakoen eta matxinoen kontrako alderdi edo erakundeen ondasunak konfiskatzea dekretatu zuela, alderdi politiko eta sindikatuenak barne, hauen artean eusko nazionalistak zeudela. Honela *“cuantos bienes muebles, inmuebles, efectos y documentos pertenecieren a los referidos partidos o agrupaciones”* estatuarenak izatera pasatzen ziren (BOJDNE, 1936/09/16). Gerra hasi zenetik bando nazionalak bere eskuetan erori zen dokumentazio errepublikano guztia aztertzeko neurria hartu zuen. Erakutsi eta frogatu nahi zuten, *“las maldades del comunismo, de la masonería, del judaísmo”*. Estrategia argi zegoen, propaganda errepublikanoari aurre egin behar zioten aurretik propaganda hori jakinda. Propaganda jakiteko lan hau Komunisten Aurkako Ikerketa eta Propagandaren Bulegoaren (OIPA - Oficina de Investigación y Propaganda Anticomunista) bidez garatu zen, 1937ko apirilaren 20ko Agindu batek sortu zuena. Bere helburua zen:

“recoger, analizar y catalogar todo el material de propaganda de todas clases que el comunismo y sus organizaciones adláteras hayan utilizado para sus campañas en nuestra patria, con el fin de organizar la correspondiente contrapropaganda”.

Aginduak ez zuen erakunde politiko edo sindikalik zehazten bere propaganda kontrolatzeko, baina praktikan ez zen salbuespenik egon eta erakunde bakar bat ere ez zen libratu estatuaren kontrolaz, zeukan izaera zeukala: ateneoak, erakunde naturistak, zineklubak... (Velasco, 2012). Propagandaren kontrako helburua baino garrantzitsuagoa korrespondentzia eta harpidedunen zerrenda ikuskatzea izan zen, erregimenaren aldekoak ez ziren pertsonen zerrenda luze bat egitearren atxilotzeko eta epaitzeko (Preston, 2011). Dena den, OIPAK ez zen nahikoa izan. Ekimen paralelo batean, 1937ko maiatzaren 29an Marcelino Ulibarri Eguílaz izendatu zuten Zerbitzu Berezien Ordezkaritzaren buruzagi, eta bere helburua hurrengoa zen:

157. AHPS (Salamancako Artxibo Historiko Probintziala). Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 75/00160.

“recuperar cuanta documentación relacionada con las sectas y sus actividades en España estuviese en poder de particulares, autoridades y organismos oficiales, guardándola cuidadosamente en lugar alejado de todo peligro, y en el que pudieran ordenarse y clasificarse para llegar a constituir un Archivo que nos permitiera conocer, desenmascarar y sancionar a los enemigos de la patria” (Portilla, 2009: 27).

Euskadi matxinoetan eskuetan erortzeaz zegoenean Dokumentuak Berreskuratzeko Zerbitzua sortu zen. 1938ko apirilaren 26ko Dekretuak maila administratiboa eman zion izen ofiziala emanez, “Dokumentuak Berreskuratzeko Estatuko Ordezkaritza” (“*Delegación del Estado para la Recuperación de Documentos*”), eta Marcelino Ulibarri Eguilazen agintepean zegoen, Barne Ministerioako konfiantzazko gizona, *koinatu handiena* zena Ramón Serrano Suñer. Dekretu berean azaltzen zen helburua:

“recogida, custodia y clasificación de todos aquellos documentos aptos para obtener antecedentes sobre las actuaciones de los enemigos del Estado (...) y suministrar datos útiles a todos los organismos encargados de su defensa”.

Hau da, konfiskatuak izango ziren “*archivos, oficinas y despachos de entidades y personas hostiles y desafectas al Movimiento Nacional*”. Eta konfiskazioa justifikatzeko arrazoiak ziren:

“caracter especial de esta contienda, las intervenciones extranjeras en la misma, el desarrollo de la criminalidad en el campo enemigo y las actuaciones más o menos secretas de ciertos partidos y sectas” (Velasco, 2012).

Bere funtsen artean toki askotan konfiskatutako materiala zegoen: ministerioetan, udaletan, karteletan, Epaitegieetan, aldundietan, alderdi politikoen egoitzetan, sindikatuetan, elkarteetan, pertsona partikularren jabegoetan, etab.

Ordezkaritza honek eta Gai Berezienak, oso denbora laburrerako sortuak eta antzeko helburua zutenak (“*conocer, desenmascarar y sancionar a los enemigos de la Patria*”), egitatez eta zuzenbidez biak batzeko joera izan zuten Marcelino Ulibarri beraren menpean. Marcelino bera ere 1944an biak biltzen zituen erakundearen burua izan zen: Dokumentu Zerbitzuen Ordezkaritza Nazionala. Gerra amaitu zenetik eta sei urte beranduago funtzio bera izaten jarraitu zuen. Eskatzen ziren pertsonen aurrekariak ematen zituzten eta errepublikanoei eta beste erakunde sozio-kulturaleri konfiskatutako dokumentuak tratatzen zituzten helburu zigortzaile batekin: Estatu berriko disidenteak jazaritzea. Diktadorea hil zenean, eta 1977an Gobernuaren Presidentetza berregituratu zenean, artxiboa eratu berriko Kultura Ministerioan sartu zen, eta 40 urte geroago artxi-boak bere jatorrizko funtzioa galtzen zuen.

Proiektu honek, egungo oroitzapen historikoko lanek sarritan ahazten edo baztertzen dutena, garrantzi erabakigarria izan zuen diktaduran zehar, Errepublika defendatu zutenak zigortzeko ez ezik, baita hauek gizartean kontrolatzeko ere. Ordezkaritza honek hasiera eman zion jarduerari hau denboran zehar zehaztuz joan zen, eta urteetan zehar konfiskatutako dokumentuen funtsa aberasten joan zen. Bi atal aurkitzen ditugu: berezia, masoneria eta rotario, protestante, teosofo eta bestelako elkarteekin zerikusia zutenari buruz arduratzen zena, eta atal politiko-soziala, erakunde politiko eta sindikalez arduratzen zena. Konfiskatutako dokumentazioa sakonki lantzen zen, sakonki irakurriz eta ikertuz, eta *Mugimendu Nazionalarentzat* arriskutsua izan zitekeen jardueraren

batean parte hartu zuten pertsonen aurrekariekin fitxak egiten ziren, gero aurrekari horiek Erregimenaren aurkako elementu arriskutsuak jazartzen zituzten auzitegietara bidaltzeko. Busturiko 1935eko udal-errolan zeuden auzotarren %4,65 Dokumentu Zerbitzuen Ordezkaritza Nazionalen zerbitzuek fitxatu zuten.

Adierazi beharrekoa da 1940ko martxoaren 1eko Legeak Komunismoa eta Masoneria Erreprimitzeko Auzitegi Berezia sortu zuela, gero 1940ko ekainaren 4ko Dekretuan eratu zena eta, behin betiko, 1941eko martxoaren 31ko Dekretuarekin ezarriko zena. Bere lehen presidentea Mariano Ulibarri izan zen (BOE, 1940/03/02; 1940/06/06; 1941/04/01). Arrazoi honengatik dokumentazio masonikoari aparteko arreta eman zitzaion, bere kideak identifikatu eta bere jarduerak agerian jarri behar zirelako. Dokumentazioan ez zituzten bildutako artxiboak deskribatzen bakarrik, interesatzen zitzaion informazioa sortzeko ere erabili zituzten. Landutako informazioaren egindako txostenak gordez gain, aurrekari negatiboen txostenak ere gordetzen dira. Irekitako txosten hauetan agertzen diren pertsonen buruz izaera masonikoko aurrekariak eskatu ziren, baina ez zen horrelakorik aurkitu¹⁵⁸. Txosten negatibo hauetan elizatearekin lotutako hainbat pertsona aurkitu ditugu: Manuel Urquiza Oleaga, José Gómez Hernández, Ramón Andicoechea Guerequeta, Esteban Esquíbel Basabe, Prudencio Izaguirre Arróspide, Leandro Elguezábal Aralucea, Fernando Olano Amparan, Enrique Valencia Echevarría, Jesús Zobarán Ugalde, Pascasio Valencia Ormaechea...

Atal Berezian ez bezala, Atal Politiko-sozialean informazioa ez zen berregin. Atal hone-tako ideia nagusia pertsonak eta jarduerak identifikatzea zen. Honetarako, nahi-koa zen pertsonaren izena eta aipatzen zuen dokumentuaren erreferentzia izatea. Dokumentuetatik ateratako informazioekin fitxategi onomastiko handi bat eratu zen dokumentazioan aipatzen diren pertsonen banakako erreferentziekin. Mundu guz-tia fitxatzeko denbora izan ez zuten arren, bai fitxatu zuten zati handi bat. Fitxa hauek instantzia ezberdinei txostenak emateko erabiltzen ziren, batez ere Komunismoa eta Masoneria Erreprimitzeko Auzitegiari¹⁵⁹. Atal Politiko-sozial honetan elizateko ia auzo-tar guztiak fitxatuak izan ziren. 1935eko udal-errolaren auzotarrei ziur dagozkien fitxak %4,65 dira, eta horietatik %12,24 emakumeei dagozkie. Eta hauetatik, %83,33ren fitxa arrazoi politikoengatik egin zen. Adibide batzuk Ramona Celaya Ormaechea edo María Egusquiza Guerequetaren kasuak dira, fitxatuak izan baitziren Altamirako EABko presidenteordea eta presidentea izateagatik, hurrenez hurren. Gizonei dagokienez, gai-nontzeko fitxen %87,76, %46,51 arrazoi politikoengatik fitxatuak izan ziren eta %48,83 gerran errepublikanoekin armekin parte hartzeagatik. Adibidez, Víctor Olano Pedernales ELAko afiliatua izateagatik fitxatu zuten; Francisco Oleaga Aranguren CNTkoa izateagatik; Fernando Bilbao EAJko zuzendari bat izateagatik eta José María Gogearcoechea Uriarte UBBko idazkaria izateagatik. Gainontzeko ehunekoan beste batzuk aurkitzen ditugu, eta kategoria honetan Juan Pablo Gorriño Guarrochena sartu behar dugu, dokumentu zer-bitzuak fitxatu zuena "*desafecto al régimen rojo*" arrazoiarekin kargurik gabe utzi zuten Busturiko udal-epailea izateagatik.

158. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] Eskuragarri hemen: <http://censoarchivos.mcu.es/CensoGuia/archivodetail.htm?id=1>

159. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] Eskuragarri hemen: <http://censoarchivos.mcu.es/CensoGuia/archivodetail.htm?id=1>

4.1.4. Kausa orokorra

“(La) Causa General Informativa de los hechos delictivos y otros aspectos de la vida en zona roja desde el 18 de julio de 1936 hasta la liberación”, Kausa Orokorra izenarekin ezagunagoa dena, 1940ko apirilaren 26ko Dekretuak sortu zuen eta 1943ko ekainaren 19an berretsia izan zen. Justizia Ministerioaren menpean zegoen Fiskaltzari hurrengo eginkizuna ematen zion: gerran zehar indar matxinoen aurka egin zuten indar errepublikanoen jarduera kriminalaren zentzu, irismen eta adierazpen nabarmenenak finkatzea, informazio-prozesu zintzo eta egiazko baten bidez. Horretarako ematen zitzaizkion

“amplias facultades al Fiscal del Tribunal Supremo para proceder a instruir la Causa General en la que se reúnan las pruebas de los hechos delictivos cometidos en todo el territorio nacional durante la dominación roja”.

Fiskal probintzial baten zuzendaritzapean, sumario bat eratu zen probintzia bakoitzeko, dokumentazio guztiari hamaika zatitan banatutako sumario baten forma emanaz. *Kausa Orokorra* gerran zehar banako eta erakunde espainiarrak burutu zituzten jardueren buruzko informazioa biltzea da, erakunde eta lekukoen bidez. Egindako jarduerak biltzea ez ezik, pertsona bakoitzaren jarrerak eta begikotasunak biltzen ziren ere. Praktikan, erabilera propagandistikoa izan zuen, indar errepublikanoa jasan zuten pertsonen edo erakundeen onurak eman zizkion eta garaituen gaineko errepresioa burutzeko eta legiti-matzeko datuak bildu zituen.

Bizkaiko *Kausa Orokorraren* instrukzio fiskalaren 1950eko otsailaren 15eko txosten-la-burpenean ez zen Busturiko elizatea agertzen “*izu gorria*” jasan zuten herrien artean¹⁶⁰. 1941eko ekainaren 9an Busturiko Udalak instrukzioa zela eta eman zizkioten inprimakien segida bat bidali zion Bizkaiko Kausa Orokorraren instrukzio fiskalari:

“en cuyos impresos se ha extendido la correspondiente nota negativa de la existencia de hechos delictivos que en los mismos se expresa, por no haber tenido lugar en este término municipal, afortunadamente, durante la execrable dominación rojo-separatista”.

Udalak azaltzen zuen ez zela horrelakorik gertatu (“*no ha ocurrido en este término municipal ningún hecho a que se refiere el presente estado*”), esaten zitzaionean “menperaldi gorrian” (“*la dominación roja*”) indarkeriaz hilda izan ziren edo desagertu ondoren erailak izan zirela uste ziren udalerri horretako pertsonen zerrenda egin zezan. Udalak esaten zuen ere “*no fue recogido ningún cadáver durante la dominación roja por muerte violenta*”, udalerrian bizi ez zirenen eta “menperaldi gorrian” (“*dominación roja*”) indarkeriazko heriotza jasan zutenen bildutako gorpuen zerrenda egitea eskatzen zitzaionean. Azkenik, Busturiko Udalak adierazi zuen “ez dela udalerri honetan estatu honek aipatzen duen gertaerarik gertatu”, hau da, elizatean ez honelakorik gertatu:

“tormentos, torturas, incendios de edificios, saqueos, destrucciones de iglesias y objetos de culto, profanaciones y otros hechos delictivos que por sus circunstancias, por la alarma o el terror que produjeron, deban considerarse como graves, con exclusión de los asesinatos, que fueran cometidos en este término municipal durante la dominación roja”¹⁶¹.

160. AHN. FC Kausa orokorra. 1333. kutxa. 12. txostena.

161. AHN. FC Kausa orokorra. 1332. kutxa. 72. txostena.

4.2. Estrapenala

4.2.1. Espainiako kontzentrazio-esparruak

Matxinoak lurralde berria okupatzen joaten ziren neurrian aurkeztutako errepublika-noei edo egindako presoek tokia egin behar zieten. Honela, behin-behineko izaerarekin *“kontzentrazio-esparruak”* sortu ziren, gatuak kontzentrazeko tokiak sailkapenaren zain zeuden bitartean edo justizia militarren menpe nor geratuko zen erabakitzen zen bitartean. Espainian mota honetako ehunaka esparru egon ziren, geografia osoan zehar sakabanatuta, komentuetan, monasterioetan, unibertsitateetan, ikastetxeetan edo barrakoietan, eta hauetan prozesu judizialean ez zeuden pertsonak giltzapetzen ziren. Hori da espetxe edo kartzela militarretan preso zeudenekin funtsezko ezberdintasuna (Badiola, 2015: 154).

Espainia matxinoa milaka gerra-presok giltzapetu, kontrolatu, sailkatu eta banatu behar zituen espetxe erraldoi bihurtu zen. Testuinguru honetan Deustu, Urduña, Murgia eta Irungo kontzentrazio-esparruak sortu ziren. Asunción Badiolak adierazten duen bezala, espetxe eta kontzentrazio-esparruaren arteko bitarteko figura bat ere egon zen: zezen-plaza. Hala ere, azken figura hau Presoen Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritzaren menpe egon zen (ICCP - Inspección de Campos de Concentración de Prisioneros), eta Ikuskaritzak Gipuzkoa, Araba, Santander, Bizkaia eta Nafarroako gobernadore militarrei kontzentrazio-esparru bezala prestatutako zezen-plazetan beharrezko zaintza tropei buruzko aginduak eman zien. Zehazki, Donostia, Tolosa, Gasteiz, Bilbo, Santander eta Iruñeako zezen-plazak izan ziren (Badiola, 2015: 154).

Dagoenek aipatu dut armada matxinoa aurrera joaten zen neurrian giltzapetu, sailkatu eta garbitzeko presoek kopurua handitzen zihola. Arrazoi honengatik, 1937ko urtarilean Mola jeneralak dagoeneko *“kontzentrazio-esparruetan”* zeuden gerrako presoak sailkatzen, garbitzen eta berriz hezten hasi zen. Horretarako, iparraldean Gerrako Presoak Sailkatzeko Batzordeak sortu ziren eta giltzapetzeko eta batzordeei laguntzeko zentroak prestatu ziren: Urduñako (Bizkaia) eta Murgiako (Araba) Kontzentrazio-esparruak, Miranda de Ebrokoa (Burgos) edo San Pedro de Cardenakoa (Burgos). Sailkapen honek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen eta 1937ko martxoan Mobilizazioa, Instrukzioa eta Berreskuratze (MIR) buruzagitza sortu zen. MIRen egin-kizuna izan zen presoak berreskuratzea, eta adin militarrean zeudenak frontera eta unitate aktiboetara eraman zituen, Sailkatzeko Batzordeetatik igaro ondoren, Armadako Gorputzeko Agintari Militarren menpean jartzeko (Organero, 2015). Gainera, Langileen Batailoak (LB) ere sortu zituzten. Borondatez aurkeztu zirenak eta presoak bost kategorietan sailkatzen ziren:

“A) Prisioneros o “presentandos” que justifican su afección al Movimiento Nacional o no sean hostiles al mismo, y que hayan formado en las filas republicanas por ello.

B) Prisioneros incorporados de manera voluntaria a las filas enemigas y que no estén afectados de responsabilidades de índole política, social o común.

C) Jefes y Oficiales del Ejército republicano, individuos capturados o “presentados” que se hubiesen destacado por actos de hostilidad ante las tropas sublevadas, dirigentes en partidos y en organizaciones o actividades políticas o sociales, enemigos de la Patria y del Movimiento Nacional y posibles responsables del delito de rebelión militar, conocidos antes o después de producirse el Movimiento Nacional Libertador.

D) Individuos capturados o “presentados” que aparezcan, más o menos claramente, presuntos responsables de delitos comunes o contra el derecho de gentes, realizados antes o después de producirse el Movimiento Nacional” (Organero, 2015).

Sailkatzeko Batzordeek presoan erantzukizunak zehaztu zituzten norberaren herriaren abaletatik abiatuta, Guardia Zibilak, komandanteak, alkateak, erretoreak edo beste agintariek emandakoak. Erreferentzia horiekin Mugimendu Nazionalaren aldekoa edo etsaia izatearen araberrako sailkapena ezarri zen, bidezko epaiketarik gabe, afiliazio politikoa edo mezara joatea bezalako aurrekariak bakarrik hartuz sailkapena egiteko. Busturiko alkateak, elizateko erretoreak, Bermeoko postuko Guardia Zibilak eta JONSetako FETaren tokiko buruzagiak beharrezko txostenak eman zituzten hurrengo auzotarrak sailkatzeko: Francisco Javier Oleaga Aranguren edo Gregorio Esquíbel Retolaza “A” bezala; Carmelo Llantada Uriaguereca edo Eleuterio Basterrechea Lamíquiz “B” bezala; Rufino Iturbe Zorrozueta, Francisco Javier Borda Abiña eta Lucio Izaguirre Bengoechea “C” bezala; eta Enrique Ugalde Ormaechea, Daniel Oleaga Aranguren eta Carmelo Porturas Bilbao “D” bezala, azken hauek Langileen Batailoiatarara igaroz¹⁶². Anastasio Aberasturi Garmendiaren kasu zehatzean, Gasteizko Espetxeen eta Bertaratuen Batzorde Sailkatzaileak “C” bezala sailkatu zuen, herriko fiskala eta EAJko afiliatua izan zela uste zutelako, baina hori bere osaba izan zen, ez bera. Txostenak ikusita eta kontuan hartuz bere partaidetza

“con los rebeldes, primero en barcos mercantes, y después obligado al llamar su quinta, en unidades de combate, procede que se le incluya en el apartado b) de las Normas dictadas al efecto, para su destino a un Batallón de Trabajadores y por creer encajar su conducta y actividades en las comprendidas en dicho apartado”.

Dena den, azkenean “A” bezala sailkatu zuten eta gerrako fronteetan borrokatu zen matxinoen ondoan¹⁶³.

Gasteizko Batzorde Sailkatzailea izan zen hiru hiriburuen artean sortzen lehena, 1937ko hasieran, Bizkaiko frontetik ihes egin zutenak (“*los individuos y familiares evadidos de la zona roja del frente Vizcaya*”) sailkatzeko, hartzeko, aztertzeko eta zaintzeko, giltzapetzeko areto bezala Murgia Aita Paulen eta Urduñako Aita Jesuiten ikastetxeak erabili behar izan zutelarik alden kopurua zela eta. Modu honetan Euskadin Espetxe-gorputz zibilarren menpe zeuden bi kontzentrazio-esparru sortu ziren, 1938ko uztailera arte ICCPren menpean egotera igaro ez zirenak gerrako presoak bakarrik hartuz. 1937ko irailean Iruñean, Lizarran, Gasteizen, Logroñon, Miranda de Ebron, Burgosen, Palentzian eta Aranda de Ebron zeuden batzorde sailkatzaileei Deustuko bi, Santanderrekoa, Santoñakoa, Castrokoa eta Laredokoa gehitu zitzaion (Badiola, 2015: 157-158).

Matxinoek Iparraldeko Frontean aurrera egitean presoan kopurua handitu egin zen, beraz, Batzorde Sailkatzaileen lana ere handitu egin zen. Behin betiko araudia eta zentralizazioa 1937ko uztailaren 5ean heldu zen, Presoen Kontzentrazio Esparruen

162. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2053. kutxa. 103827. txostena; 2219. kutxa. 115156. txostena; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1402/40; 98/42; 1263/39 kausak; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1002/37 kausa. Bizkaia; 2353/37. Bizkaia; 10912/39. Bizkaia.

163. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1066/38 kausa.

Ikuskaritza (ICCP) sortu zenean, MIREk zuzendua baina Francoren Kuartel Nagusiaren menpe zegoena. ICCPekin gerrako presoek gainera jardura bateratzeko saiakera egin zen. ICCPeren eginkizunen artean Langileen Batailoia eta presoek mugimenduak antolatzea egon zen. ICCPei eskualdeko ordezkariak izan zituen, eta haien artean Bilbokoa jurisdikzioa zuen hiriburu bera, Deustu eta meatzeen gainean, Santanderetik gehien batean zetozen presoak hartzeko helburuarekin. Sailkatzeko Agindu Orokorra 1937ko uztailaren 18tik aurrera kontzentrazio-esparruetan Identifikazio Daktiloskopikorako Bulegoa sortzea proposatzen zion, presoaren balio identifikatzaile bezala frogatzen iraukerak eta aldaezina edukitzeko asmoz, hau da, gerrako preso guztiak identifikatuak edukitzeko, eta horrela, aske geratzeko balira, ez litzatekeelako dudarik egongo haien izaera ezkeriarraz. Dena den, ez ziren pertsona guztiak identifikatu ez zelako preso guztiak identifikatzeko beharra egon, hauetatik asko

“no eran delincuentes, y que todos los identificados como responsables de delitos, los dirigentes de partidos políticos y las personas de marcado carácter izquierdista no se encontraban ninguno en campos de concentración ni en batallones de trabajadores, sino que habían sido ya condenados a pena de muerte o estaban cumpliendo condena en las prisiones donde ya habían sido convenientemente fichados” (Badiola, 2015: 162-163).

1938an Mugimendu Nazionalaren aldeko presoak dagoeneko aske zeuden eta “C” eta “D” bezala sailkatuak izan zirenak dagoeneko exekutatuak izan ziren edo kartzelan zeuden. 1938ko bigarren seihilekorako presoek masa handia bi talde osatzen zuten: erregimenaren zalantza zuten presoak, sailkapena justifikatu ezin zelako, eta lerro etsaieran borondatez sartu zirenak baina erantzukizun sozio-politiko edo delitu arruntak leporatuta ez zituztenak (Badiola, 2015: 163).

1939ko apirilaren 18tik aurrera kontzentrazio-esparruetan eta langileen batailoietan zeuden gerrako presoek askapena hasi zen, eta ICCP eta kontzentratzeko sistema berregituratuak izan ziren. Hasieran mobilizatutako adinean ez zeuden eta espetxealdian jarrera ona erakutsi zuten presoentzat izan zen. Batzorde sailkatzaileak desegin ziren, eta arduradunak buruzagi militarra eta kapitaina izan ziren, gatuak aske jartzeko eskumenekin abal politikoa jaso ondoren. Francoren Kuartel Nagusia itxi egin zen eta ICCP Armadako Ministerioaren menpe geratu zen 1940ko urtarrilean Kontzentrazio Esparruen eta Diziplina Batailoien Bulego Nagusia izenarekin. 1939ko urrirako kontzentrazio-esparruak ICCPeren menpean batuta zeuden eta hilabete bat geroago esparru asko itxi ziren. Gainera, gainerako esparruak ixtea agindu zen. Auzipetuak edo kondenatuak izan ez ziren presoek, pertsonal militarra eta dokumentazioak eskualde militar bakoitzean irauten zuten esparruetara pasatu behar zuten. 1939ko azaroan oraindik jardunean zeuden, besteak beste, Miranda de Ebro, San Juan de Mozarrifar, Miguel Unamuno, Rota, Porta Coeli, Horta, Lermako preso moldakaitzen biltegia eta Cerverako biltegia. Gainera, beste

hauek zeuden: San Pedro de Cardeña atzeritarrentzako biltegia, San Martín gotorlekuko zuzenketa-esparrua, Aviléseko esparrua eta Lamiakoko langile espezialisten tailer nagusiak eta basea (Badiola, 2015: 189; Organero, 2015).

**Kontzentrazio-esparruren batean egon ziren Busturiko auzotarrak
edo Busturian jaioak gerran eta gerraostean**

Abizenak, Izena	Kontzentrazio-esparruak
Aberasturi Garmendia, Anastasio	KE Murgia
Alegría Laucirica, Antonio	KE (hainbat)
Amuntegui Arancua, Sabino	KE San Pedro de Cardeña
Andicoechea Guerequeta, Fidel	KE (hainbat)
Apraiz Izaguirre, Antolín	KE El Molina (Karrantza)
Apraiz Ordorica, Paulino	KE Unamuno
Asla Landía, Cecilio	KE Miranda de Ebro
Bilbao Zabala, Antonio	KE Miranda de Ebro
Borda Abiña, Francisco Javier	
Cearreta Goiri, Francisco	KE Corbán
Elesgaray Asteinza, Adolfo	KE Castro-Urdiales
Elesgaray Bilbao, Rafael	KE Bilbo
Esquíbel Retolaza, Gregorio	KE Bilbo
Esquíbel Retolaza, Luciano	KE Miranda de Ebro
Gandarias Albizua, Hermeregildo	KE Magdalena, KE San Pedro de Cardeña, KE Miranda de Ebro
Hormaechea Hormaechea, Santiago	KE Miranda de Ebro, KE San Pedro de Cardeña
Iturbe Zorrozuía, Rufino	KE Logroño
Izaguirre Arróspide, Sabino	KE Gasteiz
Izaguirre Bengoechea, Lucio	KE Logroño
Izaguirre Bengoechea, Lucio	KE Reus
Laucirica Odiaga, Eduardo	KE Miranda de Ebro
Lequerica Elesgaray, Félix	KE San Pedro de Cardeña
Llantada Uriaguereca, Carmelo	KE Logroño, KE San Pedro de Cardeña?
Llona Elguezábal, Guillermo	KE Orban, KE Magdalena
Llona Elguezábal, Victorio	KE Miguel Unamuno
Mintegui Marcaida, Ángel	KE Santoña
Olano Ugarte, Crispín	KE Deustu
Oleaga Aranguren, Daniel	KE Reus, KE Unamuno
Oleaga Aranguren, Francisco Javier	KE Cartagena

Abizenak, Izena	Kontzentrazio-esparruak
Porturas Bilbao, Carmelo	
Porturas Bilbao, Ricardo	
Sirvent Cortado, Arturo	KE San Pedro de Cardeña
Ugalde Ormaechea, Enrique	KE San Pedro de Cardeña
Ugalde Ugalde, Ignacio María	KE Magdalena, KE San Pedro de Cardeña, KE Miranda de Ebro
Ugalde Zabala, Pelayo	KE Santoña
Uriarte Bilbao, Tomás	KE Unamuno
Uribe Asteinzá, Francisco	KE Miranda de Ebro, KE Unamuno
Zaldúa Retolaza, Benito	KE Ascoy, KE Miranda de Ebro
Zaldúa Retolaza, Esteban	KE Estadiun
Zuazúa Porturas, Tomás	KE Urduña

(Iturria: AGMG, BAHF, AHPG, BFAAH, AIMN).

4.2.2. Soldadu izatetik esklabo izatera: Langileen Batailoiak, Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoiak eta Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko Batailoiak

1937ko maiatzaren 28ko 281. Dekretuak hurrengoa ezarri zuen: “*concede el derecho al trabajo a los prisioneros de guerra y presos por delitos no comunes en las circunstancias*” (BOE, 1937/06/01). Ángel Organero historiagileak adierazten duen bezala, armada matxinoak harrapatutako presoek ez zitzaizkien 1929ko Genevako Konbentzioaren xedapenak aplikatu, bortxazko lanak egiteko presoak erabiltzea debekatzen zutenak, eta Konbentzioa ez betetzeko justifikazio bat bilatu zen (Organero, 2015):

“los trabajos a que habían d dedicarse serían trabajos de utilidad militar, cosa perfectamente justa y lógica, y que no contraviene ningún acuerdo de orden jurídico nacional ni internacional, ni ningún precepto de rígida ética, ya que los individuos que forman estos batallones son españoles y dentro de la edad de los demás llamados a finales, y por tanto el Gobierno Nacional tiene perfecto derecho a utilizarlos de la manera que les considere más útil para los fines de la guerra” (Mendiola eta Beaumont, 2006; Organero, 2015).

Hala ere, Organerok adierazten du banakoak ez zirela beti egon adin militarren barruan eta, gainera, lanak ez zirela beti izaera militarrekoak izan. Bere hitzen arabera errepresio eta sufrimendu guneak izan ziren eta historiografiak bortxazko lanen motatzat jotzen ditu (Organero, 2015). Zentzu hertsian ez ziren esklaboak, baina lan-harremanak ikusita hainbat historiagilek esklabotzat hartu dituzte (Mendiola, 2014; García Funes, 2014).

Dagoeneko azaldu dut nola 1937ko otsailean Mola jeneralak “*kontzentrazio-esparruetan*” gatibu zeuden gerrako presoak sailkatzen, garbitzen eta hezten hasi zen Gerrako

Presoak Sailkatzeko Batzordeen bidez eta Urduña, Mungia, Miranda de Ebro edo San Pedro de Cardeñan giltzapetze zentro berriak irekiz. Gainera, MIRek Langileen Batailoiak (LB) ere sortu zituen.

Javier Rodrigo historiagileak azaltzen du erregimen frankistaren kontrako pertsonen taldearen barruan egoera bikoitza sortuko zela epealdi honetan. Batzorde Sailkatzailleek aurkakoaren figura ezarriko dute. Ez dira aske geratuko, baina ezta espetxeetan sartu ere. Giltzapetze “estrapenala” da, presoek erabilera ekonomikora jotzen duena Langile Batailoien bidez edo kontzentrazio-esparruetan sartuz. Beste alde batetik, sistema penalerara sartzen direnak ditugu, delitu batez akusatuak izan eta gero, eta ikusi dugun bezala hainbat zigorretara kondenatuak izan zirenak (Rodrigo, 2005).

Azaldutik bezala, kontzentrazio-esparruen sistemaren behin betiko araudia eta zentralizazioa, 1937ko uztailaren 5ekoa, Presoen Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritza (ICCP) sortu zenean heldu zen, MIRek zuzentzen zuena baina Francoren Kuartel Nagusiaren menpe zegoena. ICCPrek eginkizunen artean Langile Batailoiak eta presoek mugimenduak antolatzea egon zen, eta presoak eskulan bezala esplotatzeko “legezko” formula 1937ko maiatzeko aipatutako dekretuarekin aurkeztu zen. Presoen bidezko lana armadaren agindu eta kudeaketaren menpe egin zen arren, hainbat enpresa lan honetaz aprobetxatu ziren. Sailkatzeko Agindua Orokorra 1937ko uztailaren 5ean, “A” presoak (zaleak/aldekoak) lan egiteko eskubidea eman zitzaizkien, eta “B” presoekin batera (erantzukizun politikorik gabeko etsaiak) kontzentrazio-esparru egonkorak eta Langileen Batailoiak osatzera pasatu ziren (Organero, 2015; Mendiola eta Beaumont, 2006).

Busturiko 1935eko udal-errolako auzotarrak Langileen Batailoietan (LB)

Abizenak, Izena	Langileen Batailoia	Altaren data	Bajaren data
Apraiz Izaguirre, Antolín	Aditua		
Aralucea Urbezaga, Tomás	13. zk.	1937/08/01	1937/11/01
Bilbao Zabala, Antonio	20. zk. “Cangas” 3. konp.	1937/09/03	
Izaguirre Arróspide, Sabino	18. zk. 2. konp.		1937/09/24 <i>inguru.</i>
Larreta Iturbe, Policarpo	64. zk.		1939/08/05
Oleaga Aranguren, Daniel	166. zk.	1940/08/24	
Olano Ugarte, Crispín	14. zk. 3. konp.	1937/08/13	1939/09/14 <i>inguru.</i>
Porturas Bilbao, Carmelo	64. zk.	1937/11/17	<i>inguru.</i> 1940/03/15
Uribe Asteinza, Francisco	169. zk. 2. konp.	1940/08/31	
Ugalde Zabala, Pelayo	40. zk.		
	1. zk.		

Abizenak, Izena	Langileen Batailoia	Altaren data	Bajaren data
Ugalde Ormaechea, Enrique	13. zk.		
	79. zk.		1940/11/07 <i>inguru.</i>
Elesgaray Asteinza, Juan	138. zk.	1939/03/19 <i>inguru.</i>	
Guerequeta Guerequeta, Andrés	17. zk.		
Sirvent Cortado, Arturo	2. zk.		1937/07/27

(Iturria: AGMG; AIMN).

Busturiko kasu zehatzean, Daniel Oleaga Aranguren eta Carmelo Porturas Bilbao aipatuez gain, hainbat auzokide aurkitzen ditugu Bilbo erori zenean edo ondorengo hilabetetan iparraldeko kanpainaren garapenean preso egin zituztenak, eta kontzentrazio-esparruetan sartu eta sailkatuak izan ondoren, jadanik existitzen ziren edo sortu berriko Langileen Batailoiren batera adskribatuak izan zirenak. Adibide bat Antonio Bilbao Zabala auzotarra da, Barakaldon preso hartu eta Gasteizko kontzentrazio-esparruan sartu zutena eta Gasteizko Batzorde Sailkatzailearen aurrean deklaratu zuena, Sabino Izaguirre Arróspide auzotarrari gertatu zitzaien bezala, baina azken hau gero Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan sartuko zuten. Sailkapenaren emaitzak Langileen Batailoietara eraman zituen biak¹⁶⁴. Bere aldetik, Crispín Olano Ugarte Deustuko kontzentrazio-esparruan sailkatu zuten eta 1937ko abuztuaren 13an 14. Langileen Batailoira bidali zuten, armada matxinoak Bilbo “askatu” eta hilabete eskasa geroago¹⁶⁵. Dena den, auzotar guztiak ez zituzten kontzentrazio-esparruetan sartu, sailkatu eta Langileen Batailoi batera adskribatu Bilbo erori zenean edo iparraldeko kanpainaren osteko hilabetetan. Hori izan zen Daniel Oleaga Aranguren auzotarraren kasua, Frantziara erbesteratu zena 1939ko martxoaren 6an eta Figuerastik Espainiara itzuli zena 1940ko uztailaren 15ean. Reus eta Miguel de Unamuno (Madril) kontzentrazio-esparruetan egon ondoren 166. Langileen Batailoiren parte izatera pasatu zen¹⁶⁶. Francisco Uribe Asteinza ere preso hartu zuten 1940ko ekainaren 27an Irunen, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura bidali zuten, eta 169. Langileen Batailoian sartu baino lehen Miguel de Unamuno kontzentrazio-esparrutik ere pasatu zen¹⁶⁷. Azkenik, aipatuko dugu Antolín Apraiz Izaguirre Industria Militarreko Zuzendaritza Orokorreko Berreskuratze eta Automobilismo Zerbitzuko Langile Adituen Batailoian egon zela Lamiakon (Badiola, 2015: 211).

164. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 711. kutxa. 25722. txostena; 1579. kutxa. 73884. txostena.

165. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2051. kutxa. 103730. txostena.

166. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2053. kutxa. 103827. txostena.

167. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2636. kutxa. 141181. txostena.

LBetan zeuden Busturian jaioak baina bertan bizi ez zirenak

Abizenak, Izena	Langileen Batailoia	Altaren data	Bajaren data	Egoitza
Cearreta Cearreta, Martín			1937/12/05	
Elesgaray Bilbao, Rafael	136. zk.	1937/08/16 <i>inguru.</i>		Bermeo
Elorriaga Undabarrena, Gregorio	64. zk.	1937/12/05	1940/05/24	
Laucirica Odiaga, Eduardo	1. zk.	1937/07/25 <i>inguru.</i>		Mungia
Lejarraga Larrauri, Timoteo Juan	38. zk.		1940/07/08 <i>inguru.</i>	
Torrealdy Arrizabalaga, Eugenio	21. zk. 4. konp.			
Uriarte Bilbao, Lorenzo				
Mintegui Marcaida, Ángel	78. zk.		1938/09/01 <i>inguru.</i>	Murrieta
	128. zk. 2. konp.	1938/09/01	1939/10/31	

(Iturria: AGMG; AIMN).

Busturian jaio baina 1935eko udal-eroldaren arabera bertan bizi ez ziren pertsonei dagokienez, LBetara adskribatuak izan ziren ere. Bermeoko auzotarra zen Rafael Elesgaray Bilbaok, Busturian jaioa, *Malato* batailoian parte hartu zuen fusilari bezala eta etsaiak Bilbo erori zen egunean harrapatu zuen. Kontzentrazio-esparru batean egon ondoren Bilboko Batzorde Sailkatzailean trebatu zuten 136. Langileen Batailoira adskribatua izateko¹⁶⁸. Gauza bera gertatu zitzaion Eduardo Laucirica Odiagari, Busturian jaioa eta Mungiako auzotarra zena, Miranda de Ebroko Presoen eta Bertaratuen Batzorde Sailkatzaileak 1. Langileen Batailoira bidali baitzuen¹⁶⁹. Azkenik, Ángel Mintegui Marcaidaren kasua aipatuko dugu, Murrietako auzotarra zena, 1937ko urriaren 21ean preso hartu zutena itsasotik atzerrira ihes egin nahi zuenean hainbeste pertsonak bezala. Santoñako (Kantabria) Batzorde Sailkatzailetik igaro ondoren 78. Langileen Batailoira adskribatu zuten agregatu bezala, eta 1938ko abuztuaren 1ean 128. Langileen Batailoiko 2. Konpainiara bidali zuten¹⁷⁰. Agian Daniel Oleagak eta Gregorio Elorriaga Undabarrenak Langileen Batailoietan parte hartu zuten azken busturiarrak izatearen ohore tristea izan zuten, gerra amaitu ondoren batailoi horiek bortxazko lanaren errealitate berri bati bidea eman baitzioten: Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoiak (SLDB).

168. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 1084. kutxa. 45362. txostena.

169. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 1641. kutxa. 77906. txostena.

170. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 1915. kutxa. 95122. txostena.

Langileen Batailoietan egon ziren 11 gatibu hauen kasu zehatza 1937ko azaroan batailoi horietan egon ziren 34.000 presoen barruan kokatzen da; 1939ko urtarrilean 67.900 preso zeuden Langileen Batailoietan eta 90.000 izan ziren gerraosteko lehen hilabetetan (Rodrigo, 2005). Lanean aritu ziren azpiegituren eraikuntzan (errepideak, trenbideak...), meatzaritzan, nekazaritzan, gotorlekuak egiten... beraz, zigor estrapenal hau, epaiketa eta delituri gabea, bortxazko lan mota nagusia izan zen borrokaldian.

1939ko apirilean operazio militarrek bukatu zirenean ICCP eta kontzentratzeko sistema berregituratuak izan ziren. Francoren Kuartel Nagusia itxi egin zen eta ICCP Armadako Ministerioaren menpe geratu zen 1940ko urtarrilean Kontzentrazio Esparruen eta Diziiplina Batailoien Bulego Nagusia (JCCBD) izenarekin. 1939ko urrirako kontzentrazio-esparruak ICCPeren menpean batuta zeuden eta hilabete bat geroago esparru asko itxi ziren. Jardunean geratzen ziren, beste hainbaten artean, Madrilgo Miguel de Unamuno, LBak gerran eta SLDBak gerraostean trebatzeko helburua zuena, Miranda de Ebro edo San Pedro de Cardeña (Organero, 2015).

1940an Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoiak sortutako JCCBDren eta izaera penala ez zuen lan-esplotazioaren bizkarrezurra ziren. Gainera, sistema honek Langileen Batailoien bortxazko lanen sistema luzatzea ahalbidetu zuen. Honela, gerrako instituzio errepresiboa zen sistema batek gerraostean iraun zuen. Bortxazko lanaren berrantolaketa 1939ko abenduaren 20ko Zerbitzua eta Itsas-armadari buruzko Aginduari esker izan zen, hurrengo ezarri baitzen:

“Hoy en día se hallan presentes en filas los mozos pertenecientes a los reemplazos de 1938 a 1941, pero solamente la parte de ellos que se encontraba en la zona liberada durante el primer año de la campaña. Para normalizar el equitativo cumplimiento del servicio militar es indispensable proceder con urgencia a una rectificación de los alistamientos de los reemplazos correspondientes a los años de la guerra y a los que han adelantado su ingreso en el Ejército Nacional, verificando simultáneamente una clasificación de antecedentes personales en relación con nuestro Glorioso Movimiento” (Organero, 2015; Mendiola eta Beaumont, 2006).

Agindu honen arabera, gobernu errepublikanoak errekrutatu zituen gazteek zerbitzu militarra osotasunean edo zati batean bete arren, berriz egin beharko zuten. Arau hauekin batera sailkapen pertsonal bat eman zen. Orain, 1940ko lehen hilabetetan ezohiko moduan antolatu ziren Errekruta Kutzak Sailkatzeko eta Berrikusteko Batzarrak ziren sailkapenaren arduradunak kontzentrazio-esparruen orde. ICCPek emandako “Sailkatzeko arauen” artean hurrengo zehazten zen:

“(los) jefes de todos los Batallones, Grupos o Unidades independientes de Trabajadores, reclamarán con la máxima diligencia, reiterando las peticiones, cuando sea necesario, los informes de la Guardia Civil, Ayuntamientos y Jefaturas Locales de FET y de las JONS, de los lugares en que residía en julio de 1936, correspondientes a todos los individuos de la Unidad de su mando que comprendidos en los reemplazos de 1936 a 1941, teniendo en cuenta que, sin pretexto alguno, deberán encontrarse completos los expedientes y remitidos a esta Jefatura en la forma ordenada, precisamente antes del 1º de Abril próximo” (Organero, 2015).

Arau berriekin ordura arte sailkapenean ezarritako hainbat nomenklatura baztertu ziren, eta aurrerantzean Zaleak, Ezaxolak eta Aurkakoak izango ziren; azken hauek izan ziren SLDBeko kideak. Gainera, SLDBan zuzenean sartu ziren 1940ko erdialdean

baldintzapeko askatasuna lortu zuten presoak adin militarra baldin bazuten. 1942ko urriaren 28an JCCBD desegin zen eta hurrengo adierazi zen beste aginduen artean:

“El 15 de diciembre próximo quedará incorporado a las Unidades del Ejército el personal de los Batallones de Trabajadores con excepción de los penados y de los sancionados por la Fiscalía de Tasas” (Organero, 2015; Mendiola eta Beaumont, 2006).

Busturiko errekruten deialdiak Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoietan (SLDB)

Abizenak, Izena	SLDB	Altaren data	Bajaren data	Deialdia
Oleaga Aranguren, Daniel	54. zk.	1940/07/01 <i>inguru.</i>	1941/06/26	1931
Amunategui Arancua, Sabino	11. zk.			1930
Apraiz Elesgaray, Dionisio	39. zk.		1941/10/15 <i>inguru.</i>	1936
Elordieta Alegría, Juan Leovigildo	“Palma de Mallorca” batailoia			1936
Asla Landia, Cecilio	1. zk.	1940/08/06	1940/08/19 <i>inguru.</i>	1938
	35. zk. 2. konp.	1940/08/19 <i>inguru.</i>	1941/06/30	
	46. zk. 1. konp.	1941/07/01	1942/07/08	
Hormaechea Hormaechea, Santiago	1. zk.	1939/12/12	1940/06/28	1933
	3. zk.	1940/06/28	1940/09/11	
Porturas Bilbao, Ricardo	12. zk.			1933
Esquíbel Retolaza, Luciano	38. zk. 2. konp.	1940/07/17	1942/03/24	1937
Llona Elguezábal, Victoriano				1932
Laucirica Odiaga, Eduardo				1934
Madariaga Foruria, Agustín	38. zk.			1937

(Iturria: AGMG, BFAAH).

1939ko martxoaren 14an Luciano Esquíbel Retolaza busturiarra lurralde matxinora iritsi zen Cádizko muga-postutik, bederatzi egun lehenago Marokora ihes egin ondoren Cartagenako muga-postua zeharkatuz. Cádizen 32 egun egon zen San Fernandoko Espetxe Militarrean 1939ko apirilaren 15ean hasita. 1940ko uztailaren 8an Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan sartu zuten eta bertan hamar egun eman zituen. Esparru honetan neurtu eta txertatu zuten, 1939ko abenduaren 20ko Aginduen arabera, dagoeneko aipatu dudana. Une horretan Soldadu Langileen Diziplinazko 38. Batailoi sortu berrira adskribatua izan zen, Erronkarira (Nafarroa) joateko, eta batailoi horretan 154 egun egon zen 1940ko uztailaren 17an sartu ondoren. Baina berak 10 urte eta egun bateko kondena penala zuen bere gain, matxinada militarreko delitu baten gaizkide izateagatik, eta Ferroleko espetxean (Galizia) sartu zuten 1940ko abenduaren

17an. Hala ere, 1941eko apirilaren 1eko Legearen arabera, behin-behineko baldintza-peko askatasuna eman zitzaion eta egoitza Busturian ezarri zuen. 1942ko martxoaren 24an 38. SLDBan sartu zen berriro, baina 1942ko apirilaren 10ean Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko 94. Batailoira bidali zuten. Nabarmendu egin zen Lezon zerbitzuak ematen zituen konpainian eta han egon zen 1942ko irailera arte. Aipatutako batailoia Cerverako plazako (Lleida) IV. Eskualdeko Diziplinazko Batailoien Ikuskaritzaordearen menpe geratu zenez, 1942ko urriaren 19ra arte Orgañan destinatua egon zen (Lleida). Antolaketa berriaren ostean, 1942ko urrian xedatu zenaren arabera, 94. SLZDBa II. Eskualde Militarreko Diziplinazko Batailoien Taldean sartu zen, eta urriaren 2an Balaguerrera joan zen (Lleida). Han Rotara (Cádiz) joateko ontziratu ziren, eta han batailoia geratu zen 1943ko abuztuaren 10ean lizentziatu zen arte¹⁷¹.

Beste alde batetik, Tomás Uriarte Bilbao aurkitzen dugu, Frantziara igaroa 1937ko uztai-lean, bere kinta mobilizatua izan ondoren Euzkadiko Gudarosteko *Lenago il* batailoian zerbitzuak emateagatik errepresaliak jasotzearen beldur zelako. Espainiara itzuli zen 1942ko maiatzaren 13an eta berehala Miguel de Unamuno kontzentrazio-esparruan (Madril) sartu zuten astebete geroago. “Ezkutatua” (“*Emboscado*”) sailkapena jaso ondoren Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko 75. Batailoian sartu zuten 1942ko ekai-naren 1ean. Batailoi horrenta 1943ko abuztuaren 1era arte geratu zen, une horretan lizentziatu baitzen Guardia Zibilak egindako ikerketa baten ondoren “EZ EZKUTATUA” (“*no emboscado*”) sailkapena jaso ondoren¹⁷².

Luciano Esquíbel eta Tomás Uriarte gatibual Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoien mota berezi batean egon ziren eta, horregatik, azterketa zehatzago bat merezi dute. SLDBetan bi modalitate berezi zeuden, iheslariena, SLDBetako iheslarietz osatzen zena, eta Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko Batailoiak (SLZDB), eta hau da guri interesa-tzen zaigun modalitatea 94. eta 75. SLZDBekin. Batailoi hauetan baldintza-pekoko askata-sunean zeuden edo Tasen Fiskaltzak zigortu zituen 1936 eta 1942 urteen arteko kinten presoak egon ziren. Azkenik, aipatu behar dugu batailoi hauek SLDBak baino gehiago irau zutela, 1945era arte desegin ez zirelako.

Busturiko errekruten deialdiak Soldadu Langile Zigortuen Diziplinazko Batailoietan (SLZDB)

Abizenak, Izena	SLDB	Altaren data	Bajaren data	Deialdia
Esquíbel Retolaza, Luciano	94. zk.	1942/04/10	1943/08/10	1937
Uriarte Bilbao, Tomás	75. zk. 2. konp.	1942/06/01	1943/08/01	1931

(Iturria: AGMG - Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra).

Bortxazko lanetara bidali ziren gatibuak elikadura, ostatu eta lan-baldintza oso eskasak jasan zituzten, horrela zigor fisikoa erabatekoa zen eta izaera zigortzailea nabarmena zen. Lekukotza baten batek esaten zuen: “*caían como moscas. Había hambre y miedo, y morían como chinches*” (Organero, 2015). Azkenik, batailoi hauen ezaugarri bat

171. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 1112. kutxa. 46844. txostena.

172. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). SLZDB. 1. Taldea. 2942. kutxa. 8110. txostena.

mugikortasuna zela adierazi behar da. Lanak bukatu bezain laster gatibuak beste laneko toki batera joaten ziren. Gainera, lan ezberdinak batailoien konpainien artean banatzen ziren, beraz, unitatea hainbat tokitan sakabanatuta egon zitekeen. Mugikortasun honen ondorioz bortxazko langileak euren jatorrizko herrietatik urrun egon ziren, busturriarren kasu zehatzean Gipuzkoa, Leon, Mallorca, Cádiz, Algeciras edo Lleidako herrietan egon ziren, beste batzuen artean.

4.2.3. Ikuskatu gabeko errepresio ekonomikoa

Gerran bertan familia askok etxeetan lapurretak jasan zituzten udalerria ebakuatzera-koan edo tropa matxinoek 1936ko uztailaren kolpe militarren alde agertu ez zirenen jabetzak eskuratu zituzten:

“Da etor gintzen, ta eskendun jakin etzien aitxe-ta, kridxedueta bixi badie, ta Mañun ente-rau in gintzen. Artu gintzusen kamioi batek, soldaduen kamioiek, da artu gintzusen geure trapu sarrakas, ixera barrun, da saku ta geure erropak-eta, ni mutil gastetxue, amar urte, ta arek soldaduek erruki eretxitze ekar gintzusen Mañurartien. Da Mañun entera gintzen aitxe-ta bixi dísela. Da gero ba, etzie arregla in bier, etzie dana sulotute euen da, dana deseindde. Animalidxekek euki gendusen, animalidxekek danak desaparesidu da barridxen asi bier, barridxen barri biximodu ataten”; “Moruek gerra-denporan, oilluk atrapa ta an barrun sartze’ittuesen, esa’ban gure amak-eta. An prakak, oin be badaus enbran artean, ara berarteko prakak; amen moruen prakak! Lapurretan eitte’bien moruek asko amen orduen gerra denporan. oilluek-eta, gallineruek-eta. Da esate’bien an barrun sarze’ittuesela, moruek. Moruen prakak oin be esa-ten’tzegu orreri” (Paia, 2005: 218).

Carmele Llantada auzotarrak esaten du Busturiko baserrira itzuli zirenean dena lapurtu zietela:

“habían robado todo. La incubadora que teníamos apareció donde las monjas, en Axpe. Nuestro padre era muy aficionado a los animales, sacar pollitos, a la huerta,... Una huerta preciosa; he conocido hasta espárragos en nuestra huerta. La ropa también nos robaron; y el sinvergüenza y asqueroso de Patxi Abarka, robó todos los animales, las vacas” (Egizábal eta Serrano, 185).

Beste auzotar batek, Bakarne Foruria, hurrengo esaten du:

“A nosotros los falangistas de Busturia nos hacán la vida imposible; nos quitaron la casa y la pusieron a nombre de una mujer de Bilbao, Margarita Ruíz. Así estuvo durante más de veinte años. Parece que cuando ya fue mayor no quiso ir al infierno con esa carga, y nos devolvió la casa” (Egizábal eta Serrano, 2017: 381).

Herriko hainbat auzokidek antzeko lekukotzak eman dituzte eta esan dute soldaduak izan zirela, baita tokiko agintari berrien eta segurtasun gorputzen laguntzaileak ere, botere posizioa aprobetxatuz dena lapurtzen zutenak: abereak, esnea, barazkiak... (Egizábal eta Serrano, 2017: 185-382).

Gerran eta Bizkaiko Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak gauzatutako ekin-tzez eta Erantzukizun Politikoen Legearekin gerraostean egindakoaz gain, azken hone-tan ere ikuskatu gabeko errepresio ekonomikoko praktikak topatzen ditugu. Garrantzia izan zuten ere etxeko ekonomietan Espainiako armadak eta Guardia Zibilak burututako

ekintzek Cearreta eta Foruriaren establezimenduetan. Bi taldeek taberna hauetara sarri joaten ziren janari eta edari onenak hartzeko gero ordaindu gabe alde egiteko¹⁷³.

Dagoeneko azaldu dut Busturiko Batzorde Kudeatzaile frankistak, 1937ko ekainaren 3an egin zen lehen biltzarretik, azken udal errepublikanoko bi langileei zegokien eskakizunak egitea erabaki zuela: Andrés Cearreta Urrutiari, udal-gordailuzaina zena, eta Antonio Uriaguereca Araluzeari, biak kargugabetuta “*haien eginkizunak uzteagatik*”¹⁷⁴. Udal-gordailuzainari berak zituen herriko kutxa-liburua eta egiaztariak Udaleko Batzorde Kudeatzailearen esku berehala jar zitzan eskatu zitzaion, bere eskuetan bazeuden 1937ko apirilaren 30a baino lehenago, “*fecha de la liberación de este pueblo*”¹⁷⁵. Bileran izan eta sei egun beranduago, udal-idazkaria Andrés Cearretaren etxean bertaratu zen. Bera etxean egon ez arren, bere emaztea, Irene Alegría Ispízuak, bai zegoen. Orduan emazteak Busturiko kutxa-liburua eta eskatutako beste dokumentuak eman zizkion, herritik alde egitea erabaki zuenean emazteari ematea erabaki baitzuen¹⁷⁶.

Une horretatik aurrera Busturiko Udalak Bilboko Aurrezki Kutxa eta Bahitetxeko 6.000 pezetako frogagiri bat zuen, orduan emazte eta gero alargun izango zen Irene Alegría Ispizuak emandakoa eta Andrés Cearreta Urrutia udal-gordailuzainarena zena. Baina herrian matxinoak sartu baino egun bat lehenago kutxan zeuden 5.507,49 pezetako saldoa diru bihurtzeko asmoz, alargunak Udalaren aldeko txeki baten bidez emandako 1.024,50 pezeta kendu ondoren, Irene Alegría Ispízuak, Andrés Cearreta Urrutiaren alargun bezala, 4.482,99 pezetako zorra zuen. Busturiko Udalak oraindik ordaindu behar zuenez udaletxeko solairuan Cearreta Hermanos enpresak 1937ko apirilaren 30 baino lehen egindako lanen zenbatekoa, 1942ko irailean bi alderdien kontuak eta adierazitako zorrak behin betiko kitatu ziren, eta Udalak 1937tik atxikitzen zituen 6.000 pezetako ezarpena alargunaren esku jarri zuen¹⁷⁷.

1937ko ekainaren hasieran ere instrukzio-txosten bat ireki zen administrazio errepublikanoaren garaian udaleko hornikuntza ordezkaria zenaren kontra, Carmelo Llantada Uriaguereca. Udal frankistak irekitako txostenak Udaleko kontabilitate-liburuen balantzean jarri zuen arreta, eta emaitza 3.535,13 pezetakoa zen Busturiko Udalaren alde. Aipatutako ordezkariak zenbateko hori ez zuen eman tropa matxinoak sartu baino aurreko egunean herritik alde egin zuelako, bere etxebizitza eta abereak herrian utziz. Udalak orduan abereak konfiskatzeko kudeaketak egin zituen, 1.350 pezeta balio zutelako, eta enkante publikoan Muruetako auzotar batek eraman zituen. Dena den, zenbateko hori ez zen nahikoa Udalarekin zegoen zorra ordaintzeko, beraz, Batzorde Kudeatzaileak ondasun guztien konfiskazio berriak egitea erabaki zuen ordainketa guztiz bete arte. 1941eko martxoan probintziako Erantzukizun Politikoen Auzitegiko Epaitegi Bereziazen txostena ez zegoen bukatuta oraindik¹⁷⁸.

173. Egizábal Suárez, M. (2017, martxo). Busturiko emakumeak frankismoaren aurrean. Ezkutuko erresistentziak. Altamirako Kultur Etxean aurkeztutako txostena, Busturian.

174. BUA. Akta-liburua. 1937/06/03.

175. BUA. Akta-liburua. 1937/06/03.

176. BUA. Akta-liburua. 1937/06/19; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/046; 0056/047.

177. BUA. Akta-liburua. 1937/06/16; 1941/12/27; 1942/10/15.

178. BUA. Akta-liburua. 1941/03/27.

Azkenik, adierazi behar dugu errepresio ekonomikoa egiteko eta indar matxinoak finantzatzeko erabili zen ikuskatu gabeko tresna bat, harpidetza patriotikoak, asmo hertsatzaile argi batekin sortu zirenak. Harpidetzak borondatezko izaerarekin mozorrotzen ziren, eragin propagandistiko handia zuten eta leialtasun sozialak sortzen zituzten, baina diruarekin laguntza eman nahi ez zutenei beldurra eragiteko ziren ere. Harpidetza hauek erregimenari leialtasuna erakusteko eta garaituei errepresio ekonomikoa egiten izan ziren. Herrian zenbait harpidetza egin ziren. *España* korazatuaren zioz irekitako harpidetzak 1.230 pezeta bildu zituen 1937ko erdialderako, Gabriel Learretak eta Palmira Arroteguik harpidetza horren %44,71 eman zutelarik¹⁷⁹. Busturiko eskola nazionalerako gurutzeak erosteko ireki zen harpidetzan herriaren %12k parte hartu zuen, guztira 360,90 pezeta bilduz¹⁸⁰. Armada matxinoaren alde beste harpidetza bat ireki zen eta horretan Escolástico eta Urbana Uriona Calzada neba-arrebek 2.000 pezeta eman zituzten, eta, berriz, Gabriel Learreta eta Palmira Arrotegui harpidedun handienak izan ziren 2.000 pezeta eta zilarrezko 20 txanpon eman ondoren. Guztira, 1937ko irailaren 18an 7.606 pezeta lortu ziren, eta horietatik ia %50 lau pertsonak eman zuten. Eta hori guztia kontuan hartu gabe Gabriel Learretak eta Palmira Arroteguik gauzaz lagundu zutela ere: urrezko erlojuak, urrezko eraztunak, urrezko eskumuturrak, antzinako belarritakoak, urrezko ezkontza-eraztunak, urrezko medailoiak, urrezko txanponak... Hauen artean ere José María Ucelay margolaria zegoen, 100 pezeta eman baitzituen aipatutako harpidetzarako¹⁸¹. Askatutako herrien alde ireki zen harpidetzan ere herriko hainbat auzotarrak parte hartu zuten¹⁸².

5. GOSEAREN ERRAZIONAMENDUA, BERRIZ ERE

Tropa matxinoak udalerrian sartu zirenean, herria izakinik gabe zegoen eta janaria eskuratzeko “legezko” eskudirurik ez egoteaz gain egoera larriagotu zen garraiobiderik ez egoteagatik. Udaleko idazkaria, Vicente Gorriño Tribis-Arrospe, Udalaren ordezkari bakarra zen eta administrazioaren arduraduna zenez herria hornitzeaz arduratu zen. Horretarako, idazkaria Gasteizko Intendentzia Parkera joan zen eta azken hau izan zen maiatzean udalerrira hornitu zuena: 4.228 anoa ogi, 428 litro ardo, 40 kilo kafe, 120 kilo azukre, 150 litro olio eta 100 kilo bakailao, karguak adierazten dituen kopuruetan¹⁸³. Garrantzitsua da azpimarratzea %33,17 hertsiki txiroen artean banatu zela, eta gainerakoa Ongintzako Zerbitzu Nazionalak babesten ez zituen pertsonen artean banatu zela¹⁸⁴.

Maiatzean ere Intendentzia Zibileko Biltegiak Gernikan ezarri ziren, eta horietatik janaria banatzen zen “askatutako” herrien artean. Handik herriko auzotar batzuk, Tiburcio Retolaza edo Pablo Elesgaray adibidez, herrira eramaten zituzten. Biek janariak

179. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0029/005.

180. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0073/017.

181. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0073/018.

182. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0073/019.

183. BUA. Akta-liburua. 1937/12/09.

184. BUA. Akta-liburua. 1938/06/09.

garraiatzen zituzten Busturiko biztanleentzat Mundakatik eta Gernikatik¹⁸⁵. Dударik gabe gosea etsaiaren kontra erabil zitekeen arma propagandistikoa izan zen. Horregatik, 1937ko ekainaren 15ean, Intendentzia Zibileko Biltegiek 200 ogi saldu zituzten 0,65 pezetaren truke bakoitza, 35 kiloko kafe-zaku bat 14 pezetaren truke, 60 kiloko azukre-zaku bat 1,60 pezetaren truke eta 100 kiloko indaba-zaku bat 1,19 pezetaren truke. Artikulu hauek Busturiko jendearen artean banatu ziren eta kontsumituak izan ziren, baina zenbatekoa ez zen ordaindu, izakinak ematen ziren konkistaren lehen une horien aparteko baldintzak kontuan hartuz¹⁸⁶. Gosea tresna politiko bihurtu zela adibide argi bat daukagu udalerrian egiten ziren “*Plater Bakarraren Eguna*” edo “*Postrerik Gabeko Eguna*” izeneko ongintzazko ekitaldietan¹⁸⁷. Ekitaldi hauetan bazkaria plater bakarrera murrizten zen edo postrea kentzen zen, bai partikularren bazkarietan bai jatetxeek emandakoetan, eta gainontzekoaren balioa borrokalariei, gizarte laguntzako jantokiei, ama-eskolei, umezurtegiei edo antzeko erakundeei eskaintzen zitzairen. Dirudienez, “*Plater Bakarraren Eguna*” txarto funtzionatzen zuen, JONSetako FETaren tokiko buruzagia zen Félix Chertudi Zabalak esaten zuenez¹⁸⁸.

Dena den, goseak herritarrei kalte egiten jarraitzen zuen udalerrian tropa matxinoak sartu ondoren, eta horrela adierazten du 1937ko ekainaren 15ean Salustiano Arróspide merkataria Batzorde Kudeatzailearen presidenteari bidalitako jakinarazpen batean. Jakinarazpen honetan adierazten du Nafarroako eta Logroñoko probintzietan erosi nahi zituela zenbait kontserba, pentsuak, zerealak eta janariak orokorrean, herrian merkataritza kontuan “*normaltasunera*” heltzeko¹⁸⁹. Abuztuan alkate berriak udalerriko merkataria eta industrialari guztiei deitu zien, oholza langileak barne, udaletxera joan zitezen, eta agindu zien karteletan jarri behar zituztela, establezimenduan ondo ikusten zen toki batean, txikizkako salmentako artikuluen prezioak, onartu ezinezkoak ziren neurrigabeko prezioak ez kobratzeko¹⁹⁰.

Janarien salmentaren errazionamendu errepublikanoa kendu zenez, gerraosteko lehenengo bi urteetan merkataritza askea izan zen, baina prezioak ofizialki tasatuta zeuden eta gerra egoerako prezioen antzekoak ziren. Errazionamendu sistema 1939ko maiatzaren 14an itzuli zen eta 1953ko ekainaren 1era arte iraun zuen. Oinarrizko produktuak eta premia biziko gaiak, hala nola haragia, arrautzak, oilaskoa, kafea, esnea, oinetakoak, patatak, ardoa, txitxirioak eta abar, anoatu edo kontrolatu ziren. Liburuxkak hasieran familiarrak ziren baina 1943an banakakoak izatera igaro ziren iruzurra gero eta handiagoa zelako: batzutan bi liburuxka erabiltzen ziren edo liburuxkan hildakoak sartzen ziren. Errazionamenduari buruzko lehen aipamena Udalak 1939ko ekainaren 29ko bil-tzar batean onartutako ordainagiri batean dago, 1939ko apirilaren 26an Busturiko alka-teak errazionamendu zinpeko zerrendak emateko Probintziako Hornikuntza Batzarrera egin zuen bidaia baten dietengatik. Zerrenda horien alta 1939ko ekainaren 1ean izan

185. BUA. Akta-liburua. 1937/09/30; 1941/03/27.

186. BUA. Akta-liburua. 1937/08/12.

187. BUA. Akta-liburua. 1937/12/09.

188. EAA. AP-1302-03.

189. BUA. Akta-liburua. 1937/06/19.

190. BUA. Akta-liburua. 1937/08/26.

zen. Egun horretan bertan Busturiko alkatea Bilbora joan zen liburuxkak hartzera, eta ziur aski hurrengo egunean banatu zituen¹⁹¹.

Berriz ere, gerran bezala, saltzaileen trebetasuna hobetu egiten zen erosleari “xixka-tzeko” kopuru eta pisu neurriak egokituz, nahiz eta agintariek jazartzen zituzten jarduerak izan. Gainera, merkatu beltz bat sortu zen, estraperloa, legez kanpoko zegoena baina “onartzen” zena garaiko elikadura krisiaren irteera bat zelako. Dena den, elika-gaiekin edo anoatutako bestelako produktuekin legez kanpo trafikatzeari jazarpenak, larderiak, espetxeratzak eta kondanak egon ziren. Esaterako, Gemikako auzokide zen Cristina Beatriz Uribarri Larrucea, Busturian jaioa, 1949ko azaroaren 17an atxilotu zuten ogiarekin legez kanpo trafikatzeari. Bilboko Espetxe Probintzian 150 egun espetxeratuta egotera zigortu zuten, eta 1949ko abenduaren 23an aske geratu zen¹⁹². Bakarne Foruria Ugaldek gogoratzen du bere aita, Nicolás Foruria Aguirre, estraperloan aritu zela eta Guardia Zibilak jazarri zela:

“Aitta kanpotik ibili zan eta Guardia Zibilak etorten jakuzen tabernara, eta esaten dozkuen ea kontrabandorik dekogun. Guk ezetz esan eta eurak: Mira señora, yo con matarla a usted no hago mas que subir galones eh! Ta metralletie aurrien ipini eta ni amaren albuen, mostradoren aspizan, 5 6 urtegaz. Bildurre? Ba bai eukiko neban. Ta beste baten, tabernie eukikeran jaixetara jun zan aitta San Cristobalera eta etorri zirian Guardia Zibilak, ea kontrabandoa dekon eta amak ezetz esan. Eta ea gizona non dauen. Amak esan oztan: juan trenbidetik San Cristobalera eta aittari esan tabako paketiak botatek, Guardia Zibilak datozela. Ta ni gaueko 11etan trenbidetil bakarrik gabaz jun nintzan San Cristobalera, ta aittak tabakue bota” (Busturiko Udala, 2005: 68-69).

Legez kanpoko merkatu honek ez gaitu harritu behar gizonezkoen zati handi bat merkataritza ontzidian zebilen testuinguru batean, legez kanpoko negozioetan aparteko diru-sarrerak edo bizirik irauteko aukera topatzen zutelako. Legez kanpoko negozio hauen aztarnak dokumentazioan aurkitzea oso zaila da. Hala ere, Busturiko auzotar bat 1956an lau urteko espetxealdi zigorrera kondenatu zuten kontrabandoan aritzeagatik¹⁹³.

Busturiko etxeko eta landako ekonomiak oinarritzko papera izan zuen biztanleen gosea “sendatzeko” orduan gerran eta gerraostean. Pertsona batzuk bai gogoratzen dutela zenbait produktuen falta, arropa edo bestelako gauzak, baina ez gosea. Horrelako oroi-tzapenak dituzte Busturiko zenbait emakumek:

“Goserik ez gendun pasaten baina nik ez dot ikusi etxien gauza extrarik bez. Baserriko gauzek eta arraina asko ze esnie eruten gendun Bermiora egunero... ta esnie eruten zales, itsasoko jendik emon eitten zeuen arraina, eta hortik, egon ginen ondo. Ba txokolatie nik ez neban ikusi etxian”; “Ta saltzen zan hasie, frutie, kipulie... dana, patatie, kipulie, etxien zegoeta eruten zendun beti saltzeko. Baina ez zan egoten gauza handirik”; “Goserik ez gendun pasa. Nire 3 neba arreba, nire aitzia Sestaon dagoela ama gerrie akabata, tia bat euki gendun beti, plazara juten zan eta handik dana ekarten zendun. Nike z dot pasetu etxien eze faltarik. Al kontrario, orden antxoak eta... arrain asko ekartzen gendun Bermiotik eta neberarik ez, enterrau egiten gendun, ze usteldu egiten zan emondako hainbeste arrainagaz. Nik ontxe urte batzutarate ez dot erosi ez antxoarik ez txixxarrik, berdelik ez ezebez, ezta pentsau bez.

191. BUA. Akta-liburua. 1939/06/29.

192. AGA_TP_8,5_01809R.

193. AGA_TP_8,6_01556R.

Bermion beti egon da portun bertan dabilen jentientzako asko”; “Baina etxin goserik ez gendun pasa, ze plazatik ekarten zan gauziek, txokolate faltarik inoz ez dogu izan etxien”; “Oilo zaharren bat badago gallineruen ba hoixegaz, edo konejuren bat edo, harek hil eitten zan, ta paellie”; “No nos dejaban coger huevos mas que los que eran para la semana, e íbamos al gallinero. Lehengusuek eta neuk, jun gallinerura, arrautxak hartu, zulutxu bet ein, talo zati bat hartun eta jan”: “En nuestra casa no pasamos hambre, con el caserío, la huerta y el trabajo de carretero de mi padre y nosotros que le ayudábamos tirábamos para delante” (Busturiko Udala, 2005: 35; Egizábal eta Serrano, 2017: 186).

Andoni Elorrieta auzotarrak ere honi buruzko lekukotza dauka:

“En aquella época a pesar de que era una época dura nosotros no pasamos penuria, gracias a que nuestro padre era marino. Nos mandaba paquetes que llegaban en transporte Atucha. Aquellos paquetes era una gran ilusión, llegaba de todo, telas para hacer ropas, zapatos, café, azúcar, maicena, carne de Argentina, latas, juguetes y para Juan Félix, Todí, una especie de cola cao, que según mi padre eran vitaminas para que Juan Félix se pusiese fuerte. También nos llegaban tebeos, revistas de Sudamérica, revistas de Cuba...” (Egizábal eta Serrano, 2017: 380).

Udalaren eta Bizkaiko Abeltzaintza Zerbitzu Probintzialeko albaitari-ikuskatzaile nagusiaren arteko komunikazio batzuetan adierazten zen: “*el promedio de cerdos que se sacrifican anualmente en los domicilios particulares de ese Municipio es de setenta*”¹⁹⁴. Ezin gara batezbestekoez fidatu, batzuk txerri asko hil ahal dituzte eta beste batzuk gutxi, edo bat ere ez, baina hiriko egoeraren oso bestelakoa zen errealitate batera hurbiltzen gaituzte. Hala ere, baldintza baikorragoek ez zuten eragotzi goseak auzotar baten bizitzaren akabo zezan. Prudencio Valdés Echevarría auzotarraren kasua izan zen, “*elikadura-anemiagatik*” hil zena 1942ko ekainaren 4an, baina kopuru hori handiagoa izan daiteke udalerrian *kakexiagatik* hil zirenen kasuak kontuan hartzen baditugu¹⁹⁵.

6. GURUTZADATIK NAZIONAL-KATOLIZISMORA

1936ko uztailaren 21ean, Francok berak, bere “*Proclama a todos los Españoles*” egin zuenean, gurutzada kutsua zuen deia egiten zuen:

“¡Españoles! Tened fe y no desmayar ni un momento; la desbandada se inicia, a nuestros aeródromos ya llegan aviones militares desplazados de Madrid. Van patrióticamente a reunirse a la cruzada general” (López Campillo, Poutet eta Rémis, 1997: 137).

Jakina denez, Salamancako apezpikua, Enrique Pla y Deniel, 1936ko irailaren 30eko “*Las Dos Ciudades*” gutun pastoral ospetsuan Altxamendu Nazionala eta gerra legiti-matzen lehena izan zen, izendatu zuenean “*Cruzada por la Religión, por la Patria, por la Civilización*”. Dokumentu hau matxinoen euskarri ideologiko handiena bihurtu zen, Altxamendu Nazionalako gazteak gurutzada bateko borrokalaria bezala Jainkoagatik eta Espainiarengatik borrokatzen zirela defendatuz. Salamancako apezpikua baino lehen, elizaren beste agintari batzuk, Tuyko apezpikua adibidez, hurrengo ezarri zuten:

194. BUA. Akta-liburua. 1941/02/13.

195. BEHA-AHEB. Parrokiaren funtsa (BUSTURIA-Axpe). Ama Birjiñaren Jasokundea. 0380/001-00.

“la lucha actual no es una guerra civil sino una cruzada patriótica y religiosa en la cual combaten por un lado los hijos de España, sus buenos hijos, y por otro, (...) unos hombres nacidos en España pero que desecharon de su corazón el espíritu de España”.

Gainera, Segoviako apezpikuak esan zuen ere gerra hau nolakoa zen:

“cien veces más importante y más santa que aquélla que nuestros mayores sostuvieron durante siete siglos contra los partidarios de Mahoma” (López Campillo, Poutet eta Rémis, 1997: 141).

1936ko abenduaren 12an Gomá kardinalak Pío XI aita santuarekin elkarriketa izan zuen, eta kardinal bera Francorekin elkartu zen 1936ko abenduaren 29an. Bisita horretan Francok esan zuen eliza errespetatuko zuela eta inoiz ez zuela elizari buruzko erabakirik hartuko elizari galdetu gabe edo bere onarpenik gabe. Ordainez, Vatikanok Francori lagunduko zion espirituarekin zerikusia zuten arazo politikoeekin. 1937ko martxoan, Pío XI aita santuak askatasun osoa eman zion Gomá kardinalari gutun kolektibo bat idazteko bere irizpideen arabera. 1937ko maiatzaren 10ean Franco jeneralak Gomárekin izan zuen elkarriketa Salamancan. Francisco Francok, matxinada militarren aurka “bidegabeko” atzerriko kanpaina propagandistikoaz kexatuz, Gomá kardinalari eskatu zion Espainiako elizak horri buruzko iritzi ofiziala eman zezan. 1937ko uztailaren 1ean “Espainiako apezpikuen gutun kolektiboa mundu osoko apezpikuentzat” argitaratu zen, eta honekin Espainiako Eliza Katolikoa ofizialki matxinoen alde jarri zen Espainiako Gerra Zibilari zegokionez. Apezpikuek Toledoko kardinal primatua zen Isidro Gomáren proposamen idatzia berotasunez hartu zuten arren, proposamena sinatu ez zutenak ere izan ziren: Mateo Múgica, Gasteizko apezpikua, euskal apaizen erailketagatik Tarragonako kardinal apezpikua zen Francisco Vidal y Barraquer eta Pedro Rodríguez Sáenz kardinala. Pastoral honek ez zuen Gerra Zibila “gurutzada” izendatu, baina bai holakoa esaten zuela:

“que siendo la guerra uno de los azotes más tremendos de la humanidad, es a veces el remedio heroico, único, para centrar las cosas en el quicio de la justicia y volverlas al reinado de la paz. Por esto la Iglesia, aun siendo hija del Príncipe de la Paz, bendice los emblemas de la guerra, ha fundado las Órdenes Militares y ha organizado Cruzadas contra los enemigos de la fe”.

Arlo erlijiosoa eta politikoaren arteko batasuna Busturian gauzatu zen Udalak berak mezak antolatu zituenean, 1938ko ekainaren 14koa, adibidez. Meza honetan ospatu ziren:

“solemnes honras fúnebres por el alma del Glorioso General Mola, a las que asistirá la Corporación municipal en cuerpo de comunidad; y destinar un donativo de 50 pesetas para engrosar la suscripción del monumento que perpetúe la memoria del insigne General Mola, que fue artífice inolvidable de la gran victoria que culminó en la liberación de Bilbao”¹⁹⁶.

Gainera, Udala, komunitate bat bezala, gerrako gertaera matxino garrantzitsuak zirela eta antolatutako beste ekitaldi erlijiosoetara joan zen. Horrela agertzen da Busturiko udal-aktetan:

196. BUA. Akta-liburua. 1938/06/09.

“inmensa satisfacción de haberse celebrado en la iglesia parroquial de este pueblo un solemne tedeum en acción de gracias por el nuevo triunfo de nuestro invicto Caudillo al tremolar la única bandera legítima en las calles de Barcelona, cuyo triunfo inunda de alegría el corazón de todos los buenos españoles; así como también acordó quedar enterado el Ayuntamiento que, después de haber acudido al referido tedeum la Corporación en Cuerpo de comunidad, asistió con las personalidades en más destacada significación derechista de la localidad al banquete celebrado en ésta el día 3 de febrero actual, que fue organizado por la Jefatura de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S., a cuya tramitación se verificó una colecta entre los comensales, recaudándose ciento veintinueve pesetas (129.00 ptas.) con destino a Auxilio a Poblaciones liberadas por nuestros invencibles soldados de Franco”¹⁹⁷.

Orain arte azaldu dudanez, udal-agintariak ideia honen alde agertu ziren, “*la magnífica obra de reconstrucción en que estamos empeñados: Dios y España*”, Gasteizko prelatu apostoliko berak adierazten zuen bezala, eta gainera udalerrri hau zen “(una) *realidad consoladora de este ideal salvador*”. Arrazoi honengatik, “Seminarioaren eguna” ospatu zenean, 1938ko abenduaren 8an, hainbat seminarista iritsi ziren Busturira euren jantzi tipikoekin. Hala ere, Gasteizko prelatu apostolikoak esaten zuen Udalak ospakizunean parte hartu behar zuela “*moral y materialmente*”. Udala poztu egin zen gonbidapena jasotzeaz eta komunitate bezala seminaristen ohorean egin zen meza nagusira joatea erabaki zuen, seminarioa egiteko eta seminaristak hezteko 25 pezeta emateaz gain¹⁹⁸.

Aipatu behar dugu Vatikanoko espero zena baino politika diplomatiko arretatsuagoa izan zuela Espainiako II. Errepublikarekin, baina Vatikanoren eta Errepublikaren arteko harreman diplomatikoak hautsi ziren alde matxinoan, 1938ko maiatzean, Pío XI.ak nuntzio apostoliko bat izendatu zuenean. 1939ko otsailaren 20an Busturiko eliza nagusian Pío XI.aren arimarengatik meza bat egin zen, eta hileta-elizkizunetara Udal osoa komunitate bat bezala joan zen¹⁹⁹. Aita santua hamar egun lehenago hil egin zen, eta aita santu bezala Pacelli kardinalak ordezkatu zuen, Pío XII izenarekin. Azken honekin, Pacelli kardinala zenean, harreman estuak izan zituen Isidro Gomák Vatikanoko gerra garaian matxinoen aldera hurbiltzeari buruz. Eliza eta 1936ko matxino haien arteko sinbiosia 1939ko apirilaren 1ean burutu zen, data horretan “gurutzada” bukatu baitzen, eta Pío XII.ak Franco jeneralari telegrama bat bidali zion hurrengo esanez:

“Hacemos votos por que este queridísimo país, alcanzada la paz, emprenda con nuevo giro sus antiguas y cristianas tradiciones, que tan grande le hicieron. Con esos sentimientos efusivamente enviamos a V.E. y a todo el noble pueblo español nuestra apostólica bendición”.

Gerra bukatu zenean, Busturiko Udalak udal- zein probintzia-mailan egindako ekitaldi erlijiosoetara joaten jarraitu zuen. Esaterako, Bizkaiko Aldundi Probintzialaren presidentek Busturiko Udal gonbidatu zuen Bilboren askapena ospatzeko festetara, 1939ko ekainaren 18 eta 19an izango zirenak. Festa honetan, beste ekitaldien artean, kanpainako meza bat, desfile militar bat eta Espainiako Estatuaren Buruzagiaren agerpena egongo ziren, Franco *Jeneralisimoa* etorriko zen. Udalak, 1939ko ekainaren 15eko ohiko bilkuran, aho batez erabaki zuen komunitate bezala joatea, udalerriko zutoihalarekin,

197. BUA. Akta-liburua. 1939/02/09.

198. BUA. Akta-liburua. 1938/11/24.

199. BUA. Akta-liburua. 1939/02/23.

eta Udaleko kideak eta funtzionarioak joan ziren festa horietara (*“dichas fiestas patrióticas”*)²⁰⁰, eta horiei buruzko oroitzapenak onak izango ziren: *“guardarán de las fiestas conmemorativas de la liberación de Bilbao grato e imperecedero recuerdo”*²⁰¹. Busturiko idazkaria ere Udalaren ordezkari bezala joan zen uztailen Bilbon egon zen meza batera, gonbidapen ofizial baten bidez: *“piadoso acto de los funerales celebrados en sufragio de los Secretarios de Ayuntamiento asesinados por la horda rojo-separatista”*²⁰². Udalak edo bere ordezkariak egon ziren beste ekintza erlijiosoen artean Begoñan izandako 1941eko urriaren 12ko ekintza erlijiosoa zegoen, Ama Birjiñaren amatasuna ohoratzeko eta *“prestar juramento de defender el Ministerio de la Asunción de Nuestra Señora y su mediación Universal”*, 1943ko Bermeoko Biltzar Eukaristikoaz gain²⁰³.

Kontu politikoak eta erlijiosoak pixkanaka hurbiltzeak agintari katolikoek moral publikoa, jarrera sozialak, hezkuntza eta, orokorrean, edozein kultura adierazpen menperatzera eramán zituen. Elizari ematen zitzaion laguntza ofiziala ikusita, populazioa

“(se) siente obligada a la práctica religiosa, tanto en aras del medro personal como para protegerse de eventuales acusaciones de actividades políticas anteriores. Es la época de los entierros suntuosos y con gran número de sacerdotes, de las celebraciones religiosas tradicionales llenas de pompa y boato, de la condena de ciertas manifestaciones recreativas festivas consideradas como contrarias al amoral (supresión del carnaval), estricta censura moral de los films y toda clase de espectáculos, supresión de las casas de juego, de la prostitución pública, abundancia de imágenes en las casas, entronización del Sagrado Corazón en los hogares, numerosísimos bautizos de niños y adultos, esplendorosas procesiones de Corpus, de Semana Santa, abundancia de romerías locales” (Duocastella, 1967).

Ospakizun hauei kanpainako mezak, misio popularrak, ariketa espiritualak, kuaresmako hitzaldiak edo peleginazioak gehitu behar zaizkie (Piñol, 1999: 110).

Erregimenaren lehen urteetako “eferbeszentzia erlijiosoak” “nazional-katolizismoa” ize-neko *corpus* ideologiko bat zuen atzetik. Casimir Mati historiagile eta apaizaren hitzetan, definituko zuten lau ezaugarriak hurrengoak ziren:

1. “Catolicismo y patria son consustanciales. (...) La fe queda así mediatizada por el patriotismo y, correlativamente, el patriotismo por la fe”. 2. “En este mutuo conocimiento del catolicismo y patriotismo, los valores civiles se encuentran subordinados (...) a los valores de la fe”. 3. “Antimodernidad. (...) La imagen de la vida civil propuesta desde la fe, así condicionada, es un recuerdo idealizado del pasado: (...) la Edad de Oro de la patria. Esta fijación en el pasado predispone negativamente ante factores muy importantes que han contribuido a la génesis y desarrollo del mundo actual, a los que se atribuye la responsabilidad de los males presentes”. 4. “Proyecto de reconquista, lógica consecuencia de la maldad, que se cree congénita, del mundo moderno; reconquista que debe de hacerse “no solo desde las instancias apostólicas”, sino desde las políticas” (Perez Agote, 2003: 222-223).

200. BUA. Akta-liburua. 1939/06/15.

201. BUA. Akta-liburua. 1939/06/29.

202. BUA. Akta-liburua. 1939/08/31.

203. BUA. Akta-liburua. 1941/10/09; 1943/06/24.

Eliza hezkuntza sistema frankistan sartzea adibide adierazgarriena da; erregimenak posizio gailenean jarri zuen eliza katolikoa, bai ikuspegi erlijioso/ideologikotik bai estatu berriaren boterearen egituratik. Erregimenak jarduera erlijiosoak egiteko estatutu hedatu bat eman zion eliza katolikoari: laguntza ekonomikoa, Estatuko Kontseilua bezalako goimailako erakundeetan ordezkari izatea, hainbat erakundetan egotea, hala nola armadana, erakunde sindikaletan, Gaztediaren Frontean... (Piñol, 1999: 148). “Espainiarren foruak” (“Fuero de los españoles”) (1945) zera ezarri zuen:

“profesión y práctica de la Religión Católica, que es la del Estado español, gozará de la protección oficial. Nadie será molestado por sus creencias religiosas ni en el ejercicio privado de su culto. No se permitirán otras ceremonias ni manifestaciones externas que las de la religión católica”.

Udal mailan eman ziren praktika hauen adibide argi bat katekesia emateko eta gau liriko-musikala egiteko eraikin baten lehen harria jartzea izan zen, 1943ko maiatzaren 25ean. Ekitaldi honetan agintari zibilek parte hartu zuten, Busturiko Udalak edo Udal-epaitegiak ordezkaturak; Bermeoko artzipresteak edo Axpeko erretoreak ordezkaturako elizako agintariak; eta, azkenik, “Mugimendu Nazionaleko” hierarkia JONSetako FETaren tokiko ordezkariaren bidez. San Migeleko elizan meza bat ospatu ondoren, eraikin berri atxikia eraikitzaera ekin zioten²⁰⁴.

Ezin dugu ahaztu errepresioan elizak izan zuen papera. Elizak errepresioari eman zion laguntza 1939ko otsaileko Erantzukizun Politikoen Legean eta 1940ko apirilko Kausa Orokorrean ikus daiteke, erretoreak herritarren iragan politikoa eta ideologikoa ikertzeko ezarri zituztelako. Elizak ere, frankismoan berriz ezarri ziren espetxeko kapilauen bitartez, moral katolikoa, obediencia eta gatibuen menpekotasuna ezarri zituen, eta isilik geratu zen agintari berriek egiten zituzten krimenen aurrean. Eliza ere emakumearen zapaltzaile bihurtu zen, errudun sentiarazi zuen eta etxeko gunetik pribatura eta amatasunera kondenatu zuen, bere sexualitatea ukatu zuen eta “haragiarekin” zerikusia zuen edozer kondenatu eta jazarri zuen:

“Empezaron desde el púlpito contra las mujeres... y contra las chicas... todo contra las chicas”; “Y siempre las chicas tenían la culpa, provocación si llevabas un jersey estrecho, si lo llevabas ancho, provocación. Todo era provocación. La culpa siempre la mujer”; “Teníamos que ir a la iglesia con calcetines, con chaqueta, con mantilla, teníamos que besar el suelo con el vía crucis...” (Egizábal eta Serrano, 2017: 394-395; Busturiko Udalak, 2005: 71).

Azkenik, adieraziko dugu elizak oroitu ezinezkotzat jo zituenen familiarrei oroitzapena ukatu ziela, katolikoak izan arren. Adibidez, Busturian elizak, Busturiko Udaleko *jeltzalea* zen Doroteo Calzada Ispizua fusilatua ohorez meza bat egitea ukatu zuen, bere seme Julek gogoratzen zuen bezala:

“Teníamos que acudir a la iglesia y nos daban la misa en Axpe, por los caídos por Dios y por España, a nuestro padre no le pudimos hacer el funeral, tuvieron que pasar 30 años para poder celebrar una misa por nuestro padre” (Egizábal eta Serrano, 2017: 214).

204. BUA. Akta-liburua. 1943/02/27; 1943/05/25; 1943/10/14.

Rosalina Iturbek ere gogoratzen du nola Busturiko erretoreak, Ángel Arrien, bere osabaren izenean, Eugenio Asla Landia, hileta bat ospatzeko aukera ukatu zien, Artxanda mendian izandako borroketan desagertu eta hil zena (Egizábal eta Serrano, 2017: 227).

7. FRANKISMOAK MOBILIZATUTAKO PERTSONAK

tropa matxinoak udalerrian sartu zirenean herritarrek mobilizatzen hasi ziren ahalik eta lasterren. Boluntario joan zein bere kintak mobilizatzeko, gauza da busturiar asko Armada Nazionalean sartu zirela. Egia da auzotar batzuk dagoeneko armada horren parte izan zirela. Azaldu dugu jada nola Luis Bonifacio Cano Esteban maisua, Plasencian jaioa (Cáceres), Extremaduran zegoen bere familiarekin Gerra Zibila hasi zenean. Altxamendu militarren ostean matxinoekin borondatez engaiatu zen Plasenciako 2. zenturian, Metrailadoreen 7. batailoira atxikia, eta bertan zerbitzatu zuen 1936ko irailera arte. Baina bere jarduera matxinoekin ez zen hor bukatu. 1937ko urriaren 20tik geroztik Osasun Militarreko 72. Dibisioan sartu zen, ebakuazio konpainia mistoa zena, 1932ko deialdia mobilizatu zenean²⁰⁵. Aipatu behar dugu hemene boluntario bezala aurkeztu ziren asko benetan *derrigorrezkoak* zirela, hau da, armada matxinoan izena ematera derrigortuta ikusi ziren euren gaineko edo euren familiaren gaineko errepresalia posibleak saihesteko.

Errepublikako gobernuak egin zuen bezala, frankistek euren eremuan deitu zituzten kintak mobilizatzera ekin zioten, gero deitzen jarraitu zituztenez gain. Kasu askotan, soldaduak harrapatutako gudariak eta milizianoak ziren, Bilbon eta Santanderren errenditu edo aurkeztu zirenak. Diseinatutako sailkapen ataletatik igaro ondoren, asko fronteetara itzuli ziren baina oraingoan lehen etsaia izan zenaren ondoan. Anastasio Aberasturi Garmendia, José Alberto Aguirre, Antonio Alegría Laucirica, Martín Cearreta Cearreta, Adolfo Elesgaray Asteiza, Andrés Avelino Iturbe Zorrozueta, Gregorio Esquíbel Retolaza, Guillermo Llona Elguezábal edo Crispín Olano Ugarte, besteak beste. Adibidez, Guillermo Llona Elguezábal, *Cultura y Deporte* batailoaren borrokalari ohia, 1937ko abuztuan harrapatua izan zen Santanderren. Hainbat kontzentrazio-esparrutik igaro ondoren, sukaldari bezala geratu zen nazionalekin Santanderreko 5. Ospitale Militarrean 1939ko maiatzean lizentziatu zen arte²⁰⁶. Beste adibide bat Carmelo Porturas Bilbao izan zen, 1937an Euzko Jaurlaritzak mobilizatu zuena eta matxinoek Laredon (Kantabria) harrapatu zutena. Langileen Batailoi batera igaro ondoren, 1937ko abenduaren 8an Mendiko 7. batailoian amaitu zuen²⁰⁷.

Frankismoa den-denak mobilizatzeko prest zegoen, ezereztasun fisikoagatik baztertuak izan zirenak barne. 1937ko azaroaren 13an, Bilboko itsas komandante militarrek, Félix Basterretxe, egunkarietara agindu bat bidali zuen non Bilbo, Bermeo eta Lekeitioko zatiengatik itsas-armadan izena eman zuten 1930 eta 1938 bitarteko deialdi guztiek, ezereztasun fisikoagatik baztertuak izan zirenak barne, Bilboko Komandantzian bertaratu behar zutela esaten zen, aztertuak, sailkatuak eta berrikusiak izateko (Vargas, 2007: 418). 1936ko abuztutik 1938ko azarora agintari frankistek euren lurraldean 15 deialdi

205. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/010; 0027/050.

206. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). SN 1945 kausa.

207. AGMG (Guadalajarako Arxibo Orokor Militarra). SLDB. 2219. kutxa. 115156. txostena.

mobilizatu zituzten, 1927. eta 1941. urteen artekoak, hau da, 18 eta 33 urte bitarteko gizonak. Dena den, deialdia ez zen egin gizon talde bakar bezala. Errepublikako Gobernuak egin zuen ez bezala, deialdi bakoitza lau hiruhilekoetan banatu zen, eta hiruhilekoan behin deitzen zituzten hilabete gutxiko tartearekin. Berriz ere, Udalaren laguntza garrantzitsua izan zen alkateak izan baitziren hasierako deialdia egiteko eta gizonak Errekruta Kutxetara bidaltzeko arduradunak, gizon horiek unitate ezberdinetara bidaliak izan baino lehen (Matthews, 2013: 73-77). Hala ere, garbiketa lanek udalerriarren ebakuazioarekin batera, eta ondoren herriaren zati handi bat atzerrira joan izanak, matxinoek elizatean mobilizatzen saiatu ziren deialdien kopuruari eragin behar izan zioten. Azkenik, matxinoen armadan auzotarrek izan zuten partaidetzari dagokionez, borrokan dokumentatu dudan hildako bakarra José Guerequeta Guerequeta izan da. Elizateko auzotar hau 1938ko uztailaren 9an hil egin zen Navas del Marquéseko frontean (Avila), metrailak eragindako zauriengatik.

Mobilizazio militarraz gain, erregimenak gizarte osoa mobilizatzen jo zuen itxura totalitarioko “uniformatutako” erakunde menpean, JONSetako FET izan zen bezala. Erakunde honetan emakumeak, haurrak eta gazteak sartuta geratzen ziren Emakumezkoen Atala, Pelayoak, Geziak edo Kadeteak ataletan. Unibertsitateko Sindikatu Espainiarrari dagokionez (SEU), Bizkaian afiliatu ugari izan zituen. Azkenik, aipatuko dugu Busturiko langileak, Bizkaiko langile guztiak bezala, Sindikatu Bertikalean sindikatzen behartuta egon zirela, hau da, erregimeneko Zentral Nazional Sindikalistan. Udalerrian izan zuen garrantziagatik, Emakumearen Gizarte Zerbitzua bakarrik azalduko dut.

7.1. Emakumearen Gizarte Zerbitzua

1937ko urriaren Dekretuak Emakumearen Gizarte Zerbitzua ezarri zuen hurrengo helburuekin:

“aplicar las aptitudes femeninas en alivio de los dolores producidos en la presente lucha y de las angustias sociales de la postguerra, a la vez que valerse de la capacidad de la mujer para afirmar el nuevo clima de hermandad que propugnan los veintiséis puntos programáticos” (Rebollo Mesas, 2001: 299).

Elizateko emakume batek hau esaten zuen zerbitzu honi buruz: *“Formación cívica de la Falange deitzen zan. Igual que los chicos hacían la mili, nosotras teníamos que hacer servicios sociales”* (Busturiko Udala, 2005: 33). 17 eta 35 urte bitarteko emakumeek Gizarte Zerbitzuan parte hartzea betebeharrak nazionaltzat jotzen zen eta ez betetzeagatik zehapenik ez egon arren, beharrezkoa izan zen funtzionarioa izan edo lanbide titulua lortu nahi zuten emakumeentzat: *“El servicio social te obligaban para sacar el carnet de conducir, para empezar a trabajar también, y para sacar el pasaporte”* (Busturiko Udala, 2005: 34). Salbuetsita geratzen ziren akats fisikoa edo gaixotasuna argudiatu ahal zutenak, Gizarte Zerbitzuaren bezain beste denboran antzeko erakundetan aritu zirenak gerra garaian edo ezkonduak edo alargunak zirenak, azken kasu honetan seme-alabaren bat haien kargu baldin bazegoen. Herriko emakume batek esaten zuen bezala: *“Si te casabas no necesitabas el servicio social”* (Busturiko Udala, 2005: 34). Emakumeek “Gizarte Laguntzan” bete behar zituzten zerbitzuko sei hilabeteak, hau da, haur-jantokietan laguntzen, senidetan, soldaduak, gaixoak, haurrak eta adinekoak sorosten... Hori bai, lehen hiru urteetan, 1937tik 1940ra, Gizarte Zerbitzua erakunde militarrei bakarrik laguntza

emanez egin zen. Gerra bukatu zenean, 1939ko abenduaren 28 Dekretuak JONSetako FETeko Emakumezkoen Atalari eman zion emakumeen gaineko kontrola, ondorioz, Gizarte Zerbitzuaren kontrola (Rebollo Mesas, 2001: 299-300).

JONSetako FETeko Emakumezkoen Atalak emakume horien guztien heziketa erlijio-soa, nazional-sindikalista eta etxeko lanetakoa bilatu zuen. 1940ko maiatzaren 13ko Dekretuaren bidez 1937an sortu zena hedatu zuen eta orientazio berri bat eman zitzaion. Derrigorrezko aldia sei hilabetekoa zen eta honela banatzen zen:

“dos fases distintas: una formativa en el triple aspecto moral, doméstico y social, y otra de prestación, consistente en el desempeño de trabajos o fundaciones de interés nacional, sin ningún tipo de remuneración”.

Prestakuntza fasean erlijioa, prestakuntza nazional-sindikalista, gizarte elkarbizitza, etxeko ekonomia, jantzigintza, sukaldaritza, higieena, etxeko medizina, puntu-lanak, garbiketa, lisaketa, historia, prestakuntza familiarra, musika, heziketa fisikoa, arte eta abar irakasten ziren:

“Te mandaban hacer trabajos. A mi me mandaron hacer dos jerseys”; “Yo por ejemplo no hice ni canastillas ni nada”; “Neu musika ikasi neban eta Bermion bukatu neban karrerie, musika, pianue”; “Yo por las tardes estudiaba secretariado en Gernika. Luego costura”; “Yo estudié cocina, vida cívica y política y religión, en Bilbao. Era necesario para sacar el carnet de conducir”; “Estudiábamos cocina” (Busturiko Udala, 2005: 32-34).

Bigarren fasean, zerbitzua hainbat tokitan ematen zen: haurrentzako jantokietan, senidetan sukaldetan, kliniketan, ospitaletan, amatasun zentroetan... (Rebollo Mesas, 2001: 301-303). Gainera, 1941eko abenduaren 6ko Dekretuak Gizarte Zerbitzuaren betetzea ziurtatu zuen zehapenak eta ikuskapenak ezarri zituelako neurri hertsatzaile gisa. Gizarte Zerbitzua emakume guztien betebehara bezala ezarri zen 1944ko otsailaren 9ko Dekretuan, emakume askoren etxeko eta laneko bizitza oztopatuz, aparteko zerbitzuak eman behar zituztelako ordainsaririk gabe (Rebollo Mesas, 2001: 301-302). Landa eremuari dagokionez, 1941ean Landako Baserri-eskolak sortu ziren nekazariak prestatzeko eta laguntzeko eta emakumeek, euren lanarekin, aparteko diru-sarrera lortzeko helburuarekin, honela doktrina nazional-sindikalista landara eramanez. Elizateko emakume batek hau esaten zuen:

“Yo estuve tres meses en una granja escuela al lado de Amorebieta, de lunes a viernes, y si no cometía alguna infracción entre semana, no volvía a casa el fin de semana” (Busturiko Udala, 2005: 34).

1946an, azaroaren 26ko Ministro-aginduak Gizarte Zerbitzua betetzeko zenbait modalitate arautu zituen. Ohikoa, lanbide edo zereginik gabeko emakumeentzat, Emakumezkoen Ataleko Etxe Eskoletan hiru hilabeteko prestakuntza betez eta beste hiru hilabete ongintzako erakunde batean zerbitzua emanez. Barneko Gizarte Zerbitzua, non emakumeek bere mantenua ordaindu behar zuten, prestakuntza denboraren erdira edo Zerbitzu osoaren denbora hiru hilabetera murriztuz. Unibertsitateko Gizarte Zerbitzua, lau hilabetekoa, bi hilabete barnetegi erako prestakuntzarekin Ostatu-Eskoletan eta beste bi laguntzako, gizarteko edo kulturako eginkizunetan zerbitzua emanez. Gizarte Zerbitzuko hiru modalitate langileentzat, zerbitzutik salbuetsita baina prestakuntza betetzeko modua desberdina izanik. Gizarte Zerbitzua erizaintzat, non prestakuntza zatia

bakarrik bete bete behar zen. Gizarte Zerbitzua Etxe-eskolak edo zerbitzua emateko erakundeak ez zituzten herrietan, prestakuntza zatiaren azterketa gainditzean eta herrian zerbitzuak ematean edo etxean lanak egitean zetzana. Modalitate honi buruz, herriko zenbait emakumek esaten zuten:

“Yo hice por libre. Tenías que ir a Mazarredo a hacer un examen y luego entregar una labor. Yo hice un jersey”; “Alfombras con la piel de la mazorca. Los viernes como era vigilia nos ponían a comer delante de ellos para enseñarnos a utilizar la pala del pescado y todo eso. Y una de ellas me preguntaba haber a qué había ido yo allí y yo le dije: pues a sacar el carnet de conducir. ¿Cómo? Aquí se viene a servir a la patria. Luego en el examen ponías viva España y ya te aprobaban” (Busturiko Udala, 2005: 34).

Azkenik, Gizarte Zerbitzua atzerritarrentzat eta Afrikako probintzietan bizi zirenentzat, herrietakoa bezala garatu zena (Rebollo Mesas, 2001: 302-303).

María Teresa Gallegok azaltzen du:

“es de señalar el carácter discriminatorio y explotador del Servicio Social. Puesto que a quien obligó desde el momento de su creación, y en condiciones de mayor dificultad, fue a la mujer soltera que, bien para lograr su autonomía económica o por estricta necesidad, desempeñaba un trabajo remunerado. Eran muchas las presiones del régimen franquista para que el sector social formado por mujeres solteras, económicamente autónomas, no creciera y a ser posible fuera reducido” (Gallego Méndez, 1983: 95).

Emakume ezkongabea erregimenak nahi zuen emakumearen ereduaren kontrakoa zen, etxean eta familian zerbitzatzen aritzen zen emakume bat. Horregatik, erregimenak eta eliza katolikoak gizarte-presio handia egin zuten ezkongabetasuna saihesteko eta herriko hainbat emakumek hori adierazten dute:

“Se veía muy mal y conocemos gente que en su día las madres solteras antiguamente dejaban por ahí”; “Nik lagun bet dekot, aittak esaten nitzan hiru neba arreba ta neska bat: nire alabie estadun etorten bada, aizkora hartun eta txiki txiki eingot”; “Entonces era muy muy mal visto una chica embarazada. Kritika eitten zan asko eta hor elizi sartzen zan, eta kulpia guztia berak eukin eban. Askok kritikatzen zan. Apurtxu bet, deskuido bat eukitta marginatzen zan. Hori mentalidade euki dogu”; “Pekatu mortala zan, deshonra itzala”; “Gure denporan hori ba txarto ikusitxe zeon”; “Izaten zan pekatue. Ta egoten ziren total tapata. Zure etxien jakitten, 2 3 hilabetegaz ezkundu ta ez zan pasaten ezebez. Baina gero jaioten zen umie ta herrixari engaña ein gure, 7. Hilabetian jaio zala esan. Izaten zan un tabu”; “Mujeres solteras que han tenido críos pocas. Aquí, embarazadas se han casado muchas, ¿mal vistas? Pues tampoco” (Busturiko Udala, 2005: 59).

8. “GUREAK” FRONTEAN ETA OROITZAPENEAN: ERREPRESIO SINBOLIKOA, IDEOLOGIKOA ETA GERRA ZIBILAREN MEMORIAREN ERAIKUNTZA GERRA GARAIAN ETA LEHEN FRANKISMOAN

Frantziako Iraultzaren ondorioz Europako herritarrek mugimendu politikoek eta sozialek asmatutako eta hedatutako unibertso sinboliko oso bat ezagutu zuten, banako baten jarrera politikoa adierazteko eta jendea bere jarrera ideologikoz ohartzeko balio zutenak, beste adierazpen politikoekiko atxikimendua, aurkakotasuna edo axolagabetasuna ahalbidetuz (Mees eta Casquete, 2012).

Sinbolotzat honakoak hartuko ditut: “*cualquier objeto, acto, acontecimiento, cualidad o relación que sirve como vehículo a una concepción*” (Geertz, 1988). Kategoriatan sartuko lirarteke banderak, himnoak, gorputzeko keinuak, koloreak, jantziak, ikurrak, datak, pertsona ospetsuak... Hauen ezaugarrien artean hurrengoa azpimarra daitezke: taldeko identitatearen markatzailea, emozioen aktibatzailea, konektagarritasuna, kondentsazioa eta ekiteko gonbidapena. Sinboloen bidez banako bat talde batekoa dela ohartzen da eta beste taldeetatik desberdintzera laguntzen dio, atxikimendu edo gorroto sentimenduak sortuz banakoak sinboloarekin duen identifikazioaren arabera. Gainera, sinboloen bidez fisikoki ez dagoen eta abstraktua den zerbait, ideologia bezala, konektatzea eta sinplifikatzea lor daiteke, banakoen taldeko mobilizazioa eta ekintza ahalbidetuz (Casquete, 2003 eta 2006).

Espainiako II. Errepublikaren garaian, Udalak 1931eko maiatzean erosi zuen estatuko bandera berria²⁰⁸. Modu honetan *hiru kolorekoak* bandera *gorri-beilegia* ordezkatu zuen, 1843tik estatuaren sinboloa zena. José Anastasio Uriaguereca Aralucea zinegotziak proposatuta, Udalak Busturiko udaletxerako *ikurrin* bat eskuratzea erabaki zuen, bandera nazionalaren ondoan jartzeko, baina Rufino Fradua Arandia zinegotzia aurka egon zen erabaki horrek herriari gastuak eragiten zizkiolako. Zentzu honetan, Udalak zegokion talde politikoak zuzenean edo zaleen harpidetzaren bidez bandera ordain zezan erabaki zuen, eta 1932ko irailaren 25ean Uriaguerecak jakinarazi zuen eusko bandera lehen aldiz igo zela udaletxean, bandera nazionalaren ondoan, eta zaleen arteko harpidetzaren bidez ordaindu zela²⁰⁹. 1933ko martxoaren 17an Bizkaiko Gobernadore Zibilak udalei jakinarazi zien Errepublikako Gobernuak dekretatutako jaiegun guztietan hiru koloreko bandera igo behar zutela, eta beste egunetan udalek erabakiko zutela: “*potestativo de los mismos el colocarla en los demás días en que fuera habitual hacerlo con arreglo a la costumbre de la localidad*”. Udaletan eta Zentro Ofizialetan ezin zen bandera nazional espainiarra ez zen beste banderarik jarri, tokiko tradiziozko banderak izan ezik, bandera nazionalaren ezkerrean jar zitezkenak. Esan gabe zihoan erabat debekatzen zela udaletan eta Zentro Ofizialetan alderdi politiko baten bandera jartzea (“*cualquier otra bandera representativa de un partido político determinado*”)²¹⁰. Gerra Zibila hasi eta Autonomia Estatutua onartu arte ez zen udal-bilkuran tratatu ikur eta banderei buruzko Euzkadiko Behin-behineko Gobernuaren Dekretua, zeinaren bidez *ikurrina* Euzkadiko bandera ofizial bilakatu zen. Dekretu honen arabera Udalak zera erabaki zuen:

“adquirir cuatro de estas últimas para ondearles una en el balcón de la Casa Consistorial y las otras tres en las Escuelas nacionales, al lado de la República en los días en que deba hacerse”²¹¹.

Modu honetan *ikurrina* sinbolo politiko izatetik gobernuko agintaritzaren sinboloa izatera igaro zen, *hiru kolorekoa* bezala.

1936ko uztailaren 18an gerra hasi ondoren, matxinatutako unitate militarrek identifikatzeko zailtasunaren ondorioz, monarkiko/tradizionalisten eskakizunekin batera, Defentsa

208. BUA. Akta-liburua. 1931/05/12.

209. BUA. Akta-liburua. 1932/07/03; 1932/09/04; 1932/09/25.

210. BUA. Akta-liburua. 1933/03/19.

211. BUA. Akta-liburua. 1936/11/01.

Nazionalako Batzarreko matxinoek bandera gorri-beilegia ofizial egin zuten dekretu bidez 1936ko abuztuaren 29an. Hala ere, hauetan erabilitako ezkutuak errepublikanoa izaten jarraitu zuen, 1936ko irailaren 13ko Dekretuaren arabera, 1938an “*arranoaren ezkutu*” ospetsua onartu zen arte, Udalak 1940an erosi zuen 3 metroko banderak eramango zuena²¹². Busturian tropa matxinoak sartu zirenean *ikurrinaren* eta *hiru kolorekoaren* erabilera amaitu egin zen, honakoa itzuliz:

“la gloriosa bandera roja y gualda de cuantos antepasados en los campanarios de nuestras iglesias y en las cumbres de nuestros montes que, como a uno, iban conquistando, en jornadas gloriosas, en días sucesivos, en que no fueron pocos los que sucumbieron, por Dios y por España, hasta la total reconquista del terreno de este extenso término municipal, con la toma y expulsión del enemigo del imponente baluarte del Sollube, que le servía de apoyo para detener el empuje briso de nuestras fuerza que en vano procuraron contener”.

Honela, “askapenaren” hirugarren urteurrenean (“*liberación de Busturia por las Gloriosas tropas nacionales*”), JONSetako FETaren tokiko bulego nagusiak herritarrek gonbidatu eta animatu zituen bandera gorri-beilegia erabil zezaten: “*se engalanen los balcones y ventanas con colgaduras con los colores de la bandera nacional o con esta misma bandera sin tener que recurrir a sanciones siempre enjososas*”²¹³. Ziur aski udaletxea ospakizun honetan bandera gorri-beilegiz jantzi zela (“*bandera de seda de la España Nacional para ondearla en la balería de la Casa Consistorial*”), eta Udalak herriko neska-mutilei nazionalizatutako eskoletan erabiltzeko erosi ziren banderatxoak eman zizkien²¹⁴. 1944ko abuztuaren 24an, Sukarrietatik Bermeora zihoan trenbidearen obrak zirela eta, agertu ziren

“desde por la mañana engalanadas todas las casas situadas a ambos lados de la carretera, que se dirige a la Villa de Bermeo, en un trayecto de dos kilómetros dentro de la jurisdicción de Busturia, a cuya entrada se levantó un arco de grandes dimensiones adornado con la bandera nacional en homenaje de gratitud, dando la bienvenida a las autoridades con la siguiente dedicatoria: “Busturia os saluda cordialmente””²¹⁵.

Erregimenak entseina nazional berriarekin apaindutako herria aprobetxatzen zuen estatu berriaren fundatze-mitoak iraunaraztea eta garaile eta garaituen arteko banaketa argia bilatzen zuten urteko oroitzapen ugarietan. “Altxamendu Nazional Loria-suaren” (“*Glorioso Alzamiento Nacional*”) egunari (uztailak 18) beste data batzuk gehitu zitzaizkion: “Garaipenaren eguna” (“*Victoria*”), apirilaren 1ean, “Jose Antonioren heriotz-gatik atsekabearen eguna” (“*Dolor por la muerte de Jose Antonio*”), azaroaren 20an edo “Busturiaren askatasunaren eguna” (“*Liberación de Busturia*”), apirilaren 30ean. Dagoeneko azaldu dut nola tropa matxinoen sarreraren hirugarren urteurrenean JONSetako FETaren bulego nagusiak balkoiak eta lehioak apaintzera gonbidatzen eta animatzen zuen festa zela eta²¹⁶. Armada matxinoaren armetako gertaera garrantzitsuenak herrian ospatzeaz gain, Teruel konkistatu ostean kanpaiak jotzea adibidez (“*repi-*

212. BUA. Akta-liburua. 1940/05/30.

213. BUA. Akta-liburua. 1940/05/09.

214. BUA. Akta-liburua. 1937/12/30; 1938/05/28.

215. BUA. Akta-liburua. 1944/08/31.

216. BUA. Akta-liburua. 1940/05/09.

que de campanas en las primeras horas de la tarde en que llegó la grata noticia”), Udalak suziri bilduma bat eskuratu zuen horrelako ospakizunetarako (“mayor esplendor de las fiestas celebradas con motivo de la liberación de importantes poblaciones por el Glorioso Ejército de Franco”²¹⁷).

Ospatu beharreko egunen artean “Caudilloaren” eguna zegoen (urriak 1), Busturiko Udalak baztertu ezin zuen jaieguna²¹⁸. Ezizen horri Franco jeneralak etekin handiena atera zion bake garaian. Paul Prestonek adierazten duen bezala, “(Franco) adoptó un título equivalente al Führer y Duce en la forma de Caudillo, palabra que también relacionaba a Franco con los jefes guerreros del pasado medieval de España” (Preston, 1994: 238) eta “gurutzadaren” zuzendari bezala zuen dimentsio erlijiosoarekin lotzen zuen. Francoren irudia gogaikarria izateagatik funtzionatu zuen, bere nonahikotasunagatik, ez konbentzitze ahalmenengatik edo eraginkortasun propagandistikoagatik. Esaterako, 1937ko uztaillean “Generalísimo” Francoren erretratua, Calvo Sotelo eta José Antonio Primo de Riveraren erretratuekin batera, lehen Alfonso XIII, Severiano Martínez Anido, Miguel Primo de Rivera, Niceto Alcalá Zamora, Manuel Azaña edo José Antonio Aguirre Lecuberen tokia hartzen zuten udaletxearen ekitaldi-aretoan²¹⁹. Hilabete gutxiren ondoren Udalak Francoren erretratu ofizialaren argazkia zuen koadro bat erosi zuen, “Saludo a Franco” zigilu patriotikoak edo Francoren aipatutako argazki handituak erosteaz gain²²⁰. Franco “Caudillo” bezala aintzatesten zuten ekimen handien artean Espainiako udal guztiek “Espada de la Victoria” ematea zegoen, ezpata horrek udalak “Mugimendu Loriaztura” atxikitzen zirela adierazten baitzuen. Busturiko Udalak 34 pezeta eman zituen bitxi horretarako (“rica por su confección y valiosa por su significado”), eta aho batez erabaki zuen

“contar su complacencia por el honor que ha tenido en contribuir económicamente, en proporción a su población, para un obsequio de tan alta significación patriótica, como lo es el regalar al Invicto Caudillo la “Espada de la Victoria””²²¹.

Are gehiago, 1943an Udalak bere altxor eskasaren zati bat gastatzen zuen “Caudilloak” “Palabras del Caudillo” izeneko obran esaten zituen hitzaldiak erosteko²²².

Jakina, gerra bera eta armada matxinoa ezinbesteko elementuak izan ziren garaitu eta garaileen arteko ezberdintasuna ezartzeko, “Haiek eta Gu”, eta jadanik gerran hasi ziren narratibak eraikitzen gatazkari buruzko oroitzapenak finkatzeko (Herrero eta Ayán, 2016: 104-206). Dagokigun kasuan, herriaren okupazio militarra eta Busturiko Udala armada matxinora etengabe atxikitzea, beste batzuen artean, erregimen frankistak lehen urteetan garaituen aurrean legitimatzeko erabili zituen moduak izan ziren. Udalak ez zuen zalantzarik izan armada matxinoari laguntza ideologiko edo morala emateko orduan

217. BUA. Akta-liburua. 1937/10/11; 1939/04/27.

218. BUA. Akta-liburua. 1939/10/14.

219. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29; 1937/07/08; BFAAH. 1927/01/20; 1927/03/31; 1930/08/21; 1927/06/09; 1930/08/21; 1932/02/07; 1936/05/17.

220. BUA. Akta-liburua. 1937/09/30.

221. BUA. Akta-liburua. 1939/09/14.

222. BUA. Akta-liburua. 1943/04/15.

kanpainako gertaera garrantzitsuenetakoak gertatu zirenean, Teruel edo Bartzelona hartu zirenean, adibidez, eta gertaera horiek idatziz jaso zituen udal-aktetan, ahal zuen neurrian laguntza ekonomikoa emateaz gain²²³. Paper legitimatzaile hau, galtzaileentzat menpekotasun eta desohore adierazlea zena, argi ikusten dugu Udalak ulertzen zue-nean penintsulako iparraldeko probintziak guztiz konkistatzeagatik Nafarroako Brigadei egindako omenaldia zela

“el sentimiento de todos los buenos españoles que vieron rescatada su libertad por el brío combativo y el espíritu de sacrificio de aquellas fuerzas que son honra y orgullo legítimos del Glorioso Ejército Español”²²⁴.

Gerraostean gerra oso presente zegoen, halakoei esker: aipatutako herrien konkisten ospakizunak, gerrako martirien ohorez egindako mezak edo 1939ko apirilaren 1eko gerrako azken partea udaletxeko ekitaldi-aretoan 1940ko urtarrilaren 25ean jartzea²²⁵. Francoren ideiarekin arabera “*no deben conservarse vestigios de esta guerra una vez hecha la debida depuración*”²²⁶, baina Espainia berriak hondakin materialak erabili zituen gerra “*Gurutzada*” bezala azaltzeko, *onen* (garaileak) eta *espainiar txarren* (garaituak) artean. Gainera, materialtasun berriak erakitzeari ekin zen, altxatu ziren oroitzapenezko monumentuak adibidez, bi helbururekin: diskurtso historiko/ideologiko azpimarratua erakitzen laguntzea eta garaituak izan ziren *gorri-separatistak* oroitzeko baliabide mnemotekniko bezala balio izatea (Herrero eta Ayán, 2016: 106). Honi dago-kionez, Udala eta JONSetako FETaren tokiko bulego nagusiaren arteko 1939ko ekaina-ren 29ko akordioaren arabera, Juan Solay Monasterio zurginak eta Evaristo Galdospin harginak gurutze bat altxatu zieten hildako matxinoei Sollube mendian. 1939ko maiatza-ren 21ean gurutze hau peleginazio baten xedea izan zen, “*con regular contingente de público*”, eta gurutzea toki gailen batean jaso eta gero peleginaren alde otoitz egin zen “*con gran fervor el Santo Rosario en sufragio de las almas caídas, dándose al final los gritos de ritual*”²²⁷.

Gerra Zibila bukatu eta hiru urte geroago Bizkaiko Gobernu Zibilaria erakitako monumen-tuak, gurutzeak, hilarriak eta antzekoak interesatu zitzaizkion:

“(que) se hayan levantado dentro de los respectivos términos municipales en conmemora-ción de hechos de Armas de la Cruzada Nacional” (*para*) “celebrar la fiesta de la Victoria y obedeciendo órdenes superiores en las que se recomendaba una peregrinación a los lugares más destacados que fueron teatro de dura lucha entre nuestras victoriosas tropas el llamado ejército rojo”.

Izan ere, Udalak ez zuen aipatutako gurutzearen berri bakarrik ematen, gainera, Busturiko eliza nagusiaren kanpoko hesian beste gurutze bat eraiki zen Falangeko

223. BUA. Akta-liburua. 1938/02/24; 1939/01/26.

224. BUA. Akta-liburua. 1937/10/11.

225. BUA. Akta-liburua. 1939/04/27; 1939/06/15; 1939/06/29; 1939/08/31; 1939/09/14; 1939/10/14; 1940/01/25; 1940/05/09; 1940/12/12; 1944/06/29.

226. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] Eskuragarri hemen: <http://guerraenlauniversidad.blogspot.com.es/2014/10/una-arqueologia-franquista-del.html>

227. BUA. Akta-liburua. 1939/06/29; 1939/12/28; 1942/10/29.

fundatzailearen izenarekin, José Antonio Primo de Rivera, “*Dios y por España*” erorita-koen izenekin batera. Gainera Udalak adierazten zuen bertan biltzen zirela

“al conmemorar las fiestas y aniversarios importantes con ofrendas de coronas, las Autoridades civiles, eclesiásticas y del Movimiento y de público previamente invitado, cantándose los Himnos del movimiento por los niños y niñas de las Escuelas y del público asistente”²²⁸.

Martiriei egindako kultua *gorri-separatisten* aurka borrokatu ziren herriko auzotarrei emandako esker onarekin osatzen zen. Urbano Asla Landia auzotarrak, 24 urtekoa, 1935eko deialdikoa, Ortiz de Zárate Tertzio 3. Konpainiaren txapel gorria izan zena 1938ko irailaren 21etik, fronteian matxinoekin batera borrokatu ondoren Bizkaian jaiotako guztiei ematen zitzaizkien medaila eta diploma eskatu zituen 1939ko uztailaren 17an: “*Medalla y el Diploma creado en honor de los combatientes vizcaínos que sienten el legítimo orgullo de haber luchado por Dios y por España*”²²⁹. José Ramón Uriona Atela auzotarrak ere esker ona jaso zuen kanpainako medaila, gerran parte hartzeagatik, eta gurutze gorria lortu zituenean²³⁰.

Jaietan neska-mutilek, gizonak eta emakumeek mantra bat bezala garatzen zuten “*erritu nazionala*” deitzen zena, honetan zetzana:

“en saludar con el brazo en alto la bandera y el himno de la Patria, las banderas y los himnos del Movimiento nacional; gritar los vivas y saludos de España: el nombre del Caudillo, el “¡Arriba España!” de la juventud, el eterno “¡Viva España!”; cantar los cantos nacionales, el “Cara al sol”, el “Oriamendi”, el “Himno de la Legión””.

Patricio Escobalek gogoratzen zuen nola 1939ko Gabonetan, gauerdian, “*un grupo de soldados carlistas, estacionados en la carretera frente a la casa, entonaron el himno de Oriamendi*” eta nola “heriotzaren senargaien” talde batek (“*novios de la muerte*”) Legioaren himnoa kantatu zion (Escobal, 2005: 307, 311). Ana Jesús Serrano auzotarrak hurrengo gogoratzen du:

“Estando nuestra madre embarazada de mí la Guardia Civil se presentaba en Paineruene gritaban viva España, a nuestra madre la llamaban “puta roja”, y a nuestro padre palizas y palizas. Diariamente tenía que acudir a la Comdanancia de Marina y allí cantar el “Cara al sol”, y vivas a España, y día sí y día no, le daban palizas” (Egizábal eta Serrano, 2017: 377).

Gorak eta agurrak herritarren eguneroko bizitzako elementu txikietan ezarri ziren (korrespondentzia, jakinarazpen ofizialak...), Udalak zigilu patriotikoak erabiltzen zituelako dokumentu ofizialak zigilatzeke, adibidez “*Viva España*”, “*Arriba España*”, “*Segundo Año Triunfal*” edo “*Saludo a Franco*”²³¹. Dena den, “(los)deberes del español” (que constituían) “*el rito nacional*” (habían) “*de ser cumplidos con alegría, con disciplina, dándole a los actos populares, dentro del entusiasmo, la solemnidad necesaria*”. Riegoren himnoak *Errege-martxa* ordezkatu zuen Errepublika garaian, eta *Eusko Abendaren Eserkija*

228. BUA. Akta-liburua. 1942/10/29.

229. BFAAH. Administratiboa. J02247/027.

230. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 610/41 kausa.

231. BUA. Akta-liburua. 1937/09/30.

gerra garaian Euzko Jaurlaritzak ezarri zuen Euskal Herriko himno ofiziala bezala, baina Francok *Errege-martxa* berriz ezarri zuen himno ofizial bezala matxinoek kontrolatutako eremuan 1937ko otsailaren 27ko Dekretuaren bidez. Azpimarratu behar dugu ekitaldi hauetan gerra aurreko hiru sinbolo politiko ere izan zirela garaituen aurkako errepresioa instituzionalizatu zutenak: tradizionalisten txapel gorria, mahoizko alkandora urdina eta Falange Españolaren uztarrria eta geziak.

Azkenik, gauza xelebrea da ikustea estatu berriak ez zituela erabili Busturiko herriko kale eta plazen izenak, gutxienez 1945. urtea baino lehen. Esaterako, 1927an Altamirako plazak “Alfonso XIII” izena hartu zuen erregearen koroazioaren hogeita bosgarren urteurrena zelako, eta ospatzeko ekitaldi erlijiosoak egin ziren eta auzoko eskoletan erregearen izena zuen plaka bat jarri zen²³². Espainiako II. Errepublika aldarrikatu bezain laster, lehen Udalak erabaki zuen lehenengo gauza, lan honetan jadanik ikusi dugunez, ekitaldi-aretotik Alfonso XIII.en erretratua kentzea izan zen, Altamirako plazari izena ematen zion plaka bezala, “*Jaun Zuriñaren Zelaya*” izena hartu zuen tokia²³³. Gerraostean ohikoa zen tokiko agintari berriek kale zaharrei “Avenida José Antonio Primo de Rivera”, “Plaza del Generalísimo Franco”, “Calle José María Areilza”, “Avenida Carlos VII” edo “Travesía del Requeté” bezalako izenak jartzea (Tasio: 2016: 37). Hala ere, Busturiko Udalaren aktetan ez dut gerra aurreko kale-izendegian edo kale berriak, zeharkaleak, plazak eta abar izendatzerakoan aldaketarik aurkitu... 1945. urtea baino lehen. Harritzekoa da izen aldaketarik ez egotea Altamirako plazan, batez ere *euskarazko* izena delako, baina kale-izendegian aldaketarik ez egotearen arrazoia izan daiteke kale-izendegia baserrien izenek osatzen zutela eta, aldi berean, Busturiko auzoen izenak.

Jadanik aipatu dugu udalerrian euskarak zuen ezarpena oso handia zela, baina egia da horrezkero gaztelaniak herriaren bizitza politiko eta administratiboaren zati handi bat bete zuela, erlijioa oraindik ukitu gabe. Euskara eskoletatik, elizetatik eta kaletik baztertu zen, antzinako hizkuntza hitz egiten zutenei “*hablaran en cristiano*” esanez. Administrazioaile apostolikoak, Gasteizko apezpiku gisa aritzen zena, 1938ko martxoaren 1ean ekitaldi erlijiosoetan euskara erabiltzea debekatu zuen. Esamolde tipiko bat zen: “*Hispanidad, proa de la Cristiandad*”. Komandante militarren 1938ko maiatzaren 30eko Agindu batek zera esaten zuen:

“en las Iglesias no debe permitirse la predicación en vascuence y solamente si a su juicio considera que la mayor parte de los feligreses y asistentes aquellos desconocen el idioma español pudiera autorizarse diez minutos de pláticas en vascuence que resuma lo anteriormente expuesto”.

Gainera, izen euskaldunak ezabatu ziren eta erregistro zibilean ez zuten uzten jaioberriei jar ziezaieten, Agindu baten arabera:

“debe señalarse como origen de anomalías la morbosa exacerbación en algunas provincias del sentimiento regionalista que llevó a determinados registros buen número de nombres que no solamente están expresados en idioma distinto del oficial castellano, sino que entrañan una significación contraria a la unidad de la patria. La España de Franco no puede tolerar

232. BUA. Akta-liburua. 1927/04/21; 1927/05/12; 1927/05/19; 1927/06/16.

233. BUA. Akta-liburua. 1931/04/16; 1931/04/26; 1931/05/03; 1931/06/30; 1931/05/03.

agresiones contra la unidad de su idioma. Tal ocurre en las Vascongadas, por ejemplo, con los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista" (BOE, 1938/05/21).

Dena den, azaldutako neurriak hartu arren, zaila da pentsatzea udalerrriaren "*deseskeu-rizazio*" oso bat egon zenik. Euskarak udalerrian etxeko eta eguneroko hizkuntza izaten jarraitu zuen, hizkuntza horren erabilerak sor zituzkeen aldirikako gatazkak egon arren. Busturiko zenbait emakumek ondokoa gogoratzen dute:

"Ez dozkun itxitxen euskeraz eitten, baina eitten gendun"; "etxien bakarrik, geixau bapez"; "Bueno Altamiran asko eitten zan euskeraz eh! Eskolan erederaz baina kanpuen euskeras eitten gendun"; "Moja eitten dozkuen ixen guxtiak kanbixa. Ni Bakarne nasenez Soledad. Ta amuma jun zan esaten ez kentzeko umiari ixena eta berak esan: "usted la llama como quiera pero aquí será Soledad"; "Sistemie ixen zan erderazkua"; "Etorri kanpotarrak, que venían aquí a trabajar, que me parece muy bien, baina esaten dozkuen: "habla en cristiano" Ganera!" (Busturiko Udala, 2005: 73).

Félix Bilbao auzotarrak hurrengoa gogoratzen du eskolari buruz:

"Eran fascistas (*irakasleei buruz ari da*), nos pegaban y pegaban, no sabíamos castellano y por hablar euskara nos pegaban. Había un miedo terrible, nadie hablaba euskara en la calle, sólo en casa" (Egizábal eta Serrano, 2017: 391).

Antzeko gauzak esaten ditu Rosalina Iturbe auzotarrak:

"Cuando entraron los militares yo tenía seis años, edad con la que se empezaba en la escuela. Recuerdo cómo íbamos a la escuela de Altamira entre campos no había caminos. La profesora, doña Pascuala, nos pegaba muy fuerte con un palo en las manos. No nos dejaban hablar en euskara, pero nosotras no sabíamos castellano. En nuestra casa los padres sabían algo de castellano, la abuela nada. Así empezamos en la escuela a base de "solfes"" (Egizábal eta Serrano, 2017: 393).

9. BUSTURIATIK DEUSEZTATZE-ESPARRURA: ÁNGEL LECUONA BEITIA

erbesterratu espainiar asko Bigarren Mundu Gerran nahasi ziren 1939ko irailean hasi zenean. Francisco Javier Oleaga Aranguren eta Antonio Alegría Laucirica *Badalona* petrolio-ontzian nabigatzen zebiltzan 1941eko abenduaren 13an torpedoz eraso zite-nean Castell de Ferro eta Cabo Sacratiffetik milia gutxira²³⁴. Interesgarria da ere Estatu Batuetako itsas-armadan nabigatzen ibili ziren euskal sukaldarien istorioa. Koldo San Sebastiánek kontatzen du euskal itsasgizon asko bandera espainiarreko itsasontzietatik desertatu zutela Estatu Batuetako itsasontzietan ontziratzea lortzeko. 1906ko lege baten arabera, bandera amerikarreko itsasontzi batean hiru urte baino gehiago egoten zirenek herrialdeko nazionalitatea eska zezaketen. Estatu Batuak Bigarren Mundu Gerran sartu zirenean, euskaldun asko armadan sartu ziren edo mobilizatuak izan ziren. 1942tik 1947ra 800 euskaldunek inguru gerran parte hartu zuten gerra-ontzietako, garraio militarretako edo Estatu Batuetako, Britainia Handiko, Mexikoko edo Dominikar

234. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 461/48; 574/41 kausa.

Errepublikako merkataritza-ontzietako sukaldetan lan eginez²³⁵. Adibidez, Felipe Albizua Calzada busturiarra Atlantikoa zeharkatzen zuen merkataritza-ontzi ingeles batean nabigatzen ibili zen gerra garaian. Gerra amaitu zenean, herrialdera azken aldiz sartu zenetik, artzain bezala lan egin zuen Yakiman (Washington).

**Bigarren Mundu Gerran Estatu Batuetako itsas-armadako ontzietako
sukaldetan zerbitzatu zuten Busturian jaioak**

Abizenak, Izena	Itsasontzia	Lanpostua
Busturia, Galo	SS Edmund B. Alexander	Eltzezaina
Ugalde Zabala, José	SS México	Sukaldeburua
Ugalde, José	SS México	Bigarren sukaldaria
Ugalde, Julián	SS Cape Born	Sukaldaria
Uriarte, Ángel	SS Aztec/ SS William Moultrie	Sukaldeburua
Uribe, Antonio	SS Jamaica	Bosgarren sukaldaria

(Iturria: Koldo San Sebastián).

Dena den, Bigarren Mundu Gerran egon ziren busturiarren istorio interesgarriena eta gogorrena Ángel Lecuona Beitiarena da. Ángel Lecuona Beitia 1913ko martxoaren 1ean jaio zen, Altamira auzoko Apraize baserrian (Busturia). Hamaika anai-arreben nagusia zen, oso familia txiro batean, beraz, oso gazte ontziratu zen arrantza-ontzietan bizibidea ateratzeko. Espainiako itsas-armadan soldadutza egin ondoren, 1933ko deialdiaren bidez, 1936ko uztailaren 18ko matxinada gertatu zen. Agian itsasgizona izateagatik, deskribatutako beste busturiar asko bezala, merkataritza-ontzidian edo Euzkadiko Gudarostean zerbitzuak ematea erabaki zuen bere deialdia mobilizatzean. Euskal Herria esku matxinoetan erori baino lehen Kataluniara iristea lortu zuen. Han Ángel Lecuona Beitia *Batallón Alpino* edo *Batalló de Mutanya Basc-Cataláren* soldadua izan zen. Unitatea Barbastron borrokatu zen 1938an, gero Huescako frontera pasatu zen eta han martxoko eraso frankistak Benasque eta Sortera atzera egitera behartu zituen. Gero Piedras de Aolo, Alins-Aint de Besan, Vall Ferrera eta Tírvian borrokatu ziren. Jadantik aipatu dugu nola unitate hau Pirinioetako Taldean sartu zen, Frantziako mugatik eta Romadriu ibaitik jardun zuena 1939ko otsailaren 6ra arte.

1939ko otsailaren 10ean Pirinioetako Talde errepublikanoko zati handiena Frantziara pasatu zen. Frantziako muga Port Boutik zeharkatu zuten unitateko kideen artean Ángel Lecuona zegoen. Erbestealdian salbazioa bilatzen zuten beste gizon asko bezala, Frantziako agintariek urte horretako irailean Argeles Sur Mer-eko kostaldeko kontzentrazio-esparruan sartu zuten, Robert Capa argazkilariak “*hondarraren gaineko infernu*” bezala deskribatzen zuen esparruan. Frantziako esparruetan sakabanatuta zeuden euskaldun guztiak esparru bakarrean kontzentratzeko Euzko Jaurilaritzak izan zuen ideia oronoz, Ángel Lecuona Gurs-eko kontzentrazio-esparrura bidali zuten 1939ko apirilaren

235. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] <http://amerikanuak.blogspot.com.es/2013/04/cocineros-vascos-en-la-ii-guerra-mundial.html>

22an, eta bertan 1939ko ekainaren 30era arte egon zen, handik irten zenean (“cuando salió a Francia”). Bigarren Mundu Gerra piztean eta Frantzia naziek okupatzean, Gerra Zibilaren erbesteratutako langile merke bilakatu ziren. Busturiko auzotar batek gogoratzen zuen nola esplotatu zituzten: “*posteriormente al entrar en guerra Francia les sacaron del campo de concentración y les tuvieron trabajando en la tala de pinos no dándoles más jornal que la comida*”²³⁶. Une horretan Ángel Lecuona egurgile gisa lanean hasi zen Frantzian, Gestapok 1943ko uztailaren 10ean atxilotu zuen arte. Ez dakigu atxilotetaren arrazoia, baina gutun batean esaten denez “*fue inculcado por un motivo ridículo*”. Egia esan, naziek gure gizonari eman zioten tratamendua Erresistentziaren kide arriskutsuenei ematen zieten bera izan zen; beraz, inbaditzaile alemanen kontrako borroka armatuan paperaren bat izan zuela pentsa dezakegu. Orduan *Fuerte Hâ*-ko espetxe gogorrean (Bordelen) giltzapetu zuten eta gero *Compiègne* barneratzeko esparruan. Esparru honetatik *Buchenwald* kontzentrazio-esparrura deportatu zuten (40.476. zk.) eta toki honetara 1944ko urtarrilean iritsi zen. Espetxeratzeko arrazoia: *Politisch*²³⁷.

Otsailaren 24an *Flossenbürgera* bidali zuten (6.516. zk.). *Buchenwaldetik* abiatu zen konboian hurrengo hilabetetan bizitza galduko zuten dozenaka espainiarrekin joan zen. Martxoaren 3an *Kommando Hradischko* azpi-esparrura esleitu zuten, eta Pragatik 20 kilometrora lan egiten egon zen. Eta orain, istorio honen amaiera Gregorio Urangari utziko diogu, euskaldun gaztearen laguna, *Urrugnetik* Ángel Lecuonaren familiari hurrengo gutuna bidali ziona 1945eko uztailaren 16an:

“Muy Sr. Mío: Comprendo la ansiedad que reina en su familia, pues, no sé cuánto tiempo estará desprovisto de noticias referentes a su hijo. Refugiado de la guerra de España, estaba trabajando en Francia. El motivo de estar aquí, seguramente estarán al corriente, tan bien como yo, por lo tanto no insisto sobre este asunto.

Después hemos sufrido la ocupación de los alemanes, que como VD. sabe han cometido crímenes horribles, siendo una de entre las víctimas, su hijo. Desde su arresto, su hijo trabajaba en la fabricación del carbón, haciendo más o menos tráfico clandestino que le permitía vivir más fácilmente. Inculcado por un motivo ridículo fue arrestado y llevado al Fuerte die Hâ de Burdeos; más tarde conducido a Compiègne donde permaneció varios meses, siendo a continuación, siguiendo la suerte de muchos franceses y españoles, llevado a Buchenwald, —era este el lugar el régimen de seña—; cambió de campo partiendo para Floosemburg, donde estaba bajo el Comando “Haradiochov en Moldas-Praga.

Apenas su hijo llegó al Comando, cayó enfermo el pobre, muy enfermo, pues debió sufrir varias operaciones, siendo atendido de una pleuresía purulenta. A pesar de los débiles cuidados y malos tratos, pudo salir adelante, bien es verdad que alrededor de 7 meses tuvo que estar en la enfermería. Después de algunos días de convalecencia, su hijo siempre perseguido por la desgracia, fue enrolado en el grupo de trabajadores más duro de este desgraciadamente forzoso Comando 12. Siempre sorteando todas las dificultades, permanecía tranquilo y sufrido, ayudado por sus amigos de infortunio, resistiendo valerosamente a pesar de las intemperies, golpes y alimentación insuficiente para la vida de un hombre sobre todo para su hijo que se hallaba muy enfermo.

236. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3365/45 kausa.

237. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] Eskuragarri hemen: http://deportados.es/lekuona_historia.

Siempre con la esperanza de un fin próximo de guerra vivíamos juntos, pero desgraciadamente su hijo no podrá tener el cuidado y cariño de seres que le son muy queridos, tales como padres, hermanos y hermanas. Su hijo ha sido víctima de la barbarie nazi, habiendo sido fusilado por la S.S. el día 10 de Abril de 1945, en la carretera, marchando a trabajar en la carretera de Krisian a Haradistes en Moldas (Praga C.S.R.) Su cuerpo fue incinerado en el horno crematorio de Praga el día 13 de Abril de 1945.

Siempre juntos, sus pensamientos eran continuamente para Vdo. Así como para sus hermanos y hermanas. Ruego me dispensen de ser un fiel y piadoso intérprete, y de enviarles una carta tan cruel. Caso de que esta carta no les llegue a vuestro poder les remitiré otra; y en el caso de que hayan recibido, sírvanse acusar recibo enviando una carta dirigida a mi tío, con la siguiente dirección: Uranga. Juan Bautista Rentería. Alto de Capuchinos – Villa Julita – enea. Rentería

Participando de sus penas y de la pérdida de nuestro entrañable camarada vuestro hijo, sírvase aceptar mi más sincero pésame toda la familia Lecuona.

(Firma)

P.S. Podía ser que hacia fines del mes próximo tuviera la ocasión de verles, entonces les daré más amplios detalles.

(Firma)²³⁸

*Flossenbürg*eko Memorialaren arduradunak, Joerg Skriebeleit, Ángel Lecuona Beitia exekutatu izatearen ustezko arrazoia argitu zuen. 70eko hamarkadan *Flossenbürg*eko hiru azpi-esparruei buruz Alemanian egindako ikerketa-txostenen arabera (*Hradischko*, *Benesov* eta *Janovic*), handik hurbil SSen trebatze-zentro bat zegoen Bohemian. 1945eko apirilaren 8an, SSetako guardiak presoak miatu zituzten eta armak topatu zituzten. Baina auzitegi batek hainbat urte geroago esan zuen bezala, armak ez zituzten presoek ezkutatu, SSkoek baizik, presoak hiltzeko arrazoi bat bilatzen zutelako. Miaketaren hurrengo egunean, bederatzi preso erailak izan ziren, 10ean beste hamabi eta 11n hogeita zazpi. Exekuzioak ez ziren “ofizialak” izan, hau da, egunero egiten zuten lanerako bidean, atzerriko langileek ilararen bukaerara joan behar zuten eta SStako guardiek hauetako zenbait hiltzen zituzten sistematikoki. Honek ezohikoa dirudi, baina bizirik atera ziren askok istorioa baieztatu zuten auzitegiaren aurrean.

Antón Gandariasek —eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiot emandako dokumentazioetatik—, urte asko darama borrokan bere osaba Ángel Lecuona Beitiaren istorioa argitzeko eta zabaltzeko. *Flossenbürg*eko esparruan hiru aldiz egon da, behin bere emazte eta seme-alabekin, eta bere lana eskertua izan da kontzentrazio-esparruaren erakusketak iraunkorrean Elena Rodríguez Codd historiagileak idatzi duen azalpen-taula bat jarritz. Berriro ere, gizarte zibila erakundeen aurretik doa eta elkarriketa batean onartzen zuen oraindik gobernu alemanak, frantsesak edo espainiarrak ez diotela jakinarazpen ofizialik bidali. Dena den, Busturiko Udalak bere kasuari buruz hartutako konpromisoa adierazi zuen, 1937ko abuztuaren 5ean fusilatu zituzten auzotarrei buruz hartutakoa bezala (Gara, 2010/06/20).

238. Antón Gandariasek utzitako gutuna, bere osaba Ángel Lecuona Beitiari buruz.

10. ONDORIOAK

Nahiz eta Bizkaiko landa-mundua iragazgaitz eta erreakzionario agertu hemeretzigarren mendeko liberalismoak aurrerakadaren aurrean, XIX. mendearen bukaeran alderdi politiko berriak euren lekua topatzen hasi ziren tokiko mapa politikoan. 1916an Busturiko Udalak jadanik nazionalista *jeltzale* bat zuen bere zinegotzien artean. 1916-1923 denbora tartean monarkiko-tradizionalisten eta *jelkideen* arteko borroka areagotu egin zen udalean gero eta nazionalista gehiago egoteagatik. Euskal nazionalistak gutxiengoa izan arren, oposizio aktiboa eta eraginkorra osatu zuten. 1923an Primo de Riveraren diktadura heldu zenean, Udalaren tentsio politikoa larderiak lasaitu zen. Dena den, 1924an argi zegoen Busturialdeko bipolarizazio politikoa errealitate bat zela eta Busturiko hautesleak mugitu zirela monarkia tradizional foruzalearen eta nazionalismo sabindarraren artean, batez ere Primo de Riveraren espiritu birsorkuntzaileak akabatu nahi izan zuen jauntxokeriari esker.

Primo de Riveraren diktadura erori, Berengueren gabinetea erori eta Aznar almirantearen menpeko gobernuak eratu ondoren, udal-hauteskundeak antolatu ziren inoiz egingo ez ziren legegintza-hauteskundeen aurreko pauso bezala. 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeak monarkiaren azkenekoak izan ziren. Dena den, 1907ko hauteskunde-legearen 29. artikulua arabera, EAJko hamar hautagaiak izendatu ziren Busturiko Udalaren zinegotzi bezala. Nazionalista ez zen eskuinak eta tradizionalismoak ez zuten hautagarik aurkeztu udal-hauteskunde hauetarako, ziur aski hauetako zati handi bat EAJra afiliatzen bukatu zelako edo zetozen denboren ziurgabetasunagatik. 1931ko apirilaren hauteskundetan alderdi errepublikanoen hiri nagusietan lortutako garaipenak Alfonso XIII.ren erorketa arindu zuen eta bi egun geroago II. Errepublika aldarrikatzea ekarri zuen. Huts legaleko eta barruko ezegonkortasuneko une hori euskal nazionalismoak aprobetxatu zuen euskal Errepublika bat berresteko eta errebindikatzeko Iberiar Federazio baten barruan. Agian *jeltzaleak* gehiengoa zirelako, jarrera hori Busturiko Udalak oso argi zeukan 1931ko konstituziotik, eta horrela jarraitu zuen 1936ko Estatutua lortu arte.

Busturia biztanle gutxiako udalerrri baten adibide argi bat zen eta Errepublika garaia arte ezkerreko alderdien aurka iragazgaitza izan zen, 1931ko apirilean euskal nazionalistek hartu zutena eta EAJk ia guztiz monopolizatu zuena errepublika urteetan erregimen frankista heldu arte. Errepublika garaian elizatean tokiko elkarte errepublikanoak ezarri ziren. Hauen jarduera politikoa udalerrian *jelkideena* bezain intentsoa izan ez arren, azken hauek herrian bi *batzoki* izatera heldu baitziren, garrantzitsua izan zen gero 1936ko kolpe militarri aurre egiteko garaian. Baina bi ideologiaren arteko harremanaren ezaugarriak ez ziren solidaritatea eta adiskidetasuna izan, gerran gertatuko zen ez bezala. EAJ Fronte Popularraren ezkerreko politikoki hurbildu zitzaion arte bien arteko harremana zakarra izan zen eta bi norabideetan eraso fisikoak edo ahozkoak egon ziren. Eraso horiek udalerrian ikusi ziren hauteskunde kanpainetan edo bozketetan bertan. Bi indarrek ordezkariak izan zituzten elizatean, eskuin ez nazionalistak edo tradizionalismoak ez bezala, garai errepublikanoan herrian lasai ibili zirela itxura emanez.

Borroka estatutarioa funtsezkoa da ulertzeko EAJ Fronte Popularrera hurbiltzea 1936an, eta matxinada militarren garaipena edo porrota 1936ko uztailaren 18ko Euskadi hartan. Alde batetik, Araba eta Nafarroa antierrepublikarrak ziren, gatazka sozial gogorra zuten eta kolpe militarra guztiz ezarrita zegoen. Hauen aurrean Gipuzkoa eta Bizkaia zeuden. 1934. urtera arte bi probintzietan istilu zakarrak egon ziren indar politikoen

artean. Baina EAJ erregimen errepublikanoan sartu zenean eta eskuin espainiar ez nazionalistarekin eta tradizionalismoarekin apurtu zuenean, nazionalistak estrategikoki Fronte Popularetik hurbil geratu ziren.

1936ko uztailaren 18ko matxinadan, Busturian ezarritako bi indar politikoei, EAJ eta Ezker Errepublikanoa, ez zitzaien zaila gertatu herriko kontrola mantentzea, tokiko eskuinen eta tradizionalisten pasibitatearen aurrean. Bi indar hauek Tokiko Defentsa Batzordeko postu guztiak bete zituzten ere, 1936ko uztailaren amaieran sortu zen erakundea. Une horretan herrian tokiko dualtasun administratibo bat agertu zen. Alde bate-tik, Tokiko Defentsa Batzordea zegoen, Bizkaiko Defentsarako Komisaria Orokorra eta herriko erakunde politiko/sindikalen arteko transmisio erakunde nagusia (kudeatzaile nagusia izateaz gain hornikuntza, errefuxiatuentzako laguntza edo gerrako kontuetan), eta beste alde batetik, Udala zegoen, 1936ko hauteskundeen ostean postuak berres-kuratu zituzten banakoek osatzen zutena. Bizkaiko Defentsa Batzarra 1936ko abuztua-ren 12an eratu zenean, Gobernuak Euskal Herriko tokiko bizitza politiko-administratiboa kontrolatzea eta kudeatzea erabaki zuen, orain arte uztailerako kolpe militarren ostean sortu ziren tokiko botere berriek egiten zutena. Horretarako, kolpe militarra gertatu eta ondorengo lehen egunetan udalek galdu zituzten eskumenak, Espainiako Errepublikaren alde zeuden alderdi politiko eta sindikatuek hartu zituztenak, erakunde berri baten barruan berrantolatu ziren: Tokiko Defentsa Batzarrak. Tokiko Defentsa Batzar hauek ez ziren udalak. Eraketa eta funtzionamendua ez ziren baliokideak izan, ezta haien atribu-zioak ere. Tokiko Batzarrak gobernu errepublikanoaren boterearen ordezkariak izan ziren toki-mailan, Errepublikaren interesak gorde behar zituzten eta gerrako egoera ezohiko batean jaio ziren, Administrazioak erabili zuen elementua gerra kudeatzen laguntza iza-teko. Udalen funtzio administratiboak mantentzen ziren baldin eta gerrako lanak oztopa-tzen ez bazituzten. Orokorrean, Gerra Zibilari buruzko tokiko euskal historiografiak Tokiko Defentsa Batzordea eta Tokiko Defentsa Batzarra nahasten ditu eta kolpe militarren ostean sortu ziren tokiko erakunde hauek berdintsuak ziren baina, aldi berean, ezberdi-nak, lan honetan erakutsi den bezala.

Matxinada militarren ostean EAJ Espainiako Errepublikaren alde jartzeak eta 1936ko otsailatik aurrera EAJ eta sozialismo espainiarraren arteko harreman onek 1936ko urriaren Euskal Estatutua onartzea erraztu zuten. Estatutu hori 1933ko azaroan euskal herritarrek bozkatu zutenaren laburpen bat zen. 1936ko urriaren 7an Euzko Jaurlaritza eratu zen eta honen barruan EAJk lehendakaritza eta gerrako zuzendaritza izateaz gain, ordena publikoa mantentzeko edo justizia aplikatzeko funtsezkoak ziren sailak zituen ere.

Une horretan 1936ko uztailaren 18tik aurrera matxinoen aurka oso aktiboak izan ziren indar politiko eta sindikalak, errepublikanoak eta ezkerroak, eta CNTko anarkistak modu partikularrean, bigarren maila batean geratu ziren, kasu batzutan Euzko Jaurlaritzatik kanpo ere (CNTren kasua, adibidez), gerrako zuzendaritzari zego-kion guztian, nahiz eta ordura arte zuzendaritza sozialista batek izan zuen. Gerrako zuzendaritzan aldaketa egon zela ikus daiteke Euzko Jaurlaritzak Bizkaia bizi zuen tokiko dualtasun administratiboarekin bukatzea erabaki zuenean eta Tokiko Defentsa Batzarrak desgiteari ekin zionean; batzar hauek Errepublikaren aldeko indar poli-tiko guztiek osatu behar zituzten, CNT barne, eta Gobernuari gerra kudeatzen lagun-tzen zioten. Defentsa Batzarrak desgitean gerrako zuzendaritza Euzko Jaurlaritzaren eskuetan zentralizatzen zen, *Lendakariaren* eskuetan hain zuzen ere, lehendakariak

Defentsa Sailak jarraitzen zuen politikaren laguntzaile soil gisa ikusten baitzituen udalak.

Uztailaren 18ko matxinadak udal-boterearen etenaldia eta eskuineko zinegotzien kargugabetzea ekarri zuen, matxinoen aldeko udaleko edo probintziako langileei ere gertatu zitzaiena. Hala ere, beste udaletan jazotakoa ez zen Busturian gertatu, eta udalak eta langileek berdinak izaten jarraitu zuten. Garbiketa eta errepresio errepublikanoari dagokionez, jadanik aipatu dut EAJren lehentasuna ordena publikoa mantentzea zela. Gipuzkoan agerikoagoa izan zen kezka hori, *jeltzaleek* kontu honetan eskumena zuten zuzendaritzak zituztelako Gipuzkoako Defentsa Batzarrean; Bizkaian, aldiz, ordena publikoko kudeaketan bigarren mailan geratu ziren, baina modu eraginkorrean kontrolatu zuten Euzko Jaurilaritza eratu arte. Busturian Tokiko Batzordearen lehendakaritza Ezker Errepublikanoko ordezkari batek okupatzen zuen, gehiegikeria iraultzaileak eragozteko asmoz, Euskal Herriko edo Estatuko beste tokietan eskuindarren erailletak edo atxilotetak eta eskualdean elizaren aurkako ekintzak ekarri baitzituzten; EAJk Busturiko Tokiko Batzordean parte hartu zuen ordena publikoko arduradun bezala. Baliteke Tokiko Defentsa Batzarrean ere *jeltzaleak* ordena publikoko arduranak izatea. Ordena publiko eta justiziarekiko kezka honen barruan, Euzko Jaurilaritzak tokiko epaile eta fiskalak kargugabetu zituen beste batzuk izendatzeko, eusko lurraldean justizia kontrolatzeko asmoz. Errepresio ekonomikoari dagokionez, Euzko Jaurilaritzak une orotan ikertuekin mantendu zituen berme prozesalei esker grinek ez zituzten mendeku pertsonalak ekarri, batez ere maizterren eta jabeen arteko kontuetan UBIren bidez. Kolpe militarren ondoren elizatean zegoen banaketa politikoko giroa oso argia zen, baina oso salaketa, atxiloteta edo miaketa gutxi oinarritu ziren pertsonen joera politikoa eta ez delitu batean. Hala ere, aipatu behar dugu erlijioso bat estraofizialki exekutatu zela, nahiz eta, dirudieenez, herrikoak ez ziren eta EAJko indar militarretatik kanpo zeuden pertsonak egin zuten tentsio handiko testuinguru batean etsaia hurbil zegoelako. Azkenik, aipatu behar dut ere jabetza pribatua errespetatu zela, Busturian oso konfiskazio gutxi egin zirelako.

Busturiko elizatean nabarmentzekoa da bere auzokideen mobilizazio altua matxinoen aurka armekin borrokatzeko. Herria nabarmendu zen Guardia Hiritarra osatzeko bidali zituen gizon eta armamentu kopuruan, agian herrian zegoen eskuindar kopuruagatik edo zaintza eta kontrol lanak egiteko tokiko segurtasun talderik ez egoteagatik, hori izan baitzen Guardia Hiritarrak egin zuena gerrako lehen egunetan. Egun ditugun lanekin eta datu-baseekin ezin dugu hain denbora gutxian analisi oso bat egin, Euzko Jaurilaritzak dekretatu zuen mobilizazioa baino lehen, herritarrek fronteetara joateko euren kabuz egin zuten mobilizazio eta partaidetzari buruz; baina Busturiko jendea dagoela borroka fronteetan milizianoen lehen zutabeetan dokumentatu da.

Errepublikako Gobernuaren militarizazio politikak eragina izan zuen Euskadin. Euzko Jaurilaritzaren eskumena zen eta *Lendakariak* berak bere gain hartu zuen, Estatutuan berariaz ezer agertu ez arren. Euzkadiko Gobernuak miliziak militarizatu zituen, milizia hauek gehienbat kontrolatzen zituen alderdi politikoa edo elkarte sindikalaren aginteari bakarrik erantzuten zieten arren. Teorian, Busturiko deialdiengatik, 371 gaztek zerbitzatu behar zuten Euzkadiko Armadako Gorputzean, baina praktikan gerrako gertaerek eta gazte bakoitzaren egoera pertsonalak armadan sartzea baldintzatu zuten. Eusko Jaurilaritzak soldadutzara deitu zituen gazteen partaidetza %28,30ekoa, gutxienez, izan zela dokumentatu ahal izan dugu lan honetan. Busturian errekrutatu zen soldaduaren profil soziologikoari dagokionez, Busturiko borrokalariak herrian jaiotako gizonak ziren,

ezkongabeak, 26 urte inguruko batez besteko adinarekin, lanbidea itsasoan edo nekariztan zuten eta euskal adskripzio nazionalistako unitateetan edo Euzkadiko Armadako Gorputzaren formazio erregularretan zeuden. Euzkadiko Armadan identifikatutako borrokalarien erdiak baino gehiago euskal adskripzio nazionalistako unitateetan egon ziren arren, ziur aski Busturiko norbait egongo zen Euzkadiko Gudarosteko edozein unitatean. Azpimarratzekoa da ere gudariak edo milizianoak zuen irudi errromantikoaren aurrean, frontera joateko emaztea eta seme-alabak uzten dituen, frontera joan behar duen pertsona gazte eta ezkongabearen irudia gailentzen dela, bere guraso eta anai-arreben kezka eta nahigabearekin.

Herriko eguneroko bizitza gerra garaian Bizkaiko beste herrietakoaren antzekoa zen: Gipuzkoako errefuxiatuak heldu ziren 1936ko irailean, eskoletan ikasturtea irakasle berriei hasi zen... Busturialdean egon ziren bonbardaketei dagokienez, batez ere, baina ez guztiz, Sollube mendian izandako batailen testuinguruari lotuta egon ziren. Busturiko herrigune batzuk Sollube menditik hurbil dauden arren, badirudi Busturiko bost herriguneak abiazio matxinoak ez zituela espezifikoki bonbardatu. Hala ere, Gernikako ondoko herrian historiako bonbardaketarik ospetsuenetakoa gertatu zen, kriminala eta ankerra izateagatik, eta oraindik auzotarrek oroitzapenean dute, batzuk zuzenean ikusi zutelako eta beste batzuk aita eta amengandik jasotako oroitzapena dutelako. Bertan galdu zuen bizitza Busturiko agure batek. Azkenik, bonbardaketaren kontuarekin amaitzeko, adierazi behar da beldurra pertsona guztiengan aurki daitekeen sentimendu bat dela, eta horregatik herrian eta etxe partikularretan jendea babesteko tokiak prestatu zirela. Elikadurari dagokionez, Bilboko itsas blokeoak eta merkatu nazionalaren erroketak errazionamendu-sistemaren ezarpena ekarri zuten eta Euzko Jaurlaritzak errazionamenduaren menpe zeuden produktuen ekoizpena eta banaketa kontrolatu zituen. Dirudienez, Busturiko baserritarrek ez zuten inoiz barazkien, esnearen edo haragiaren falta izan. Honela, baserritarrak hiriko biztanleek merkatu beltzean ordaintzen zituzten prezio altuez ekonomikoki aprobeztatu ziren. Hiriko biztanleek *baserritarrarengan* gosearen irteera ikusi zuten. Errazionamendu errepublikanoa tropa matxinoak sartu zirenean kendu zen, baina gerraostean errazionamendu-sistema berriro ezarri zen 50eko hamarkadaraino.

Matxinoak Busturitik gero eta hurbilago zeudenez, elizateko herritarrek eta udaleko langileek ebakuazio agindua jaso zuten. Batzuk 1937ko martxoaren 29an herria utzi zuten, agian betirako, Bilbo Handirantz edo Bizkaiko mendebaldeko herrietarantz babesaren bila; aldiz, auzotar eta udaleko langile batzuk geratzea erabaki zuten hurrengo egunean matxinoei harrera egiteko. Joseba Agirreazkuenagak adierazten du gutxi gora behera %20ak utzi zuela elizatea, eta hurrengo urteetan udal-eroldaren zuzenketan egon ziren baje kopurutik hurbil dago. Auzotar asko Frantziara heldu ziren, batzuk berriz lurralde errepublikanoan sartzeko beste fronteetan borrokatzeko. Frantziara egin zen erretreta orokorraren ondorioz, Busturiko auzotarrak edo Busturian jaioak ziren 16 pertsona kontzentrazio-esparruetan egon ziren. Frantziara joan zirenetatik batzuk Espainiara itzuli ziren Bigarren Mundu Gerra hasi zenean eta Frantzia naziek okupatu zutenean eta beste batzuk erbestaldia jarraitu zuten lurralde amerikarretan.

Tropa matxinoak sartu zirenean Busturia tokiko dualtasun administratibora itzuli zen, baina oso modu ezberdinean. Udal errepublikanoa Bilbon berrantolatu nahi zen, baina zinegotziak eta langileak Bizkaia osoan sakabanatuta zeuden edo Euzko Jaurlaritzak mobilizatu zituen; elizatean matxinoek Batzode Kudeatzaile bat ezarri zuten 1937ko

maiatzean, udal gobernuaz arduratzeko. Udal errepublikanoak 1937ko ekainera arte bakarrik iraun zuen Bilbo matxinoen eskuetan erori zelako; aldiz, agintari frankistak 40 urte geratuko ziren. Une hartan Udaleko idazkaria zena Udala administratzeaz arduratu zen Batzorde Kudeatzailea eratzen zen bitartean. Horretarako herriko eskuindar batzuen laguntza izan zuen (horietako norbaitek gero udal-langilea izatea lortuko zuen), batez ere herritarrek eta Sollubeko batailaren zioz han zeuden tropa matxinoak hornitzeari zegokionez.

1937ko maiatzaren 20an Batzorde Kudeatzailea eratu zen eta funtzionario administratiboak, menpekoak, teknikariak edo medikoak garbitzeko eta berrizatzeko lana hasi zen. Bere eginkizunak uzteagatik, hau da, 1937ko martxoaren 29an udalerritik alde egiteagatik, udaleko ariel-biltzaile, udaltzain, udal-ehorze, iturgin, lorezain eta udal-gordailuzain karguak okupatzen zituztenak kargugabetu ziren. Kale-garbitzailea eta erloju publikoaren arduraduna kargugabetze ofizialetan agertzen ez diren arren, Udaleko langileak zirelako eta ez funtzionarioak, beste pertsona batzuek ordezkatu zituzten. Elizateko sendagile titularra atxilotu eta Gasteizera bidali zuten. Isun ekonomikoa ordaindu eta gero desterratua izan zen. Kargua berriz eskatu zuenean garbiketa txostena ireki zioten eta bi hilabetez lana eta soldata kendu zioten ideia errepublikanoak edukitzeagatik. Denbora gutxi igaro ondoren hil egin zen istripu baten ondorioz. Udal-danbolindariari eta arkitektoari dagokionez bi postuak amortizatuak izan ziren, eta ez dakigu Udalaren gabetasun ekonomikoagatik izan zen edo bata Bilbora joan zelako ebakuazioan eta bestea Euzkadiko Armadako Gorputzean zerbitzua eman zuelako. Adierazi behar da danbolindariak gutxien zerbitzua ematen jarraitu zuela, beraz, baliteke bi postuen amortizazioaren arrazoia ekonomikoa izatea. Zalantza gehien eragiten duen kasua udal-albaitariarena da. Kargua berriz eskatu zuen arren ez dut garbiketa txostenik topatu. Hala ere, badi-rudi albaitari bezala lanean jarraitu zuela 1941era arte. Azkenik, idazkaria dugu. Kargua berriz eskatu behar izan zuen, baina agintari matxinoek bere leialtasunaren berri zuten eta karguan jarraitu zuen arazorik gabe.

Garbiketa prozesu honetan ezin ditugu ahaztu probintziako langileak eta lehen irakas-kuntzako irakasleak. Garbituak izan ziren probintziako langileen artean bidezaina zen auzotar baten kasua bakarrik aurkitu dugu; hala ere, Busturian jaiotako miñoi batek ere bere lana galdu zuen jurisdikzio militarrek egindako garbiketaren ondorioz. Irakasleriari dagokionez, estatu berriak, Errepublikak bezala, erregimen politikoaren jarraitzaileak hezteko tresna egoki bezala erabili zuen eskola. Eskola errepublikanoaren ezau-garri nabarmenak ezabatu zituen eta Bizkaiko Aldundiko auzoko eskolak nazionalizatu zituen, baina ez zen hor geratu. Mota guztietako irakasleria garbitu zuen ere. Gainera, Irakaskuntza Ikuskatzaileen baimena ez zuten eta eskola partikularrak ematen zituzten irakasleak jazarri zituen. Oro har, gerraren ondorio agerikoenek (birrinketak, materiala-ren galera, mobilizazio militarra...) eta irakasleriaren garbiketak eskolen funtzionamendu irregularra eragin zuten 1937. eta 1945. urteen bitartean.

Ikerketan dokumentatu da nola elizateko 4 emakumeri eta 56 gizonei, 1935eko erroldan zeudenen %2,85eri, txosten judizialak ireki zitzaizen 1936ko uztailaren 18a baino lehenago eta gerran zehar izan zuten jarduera ikertzeko, garbitzeko eta zigortzeko. Auzitegi militarrekin, jurisdikzio militarra ohikoaren gainetik jarri zen. Errepresioa *juridifikatzen* hasi zen. Beste delituen artean, hurrengo delituez akusatuak izan ziren: “*auxilio a la rebelión*”, “*adhesión a la rebelión*” edo “*excitación a la rebelión*”. Nahiz eta eurek izan ziren matxinoei aurre egin zietenak. Hauen artean ere topatu ditugu desertzio

delituez akusatuak izan ziren herriko gazteak, matxinoek kintak mobilizatu zituztenean. 1931ko Konstituzioaren legezkotasuna kontuan hartu eta errespetatu ez zuen armada baten desertoreak ziren, eta Konstituzio hori zen lurraldean errekrutatzeko legezkotasuna ematen zuen. Estatu berriak berea den legezkotasuna sortu zuen jadanik existitzen den legezkotasun errepublikanoa suntsituz edo deformatuz, legeko gobernu bezala aurkezteko nahiz eta horrela ez izan.

Irekitako txosten guztietatik 11 heriotza zigorrekin ebatzi ziren. Heriotza zigor horietatik sei 1937ko abuztuaren 5ean exekutatu ziren; beste bostak 30 urteko espetxealdiagatik konmutatu ziren. Zenbait epaiek ere 30 urteko zigorra ezarri zieten herriko beste bi auzotarrei. Heriotza zigorrari eta bizi arteko zigorrari beste zigor hauek gehitu zitzaizkien: 20 urteko zigor bat; 15 urteko zigor bat; 12 urte eta egun bateko bost zigor; 10 urte eta egun bateko zigor bat; 6 urte eta egun bateko zigor bat; urte bateko espetxealdi militarreko 3 zigor eta 6 hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiko 2 zigor. Kondena batean bukatu ziren epaiak gehienbat 1937-1939 tartean eman ziren arren, batez ere 1937ko udan, beste zati handi bat 1940 eta 1945 urteen artean eman ziren. Azken tarte honetan eman zirenak ustezko desertzio delitu batengatik irekitako kausei dagozkien. Kausa hauek Bigarren Mundu Gerra eta Frantziako okupazio naziaren ondorioz Espainia berrira itzultzea erabaki zuten erbesteratu politikoei zegozkien. Denboraldi horretan erregimen frankistak presoek kopurua murriztu nahi zuen, estatua kartzela handi bat baitzen. Horregatik, epealdi horretako epai gehienak azkenean artxibatu egin ziren. Epai honetako batek espetxealdi zigorraren bat ezartzen bazuen, urte bateko espetxealdi militarra adibidez, auzipetuak gerraosteko lehen urteetatik aldarrikatu ziren neurri onuragarriez aprobetxatu ahal izan ziren. Elizateko preso asko ere neurri horietaz aprobetxatu ziren eta emandako kondenak osotasunean ez betetzeko aukera izan zuten.

Oso zaila da jakitea espetxeren batean egon ziren auzotar guztiei buruz, horietako askok denbora gutxi eman ahal izan zutelako espetxealdi prebentiboan behin-behineko kartzelatan inongo erregistrorik gabe, baina 1935eko udal-errolako %2,18 gutxienez espetxeren batean egon zen. Dokumentazioaren arabera, elizateko 46 auzotar espetxe batetik edo gehiagotik igaro da 1937tik 1945era matxinoek eragindako errepresioaren ondorioz, ez delitu arruntak egiteagatik. %2,18 horretatik %86,96 gizonak dira eta %13,04 bakarrik Busturiko emakumeak ziren. Gizonen dagokienez, %72,9 Busturian jaioak ziren, %17,5 Busturialdeko beste herrietan jaioak ziren eta %9,6 Gipuzkoan jaioak ziren. Batez besteko adina 39,2 zen. Dena den, garrantzitsua da adieraztea preso gazteenak 19 urte zituela eta zaharrenak 65. Egoera zibilari dagokionez, %62,5 alargunak seme-alabekin edo ezkonduak ziren, gainerakoak ezkongabeak izanik. %52,5en lanbidea nekazaritza zen, eta %45 itsasgizonak ziren. Gainerako ehunekoa zati berdinetan banatzen da irakasle, zurgin, igeltsero, sendagile eta merkataritza-perituen artean. Gutxienez %42,5 EAJko edo ELAko afiliatuak edo zaleak ziren, %12,5 IRkoak ziren eta %5 bakarrik PS/UGTkoak. Emakumeen dagokienez, %66,66 Busturia inguruko herrietan jaioak ziren: Arrieta, Ibarrangelu eta Gernika. Gainerako ehunekoa zati berdinetan banatzen zen Bilbon eta Busturian jaio ziren bi emakumeen artean. Batez besteko adina 40,83 zen. Egoera zibilari dagokionez, zati berdinetan banatzen dira ezkongabeak, ezkonduak eta alargunak (%33,33). Etxea eta familia zaintzeaz gain, %50 nekazaritza aritzen ziren. Emakumeen erdiek afiliazio politiko nazionalista zutela dokumentatu da, hiru gutxienez EAJkoak zirelako.

Espetxeratutako gizon eta emakumeen profil soziologiko eta biografikoak kontuan hartu behar den errealitate bat adierazten digu. Tropa matxinoak sartu eta gero gauzatu zen

errepresio penal gehiena herrian zerbitzu administratibo, mediko edo erlijiosoa matxinada militarren aurka egiteko beharra zutenen aurka joan zen, behar hori berezkoa zein berariaz eskatua izanda. Gizon eta emakume horiek garrantzi soziala zuten, ez ziren oso gazteak, baina bere lanbideagatik edo jarduera politikoagatik auzokideen mehatxu-espirituaren jomuga bihurtu ziren. Irain pertsonalak edo familiarrak, estatu berriarekin konpromiso hauskaitza frogatzearen beharra, indarkeria fisikoa eta psikologikoa, mota pertsonaleko norgehiagokak, bizirik irauteko sena, atxikimendu sutua, beldurra edo koldarkeria morala izan ziren 1937-1940 denboraldian egin ziren salaketa askoren arrazoiak. Udaleko erretorea, elizateko alkate berria, Bermeoko Guardia Zibilaren postua eta leialtasun frogatuko auzotarrak izango ziren agintari matxinoen informatzaile edo salatzaile berriak. 1937an informatzaileen deklarazioak esplizituak eta gogorrak ziren auzipetuen aurka, *“Mugimendu Nazionalaren”* aurkakotasuna eta konpromiso politiko *“gorria”* edo *“separatista”* adieraziz; baina poliki-poliki erruiztapenak aldatuz joan ziren. Gerra oroitzen bihurtzen zen neurrian, harreman familiarrek, lagunartekoek eta erlijio-soek nazionalisten eta eskuindarren artean, erkidego katoliko baten parte izateagatik, askotan lagundu zuten orduan informatzaileak zirenak aldeko lekukotzak idatz zituzten. Dena den, Bermeoko Postuko Guardia Zibilak ez zituen lotura familiar eta adiskidetsu horie, beraz, ez zuen inolako arazorik izan auzipetuen aurrekariak eta jokaera politikoa, morala eta pertsonala adierazteko.

Gainera, auzitegi militarrek errepresio ekonomikoa herrian instituzionalizatzen hasi ziren bederatzi zehapen ekonomiko eta desterruko zigorrak ezarri elizateko zenbait auzotarrei 1937ko ekainean. Ez dugu ahaztu behar ikuskatu gabeko beste errepresio ekonomiko bat existitu zela, jadanik lan honetan azaldu diren harpidetza popularrez edo matxinoek egindako bestelako praktikez osatuta zegoena. Errepresio penalera itzuliz, zehapen judicial ekonomikoez eta desterruko zigorrez osatuta zegoena, guztiz ikuskatua geratu zen Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialaren eta Erantzukizun Politikoen Legearen bidez. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalera heldu ziren kasu gutxi dokumentatu diren arren, 1937ko 81. kausagatik kondenatuak izan zirenak aipatu behar ditugu. Dagoeneko aipatu dugu sei auzotar exekutatuak izan zirela kausa honen epaiak ezarritakoaren arabera. Baina familiek euren ondasunekin erantzun behar izan zieten auzitegiak jarritako zehapenei. Senide bat galtzea den zorigaitzaz gain, familiak ekonomikoki jazarriak izan ziren eurek egin ez zituzten gertaeren erantzule bezala eta isunei euren ondasunekin erantzun behar izan zieten, familia burua, eta ondorioz, diru-sarrerak galtzeagatik zorpetuta egon arren. Baina dokumentazio faltagatik ezin dugu errepresio hau aztertu, eta, dudarik gabe, lan honek adierazten duena baino hedatuago zegoen.

Oroitzen historikoko lanek eskuratu zuen garrantzia ematen ez dioten arren, kontuan hartu behar dugu etsai politikoa zigortzea eta administrazioan duen partaidetza garbitzea ez duela ezertarako balio bere gainerako kontrolik ez badago. Dokumentu Zerbitzuen Ordezkaritza Nazionalaren helburua horixe izan zen, etsai politikoa kontrolatzea eta pertsona horien aurrekariak erregimenerako arriskutsuak ziren elementuak jazartzen zituzten auzitegiei ematea. Testuinguru honetan Masoneria eta Komunismoa Erreprimitzeko Auzitegi Berezia sortu zen. Ikerketan zehar ikusi badugu nola 1935eko udal-errolaren %2,85i jurisdikzio militarrek kausaren bat ireki zion, errola bereko auzotarren %4,65 agintari frankistek fitxatuta zituzten armada errepublikanoan parte hartzeagatik, ustezko masonak izateagatik, arrazoi politikoengatik edo lanbideko arrazoiengatik. Fitxa hauetatik, %12,24 bakarrik ziren emakumeei buruz eta %83,33 gizonei buruz; erakunde politiko edo sindikaletan zeuden edo gerran matxinoen aurka armak altxatu

zituzten zibil guztiek “gorri” edo “separatista” bezala zuten aurrekariak erabat kontrolatzea zen proiektuaren ideia.

Gerrako testuinguruan, armada matxinoak aurrera egiten zuen neurrian harrapatzen zituen milaka presoek toki bat behar zuten giltzapetuak, kontrolatuak, sailkatuak eta banatuak izateko. Honi dagokionez, ezin ditugu baztertu kontzentrazio-esparru ugarietatik igaro ziren zibilak eta gerrako presoak. Busturian jaio edo Busturiko auzotar ziren 32 pertsona gutxienez egon ziren kontzentrazio-esparruren batean edo Batzorde Sailkatzaileek sailkatu zituzten. Batzorde Sailkatzaileek preso hauen erantzukizunak zehaztu zituzten Guardia Zibil, erretore, alkate edo JONSetako FETaren tokiko buruzagien informazioen arabera. Preso batzuk armada matxinoan sartu zituzten; beste 14, aldiz, Langileen Batailoietara adskribatuak izan ziren. Erdiesklabotzako baldintzetan lan egin zuten borroka fronteetan, enpresa pribatuetan edo obra publikoen eraikuntzak, eurak baitziren, galtzaileak, estatu berria berreraiki behar zutenak. Gobernu errepublikanoak errekrutatu zituen gazte asko soldadutza osotasunean edo zati batean beteta zuten, baina SLDBak 1939ko Agindu baten arabera eratu ondoren, soldadutza berri egin behar zuten. 1936 eta 1941. urteen arteko deialdien 11 banako batailoi horietara adskribatuta geratu ziren, gerrako berezkoa zen instituzio errepresiboa gerraostean iraun zuena. Dena den, SLDBen modalitate espezifiko bat egon zen, SLZDBak. Batailoi hauetan baldintzapeko askatasunean edo tasen fiskaliak zigortuta zeuden 1936 eta 1942. urteen arteko kintak zeuden, eta Busturiko 2 pertsona topatu ditugu batailoi hauetan. Elikadura, ostatu eta lan baldintzak batailoi hauetan oso eskasak ziren, zigor fisikoa erabatekoa zen eta argi geratzen zen bere izaera zigortzailea.

Tropa matxinoak elizatean sartu zirenean herritarrak mobilizatzen hasi ziren ahalik eta lasterren. Boluntario bezala joan zein bere kintak mobilizatzeari derrigorrez joan, berdin zion, gauza da busturiar asko Armada Nazionalean sartu zirela. Mobilizazio militarraz gain, erregimenak gizarte osoa mobilizatzera jo zuen itxura totalitarioko “uniformatutako” erakundeen menpean, JONSetako FET izan zen bezala, eta emakumeak, haurrak eta gazteak ere izan zituen. Erakunde honi gehitu behar zaizkio Unibertsitateko Sindikatu Espainiarra (SEU) eta Sindikatu bertikala, hau da, langile guztiak hartu zituen Zentral Nazional Sindikalista. Erakunde hauei dagokienez, Emakumearen Gizarte Zerbitzua nabarmendu behar da, tresna honekin erregimenak ezkonduko emakume baten prototipoa sortzen saiatu zelako, etxean eta familian zerbitzatzen aritzen zen emakumea. Azkenik, oroitzapen historikoko lan askok etsaien errepresio fisikoan bakarrik arreta jartzen duten arren, ez da huskeria etsaiek jasan zuten errepresio sinbolikoa eta linguistikoa. Banderak, himnoak, ospakizunak, monumentuak, gurutzeak, agurrak, jantziak, medailak eta eguneroko bizitzaren beste elementu askok hamarkadetan zehar azpimarratu zuten *garaileen* eta *garaituen* arteko desberdintasuna, *haiek* eta *gu*, eta horregatik bakarrik bakan batzuk *martirien* edo *heroien* kategorian sartu ziren, gerrari buruz gaur egunera arte dirauten diskurtso historikoak ezarritik.

AIT.- Asociación Internacional de Trabajadores.
ANV.- Acción Nacionalista Vasca.
BBB.- Bizkai Buru Batzar.
BBTT.- Batallón de Trabajadores.
BDST.- Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores.
BDSTP.- Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores Penados.
BOE.- Boletín Oficial del Estado.
BOJDNE.- Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España.
CC.- Campo de concentración.
CNAE.- Comité Nacional de Ayuda a España.
CNT.- Confederación Nacional del Trabajo.
EAB.- Emakume Abertzale Batza.
EEUU.- Estados Unidos.
EMB.- Euskadi Mendigoizale Batza.
EPR.- Ejército Popular de la República.
FAI.- Federación Anarquista Ibérica.
FET.- Falange Española Tradicionalista.
ICCP.- Inspección de Campos de Concentración de Prisiones.
IR.- Izquierda Republicana.
JCCBD.- Jefatura de Campos de Concentración y Batallones Disciplinarios.
JMI.- Junta Municipal Investigadora.
JONS.- Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista.
MIR.- Movilización, Instrucción y Recuperación.
OIPA.- Oficina de Investigación y de Propaganda Anticomunista.

PC.- Partido Comunista.
PCE.- Partido Comunista de España.
PNV.- Partido Nacionalista Vasco.
PP.- Prisión Provincial.
PS.- Partido Socialista.
PSOE.- Partido Socialista Obrero Español.
SERE.- Servicio de Emigración de Republicanos Españoles.
SEU.- Sindicato Español Universitario.
SOV.- Solidaridad de Obreros Vascos.
SS.- Schutzstaffel
STV.- Solidaridad de Trabajadores Vascos.
UBB.- Uri Buru Batzar.
UGT.- Unión General de Trabajadores.
UR.- Unión Republicana.
URSS.- Unión de Repúblicas Soviéticas.
US.- United States.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZUENAGA ZIGORRAGA, J. (1987): Armada frankistaren sarreran; errepresioa eta heriotzak busturialdean, en C. Garitaonandía eta J. L. de la Granja (arg.): *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ALFORJA, I. eta SIERRA, F. (2006): *Fuerte San Cristóbal. 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*. Iruñea: Pamiela.
- ÁLVARO DUEÑAS, M. (1997): *Por ministerio de la ley y voluntad del caudillo: la jurisdicción especial de responsabilidades políticas (1939-1945)*. Universidad Autónoma de Madrid. Argitaratu gabe.
- ÁLVARO DUEÑAS, M. (1999): Control político y represión económica en el País Vasco durante la guerra civil: la Comisión Provincial de Incautación de Bienes de Vizcaya. *Historia Contemporánea*, 18: 383-403.
- BADIOLA, A. (2011): *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937-1940)*. Donostia: Txertoa.
- BADIOLA, A. (2015): *La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra*. Argitaratu gabe.
- BUSTURIKO UDALA (2015): *Busturiko emakumeen historia*. s.l.: Busturiko Udala.
- CALVO ORTIZ, M. eta FERNÁNDEZ RINCON, J. (2016): “Orue”, la prisión habilitada para mujeres. De la represión al olvido. *Bidebarrieta*, 26: 75-87).
- CASQUETE, J. (2003): From Imaginatio to Visualization: Protest Rituals in the Basque Country. Discussion Paper SP IV 2003-401. Wissenschaftszentrum Berlin für Sozialforschung (WZB).
- CASQUETE, J. (2006): *El poder la calle. Ensayos sobre acción colectiva*. Madril: CEPC.
- CHUECA, J. (2007): *Gurs. El campo vasco*. Tafalla: Txalaparta.
- CUEVAS, T. (2004): *Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas*. Huesca: UNED.
- DE LA CUESTA, J. L.; ETXEBERRIA, F. eta PÉREZ MACHÍO, I. (zuz.) (2010): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra. Hacia la recuperación de su memoria*. Donostia: Emakunde.
- DUOCASTELLA, R. (1967): *Análisis sociológico del catolicismo español*. Barcelona: Nova Terra.

- EGAÑA, I. (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria. 1936-1940*. Tafalla: Txalaparta.
- ESCOBAL, P. (2005): *Las sacas (memorias)*. Madril: Biblioteca del exilio.
- ETXEBERRIA, F. eta PLA, K. (zuz.) (2014): *Fuerte de San Cristóbal en la memoria: De prisión a sanatorio penitenciario*. Iruñea: Pamiela.
- GALLEGO MÉNDEZ, M. T. (1983): *Mujer, Falange y Franquismo*. Madril: Taurus.
- GARCÍA FUNES, J. C. (2014): *Trabajos forzados en el territorio castellano-leónés (1937-1942)*. Espainiako Historia Ekonomikoko Elkartearen XI. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa. Madril: AEHE.
- GEERTZ, C. (1988): *La interpretación de las culturas*. Bartzelona: Gedisa.
- GOIOGANA, I. eta ARRIEN, G. (2006): *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- GÓMEZ CALVO, J. (2014): *Matar, purgar y sanar. La represión franquista en Álava*. Madril: Tecnos.
- GÓMEZ BRAVO, G. eta MARCO, J. (2011): *La obra del miedo*. Bartzelona: Península.
- GONZÁLEZ GOROSARRI, M. (2010): *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos: la cárcel de Santurran y la represión franquista contra las mujeres*. Donostia: Ttartalo.
- HAINBAT EGILE. (1986): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Tafalla: Altzafaylla Kultur Taldea.
- HERRERO ACOSTA, X. eta AYÁN VILA, J. M. (2016): *De las trincheras al museo: sobre el reciente proceso de patrimonialización de la Guerra Civil española en Euskadi*, en I. Urtizberea (koord.): *Lugares de memoria traumática: representaciones museográficas de conflictos políticos y armados*. Bilbo: EHU/UPV.
- IPÍÑA, A. (2014): *La depuración de funcionarios y empleados públicos provinciales y municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista: (1936-1976)*. EHU/UPV. Argitaratu gabe.
- LANDA MONTENEGRO, C. (1998): *Presos vascos en la Euskadi republicana (1936-1937)*, en J. A. Rodríguez Ranz (zuz.): *Espetxean*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- LANDA MONTENEGRO eta GUEZALA, L. (1998): *Presos vascos en las cárceles de Franco (1936-1945)*, en J. A. Rodríguez Ranz (zuz.): *Espetxean*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- LÓPEZ CAMPILLO, E.; POUTET, H. eta RÉMIS, A. (1997): *Una cruzada para una nueva tierra santa ¡Fraternidad, libertad, igualdad!*. *Norba* 14, 14: 137-146.
- MATTHEWS, J. (2013): *Soldados a la fuerza. Reclutamiento obligatorio durante la Guerra Civil. 1936-1939*. Alianza: Madril.
- MEES, L. eta CASQUETE, J. (2012): *Movimientos Sociales, nacionalismo y símbolos*, en S. de Pablo, J. L. de la Granja, L. Mees eta J. Casquete (koord.): *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madril: Tecnos.
- MENDIOLA, F. eta BEAUMONT, E. (2006): *Esclavos del franquismo en el Pirineo. La carretera Igal-Vidángoz-Roncal (1939-1941)*. Tafalla: Txalaparta.
- ORGANERO, A. (2015): *Batallón de pico y pala: cautivos toledanos en Navarra. (Lesaka, 1939-1942)*. Iruñea: Pamiela.
- PAIA, F. (2011): *Busturia bizimodua eta ohiturak*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- PARDO SAN GIL, J. (2008): *Euzkadiko Gudontzidia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)*. Donostia: Untzi Museoa.

- PÉREZ AGOTE, A. (2003): Sociología Histórica del Nacional-Catolicismo español. *Historia Contemporánea*, 26: 207-237.
- PIÑOL, J. M. (1999): *La transición democrática de la Iglesia católica española*. Madril: Trotta.
- PRESTON, P. (2011): *El holocausto español. Odio y exterminio en la Guerra Civil y después*. Madril: Círculo de Lectores.
- PORTILLA, G. (2009): *La consagración del Derecho penal de autor durante el franquismo. El Tribunal Especial para la Represión de la Masonería y el Comunismo*. Granada: Comares.
- REBOLLO MESAS, P. (2001): El Servicio Social de la mujer de Sección Femenina de Falange. Su implantación en el medio rural, en M. A. Ruiz Carnicer eta C. Frías Corredor (koord.): *Nuevas tendencias historiográficas e historial local en España: actas del II Congreso de Historia Local de Aragón*. Huesca: Actas.
- RODRIGO, J. (2005): *Cautivos. Campos de concentración en la España franquista. 1936-1947*. Bartzelona: Crítica.
- SAN SEBASTIÁN, K. (2015): *Basques in the United States*. Nevada: Renoko Unibertsitatea.
- TASIO, A. (2016): *Posguerra en Portugalete*. Bilbo: Autor.
- VELASCO, M. (2012): *Los otros mártires. Las religiones minoritarias desde la Segunda República hasta nuestros días*. Madril: Akal.
- VILLEGAS, J. C. (1989): *Plages d'exil. Les camps de réfugiés espagnols en France, 1939*. Dijon: BDIC.
- ZUBIAGA, E. (2017): *La huella del terror franquista en Bizkaia: jurisdicción militar, políticas de captación y actitudes sociales (1937-1945)*. UPV/EHU. Argitaratu gabe.

ARTXIBOAK

- AAHP.- Arabako Artxibo Historiko Probintziala (Gasteiz, Euskadi).
- AGA.- Administrazioako Artxibo Orokorra (Alcalá de Henares, Madril).
- AGMG.- Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra (Guadalajara, Gaztela-Mantxa).
- AHE-EAH.- Euskadiko Agiritegi Historikoa (Bilbo, Euskadi).
- AHN.- Artxibo Historiko Nazionala (Madril).
- AHPS.- Salamancako Artxibo Historiko Probintziala (Salamanca, Gaztela eta Leon).
- AIMN.- Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra (Ferrol, Galizia).
- ANF.- Ferroleko Itsas Artxiboa (Ferrol, Galizia).
- BEHA-AHEB.- Bizkaiko Elizako Artxibo Historikoa (Derio, Euskadi).
- BFAAH.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa (Bilbo, Euskadi).
- BUA.- Busturiko Udalaren Artxiboa (Busturia, Euskadi).
- BAHP.- Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (Bilbo, Euskadi).
- GAHP.- Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati, Euskadi).
- MHZD.- Memoria Historikoko Zentro Dokumentala (Salamanca, Gaztela eta Leon).

BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

Ahotsak: <https://ahotsak.eus/busturia/>

Ahaztuak 1936-1937: <http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es/>

Basques in Western USA: Amerikanoak: <http://basquesinwestern.blogspot.com.es/>

Euskal Memoria Fundazioa: <http://www.euskalmemoria.eus/es>

Eusko Jauriaritza.- Paz y Convivencia: <http://www.euskadi.eus/web01-s1lehbak/es>

Gogora fundazioa.- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.- <http://www.gogora.euskadi.eus/aa82-home/eu/>

Aberasturi Garmendia, Anastasio: Cecilio Aberasturi Goitia eta Constantina Garmendiaren semea. 1917/04/15ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. EAJ eta UGTko afiliatua. 1935ean bere aita, 6 anai eta osaba batekin bizi zen. Kolpe militarra gertatu zenean *Amboto Mendin* nabigatzen zebilen. Frantziatik itzuli zenean *Cabo Cullerako* tripulatzaile bezala egon zen, Tarragonako kartzela-flotagarria zena, sukaldari gisa. Bere deialdiari deitu eta gero Itsas Infanteria engaiatu zen Torre vieja destino bezala izanik. Gero Errepublikako 83. Brigada Mistoko 2. Batailoira adskribatu zuten. 1938ko otsailaren 9an Teruelen desertatu zuen. Murgiako kontzentrazio-esparrutik igaro zen sailkatua izateko, gero Gasteizko Espetxe Probintzian eta Urduñako Espetxe Zentralean giltzapetuta egon zen, bere aurka aurretiazko eginbideak ireki baitziren baina 1938ko abenduaren 13an itxi ziren. Matxinoekin Infanteriako “San Marcial” 32. Erregimentuan borrokatu zen, “A” bezala sailkatu zutelako azkenean. Arazoak izan zituen justizia frankistarekin bere osaba Anastasio Aberasturi Goitiarekin nahastu zutelako. Euzko Jaurilaritzak bere osaba ordezkotzeko fiskala izendatu zuen.

Aguirre Alegría, José Alberto: Serapio Aguirre Apraiz eta Eustaquia Alegría Ispizuaren semea. 1917/03/16an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politiko nazionalista. 1935ean bere aita, ama eta arreba batekin bizi zen. Uztailaren 18an *Fernando L. Ibarra* itsasontzian zegoen Avilés-erako bidaian. Gero *Iciar* ontzian egon zen bere kinta mobilizatua izan arte, eta *Azkatasuna* batailoian engaiatu zen. Santoñan harrapatu zuten eta matxinoen ondora borrokatzera pasatu zen Flandes 5. batailoian. Gero Nafarroako 4. Dibisioko Ordena eta Poliziako Atalean egon zen 1939ko irailera arte. 1941/09/20ko epai batek desertsio delitu baten behin-behineko artxibatzea erabakitzen du.

Aguirre Gondra, Gonzalo: Dionisio Aguirre eta Leona Gondra Arribalzagaren semea. 1910/01/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere amarekin eta izeko batekin bizi zen. Gudaria *Rebelión de la Sal* batailoian. Otxandioko frontean hil zen 1937ko martxoaren 31n.

Aguirre Landa, Hilario: 1892/04/09an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztea Jacinta Zabala Uriberekin eta seme batekin bizi zen. Preso egon zen kartzela frankistan.

Aizpuru Ugalde, Antonio: Buenaventura Aizpuru eta Carmen Ugalderekin semea. 17 urte. Busturian jaioa. Sukarrietako auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. 1937ko urriaren 27ko epai batek 6 urte eta egun bateko espetxealdi zigorra ezarri zion “matxinada laguntzea” delitu batengatik. Tolosako espetxean eta Burgosko Espetxe Zentralean egon zen. 1940ko uztailaren 14an baldintzapeko askatasuna lortu zuen. 1963an ezkondu zen eta 2008an hil zen (Egizabal eta Serrano, 2017: 252).

Aizpurua Corta, Ramón: 46 urte. Busturian jaioa. Afiliazioa: Ezker Errepublikanoa/PCE. *Batallón Alpino*an borrokatu zen. Argeles sur Mer eta Gurs kontzentrazio-esparruetan egon zen.

Alegría Ispizua, Irene: 1900/10/20an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. 1935ean bere senarrarekin eta alaba Divina Pastora Cearreta Alegríarekin bizi zen. Matxinoek fusilatutako Andrés Cearreta Urrutiaren emaztea. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak bere senarrari ezarri zion zehapena bere ondasunekin ordaindu behar izan zuen.

Alegría Laucirica, Antonio María: Nicolás Alegría Rentería eta Agapita Laucirica Aberasturiren semea. 1915/01/27an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. Afiliazio politikoa nazionalista. 1935ean bere gurasoekin eta bi anarekin bizi zen. Uztailaren 18ko kolpe militarren ondoren, zaintzako zerbitzu armatuak eman zituen herrian. Gero "Itxasalde" batailoian borrokatu zen. Indar matxinoei errenditu zitzaizen Artxandan 1937ko ekainaren 18an. Espainiako kontzentrazio-esparruetatik igaro eta gero, matxinoekin borrokatu zen Burgosko Infanteriako 31. Batailoian, 1937/11/12tik 1938/05/28ra. 1943/10/30eko epai batek desertsio delitu baten artxibatzea erabaki zuen. Bigarren Mundu Gerran *Badalona* petrolio-ontzian zegoen 1941eko abenduaren 13an torpedoz eraso zutenean.

Álvarez Laucirica, María Luisa: Hipólito Álvarez Urrutia eta Faustina Laucirica Apraizen alaba. 1932/10/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Herriko fusilatu baten alaba. Gerraostean jasan zuen gutxiespen soziala kontatzen zuen, bere seme-alabak jasan zuten bera.

Álvarez Urrutia, Hipólito: 1895/08/13an jaio zen. Aretxabaletan jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere emaztea zen Faustina Laucirica Apraizekin eta bere seme-alabekin, Vicente, José María eta María Luisa, bizi zen. Larrinagako Espetxe Probintzian egon zen. 1937/07/19an heriotza zigorrera kondenatu zuten matxinadaren aldekoa izateagatik, arrisku sozialaren larrigarriarekin. 1937/08/05ean Derioko hilerrian exekutatuta zuten. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu zuen eta bere familia erantzun behar izan zuen.

Amunategui Arancua, Sabino: Juan Bautista Amunategui Uriona eta María Arancua Elguezabalen semea. 1910/03/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin bizi zen. Gudaria *Rebelión de la Sal* batailoian. Frankistek Barakaldon harrapatu zuten 1937ko ekainaren 22an. Logroñoako Sailkapen Batzordeak "B" taldean sartu zuen. San Pedro de Cardeñako kontzentrazio-esparrutik 11. SLDBra bidali zuten. 1939ko abuztuaren 8an lizentziatu zen.

Amunategui Bengoechea, Jesusa: Juan C. Amunategui Uriona eta Sebastiana Bengoechea Lezicaren alaba. 1915/01/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. 1935ean bere gurasoekin eta 7 neba-ahizpekin bizi zen. Egoera zibila: ezkongabea. Udalerritik ebakuatua Karrantzan.

Andicoechea Guerequeta, Fidel: Juana Guerequeta Bilbaoren semea. 1898/04/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean bere ama eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Errefuxiatua Katalunian, Euskalduna hotelean. Itsas Karabinoetan egon zen. Espainiako hainbat kontzentrazio-esparruetan egon zen.

Andicoechea Uriarte, José: 1908/09/24an jaio zen. Mungian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkondua. Nekazaria. 1935ean bere emaztearekin eta hiru seme-alabekin bizi zen. Soldadu bezala engeiatu zen Mendiko 2. batailoian.

Apraiz Arróspide, Juan Bautista: 1882/01/12an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin bizi zen. Merkataritza Ontzidiko Kapitain eta Ofizialen Euskal Elkarteko presidenteordea zen, 1936ko uztailaren 18ak Busturian

harrapatu zuen. Gerra garaian Santanderretik ihesean zegoen eskuindar nabarmen bat etxean ezkutatu zuen, eta beste biri babeska eskaini zien. 1937ko irailaren 2an atxilotu zuten baina 20 egun geroago askatu zuten delitu edo falta ez egoteagatik.

Apraiz Elesgaray, Dionisio: Hilarión Apraiz Goiricelaya eta María Elesgaray Apraizen semea. 1916/10/09an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin, bi anai-arreba eta bi osabekin bizi zen. Ziur aski *Larrazabal* batailoian borrokatu zen. 39. SLDBan egon zen. 1941ean soldadu bezala segitu zuen Infanteriako 60. Erregimentuan soldadutza betetzeko.

Apraiz Goiri, Fidel: María Antonia Goiri Garayren semea. 1911/03/23an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Zurgina. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere amarekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Gordexola* batailoian, zulatzaile eta meatzaileen konpainian.

Apraiz Goiri, Gregorio: María Antonia Goiri Garayren semea. 1913/05/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Zurgina. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere amarekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Malato* batailoian.

Apraiz Goiri, María Asunción: María Antonia Goiri Garayren alaba. 1918/10/29an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere ama eta sei neba-ahizpekin bizi zen. Errefuxiatua Berangan (Kantabria).

Apraiz Goiricelaya, Fermín: Claudio Apraiz eta Rosa Goiricelayaren semea. 1872/11/09an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa EAJ. Busturiko Udalaren zinegotzia 1931tik 1937ra. 1935ean bere emaztea Demetria Izaguirre Lartiteguirekin eta zortzi seme-alabekin bizi zen, Leonardo, Honorata, Abelina, Antolín, Gregorio, Heliodora, Antonia eta Juan Apraiz Izaguirre. 1937/07/19ko epai batek bizi arteko espetxe-zigorra, 30 urte, ezarri zion matxinadaren aldekoa izateagatik, desgaitasuna absolutu eta interdikzio zibil-leko zigor osagarriez gain. 1940an baldintzapeko askatasuna lortu zuen, baina ez zuen kondena bete 1947ra arte, lizentziatu zenean, eta Larrinaga, Upo Mendi, Segoviako babes-etxe, Pontevedra eta San Simóneko espetxeetatik igaro zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak ere kondenatu zuen.

Apraiz Izaguirre, Antolín: Fermín Apraiz Goiricelaya eta Demetria Izaguirre Lartiteguiren semea. 1914/06/24an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Zurgina. Afiliazio politikoa EAJ. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zazpi anai-arrebekin bizi zen. 1934an Busturiko Eusko Langileen lehen Elkarteko kidea zen. Euzkadiko Gudarostean borrokatu zen. Karrantzako El Molinar kontzentrazio-esparruan egon zen Santanderren harrapatua izan eta gero. "B" taldean sailkatu ondoren, Lamiakoko langile adituen batailoira bidali zuten. 1937ko azken hiru hilabeteetan Sevillara bidali zuten. (Egizabal eta Serrano, 2017: 319-320).

Apraiz Izaguirre, Heliodora: Fermín Apraiz Goiricelaya eta Demetria Izaguirre Lartiteguiren alaba. 1918/07/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zazpi neba-ahizpekin bizi zen. Errefuxiatua Karrantzan.

Apraiz Monasterio, Juana: 1892/09/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere amarekin, senarrarekin eta lau seme-alabekin bizi zen. Espetxean hil zen Feliciano Cenarruzabeitia Bilbaoren emaztea. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak bere senarra kondenatu zuenean, Juana Apraizek bere ondasunekin erantzun behar izan zuen.

Apraiz Ordorica, Paulino: 1895/12/30ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Errotaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta semearekin bizi zen. Afiliazio politikoa EAJ. Busturiko Udalaren zinegotzia izan zen 1922-1923; 1930; 1933-1937 denboraldietan. Dirudienez Busturiko azken alkatea izan zen tropa matxinoak Bilbon sartu baino lehen. Ziur aski

mugan harrapatu zuten gerrako preso bezala, 5. Eskualdeko Mugen Batzordeak Unamuno kontzentrazio-esparruan (Madril) sartu zuelako.

Apraiz Ugalde, Paulino: Anastasio Apraiz Landa eta María Ugalde Arróspideren semea. 1888/09/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bi anai-arrebekin bizi zen. 1937ko ekainaren 1ean Artxandako frontean hil zuten *Zapadores N.º 2* batailoien gudaria.

Aralucea Aldámiz Echevarría, Manuel María: Antonio Aralucea Aldámiz Echevarría eta Consolación Aldámiz Echevarría Erezumaren semea. 1911/02/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. 1937ko urtarrilean Euzkadiko Osasun Militarreko Bulego Nagusiak mobilizatu zuen ikasle bat zen eta Orozkoko Ospitalera bidali zuten.

Aralucea Urbezaga, Tomás: 1910/12/21ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Zurgina. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin bizi zen. Ziur aski *Rebelión de la Sal* batailoian borrokatu zen. 13. LBan egon zen. 1937ko azaroaren 1ean 13. LBan baja egiten du eta Zulatzaileen 6.B. batailoira pasatu zen.

Aramburu Arrótegui, José Antonio: Antonio Aramburu eta Inés Arróteguiren semea. Bilbon jaioa. Botikaria. Afiliazioa EAJ. Kolpe militarra gertatu baino lehen botikaria zen laborategi batean. 1936ko uztailaren 18aren ondoren, mobilizatu egin zuten eta Farmazia Militarrean destinatu zuten, teniente postuaren asimilazioarekin. Bilbon egon zen Elorrioko Odol Ospitalera bidali zuten arte eta 3 hilabete geroago Cangas de Onísara bidali zuten. Asturiastik Bilbora itzuli zen, 1. Eusko Dibisioan engeiatuta izanik. Kapitain mailarekin Santoñan errenditu zen Farmazia Militarrean bidalia izan ondoren, Limpiasen egoitza zuela. 1938/01/06ko epai batek gerran izan zuen jardueraz absolutu zuen.

Aranguren Bilbao, Bárbara: 1888/12/24an jaio zen. Bilbon jaioa. Busturiko auzotarra Luis Oleaga Garay busturiarrarekin ezkondu ostean. Nekazaria. Egoera zibila: alarguna. Oso gaztea zen alargun geratu zenean; bere senarra 1916an itsasoan hil zen Saguntotik Newportera (Inglaterra) zihoan *Baquo* itsasontzia hondoratu zenean. 1935ean bere hiru seme-alabekin bizi zen. EABko militantea. Tropa matxinoak Busturian sartu ondoren hainbat aldiz espetxeratu zuten Bilboko Espetxe Probintzialean, salatua izan eta gero. Urruchua ahizpekin batera atxilotu zuten eta Larrinagan sartu zuten 1937ko uztailaren 19an. Gerra Kontseiluan, 1937ko urriaren 7an, “matxinada asaldatzeaz” akusatu zuten. 1937ko abenduaren 3an 6 urte eta egun bateko espetxealdi handiko zigorrera kondenatu zuten matxinada militarra asaldatzeagatik, behin-behineko espetxealdian 87 egun egon ondoren. Bere zigorra 1940ko apirilaren 18an berrikusi zuten eta bi urteko espetxealdi txikiagatik konmutatu zioten. Ordurako Larrínaga eta Saturraranekeo espetxeetan egona zen, eta askatasuna lortu zuen 1941eko urtarrilaren 25ean. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu egin zuen (Egizábal eta Serrano, 2017: (252-253).

Arguinzóniz Deprit, Carmen: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Deprit, José Antonio: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Deprit, María Begoña: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Porturas, Juan Antonio: 1863/07/02an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaritza-peritua. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa EAJ. Busturiko Udalaren zinegotzia 1918tik 1923ra. Busturiko alkatea 1933tik 1937ra. Tokiko Defentsa Batzarraren presidentea. Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Urquiza, Anastasia: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Urquiza, Anastasio: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Urquiza, Leonor: 1896/11/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arguinzóniz Urquiza, Natividad: 1907/12/31n jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Arrandiaga Longa, Julián: José Arrandiaga eta Eustasia Longaren semea. 1902/02/17an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. Bi seme zituen. Justizia militarrek auzipetu zuen matxinada militarreko ustezko delitu batengatik. Tabakaleran espetxeratu zuten.

Arriaga Anduiza, Antonio María: 32 urte. Busturian jaioa. Ikaslea. 1936ko uztailaren 24an Madrilén erail zuten teologiako ikasle agustindarra izan zen; *martiri* bihurtu zen 2007ko urriaren 28an beatifikatu ondoren.

Arriaga Bengoechea, Pascuala: 1879/05/17an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Maistra. Egoera zibila: alarguna. Bere karguan berretsi zuten garbiketa txostena ireki ostean. Altamirako nesken eskola nazionalaren maistra.

Arronategui, Cruz: Busturiko auzotarra. Herriko auzotar honi ilea larru-arras moztu zioten eta *mairuen* komunak garbitzera bidali zuten Gernikara.

Arronategui Izaguirre, Pedro: Lázaro Arronategui eta Felicitas Izaguirreren semea. 1910/04/26an jaio zen. Muruetan jaioa. Busturiko auzotarra. Bankuko langilea. Egoera zibila: ezkondua. *Ertzain Igile*tu egon zen. Frantzian erbesteratua, ohiko helbidea eta egoitza Maurrin-en zuen, Akitaniako eskualdeko Landetako departamenduan kokatutako herri eta komuna frantsesa. Gaixotasun batek hil zuen Frantzian.

Arronategui Ateca, Vicenta: 1865/04/05ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: alarguna. 1935ean bere semearekin eta ilobarekin bizi zen. Errefuxiatua Erandion.

Arróspide Achicallende, Cristina: Justa Achicallende Ibarguengoitiaren alaba. 1911/02/18an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Maistra. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta ahizparekin bizi zen. Afiliazio politikoa EAJ. 1940ko otsailean Busturiko Udalak ez zion irakas-ten utzi ezinbesteko baimena ez zuelako.

Arróspide Achicallende, Ireneo Sabino: Catalina Achicallende Arribalzagaren semea. 1916/03/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere amarekin bizi zen. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen.

Arróspide Achicallende, Juan María: Anastasio Arróspide Achicallende eta Balbina Achicallende Achicallenderen semea. 1906/05/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. Kolpe militarra gertatu ondoren zaintza armatuko lanak egin zituen udalerrian uztailaren 20tik irailaren 15era arte. Gudaria izan zen *Simón Bolibarean* eta 1937ko apirilaren 20an *Padura* batailoien sar-jetu izendatu zuen unitateko komandante-buruzagiak. Elizatea ebakatu ondoren bere familiarren berriak bilatzen zituen egunkarien bidez. Herriko desagertutzat jotzen da. Bere ilobak dioenez, agian frontean hil zen zaldi batek jo zuenean (Egizabal eta Serrano, 2017: 232).

Arróspide Omagogeascoa, Rufino: Ángel Arróspide Omagogeascoa eta María Josefa Omagogeascoa Gabicaldecoaren semea. 1900/07/09an jaio zen. Kortezubin jaioa. Busturiko

auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkontdua. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean bere guraso, emazte eta semearekin bizi zen. Gainera, etxe berean bere anaia, honen emaztea eta alaba zeuden. Soldadua izan zen Marokoko gerran. Batzokiaren presidentea izan zen 1934an. Busturiko Udalaren zinegotzia 1933-1937. Matxinoak Gernikan sartu zirenean haiengana heltzen saiatu zen. 1937/07/19ko epai batek 20 urteko aldi baterako espetxealdi zigorrera kondenatu zuen, desgaitasuna absolutuko zigor osagarriarekin batera. 1940ko ekainaren 21ean espetxealdi arinduaren onurak eman zizkieten eta lanaren bidez penak luditzeke programan egon zen. 1941eko maiatzean aske geratu zen, hurrengo espetxeetatik igaro ondoren: Bilboko Espetxe Probintziala, Urduñako Espetxe Zentrala eta San Kristobal gotorlekua.

Arteche Echezuria, María Teresa: Cipriano Arteche eta Ramona Isabel Echezuriaren alaba. 1907/10/17an jaio zen. Busturian jaioa. Miguel Castells Adriaesens-ekin ezkontu zen, Valentzian jaioa. Bere senarra zuen lanbideagatik, jabetza-erregistratzailea, Busturia utzi behar izan zuen eta Teruelera joan zen. Teruelen kolpe militarrek harrapatu zituen, matxinoen aldean. Matxinoek derri gorrez errekrutatu zuten bere senarra. Errepublikanoek Teruel setiatu zutenean bere semea Miguel eta bere alaba Teresarekin zegoen. Teresa tuberkulosia zuen, eta fronteko egoerak hilgarri bihurtu zuen bere gaixotasuna (Egizabal eta Serrano, 2017: 244).

Asla Guerecaechearría, Gregorio: Benigno Asla Elesgaray eta Damiana Guerecaechearría Uzparicharen semea. 1913/08/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Abellaneda* batailoian, *Kolitz*a konpainian; 1937ko maiatzaren 9an hil zen Zornotzako "*Heriotza pinadian*".

Asla Guerecaechearría, Pedro: Benigno Asla Elesgaray eta Damiana Guerecaechearría Uzparicharen semea. Busturian jaioa. Nekazaria. 1933ko uztailaren 29an ezkontu zen Errigoitin. Gudaria *Abellaneda* batailoian; 1937ko urtarrilaren 24an hil zen Mendatan.

Asla Landia, Cecilio: Ezequiel Asla eta Estefana Landia Zarandonaren semea. 1919/12/22an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Etxe berean bere aitona-amonak eta bi izeko zeuden. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen. Frantziako erbestealditik 1940ko abuztuan heldu zen Irundik. Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan egon zen. Hainbat SLDBetan egon zen: 1. zk., 35. zk. eta 42. zk.-an 1942an lizentziatu zen arte. SLDBetan egon zen bitartean hainbat denboraldi igaro zituen ospitalean pneumoniarekin zerikusia zuten gaixotasunengatik, eta arrazoi horrengatik lizentziatu zen 1942an.

Asla Landia, Eugenio: Ezequiel Asla eta Estefana Landia Zarandonaren semea. 1909/09/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Etxe berean bere aitona-amonak eta bi izeko zeuden. Borrokatu zen *Olabarri* batailoian, ANVkoa. Gero *Capitán Casero*ko 2 konpainian egon zen, eta Santo Domingoko borroketan (Artxanda) hil zen 1937ko ekainaren 13an.

Asla Landia, Urbano: Ezequiel Asla eta Estefana Landia Zarandonaren semea. 1915/04/18an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Etxe berean bere aitona-amonak eta bi izeko zeuden. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen. Gero matxinoekin borrokatu zen Ortiz de Zárate Tertzioan 1938ko irailaren 21etik.

Astoreca Bericua, Policarpo: 1891/01/26an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Epaitegiko idazkaria. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere emaztearekin eta bi seme-alabekin bizi zen. Busturiko Tokiko Defentsa Batzordearen presidentea. Busturiko Udaleko Defentsa Batzarreko hornikuntza ordezkaria. Busturiko Udaleko idazkari mereziduna eta Gizarte Laguntzako jantokien administratzailea Bermeon. Busturiko lehen

miliziak antolatu zituen. Ez dirudi konfiantza eragiten zuen pertsona zenik, Bermeoko txosten batek esaten duenez. Busturia ebakuatu zenean Barakaldon bizitzera joan zen; Lutanen egon zen Cementos Aslan lantegiko langileen jantokia kudeatzen. 1937ko ekainaren 12an Maliañora jona zen (Kantabria) 1937ko abuztuaren 26ra arte. 1937ko irailaren 2an Busturira itzuli zen. Busturian agintari matxinoetatik ezkutatuta ibili zen, auzotarren eta familiarren laguntzari esker, 1940ra arte. 1941/06/10eko epai batek behin-behinean bukatu zituen bere kontra zeuden egintzak, behin betiko askatasuna lortuz. Tabakalerako espetxean egon zen.

Atela Asteinsa, Andrés: Busturian jaioa. 1925eko deialdikoa. Gudaria *Simón Bolibarean*.

Azcueta Ispizua, Agustín: Macaria Ispizua Aranaren semea. 1915/06/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere amarekin bizi zen. 1937/05/09an *Garellano* batailoian sartu zen. 105.077 identifikazio-txapa. Baliteke Belgikan hiltzea.

Basterrechea Lamíquiz, Eleuterio: 1905/04/18an jaio zen. Mendatan jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa SOV. 1935ean bere emaztearekin eta bi seme-alabekin bizi zen. 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarren ondoren Udalerako lan egin zuen errefuxiatuen sukaldari bezala. Zaintza armatuko zerbitzuak eman zituen elizatean. Busturia ebakuatu zuen agintari errepublikanoek agindu zutelako eta Zárate anaien biltegietan (Bilbo) lan egiten hasi zen. Bere kinta mobilizatua izan zenean *San Andrés* batailoian engaiatu zen. Eskolapioen espetxean eta Larrinagako Espetxe Probintzian giltzapetuta egon zen. 1938/09/15eko epai batek bere aurka irekitako txostena artxibatu zuen.

Beitia Urriola Ausocoa, Tomás: José Beitia eta Nicolasa Urriolaren semea. 1890/12/21ean jaio zen. Mutrikun jaioa. Busturiko auzotarra. Igeltseroa. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta lau seme-alabekin bizi zen. Agintari matxinoek 1937ko ekainaren 10ean atxilotu zuten. 1.500 pezetako isuna ordaintzera kondenatu zuten "Mugimendu Nazionalaren" kontrako ekintzak egiteagatik. 1937/06/10etik 1937/07/01era Aita Paulen Komentuan giltzapetuta egon zen.

Bilbao Aguirre, Florencio: Ramón Bilbao eta Vicenta Aguirreren semea. 1893/09/22an jaio zen. Bermeon jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere emaztearekin, sei seme-alabekin eta amaginarrebarekin bizi zen. Seme-alabak ziren: Pedro, Miguel, María Rosario, María Jesusa, José R. eta José Antonio Bilbao Cortázar. Larrinagako Espetxe Probintzian egon zen. 1937/07/19an heriotza zigorrera kondenatu zuten matxinadaren aldekoa izateagatik, arrisku sozialaren larrigarriarekin. Derion fusilatu zuten 1937ko abuztuaren 5ean. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu egin zuen.

Bilbao Alegría, Benito: Lorenza Alegría Renteríaren semea. 1907/03/27an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Eskribaua. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin, bi arrebeekin eta koinatu batekin bizi zen. Gudaria *Gordexola* batailoian, 4. konpainian.

Bilbao Altonaga, Dionisio: Eugenio Bilbao Atela eta Eugenia Altonagaren semea. 1913/05/25ean jaio zen. Sukarrietan jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean aitarekin, bost anai-arrebeekin eta bi ilobekin bizi zen. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen.

Bilbao Arriaga, Ángel Remigio: Remigio Bilbao Apraiz eta Teresa Arriaga Enbeitaren semea. 1903/03/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bost anai-arrebeekin bizi zen. Euzkadiko Gudarosteak errekrutatu zuen.

Bilbao Arriaga, Jesús: Remigio Bilbao Apraiz eta Teresa Arriaga Enbeitaren semea. 1916/05/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila:

ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Simón Bolívar* batailoian.

Bilbao Bilbao, Martín Gregorio: Víctor Bilbao eta Isabel Bilbaoren semea. 32 urte. Busturian jaioa. Zornotzako auzotarra. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa EAJ/ELA. Seme bat zuen. ELAko presidentea Zornotzan 1934an. Kolpe militarren ostean zaintza zerbitzuak egin zituen. Agian *San Andrés* batailoian borrokatu zen. Ziur dakiguna da Zornotzako lehen tokiko batzordean egon zela, eta gero herri honetan zinegotzia izan zela. 1940/01/03ko epai batek 12 urte eta egun bateko espetxealdi zigorrera kondenatu zuen, zegozkion zigor osagarriekin. Ordurako 2 urte eta 130 egun zeramatzan behin-behineko espetxealdian. Eskolapioen espetxean eta Larrinagako Espetxe Probintzian egon zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak kondenatu egin zuen.

Bilbao Bilbao, Víctor Martín: Víctor Bilbao eta Isabel Bilbaoren semea. Busturian jaioa. 1927ko deialdikoa. Gudaria *Gogorki* batailoian. Ziur aski *San Andrés* batailoian ere egon zen.

Bilbao Ciarreta, Pedro: Santiago Bilbao eta Josefa Ciarretaren semea. 1907/08/03an jaio zen. Busturian jaioa. Barakaldoko auzotarra. Soldatzailea. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politiko nazionalista. Ziur aski *Euzko Indarra* batailoian borrokatu zen. Ziurtasunez dakigu gudaria izan zela *Olabarri* batailoian eta hil egin zela Legutioko frontean 1936/12/02an. Erantzukizun Politikoen Auzitegia kondenatzen saiatu zen.

Bilbao Expósito, Antonio María: 1900/05/16an jaio zen. Bilbon jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin, bi alabekin eta amaginarrebarekin bizi zen. Larrinagako Espetxe Probintzian egon zen Gerra Kontseilu baten ostean. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu egin zuen.

Bilbao Izaguirre, Esteban: 1906/11/28an jaio zen. Sukarrietan jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzaileko "Bizkaya" bouan egon zen.

Bilbao Jayo, Félix: Bernardina Jayo Abaituaren semea. 1913/10/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. Borrokatu zen *Zabalbide* batailoian eta *Isaac Puente* batailoiko 3. konpainian. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Mexikora erbesteratu zen 1939ko martxoaren 24an.

Bilbao Jayo, Fermín: Bernardina Jayo Abaituaren semea. 1916/06/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Milizianoa Ingeniariaren 2. batailoian.

Bilbao Jayo, Francisco: Bernardina Jayo Abaituaren semea. 1910/11/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. IRko milizianoa.

Bilbao Mendiola, Alejandro: Busturian jaioa. Afiliazio politikoa ELA. 1927ko deialdikoa. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzaileko hurrengo ontzietan egon zen sukaldari bezala: Bizkaya, Císcar, Gipuzkoa eta D-2.

Bilbao Mendiola, Miguel: 1903/09/23an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere emaztearekin, bi semeekin eta aitagarrebarekin bizi zen. 1933ko Udal Batzorde Kudeatzailearen presidente-alkatea izan zen. Gerran borrokatu zen 9. *Zapadores-Minadores* eta *Ibaizabal* batailoietan.

Bilbao Zabala, Antonio: Paula Zabala Echevarriaren semea. 1918/10/06an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Gudaria *Martiaritu* batailoian.

Matxinoei errenditu zitzaien 1937ko ekainaren 20an Barakaldon. Gasteizko Batzorde Sailkatzailean deklaratu ondoren Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura bidali zuten. "Cangas" 20. LBko 3. konpainiara adskribatu zuten.

Bilbao Zabala, Felipe: Paula Zabala Echevarriaren semea. 1924/05/26an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Parte hartu zuen Gerrako Industrian.

Bilbao Zabala, Juan: Busturian jaioa. 1928ko deialdikoa. Ertzaña.

Bilbao Zabala, Pedro: 50 urte. Busturian jaioa. Sukarrietako auzotarra. Merkataria. Egoera zibila: ezkongabea. Ordena Publikoko milizianoa gerra hasi eta gero. 1937/08/02ko epai batek 12 urte eta egun bateko aldi baterako espetxeladi zigorra ezarri zion matxinada delitu batengatik. Ordurako 30 egun zeramatzan behin-behineko espetxealdian. Larrínaga Espetxe Probintzian, Upo Mendi kartzela-flotagarrian eta Burgosko Espetxe Zentralean egon zen. 1940an zigorra berrikusi eta gero hiru urteko espetxealdi txikiko zigorrera murriztu zioten.

Borda Abiña, Francisco Javier: Julián Borda Lejarza eta Justa Abiña Piñuagaren semea. 1916/11/26an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean bere gurasoeekin eta bi anai-arrebeekin bizi zen. Gerra piztean *Cabo Santo Tomé* ontzian zebilen Buenos Airesetik Bartzelonarako bidean, Ingalaterran geldialdia eginez. Nabigatzen ibili zen itsasontzia Afrikako kostaldetik hurbil hondaratu zuten arte. Frantziara heldu zen, baina gero alde errepublikanora itzuli zen. Frontera ez joateko Itsas Karabineroetan sartu zen, teniente mailaren baliokidea lortuz. 1938ko apiriletik uztailera Camprodonen ospitaleratuta egon zen. Tropa nazionalak Bartzelonan sartzeaz zeudenez, Olotera atzera egitea agindu zioten. Francisco ezkutatu zen eta tropa matxinoei aurkeztu zitzaien Bartzelonan. Espainiako kontzentrazio-esparruetan egon zen eta baita baldintzapeko askatasun erregimenean. 1940an bere aurkako kausa artxibatu zen ikertutako ekintzak garrantzi penala ez izateagatik.

Borda Anguisola, Adolfo: María del Carmen Anguisola Guenaren semea. 1896/09/30ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Merkataria. Egoera zibila: ezkongabea. Busturiko Gizarte Laguntzako bulegoeta eskribaua izan zen. Tropa matxinoak Busturian sartu zirenean ia hiru urte eman zituen ezkutatuta *Carolina Etxean*, Axpeko plazatik hurbil (Egizábal eta Serrano, 2017: 362).

Borda Elesgaray, Alipio Horacio: Celestino Borda Lejarza eta Tomasa Elesgaray Arróspideren semea. 1914/08/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Saltzailea. 1935ean bere gurasoeekin eta lau anai-arrebeekin bizi zen. Egoera zibila: ezkongabea. Gudaria *Ixasalde* batailoian.

Borda Elesgaray, Martín: Celestino Borda Lejarza eta Tomasa Elesgaray Arróspideren semea. 1910/11/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Saltzailea. 1935ean bere gurasoeekin eta lau anai-arrebeekin bizi zen. Egoera zibila: ezkongabea. Osasun Militarrean egon zen sarjentu erizain gisa.

Borda Lejarza, Julián: 1871/02/15ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Musikaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta bi seme-alabekin bizi zen. Busturiko udal danbolindaria 1908tik eta elizateko pregoilaria 1932tik. Tropa matxinoak Busturian sartu zirenean Bilbora joan zen. Batzorde Kudeatzaileak 1937ko uztailan danbolindari eta pregoilari postuak amortizatu zituen. Dena den, udal danbolindari bezala jarraitu zuen Udalak onartutako fakturen arabera.

Calzacorta Cafranga, Rita: 1889/05/22an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkondua. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaia bere seme-alabekin batera egiten zuen: Imanol, Delfín, José Mari, Ana Mari eta Miren Begoña Uriaguereca Calzacorta.

Calzada Benguria, Fermín: 1914/09/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa PC/UGT. Milizianoa *México* batailoiko 3. konpainian. Gero Itsasoko Boluntariotzan sartu zen eta 1937ko maiatzean endaimutil bezala zebilen Getxoko Kuartelean. Labezaina izan zen *Bizkaya* bouan eta marinela *D-1* minaketarian.

Calzada Benguria, León: 1910/06/28an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere emaztearekin eta semearekin bizi zen. Milizianoa *Capitán Casero* batailoiko 1. konpainian.

Calzada Ispizua, Doroteo: Antonio Calzada eta Romana Ispizuaren semea. 1898/03/28an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean emaztearekin, hiru seme-alabekin, amarekin eta anaiarekin bizi zen etxe berean. Bere emaztea Leona Ugalde Garay zen. Seme-alabak ziren: Elisa, Laura eta Julen Calzada Ugalde. Busturiko Udalaren zinegotzia 1933-1937. Larrinagako Espetxe Probintzialean egon zen. 1937/07/19an heriotza zigorrera kondenatu zuten matxinadaren aldekoa izateagatik, arrisku sozialaren larrigarriarekin. Derion fusilatu zuten 1937ko abuztuaren 5ean. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak ere auzipetu zuen.

Calzada Ispizua, Eusebia: 1901/05/12an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere senarrarekin eta hiru seme-alabekin bizi zen. Román Cearreta Urrutia fusilatuaren emaztea zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak bere senarrari ezarri zion zehapena bere ondasunekin erantzun zuen.

Calzada Iturri, José María: Eleuterio Calzada Guerecaechearría eta Jacoba Iturri Amunateguiaren semea. 1902/11/08an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin bizi zen. Afiliazio politiko nazionalista. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen.

Cearra Apraiz, Alejandro: Leona Cearra Ispizuaren semea. 1904/11/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Nekazaria. 1935ean bere ama eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Madrilgo Modelo espetxean preso egon zen.

Cearra Landa, Leandro: Juan Bernabé Cearra Elguezábal eta María Martina Landa Aslaren semea. 1894/03/13an jaio zen. Busturian jaioa. María Lejarraga busturiarraekin ezkondua. Maribel Egizábal eta Unai Serranoren arabera Euzko Jaurilaritzako administraria zen. Lehenengo Kataluniara erbesteratu zen Euzko Jaurilaritzako beste kideekin. Bere emaztearekin eta semearekin joan zen. Katalunia erori zenean Frantziako muga zeharkatu zuten. Espainiara itzuli zenean atxilotu zuten, eta Madrilgo Modelo espetxean sartu zuten (Egizábal eta Serrano, 2017: 254). Hala ere, nire ikerketen arabera Marvia baporean joan zen Frantziaraino, Saint Nazaire helmuga zuela, 1937ko abuztuaren 4an, eta gero Chateau Thierry (Aisne, Frantzia).

Lejarreta Urriaga, Manuel: Cándido Legarreta eta Narcisa Urriagaren semea. 1892/03/26an jaio zen. Mallabian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa EAJ. Soldadua izan zen Marokoko gerran. Busturiko Udalaren zinegotzia 1933-1937. 1935ean bere emaztearekin eta hiru seme-alabekin bizi zen. Tropa matxinoak Busturian sartzeaz zeudenean herria ebakuatu zuen. 1937/07/19ko epaiak 12 urte eta egun bateko aldi bateko espetxealdira kondenatu zuen, desgaitasun absolutuko zigor osagarriarekin, matxinadari laguntzeagatik. Larrinagako espetxean, Upo Mendin, Burgosko Espetxe Zentralea eta Oviedoko Espetxe Probintzian egon zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu egin zuen.

Lemona, s.n.: Busturiko errefuxiatua, Frantzia erbesteratua hil zen.

Lequerica Elesgaray, Alejandro: Juan Lequerica Elesgarayren semea. 1910/08/18an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean aitarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Milizianoa izan zen *Capitán Casero* eta *Fulgencio Mateos* batailoietan.

Lequerica Elesgaray, Benito: Juan Lequerica Elesgarayren semea. Busturian jaioa. 1926ko deialdikoa. Euzko Jaurilaritzako txosten batean agertzen da, eta frontean gudaria zelako interesatzen zitzaion (ez dakigu non dagoen).

Lequerica Elesgaray, Félix: Juan Lequerica Elesgarayren semea. 1916/07/16an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean aitarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Gerra piztu zenean merkataritza ontzidian nabigatzen ibili zen. "Axpe Mendi" ontzian zegoen ontziak Euzko Jaurilaritzak ebakuatutako funtsak ontziratzeko agindua jaso zuenean. Lurralde errepublikanora Portboutik itzuli zen, eta bere kinta mobilizatu ondoren 24. Brigada Mistoko 10. batailoira bidali zuten. Pirinioetako, Trempeko eta Segreko fronteetan borroka egin ondoren, tropa matxinoek preso hartu zuten Cubelen. San Pedro de Cardeñako kontzentrazio-esparruan egon zen. 1939ko maiatzaren 19an aske geratu zen.

Lequerica Elesgaray, Ignacio: Juan Lequerica Elesgarayren semea. 1900/04/02an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Bidezaina. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean aitarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Auzotarra borondatez utzi zuen udalerria tropa matxinoak sartu zirenean, Karrantzaraino heldu zen eta 1937ko abuztuaren 26an Busturira itzuli zen. Beranduegi eskatu zuen Bizkaiko Aldundiko langile bezala berriz har zezaten. 1938ko urtarrilaren 25ean zigor bat jarri zioten eta lekuz aldatu zuten eta hamar urtez ezin izango zen mailaz igo. Urduñatik Pancorbora zihoan errepidera lekualdatu zuten 1938ko otsailean, eta han egon zen lanean 1946ra arte gutxienez.

Lezámiz Guerequeta, Víctor: 1900/07/26an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta hiru seme-alabekin bizi zen. 1937ko ekainaren 18an *Pi y Margall* Ingeniarien 9 batailoian sartu zen.

Llantada Uriaguereca, Carmelo: 1906/07/29an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta hiru semeekin bizi zen. Afiliazio politikoa EAJ. Lehen alkateordea izan zen 1933-1937. Alkatetza aldi baterako okupatu zuen Udala Bilbora ebakuatu zenean. Gerran Udalan izan zuen paperaz gain, Tokiko Batzorde eta Batzarrean egon zen hornikuntza arduradun bezala. Aldi baterako alkatetza utzi zuen *Otxandiano* batailoian sartzeko, bere kinta mobilizatu izan zelako. Ziur aski Santanderren harrapatu zuten San Pedro de Cardeñako kontzentrazio-esparruan egon zen. Epai batek 6 hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiko zigorrera kondenatu zuen. Beste epai batek, 1939/04/15ean, gerran izan zuen jarduera zehazteko eta delituren bat zegoen ikusteko egin ziren eginbideak artxibatu zituen. Larrinagako eta Logroñoko Espetxe Probitzialetatik igaro zen.

Llantada Uriaguereca, Cecilia: 1909/04/22an jaio zen. Gernikan jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere senarrarekin eta bi seme-alabekin bizi zen. 1937ko ekainaren 10ean atxilotu zuten. Gasteizko emakumeentzako espetxean giltzapetu zuten (Ama Karmeliten komentuan). Irten egin zen 1.000 pezetako isuna ordaindu ondoren.

Llona Elguezábal, Adolfo: Juan Bautista Llona eta Francisca Elguezábal Aslaren semea. 1914/02/27an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Milizianoa *Fulgencio Mateos* batailoian, 3. konpainian. Santanderreko frontean harrapatua izan ondoren, Duesoko espetxean giltzapetu zuten. 1938ko urtarrilaren 1ean batailo matxino batean sartu zuten, Amerikako 7. batailoian, eta Villafrancara bidali zuten. Unitatetik desertatu zuen eta lurralde errepublikanoan sartu zen Huescatik. Bartzelona errefuxiatu zen, Euskalduna hotelean. Indar errepublikanoetan borrokatu

zela dirudi. Familiak kontaktzen du itsasgizona zela eta Mazarrónen egon zela, eta ito egin zela digestio-etendura baten ondorioz. Gaur egun desagertutzat jotzen da (Egizábal eta Serrano, 2017: 192 eta 237).

Llona Elguezábal, Francisco: Juan Bautista Llona eta Francisca Elguezábal Aslaren semea. 1910/01/22an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Artillatutako *Tramontana* baporean egon zen merkantzia orokorrekin eta Espainiako Bankuaren errearekin bidaiak eginez. 1939ko martxoan Cartagenan atxilotu zuten eta egun batzuk kartzelan eman zituen. Adin militarrean zegoenez *Artea Mendira* bidali zuten sukaldari gisa, eta horrela iraun zuen maiatzaren hasieran Bilbora heldu zen arte. 1943/03/2an epai batek desertzio delitu baten-gatik irekitako kausa behin-behinean artxibatzea erabaki zuen Katalunian zegoenean Filomena Cearreta Cearreta busturiarrarekin ezkondu zen (Egizábal eta Serrano, 2017: 192).

Llona Elguezábal, Guillermo: Juan Bautista Llona eta Francisca Elguezábal Aslaren semea. 1908/02/10ean jaio zen. Arrietan jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Kolpe militarrek Busturian harrapatu zuen, eta bertan geratu zen bere deialdiarekin sukaldari bezala *Cultura y Deporte* batailoian sartu zuten arte. Agintari matxinoek 1937ko abuztuaren 26an harrapatu zuten Santanderren eta Oran eta La Magdalenako kontzentrazio-esparruan sartu zuten. 1939ko martxoan aske utzi zuten. 5. Ospitale Militarrean zerbitzuak eman zituen matxinoekin maiatzean lizentziatu zen arte. 1945ean epaile batek erabaki zuen ez zela sumariarik irekiko ustezko desertzio delitu batengatik.

Llona Elguezábal, Victoriano: Juan Bautista Llona eta Francisca Elguezábal Aslaren semea. 1912/05/21ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa ELA/IR. 1935ean amarekin eta bost anai-arrebekin bizi zen. Artillatutako *Tramontana* baporean egon zen merkantzia orokorrekin eta Espainiako Bankuaren errearekin bidaiak eginez. Orán-era erbesteratu zen Cartagena erortzeaz zegoenean. Agintari frantsesek Gurseko kontzentrazio-esparrura eraman zuten, eta han zortzi hilabete inguru egon zen. 1939ko abenduan aske geratu zen eta pinuak moztzen lan egin zuen 1942ko martxora arte, Espainiara itzuli zenean. Miguel Unamuno kontzentrazio-esparruan sartu zuten 15 egunez. SLDB batean egon zen.

Loiti Albizua, Venancio: Eustaquio Loiti eta Dorotea Albizua Arriscurriñagaren semea. 1892/04/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1937ko ekainaren 10ean atxilotu zuten eta Aita Paulen komentuan giltzapetuta egon zen. Espetxetik irten zen 2.000 pezeta ordaindu eta gero.

Luzarraga Arguinzóniz, Dolores: Navidad Arguinzóniz Urquizaren alaba. Busturian jaioa. Errefuxiatua Karrantzan.

Luzarraga Arguinzóniz, Miren Yayone: Navidad Arguinzóniz Urquizaren alaba. 1932/11/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Errefuxiatua Karrantzan.

Madariaga Foruria, Agustín: Busturian jaioa. 1937ko deialdikoa. 38. SLDBan egon zen.

Martínez González, Ángel: Bilbon jaioa. 1928ko deialdikoa. Milizianoa *México* batailoian.

Mendieta Lezámiz, Julio: José Mendieta eta Clementina Lezamizen semea. 1893/01/31n jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkondua. Sendagilea. Afiliazio politikoa IR. 1917an Medizina eta Kirurgian lizentziatu zen Valladolideko Unibertsitatean. 1922an sendagile bezala aritzen zen Artean, Meñakan, Igorren eta Arantzazun. UPko idazkaria izan zen eta alderdi honen militantea izan zen 1925etik 1930era. 1930ean Busturiko sendagile titularra eta Sukarrietako Eskola-koloniako sendagile izendatu zuten. 1935ean bere emaztearekin eta lau

seme-alabekin bizi zen. Sukarrietako Kolonian gerra garaian ezarri zen Odol Ospitaleaz arduratu zen. 1937ko ekainaren 10ean atxilotu eta Gasteizko espetxera bidali zuten. Karmeliten komentuan eta Aita Paulen komentuan giltzapetuta egon zen. Aske utzi zuten 5.000 pezetako isuna ordaindu ondoren. Sei hilabete egon zen desterratuta Logroñon. Udalak garbiketa txostena ireki zion eta bi hilabetez lana eta soldata kendu zion bere ideia errepublikanoegatik ("*sus ideas republicanas exteriorizadas*"). Informazio batzuk fusilatua hil zela esaten dute, baina hiltzeko arrazoia 1938an izan zuen bizikleta istripu bat izan zela dirudi.

Mendiola Izaguirre, Francisco: María Concepción Izaguirre Orueren semea. 1915/03/22an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere ama eta hiru anai-arrebeekin bizi zen. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen. Ziur aski Euzkadiko Gudarosteko infanterian ere borrokatu zen.

Mendoza Foruria, Eusebio: 1874/08/14an jaio zen. Elgetan jaioa. Busturiko auzotarra. Maisua. Egoera zibila: ezkontua. Afiliazio politiko sozialista. 1918tik 1933ra Altamirako mutilen udal-eskola zuzendu zuen. 1935ean bere emaztearekin eta lau seme-alabekin bizi zen. Busturiko UBiren idazkaria izan zen. 1937ko otsailean Busturiko ordezeko udal-epaile izendatu zuten. Epaia batek 6 hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiko zigorrera kondenatu zuen.

Mintegui Marcaida, Ángel: Juan Bautista Mintegui eta Matea Marcaidaren semea. 1915/08/02an jaio zen. Busturian jaioa. Nekazaria. 1936ko deialdikoa. Gudaria *Gogorki* batailoian. Kantauri itsasoan hartu zuten preso 1937ko urriaren 21ean. Santoñako Sailkapen Batzarrean deklaratu zuen eta bortxazko lanetara kondenatu zuten 78. LBan. Gero 128. LBan egon zen. 1939an lizentziatu zen eta Muruetara bizitzera joan zen.

Mousatere Eguizóniz, Jon: Busturiko errefuxiatua Karrantzan.

Muñoz Lobero, Fidel: 1915/24/04an jaio zen. Cáceresen jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkontua. Afiliazio politiko sozialista. 1935ean bere emaztearekin eta alabarekin bizi zen. Artilleriako erregimentu mistoko 4. bateria arineko kabo apuntatzailea izan zen.

Olano Ugarte, Crispín: Julián Olano Amparan eta María Ugarte Ugaldereen semea. 1916/11/19an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin, amonarekin eta hiru anai-arrebeekin bizi zen. Matxinada militarra nabigatzen zegoenean gertatu zen. Gero merkataritza ontzidian ibili zen. Deustuko kontzentrazio-esparruan egon zen. 14. LBan egon zen, 3. konpainian. 1937ko urrian bere unitatea Quintana de Ranerosera (León) bidali zuten. 1938an Burgosko Errekruta Kutxan sartu zuten, 1937ko deialdi gisa. Horregatik engaiatu zen eta matxinoekin borrokatu zen "Sicilia" Mendiko 8. Batailoian, 1939ko irailetik erabat lizentziatu zen arte 1955ko abuztuan.

Olarra Orbe, Jesús: 25 urte. Busturiko auzotarra. Bermeon hil zen 1937/05/02an obus bat Bermeoko Zoroetxean erori zenean. Ziur aski errepublikanoek zoroetxetik ebakuatu ez zuten gaixo bat zen. Artilleria errepublikanoak zoroetxea bonbardatu zuen Sollubeko batailaren testuinguruan eta jaurtigai honetako batek eragindako metrailako zaurien ondorioz hil zen.

Oleaga Aranguren, Daniel: Luis Oleaga eta Bárbara Aranguren Bilbaoren semea. 1911/01/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. Afiliazio politikoa EAJ/SOV. 1935ean amarekin eta bi anaiekin bizi zen. Kolpe militarrek nabigatzen harrapatu zuen eta horrela jarraitu zuen 1937ko urriaren 8an Bartzelonara heldu arte. Berehala Cartagenara bidali zuten eta Itsas-infanterian sartu zuten, Armategia helmuga zuelarik. *Tramontana* ontzian Cartagenatik ebakuatu zuten eta Oránera iritsi zen. Agintari frantsesek Gurseko kontzentrazio-esparruan sartu zuten. Han 1940ko uztailaren erdialdera arte egon zen, Espainiara itzuli zenean. Espainiara heldu zenean Unamuno eta Reus kontzentrazio-esparruetan sartu zuten. "Aurkako" deklaratu zuten. Algecirasen garnizioa zuen 54. LBan sartu zen. 1941eko ekainean lizentziatu

zen. 1942/04/04ko epai batek urte bateko espetxealdi txikiko zigorra ezarri zuen desertzio delitu batengatik. Hala ere, ez zuen kondena bete gerraostean presoan kopurua murrizteko ezartzen hasi ziren onuraren bat hartu zuelako.

Oleaga Aranguren, Francisco Javier: Luis Oleaga eta Bárbara Aranguren Bilbaoren semea. 1914/12/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. Afiliazio politikoa EAJ/SOV/UGT. 1935ean amarekin eta bi anaiekin bizi zen. Gerrak “Cobetas” ontzian nabigatzen harrapatu zuen eta ontzi horretan geratu zen 1936ko irailera arte. Merkataritza ontzidian ibili zen. Iparraldeko frontea erori zenean lurralde errepublikanora iritsi zen eta Valentzian, Bartzelonan eta Cartagenan egon zen. Armadako edozein zerbitzurako “moldakaitz” deklaratu zutenez, “Cartagenero” hotelean sartu zen sukalde-laguntzaile bezala matxinoak Cartagenan sartu ziren arte. Tropa matxinoak sartu zirenean espetxe militarrean egon zen bi hilabetez Cartagenan. “Zale” deklaratu zuten eta matxinoekin zerbitzatu zuen 1939ko abuztuaren 21ean lizentziatu zen arte. 1941/12/14ko epai batek desertzio militarreko delitu batengatik irekita zuen kausa behin-behinean artxibatu zuen. “Badalona” petrolio-ontzian zegoen torpedoz eraso zutenean 1941/12/13.

Oleaga Aranguren, Juan Manuel: Luis Oleaga eta Bárbara Aranguren Bilbaoren semea. 1916/05/06an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. 1935ean amarekin eta bi anaiekin bizi zen. Gudaria *Ibaizabal* batailoian. Herriko desagertutzat jotzen da. Itsasoan desagertu zen, baliteke Santanderretik ihes egiten saiatzea, han bere unitatea harrapatu baitzuten (Egizábal eta Serrano, 2017: 240).

Oleaga Larrazábal, Honorata: Cipriano Oleaga eta Cecilia Larrazábal Zaballaren alaba. 1909/02/07an jaio zen. Busturian jaioa. Juan Lizaso futbolariarekin ezkondu zen Busturian 1935eko urtarrilaren 23an. Dirudienez nazionalista amorratua zen eta herriko bizitza kulturalen aktiboki parte hartzen zuen. Arrazoiak ez dakizkigu, baina Kanariar Uharteetan, Las Palmasen, deserratuta egon zen 1940. urtearen inguruan. Ez zen 70ko hamarkadara arte itzuli. Berarekin bere senarra joan zen. Kanarietan astero bertaratu behar zuen komisarian (Egizábal eta Serrano, 2017: 385-386).

Orbe Calzada, Pedro: Andrés Orbe Mandiola eta Eusebia Calzada Esquibelen semea. 1908/05/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. Elizateko Batzorde Kudeatzaileko kidea 1933an. Gudaria *Simón Bolibar* batailoian.

Orbe Calzada, Román: Andrés Orbe Mandiola eta Eusebia Calzada Esquibelen semea. 1912/05/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. *Zapadores N.º 2* batailoian egon zen. Argeles sur Mer eta Gurs kontzentrazio-esparruetan egon zen. Gursen Hego Amerikara emigratzeko subsidioei buruz galdetu zuen, bere arreba Rufina Orbe Calzadak Kaliforniatik erreklamatzaren baitzuen. Ez dakigu emigratzea lortu zuen ala ez, baina ziur aski Frantzian hil zen. Gaur egun desagertutzat jotzen da.

Orbe Hormaechea, Abel: Andrés Orbe Mandiola eta Eusebia Calzada Esquibelen semea. 1912/05/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta anai batekin bizi zen. 1937/07/08an hil zen Altamirako elizaren atarian jostailua zelakoan esku-granada bat maneiatu zuenean (“*traumatismos heridas causadas por una bomba de mano*”).

Orbe Hormaechea, Aniceto: Andrés Orbe Mandiola eta Eusebia Calzada Esquibelen semea. 1912/11/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Doitzailea. Afiliazio politikoa sozialista. 1933tik aurrera UGTko metalurgia-sindikatuan Bizkaian. Milizianoa *México* batailoian, 2. konpainian.

Ortiz de la Cruz, José Luis: Manuel de la Cruz Canoren semea. 1914/10/11n jaio zen. Sukarrietan jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere ama, amona eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Soldadua *Morteros* batailoian.

Otazua Iturbe, Fidel: Vicente Otazua Bilbao eta María Iturbe Esturoren semea. 1914/08/15ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bi anai-arrebekin bizi zen. Borrokalaria *Indalecio Prieto* batailoian. Markinan ospitaleratu zuten gerrako zaurien ondorioz. Badirudi Kalifornian hil zela.

Peñín Balbas, Augusto: Maisua. Busturian errefuxiatutako maisua, Gipuzkoatik zetorrena. 1936ko azaroaren 26an Apeko mutilen eskola nazionalaren ordezkotako maisu izendatu zuten. Urtarrilean Euzkadiko Eskola Militarrean sartzeko azterketak egitera aurkeztu zen. Busturian egon zen tropa matxinoak sartu arte. Irakasleria Garbitzeko Batzordeak behin betiko banaketa proposatu zuen, 1939ko maiatzaren 10ean onartu zena. 1941ean kasua berrikusi zen eta bi urtez lana eta soldata kendu zioten, probintziatik kanpo derrigorrez bidali zuten eta kultura- edo irakaskuntza-erakundeetan zuzendaritzako eta konfiantzako karguak hartzeko gaitasungabetu zuten.

Porturas Bilbao, Carmelo: Lorenzo Porturas Ispizua eta Josefa Bilbao Torronteguiaren semea. 1917/07/17an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Euzkadiko Gudarostean borrokatu zen. Matxinoek Laredon preso hartu zuten. Ziur aski kontzentrazio-esparruren batean egongo zen "D" bezala sailkatu arte. 64. LBr pasatu zen 1940an lizentziatu zen arte. Matxinoekin borrokatu zen Mendiko 7. batailoian.

Porturas Bilbao, José: Lorenzo Porturas Ispizua eta Josefa Bilbao Torronteguiaren semea. 1908/07/02an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Malato* batailoian.

Porturas Bilbao, Ricardo: Lorenzo Porturas Ispizua eta Josefa Bilbao Torronteguiaren semea. 1913/02/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Itxasalde* batailoian. 12. SLDBan egon zen Iruritan (Nafarroan).

Recondo Arancua, José: Busturian jaioa. 1927ko deialdikoa. Tokiko Fronte Popularrak kontrolatzen zuen Astigarragako frontean egon zen miliziano bezala, 1936ko abuztutik gutxienez.

Rentería San Nicolás, Benito: Nicasio Rentería Gondra eta Feliciano San Nicolás Garayren semea. 1897/03/03an jaio zen. Busturian jaioa eta Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. Afiliazio politiko nazionalista. 1935ean bere gurasoekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen. Ziur aski borrokatu zen *Zapadores N.º 2* batailoian. 1937/03/08ko epai batek 12 urte eta egun bateko espetxealdi zigorra ezarri zion "matxinada laguntzea" delitu batengatik. San Kristobal eta San Simóneko espetxeetan preso egon zen.

Retana Aurrecoechea, Marcos: Borrokalaria *Enlaces y Transmisiones* batailoian. Gurseko kontzentrazio-esparruan egon zen.

Retolaza Uriarte, Isidro: 31 urte. Busturian jaioa. 1928ko deialdikoa. Ziur aski Euskal Herriko gerran Mobilizatutako Industrietan egon zen. Afiliazio politikoa EAJ/ELA. Frantzia Montolieu Aude, Saint Cyprien eta Gurseko kontzentrazio-esparruetan egon zen.

Rezola Otaduy, José María: 27 urte. Busturiko auzotarra. Afiliazio politikoa EAJ. Osasun Militarrean egon zen Munoako kuartelean.

San Nicolás Arisqueta, Serapio: Marcos Domingo San Nicolás eta Leonarda Arisquetaren semea. 1906/02/26an jaio zen. Busturian jaioa. Gernikako auzotarra. Egoera zibila: ezkongdua. 1927ko deialdikoa. Afiliazio politikoa JSU. Su-armek eragindako zaurien ondorioz hil zen 1936/09/29an Arrate-Eibar frontean.

Santamaría Lecumberri, Rafael Zacarías: Fidel Santamaría Bastos eta Natividad Lecumberri Sagastumberen semea. 1911/06/09an jaio zen. Muruetan jaioa. Busturiko auzotarra. Merkataria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta anaiarekin bizi zen. Gernikan errekrutatu zuten.

Santos Blanco, Sebastián: Francisco Santos eta Justa Blancoren semea. 1895/03/29an jaio zen. Argañinen jaioa (Zamora). Busturiko auzotarra. Maisua. Egoera zibila: ezkongdua. Afiliazio politikoa IR. Altamirako mutilen eskola nazionalaren jabetzako maisua 1934tik. 1935ean bere emaztearekin eta alabarekin bizi zen. Busturiko udalerria ebakuatu zuen tropa matxinoak elizatea konkistatzear zeudenean. Epai batek 1937/08/18an kausa artxibatu zuen, “*hechos delictivos relacionados con la pasada rebelión*”. Irakasleria Garbitzeko Batzordeak Bizkaitik kanpoko eskola batera lekualdatzeko zigorra proposatu zuen, baita eta jaso ez ziren hartzekoak galdu ere. 1939/07/31n kultura- edo irakaskuntza-erakundeetan zuzendaritzako eta konfiantzako karguak hartzeko betirako gaitasungabetu zuten.

Sirvent Cortado, Arturo: Arturo Sirvent eta Carmen Cortado Alamoren semea. 1915/02/02an jaio zen. Madrilen jaioa. Busturiko auzotarra. Aprendiz. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa PV/UGT. 1935ean amarekin eta bi anaiarekin bizi zen. Hildako bezala agertzen da *Guipúzcoa* batailoian Durangoko frontean izandako zaurien ondorioz. Hala ere, dirudienez bizirik atera zen eta matxinoek Bermeo konkistatu zutenean harrapatu zuten. Gasteizen preso egon zen eta San Pedro de Cardenako kontzentrazio-esparruan egon zen. 2. LBan egon zen. 1937ko uztailen frontean lan egiten ari zen desertatzea erabaki zuenean. Lurralde errepublikanora iritsi ostean Errepublikako 70. Brigada Mistoa sartu zen.

Serrano Salas, Pedro María: 1909/01/31n jaio zen. Bermeon jaioa. Tenientea *Azaña* batailoian. Valentzia eta Bartzelonako fronteetan borrokatu zen. Toledoko zezen-plazan giltzapetu zuten (Egizábal eta Serrano, 2017: 261).

Solay Monasterio, Aniceto: Eulogio Solay Bilbao eta Margarita Monasterio Arbazeguiaren semea. Milizianoa *Capitán Casero* batailoian.

Solay Monasterio, Bonifacio: Eulogio Solay Bilbao eta Margarita Monasterio Arbazeguiaren semea. 1915/06/05ean jaio zen. Busturian jaioa. Zurgina. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa: Ezker Errepublikanoa. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. Borrokatu zen *Capitán Casero* batailoian, 1. konpainian.

Solay Monasterio, Juan: Eulogio Solay Bilbao eta Margarita Monasterio Arbazeguiaren semea. 1909/07/11n jaio zen. Busturian jaioa. Zurgina. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. *Garellano Montaña N.º 2* batailoian egon zen.

Sololuce Arana, Lucio: 1911/08/16an jaio zen. Busturian jaioa. Gerra ekintzan desagertu zen Santanderreko frontean.

Torrealday Arana, Lorenzo: Damaso Torrealday Endemañoren semea. 1914/06/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere aitarekin eta sei anai-arrebekin bizi zen. Gudaria “*Itsasalde*” batailoian.

Torrealday Arribazalaga, Eugenio: Busturian jaioa. 21. LBan egon zen, 4. konpainian.

Torrezuri Guezuraga, Tomás: Isidro Torrezuri Garay eta Leona Guezuraga Echevarriaren semea. 1912/06/24an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta hiru anai-arrebekin bizi zen, bera zen txikiena. Kaboa izan zen *Itxasalde* batailoian, 4. konpainian. Urkiolako frontetik Gernikara atzera egiten ari zela *Rebelión de la Sal* batailoiko konpainia baten kapitaina zelarik, zauritu egin zuten. 1937/04/26ko goizean Gernikako Ospitalean hil zen. Hurrengo egunean gorpua ehortzi zuten Busturiko hilerrian.

Torrontegui Oleaga, Agustina: Busturian jaioa. Bilboko auzotarra. Maistra. Afiliazio politiko nazionalista. Haurren espedizio batekin joan zen Ingalaterrara laguntzaile bezala. 1940an itzuli zen “*garrantziko ondasunik gabe*”. Irakasleria garbitzeko txostena ireki zitzaion.

Ucelay Uriarte, José María: 19036/11/01ean jaio zen. Bermeon jaioa. Busturiko auzotarra. Artista-margolaria. Egoera zibila: ezkondua. Margolari bezala ezagunagoa da, baina bera bide, ubide eta portuetako ingeniaria zen. Gerra piztu baino lehen Arabako eta Bizkaiko Obra Publikoen Buruzagi izendatu zuten. Paper garrantzitsua izan zuen udalerrira ura ekartzean, berak Udalari ura garraiatzeko edo errepideak eraikitzeko azterketak ematen baitzizkion. Euzko Jaurilaritza eratu zenean Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorren zuzendari izendatu zuten. Euskal altxor artistikoa-ren ebakuazioan parte hartu zuen. Frantzian eta Ingalaterran erbesteratu zen iparraldeko frontea erori zenean. Erbestealdian lan egin zuen euskal kultura ezagutarazteko *Eresoinka* taldean parte hartuz. 40ko hamarkadaren hasieran erbestealditik itzuli zen Chirapozuko etxera.

Ugalde Garay, Félix: Lorenzo Ugalde Apraiz eta Magdalena Garay Lauciricaren semea. 1913/03/17an jaio zen. Gernikan jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. Tenientea *Itxasalde* batailoian, “Telleria” 3. konpainian. Harrapatu zutenean denboratxo bat pasatu zuen Valentzian, eta 1940an askatasun arindua lortu zuen (Egizábal eta Serrano, 2017: 261).

Ugalde Garay, Leona: 1905/01/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. Doroteo Calzada Ispizua fusilatuaeren emaztea zen eta Erantzukizun Politikoen Auzitegiak ezarritako isuna bere ondasunekin erantzun behar izan zuen.

Ugalde Gondra, Félix: Mariano Ugalde Monasterio eta Bernardina Gondra Cortázaren semea. 1905/11/05ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bi anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Itxasalde* batailoian.

Ugalde Gondra, Matías: Teodoro Ugalde Monasterio eta Francisca Gondra Cortázaren semea. 1912/02/24an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. Milizianoa *México* batailoian, 2. konpainian, 1. atalean, 2. eskuadrán.

Ugalde Gondra, Pedro: Teodoro Ugalde Monasterio eta Francisca Gondra Cortázaren semea. 1914/11/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa ELA. 1935ean bere gurasoekin eta lau anai-arrebekin bizi zen. Kaboa izan zen *San Andrés* batailoian, 4. konpainian.

Ugalde Monasterio, Ángel: Ángel Ugalde Zabala eta Ángela Monasterio Monasterioren semea. 1928/06/23an jaio zen. New Yorken jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bi anai-arrebekin bizi zen. 1937/07/09an hil zen eskuko granada batek eragin zizkion zaurien ondorioz, aurreko egunean lehertu egin baitzen berarekin jolasten zuenean Altamirako elizako atarian.

Ugalde Ormaechea, Enrique: Bernabé Ugalde Arróspide eta Eufemia Ormaechea Bilbaoren semea. 1918/04/18an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. Kolpe militarra nabigatzen harrapatu zuen eta merkataritza ontzidian geratu zen.

1937ko urriaren amaieran lurralde errepublikanora iritsi zen. 1939ko irailaren 14an Espainiara itzuli zen lurrik, Frantzia pinuak moztzen aritu ondoren. San Pedro de Cardeña kontzentrazio-esparruan egon zen. "D" kategorian sailkatu zuten. 13. eta 79. LBetan egon zen. 1944/11/03ko epai batek urte bateko espetxealdi txikiko zigorra ezarri zuen desertzio delitu baten-egatik. Hala ere, ez zuen kondena bete gerraostean presoan kopurua murrizteko ezartzen hasi ziren onuraren bat hartu zuelako.

Ugalde Ugalde, Ignacio María: Melitona Ugalde Achicallenderen semea. 1919/08/15ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkongabea. Itsasgizona. 1935ean amarekin eta bi anarekin bizi zen. 1936ko kolpe militarrek merkataritza ontzidien nabigatzen harrapatu zuen. Egoera honetan 1938ko urtarrilera arte egon zen. Bartzelona bere kinta mobilizatua izan zen eta Itsas-infanteriako 34. Dibisiara sartu zen. Frantzia erbesteratu zen atzera egite orokorra gertatu zenean. Frantziako agintariak Arles sur Tech eta Gurseko kontzentrazio-esparruetan sartu zuten. 1939ko urriaren 4an Espainiara itzuli zenean Magdalena, San Pedro de Cardeña eta Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruetan egon zen. Ferroleko espetxe militarrean ere egon zen, bideratzen ari zen kausaren zioz. 1940/01/25ean bere aurka ireki zen txostena, ustezko desertzio delitu batengatik, amaitu egin zen.

Ugalde Zabala, Pelayo: Leonor Zabala Cearretaren semea. 1903/08/16an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta alabarekin bizi zen. Santoan harrapatu zuten eta herri horretako Presoak Sailkatzeko Batzordean deklaratu zuen. 40. eta 1. LBetan egon zen.

Unamuno Aguirre, José Alberto: 3 urte. Busturian jaioa. Haurra esku-bonba batek Sukarrietan 1937ko ekainaren 8an eragindako zaurien ondorioz hil zen.

Uriaguereca Aralucea, Antonio: 1894/06/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Enplegatua. Egoera zibila: ezkondua. Afiliazio politikoa nazionalista. 1935ean bere emaztearekin eta zortzi seme-alabekin bizi zen. 1936ko uztailaren udaleko ariel-biltzailea, udaltzaina, udal-ehorzlea, iturgina eta lorezaina zen. Elizatetik alde egin zuen tropa matxinoak iritsi baino lehen. Busturiko udalean zituen karguak galdu zituen "eginkizunak uzteagatik". Bartzelonatik Frantziara pasatu zen. Frantzia erbesteratua egon zenean Le Boulou eta Argeles sur Mer kontzentrazio-esparruan sartu zuten.

Uriaguereca Calzacorta, Ana Mari: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren alaba. 1926/06/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zortzi neba-ahizpekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzuekin zegoen.

Uriaguereca Calzacorta, Delfin: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren semea. 1920/12/22an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzuekin zegoen.

Uriaguereca Calzacorta, Elvira: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren alaba. 1912/12/24an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzuekin zegoen.

Uriaguereca Calzacorta, Juan Ignacio: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren semea. 1916/03/07an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Ikaslea. Egoera zibila:

ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Mobilizatua izan baino lehen milizietan zegoen. Gudaria izan zen *Lenago II* batailoian. 1938an ustez Katalunian zegoen, baina helbide ezagunik gabe.

Uriaguereca Calzacorta, Imanol: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren semea. 1922/10/06an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko gizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzukin zegoen.

Uriaguereca Calzacorta, José Mari: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren semea. 1924/07/06an jaio zen. Castro Urdialesen jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko gizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzukin zegoen.

Uriaguereca Calzacorta, Miren Begoña: Juan Uriaguereca Iturri eta Rita Calzacorta Cafrangaren alaba. 1928/02/03an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta zortzi anai-arrebekin bizi zen. Frantziara ebakuatu zen *Kenfig Pool* ontzian 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era joateko (Jura, Frantzia). Bidaian bere ama eta anai-arreba batzukin zegoen.

Uriarte Bilbao, Lorenzo: Teodoro Uriarte Mendizábal eta Francisca Bilbao Garayren semea. Busturian jaioa. 1939ko deialdikoa. LB batean egon zen.

Uriarte Bilbao, Tomás: Teodoro Uriarte Mendizábal eta Francisca Bilbao Garayren semea. 1910/06/13an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Merkataritza-peritua. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta bi anai-arrebekin bizi zen. Gudaria *Lenago II* batailoian. 1937ko uztailan Frantzian erbestera sartu zen. Hala ere, lurralde errepublikanoa sartu zen berriz eta EHAn borrokatu zen. Frantziara bigarren aldiz joan ostean, behin-behinean bizitzen egon zen Iparralden. Frantzian Argeles sur Mer eta Gurseko kontzentrazio-esparruetan egon zen. Espainiara itzultzea erabaki zuen 1942an. Orduan Irunen preso hartu zuten eta Miguel Unamuno kontzentrazio-esparruan sartu zuten. “Ezkutatua” egoteaz akusatu ondoren 1942an 75. SLZDBra bidali zuten, 2. konpainiara. 1945ean lizentziatu zuten eta ondoren Venezuelara emigratu zuen (Egizábal eta Serrano, 2017: 332).

Uriarte Ozámiz, Juan Cruz: 1864/05/03an jaio zen. Kortezubin jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkondua. 1916. urtea baino lehenago Busturiko Udal-zinegotzia izan zen. 1937/04/26an hil zen Gernikako bonbardaketan.

Uriarte Ugalde, Doroteo: Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu egin zuen.

Uribarrena Erezuma, Pedro: Albaitaria. Busturiko udaleko bitarteko albaitaria zen. Herriko albaitari gisa berriz har zezaten eskatu zuen. Ustez Busturiko Udalak txosten garbitzaile bat ireki zuen. Oraindik ez dugu arkitu aipatutako txostena eta dirudienez karguan jarraitu zuen 1942ra arte.

Uribarri Larrucea, Cristina Beatriz: Simón Uribarri eta Segunda Larrucearen alaba. 41 urte. Busturian jaioa. Gernikako auzotarra. Ziur aski gerrarako euskal industrian parte hartu zuen gerra garaian. Ogia legez kontra trafikatzeari atxilotu zuten 1949an. 150 eguneko espetxealdira zigortu zuten. Larrinagako Espetxe Probintzian egon zen.

Uribarri Larrucea, Escolástico: Simón Uribarri eta Segunda Larrucearen semea. Busturian jaioa. Bidebietako auzotarra. Afiliazio politikoa CNT. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen. “Bizkaya”, “Gazteiz” eta “Císcar” bouetan labezain gisa egon zen. 1937ko abenduan Frantziara joan zen, Basko Magescq babes-etxera, Capbretonen.

Uribe Asteinza, Amadeo: Juan Antonio Uribe Undabarrena eta Epifania Asteinza Foruriaren semea. 1912/03/31n jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa EAJ/ELA. 1935ean bere gurasoeekin eta hiru anai-arrebeekin bizi zen. 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarren ostean zaintzako zerbitzu armatuak eman zituen elizatean, eta herriko gudaren “buruzagia”. Irailean Nazioarteko Polizia Militarren kide egin zen teniente mailarekin. *Ertzaña* izango zenaren hasiera zen. ELAk pilotu artillero bezala deitu zion, eta abenduaren 31n “Donostia” bouaren lehen ofizial bezala ontziratu zen. Geroago, Frantzian egonda Bilbao erori eta gero, “Bizkaya” bouaren bigarren ofiziala izan zen eta Santoñara abiatu zen. Santoñan “Gasteiz” bouaren lehen ofiziala izan zen. Santanderren “D-8”-an ontziratu zen minaketarien ontzidiko kapitain bezala. 1937ko abenduan Frantzian babestuta zegoen; La Pallicetik heldu zen. ZehazkiCapbretoneko Basko Magescq babes-etxean zegoen. Lurralde errepublikanora itzuli zen Errepublikako Itsas-armada borrokatzen jarraitzeko. *Tramontana* gurutzaontziko 2. komandatea izan ondoren, komandantea izatera heldu zen. 1939ko maiatzaren 5ean Oránara heldu zen Cartagenatik irten ondoren ontzidiko komisario politikoaren eta itsasontzi baseko nagusiaren ahozko aginduaren ostean. Agintari frantsesek kontzentrazio-esparru batean sartu zuten. Justizia militar frankistak auzipetu zuen baina “*auzi-ihesean*” deklaratu zuten non zegoen ez zekitelako. *Flandre* pakebotean Frantziatik Hego Ameriketara joan zen. Venezuelan ezarri zen eta familia bat osatu zuen.

Uribe Asteinza, Francisco: Juan Antonio Uribe Undabarrena eta Epifania Asteinza Foruriaren semea. 1914/10/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa ELA. 1935ean bere gurasoeekin eta hiru anai-arrebeekin bizi zen. “*Tellería*” 3. konpainiako tenientea *Ixasalde* batailoian. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean zerbitzatu zuen “Iparreko Izarra” eta “José Luis Díez” ontzietan. Argeles sur Mer kontzentrazio-esparruan egon zen. Espainiara itzuli zen. 1940ko ekainean itzuli zenean Miranda de Ebro eta Unamuno kontzentrazio-esparruetan egon zen. “Aurkako” bezala sailkatu ondoren, 169. LBko 2. konpainian sartu zuten. 1951n *Campillo* baporeko tripulataile bezala heldu zen New Yorkera. Han desertatu eta Idahora abiatu zen. Morrison-Knusen kontratistentzat lan egin zuen Mountain Home-tik gertu zegoen presa bat eraikitzen. Gero artzaintzan aritu zen eta 1954an bere egoera legezketzeko izapideekin hasi zen.

Uriona Atela, Félix: Felipe Uriona Calzada eta Emeteria Atela Echevarriaren semea. 1903/02/19an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoeekin eta bost anai-arrebeekin bizi zen.

Urruchua Urizar, Carlota: María Jesús Urizar San Miguelen alaba. 1907/09/10ean jaio zen. Ibarrangelun jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean bere ama, osaba eta hiru neba-ahizpekin bizi zen. 1937/07/19ko epai batek heriotza zigorrera kondenatu zuen “matxinadaren aldekoa” izateagatik. 1937ko uztailan maila batean baxuagoa zen zigorreratik konmutatu zioten, 30 urteko espetxealdikoa, legezko zigor osagarriekin. Larrinagako espetxean, Saturrararen eta Zornotzako Emakumeentzako Espetxe Zentralean egon zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak 2.000 pezeta ordaintzera kondenatu zuen.

Urruchua Urizar, Jesusa: María Jesús Urizar San Miguelen alaba. 1907/09/10ean jaio zen. Ibarrangelun jaioa. Busturiko auzotarra. Etxeko andrea. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa EAJ. 1935ean bere ama, osaba eta hiru neba-ahizpekin bizi zen. 1937/07/19ko epai batek heriotza zigorrera kondenatu zuen “matxinadaren aldekoa” izateagatik. 1937ko uztailan maila batean baxuagoa zen zigorreratik konmutatu zioten, 30 urteko espetxealdikoa, legezko zigor osagarriekin. 1941ean espetxealdi arindua lortu zuen. Larrinagako espetxean, Saturrararen eta Zornotzako Emakumeentzako Espetxe Zentralean egon zen. Erantzukizun Politikoen Auzitegiak 2.000 pezeta ordaintzera kondenatu zuen.

Urruchua Villabeitia, Evaristo: Euzkadiko Gudarostean borrokatu zen harrapatua izan zen arte, gero tropa matxinoekin borrokatzera behartu zuten (Egizabal eta Serrano, 2017: 234).

Urrutia Fradua, José María: Busturian jaioa. 1933ko deialdikoa. Milizianoa *Karl Liebknecht* batailoian.

Velasco Fernández, Miguel: Valentín Velasco eta Pilar Fernández Fernándezen semea. 1910/09/29an jaio zen. Arrigorriagan jaioa. Basauriko auzotarra. 1930eko deialdikoa. Nekazaria. Afiliazio politikoa PC. Artxandako borroketan desagertu zen. Ezkonduta zegoen eta seme bat zuen. Biak Bartzelonara alde egin zuten errefuxiatu gisa.

Zabala Arrien, Serapio: 1906/03/27an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Afiliazio politikoa ELA/IR. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen. Itsasoko boluntarioetan egon zen. Gero morroia izan zen Getxoko Kuartelean. Gerran jarraitu zuen sukaldari bezala *Gipuzkoa* bouan eta D-8 minaketarian. Baliteke Frantziara erbesteratzea. Handik Mexikora emigratu zuen 1939an. Tampicon egon zen (Tamaulipas, Mexiko). 1943an Estatu Batuetako muga zeharkatu zuen El Pason. Senatuak behin betiko egoitza eman zion 1950ean Nevadan urte asko lanean egon eta gero.

Zabala Cearreta, Jacinto: Pedro Zabala Olano eta Clara Cearreta Goiriren semea. 1915/02/09an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zazpi anai-arrebekin bizi zen. Milizianoa *Capitán Casero* batailoian.

Zabala Echevarría, Mariano: Antonio Zabala eta Dolores Echevarriaren semea. 1889/08/08an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkondua. 1935ean bere emaztearekin eta aitaginarrebarekin bizi zen. Seme bat zuen. Busturiko UBlren presidentea izan zen. Agintari matxinoek 1937ko ekainaren 10ean atxilotu zuten eta Karmeliten eta Aita Paulen komentura eraman zuten. Aske geratu zen 1.000 pezeta ordaindu eta gero.

Zabala Madariaga, Eloy: Juan Zabala eta Hilaria Madariagaren semea. Busturian jaioa. 1930eko deialdikoa. Euzkadiko Gudarosteak errekrutatu zuen.

Zabala Madariaga, Francisco: Juan Zabala eta Hilaria Madariagaren semea. Busturian jaioa. 1927ko deialdikoa. Borrokatu zen *Ariztimuño* batailoian. Gurseko kontzentrazio-esparruan egon zen.

Zabala Ugalde, Gregorio: 1895/09/30ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Egoera zibila: ezkondua. Nekazaria. 1935ean bere emaztearekin eta lau seme-alabekin bizi zen. Gidaria izan zen Busturiko Tokiko Defentsa Batzordearen zerbitzura.

Zalbidea Berasategui, Eusebio: Josefa Berasategui Ugaldereen semea. 1916/07/05ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean amarekin eta anai batekin bizi zen. Borrokatu zen *Montaña N.º 2* batailoian.

Zaldúa Retolaza, Benito: Mariano Zaldúa Zaldúa eta Donata Retolaza Atecaren semea. 1917/12/25ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Matxinada militarrek bere Busturiko etxean harrapatu zuen. 1936ko urrian *Rita García*n ontziratu zen zerbitzari bezala. Merkataritza ontzidian nabigatzen ibili zen. Bartzelonara iritsi zenean Itsas Infanteriara bidali zuten. Gero 83. Brigada Mistora bidali zuten eta Extremaduran eta Teruelen borrokatu zen. Teruelen zauritu egin zuten. Eragindako zaurien ondorioz, Armamentuko Idazkaritzaordean lanean hasi zen. Murtzia matxinoen eskuetan erori zenean Benito lantegian atxilotu zuten. Ascoyko kontzentrazio-esparruan egon zen. Busturira heldu zenean gaixorik jarri zen. Hainbat ospitaletik igaro ondoren berriz kontzentrazio-esparru batean sartu zuten. Miranda de Ebron bi hilabete egon zen eta etxera bidali zuten. Ustezko desertzio delitu batengatik matxinoek irekitako kausa bat artxibatu egin zen.

Zaldúa Retolaza, Esteban: Mariano Zaldúa Zaldúa eta Donata Retolaza Atecaren semea. 1916/09/01ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila:

ezkongabea. Afiliazio politikoa ELA. Matxinada militarrek bere Busturiko etxean harrapatu zuen. 1937ko urtarrilean *Josefina* baporean ontziratatu zen. Azarora arte egon zen baporean. Errusian lehorreratu zen eta Errepublikako lurraldera itzuli zen. Bartzelonatik Cartagenara lekualdatu zuten armadan zerbitzua emateko. 1938ko apirilaren 4an Itsas Infanteriako 1. Erregimentuan engaiatu zen. Corberan (Murtzia) borrokatu zen eta Mazarrónen preso hartu zuten. Madriletik igarotzean Stadiumeko kontzentrazio-esparruan sartu zuten. Ustezko desertzio delitu batengatik matxinoek irekitako kausa bat artxibatu egin zen.

Zorrozuá Basterrechea, Francisco: Felipe Zorrozuá Andicoechea eta Simona Basterrechea Basterrechearen semea. 1912/10/10ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bederatzi anai-arrebeekin bizi zen. Osasun Militarreko andaria izan zen Munoako kuartelean. Ziur aski *Ibaizabal* batailoian egon zen. Gerraostean juridikzio militarrek kausa bat ireki zion eta hainbat espetxetatik igaro zen.

Zorrozuá Basterrechea, Gregorio: Felipe Zorrozuá Andicoechea eta Simona Basterrechea Basterrechearen semea. 1917/03/12an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta bederatzi anai-arrebeekin bizi zen. Gudaria *Irrintzi* batailoian.

Zuazúa Izaguirre, Eusebio: Juan Zuazúa Bilbao eta Claudia Izaguirre Basterrechearen semea. 1917/03/05ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zazpi anai-arrebeekin bizi zen. Ziur aski Euzkadiko Gudarostean borrokatu zen. Herriko desagertutzat jotzen da.

Zuazúa Izaguirre, Galo: Juan Zuazúa Bilbao eta Claudia Izaguirre Basterrechearen semea. 1915/10/20an jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Nekazaria. Egoera zibila: ezkongabea. 1935ean bere gurasoekin eta zazpi anai-arrebeekin bizi zen. Gudaria *Rebelión de la Sal* batailoian, 3. konpainian.

Zuazúa Porturas, José: Humberto Zuazúa eta María Porturasen semea. 1915/03/15ean jaio zen. Busturian jaioa. Busturiko auzotarra. Itsasgizona. Egoera zibila: ezkongabea. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean egon zen.

